




Hezkuntza ekimenak 2 Iniciativas educativas

AMARA BERRI SISTEMAREN INGURUAN LOLI ANAUT



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Amara Berri sistemaren inguruan

Loli Anaut

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

ANAUT, Loli

Amara Berri sistemaren inguruan / Loli Anaut. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004

or. ; cm.- (Hezkuntza ekimenak = Iniciativas educativas ; 2)

Badu, gainera, atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz: "Sobre el sistema Amara Berri"

ISBN 84-457-2132-1

1. Hezkuntza-ikasketa programak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Izenburua (gaztelania). IV. Bilduma 371.214

Argitaraldia	1.a, 2004ko ekaina
Ale-kopurua	2.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntzaz, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet	www.euskadi.net
Argitaratzailea	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Egilea	Loli Anaut
Fotokonsosizioa eta inprimaketa	Gráficas Varona
ISBN	84-457-2132-1
Lege gordailua	



*Josep, nire bizitzako lagunari, eskaintzen diot liburu hau.
Beti nirekin dagoelako, baita liburu honetan ere.
Beti nire esparrua errespetatu eta indartu duelako.*

*Orrialde hau ezkutatu dizut, maitasunezko ezuste bat opa nahian.
Liburu hau zure gizatasun eta samurtasunari eskaintzen diot.*

Zure bizi-gogoari, zure zintzotasunari, zure adimenari.



Nor naiz ni?

Nire amak dioenez, eta berak ederki daki, managaitza izan nintzen, jaio nintzen une bere-tik. Forzepsekin atera behar izan ninduten 1939ko irailaren 20an, Irunen, goizeko hamai-
ketan. Amak dioenez, agian momentuko gorabeherak zirela-eta izandako irudipenagatik,
baina ziur asko nire bizitzaren atariko gisa, argi handiko eguna izan zen eta eguzkia ero
moduan zebilela ikusi zuen, berak sortzen zituen itzal amaigabeak suntsitu nahian.

Horixe da nire buruaz dakidana eta, egia esan, ez nau arduratzen gehiago jakiteak.

Nire etxea emozioz egina dago. Bertan bizi da, nik ederki sumatzen dut, edozein anima-
liaren edozein pasio. Ezeren gainetik, askatasuna dut helburu; horregatik ikasi dut barka-
mena eskatzen, eta ordutik argiez eta itzalez gozatzen dut. Sormenak, horrexek betetzen
ditu nire egunak, eta, batzuetan, gauak. Bakardadean indarberritzen naiz. Maite dut, eta
maitatua sentitzeko beharra dut. Nire azalak beste azal baten beroa eskatzen du beti.
Noizean behin, idazteko desioa sentitzen dut, eta nire oinek dantza egiteko beharra dute
oraindik ere.



Aurkibidearen beharraz*

*ARGITARATZAILEAREN OHARRA: Argitaratzaileak, beti adiatsu egialerekin zein irakurlearekin, aurkibide orokor bat erantsi dio liburu honi bukaeran.

Ez dakit aurkibiderik egin beharko nukeen.

Egia esan, ez da lan erraza, oro agertzen delako edonon.

Biraka dabilen eta errepikatu egiten duen errota bezalakoa naiz ni.

Ez da erraza, galderak ez ditudalako nik egin.

Galderak zuenak izan direlako.

Bestetik, badakit, egin, egin daitekeela, baina ez dakit ziur nahi dudan ala ez, bizia preso hartzearen parekoa bailitzateke.

Utz dezagun horrela, den moduan. Saiakera moduan.

Bihotz zahar baina bizi hau zabaltzeko unea iritsi da, lanbide honetan taupadaka aritzez bizirik dagoen bihotza zabaltzeko unea. Nire lagun guztiei; aurkibiderik gabe bada ere, oraindik bilatzen jarraitzeko gai diren pertsona horiei guztiei.



Sarrera

Orri hauek ikastetxeei zuzenduta daude. Edozein irakasmaitetako irakasleei, eta, bereziki eta maitekiro, modu batera edo bestera, zuen ahalegin etengabeari esker, hemen aurkeztuko dudana sistema garatzen eta finkatzen parte hartu duzuen guztioi.

Zein da nire helburua?

- Hezkuntza gai soziala dela gogoraraztea. Gizaki guztioi dagokigula gogora ekartzeari, gizabanako edo edozein kolektibotako kide garen aldetik. Gogoraraztea, halaber, hezkuntzak ez dela bizitzako garai bateko kontua; aitzitik, bizitza osora hedatzen da, eta, beraz, irakaskuntzaz eta hezkuntzaz hitz egitean eskolaren edo ikastetxearen mugez haratago goaz.
- Baieztatzea eskolak "ez duela gizarterako eta etorkizunerako behar den hezkuntza ematen". Eskola bere baitan gizartea dela aldarrikatzen dut, eta ikasleek edozein adinetan berezko bizitza dutela.
- Irakasleok batzuetan sentitzen dugun itomenetik, presiotik (nire kasuan, baita haserretik ere) askatzea. Izan ere, gizarite-porrotak, gizarite-sektoreek euren gain hartu beharko lituzketen hezkuntza-arloko ardurak, eskolaren bizkar uzten dira sistematikoki, ardura horiei nola aurre egin ez dakitelako.
- Irakasle garen aldetik, gizaritearen esparru horretan dagokigun ardura onartzea eta horri gogotsu ekitea: eskolaz ari gara, ikastetxeaz. Batasun bat eta sistema bat dela ohartzea. Hezkuntza-ikuskeraren eta hezkuntza-praktikaren arteko koherentzia bilatzea, taldean. Biziaren eta harremanen kontzeptutik eratorritako gizarite-erabateko esperientzia erabat humanoa bizitzea praktikan, gure garapen pertsonala eta eskola-elkarte osoarena bultzatzeko.



Liburuaren ikuspegia

Elkarrizketan oinarritutako estiloaren alde egin dut, eta Amara Berri eta beste ikastetxe batzuetako topaketa edo bileretan oinarritu naiz, hori baita nire ohiko esparrua.

Hobeto ulertzeko, bereizketa argi utzi nahi dut: batetik, Amara Berri eskola-estiloa da, eta bertako kide gara eta zarete gaur egun erreferente bizi zareten ikastetxe asko. Bestetik, Amara Berri ikastetxe zehatza da, eta hortik hartu du izena sistema honek; batez ere, topalekua eta jatorrizko etxea da, eta bertan historia aurkitu eta jatorriak ezagut ditzakegu.

Diskurtsoa eta edukia Amara Berri ikastetxean eta Amara Berri eskola-estiloan kokatuko ditut, eta bizipenak eta gogoeten sintesi-dokumentuak azalduko ditut. Dokumentu horiek egiteko, elkarlanean dihardugun ikastetxe guztiok parte hartu dugu; batez ere, irakasleek eta zuzendaritza-taldeek.

Helburuak sarreran zehaztu ditut.

Liburu honen edukia edo balioa ez da teoriarik hoberena azaltzea, ezta teoria berri bat aurkeztea ere. Hogeita hamar urteko historia du. Hogeita hamar urteko ikerketa eta talde-lana, teoria eta praktikaren arteko koherentzia bizi eta egiaztatuko duen eskola-elkartea lortzeko. Hain zuzen, hortxe eta horrek dakartzan ondorioetan dago gure ekarpena.

Azken batean, ikastetxearen izana eta jarduera deitzen diodana aurkezten saiatuko naiz. Ikastetxea sistema eta batasuna dela ohartarazten eta ulertarazten. Hortxe aurkituko dugu engranajearen zatiak aztertu edo balioesteko ikuspegia, baita osotasun horren barruan geure funtzioa kokatzeko ikuspegia ere.

Horretarako, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin (IHP) hasiko naiz, hau da, hezkuntza-asmoarekin, eta proiektu hori sostengatzen duten oinarriak azpimarratuko ditut. Ikastetxearen Curriculum Proiektuarekin (ICP) jarraituko dut, asmo horren praktikarekin, alegia, eta hori guztia sortu eta bizirik mantentzen duten antolamendu- eta prestakuntza-egiturez ere jardungo dut. Gai horiek ez ditut atal itxien bidez landuko; aitzitik, bazuk baliagarri izango zaizkit besteetan sakontzeko.



**Ikastetxeko
hezkuntza proiektua**

Goizeko bederatzia dira. Gaian sartu aurretik, hau da, gaurko lehen saioetan hizpide izango dugun Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuari heldu aurretik, hitz batzuk esan nahi nituzke sarrera gisa.

Amara Berrira sarri etortzen dira sistema hau ezagutu nahi duten profesionalak, eta bilera ugari egiten dira haiekin. Aldian-aldian, sistema hau lantzen duten irakasleen topaketak ere egiten dira, sailetako programetan sakontzeko, mintegietako edukiak sistematizatuzeko, etab. Gaur hasiko dugun topaketa hau berezia da, hainbat arrazoi tarteko: taldekideak, topaketaren iraupena, gaiaren anbizio eta konplexutasuna eta gaia garatzeko modua. Amara Berriko taldeko zati bat eta, batez ere, beste ikastetxe batzuetako irakasleak bildu gara. Horietako asko elkarlanean aritu diren zuzendaritza-taldeetako kideak gara. Beste pertsona batzuk ere badira gurekin; horien artean, irakaskuntza-ikuskari bat, unibertsitateko didaktika-saileko hiru irakasle, Euskadiko PAT (Pedagogi Aholkutegia) bateko zuzendaria eta CEP (Centro del Profesorado) bateko beste zuzendari bat. Atsegin hartzen dugu zuek hemen izatea eta ibilbide hau guztia hobeki ezagutu nahi izatea. Hona ekarri gaituena bizipenaren, gogoeta pertsonalaren eta kontrastazio sozialaren ondorio dela esan nahi dizuet. Talde baten emaitza da, elkarrekintzan aritu diren talde askoren emaitza. Eta, nahiz eta gaurko taldea osatzen dugunon artean ez dugun denok jatorri bera –batzuk ildo horretan ari gara lanean eta beste batzuk bestelako jatorria dute zeregin didaktikoan–, guztion interesak norabide baten doaz. Zuek hemen egotea oso aberasgarria izango da topaketa hauetarako, ziur nago, eta, horregatik, galdera, iradokizun eta itaunak egiteko eta gauzak zalantzan jartzeko tartea utziko dut. Izan ere, oraingoan, zuek hala eskatuta, niri dagokit diskurtsoa taxutzera eta galderei erantzutea.

Gaiarekin hasi aurretik, goizaren lehen zatian eskolak ematen ari diren ikasgeletan ibiliko gara, taldeko batzuek ez duzue eskola zuzenean ikusteko hainbeste aukera izan eta. Nolanahi ere, bisita hori taldeko edonorentzat interesgarria izan daitekeelakoan nago.

Bisitaren helburua ez da ibilbide osoa egitea edo arloren batean sakontzea. Geroko lana izango da hori. Nahikoa izango da zentzumenak zabaldu, eta pertzepzio orokorrak edo zehatzak jasotzea, guztion artean horien gainean jarduteko. Azken batean, honen bidez, hau lortu nahi dugu: aurkeztuko den ikuskera ikusitakoarekin erlazionatzeko moduan izatea. Horrek ikuskera bera hobeto ulertzen lagunduko digu.

Dakizuen moduan, Amara Berrik, Ikertze eta Saiatze bidezko Ikastetxe izanik, prestakuntza-plan bat eskaintzen die beste ikastetxeei, eta horretarako "talde aholku-emailea" du. Bilera honetan gure artean izango ditugu taldekideak. Hain zuzen, beraiek antolatu dute ikastetxean zeharreko ibilbidea, eta zuekin izango dira, ziklo bakoitzeko sail edo gelaren bat ikusi ahal izateko. Halaber, bisita horretan ikasleek eskola-orduetan kudeatzen eta

sortzen dituzten jarduera komunak ere ikusiko dituzue; hala nola, eskolako mediateka, irratia, prentsa eta telebista.

Eguerdiko hamabiak dira. Egin duzue bisita. Atsedean apur bat ere hartu duzue, baina, hala ere, ikusten dudanez, gustura eseri zarete.

Esan bezala, ekarpenak jasoko ditugu jarraian. Zer azpimarratuko zenukete? Zer egin zai- zue deigarria ibilbidean zehar?.

– Eguerdiko hamabiak dira. Egin duzue bisita. Atsedean apur bat ere hartu duzue, baina, hala ere, ikusten dudanez, gustura eseri zarete.

“Esan bezala, ekarpenak jasoko ditugu jarraian. Zer azpimarratuko zenukete? Zer egin zai- zue deigarria ibilbidean zehar?”

– Ni giro orokorrak harritu nau. Ikasleen aldetik sumatzen den lan-giroak. Ez dut inor ikusi gogogabe, alferkeriak jota. Bakar-lanak, talde-lanak, kontzentrazio handia behar duten ariketak edo mugitzea eskatzen dutenak egiten zituzten, baina bakoi- tza berean zegoen. Uste dut ez gintuztela ikusi ere egiten.

– Giroari dagokionez, ahots-tonua garrantzitsua zela ikusi dut nik. Gela batean mer- kataritza-jarduera bat lantzen ari ziren, eta zarata handiagoa zegoen; baina gaine- rako geletan oso baxu hitz egiten zuten, bestea molestatu nahiko ez balute bezala. Kontua da irakasleek ere horrela hitz egiten zutela, eta ikasleei banaka edo talde txikitik zuzentzen zitzaizkiela. Kointzidentzia hutsa da ala beti horrela da?

– Irakasleen artean erabat zabaldua dagoen esku hartzeko estrategia da, baina, oina- rrian, errespetu- eta koherentzia-arloko gaia da. Nola hartuko dute ikasleek giro ona sortzeko beharraren kontzientzia nik, irakasleak, ikasle bati dei egiten badiot edo ozen hitz eginez giro hori apurtzen badut?

– Ikusi dudanagatik, ikasmilak oso altua dirudi. Hizkuntza-irakasle naiz, eta benetan deigarri gertatu zait zein ongi eta nolako sormenez idazten duten. Orokorra da, gai- nera. Txikitatik hasita, testu-mota guztiak lantzen dituzte, eta egiten dutena atse- gin zaiela ikusten da.

- Iritzi berekoa naiz ni ere. Niri noizbehinka testuak ematen dizkirate, idazlanak, badakitelako gozatu egiten dudala, indarrez gainezka dauden ikasle eta irakasle horiek ikusten gozaten dudan bezalaxe. Eta beti pentsatzen dut, nahiz eta gero inoiz egin ez, aurreko zikloetako irakasleek, haur-hezkuntzatik hasita, idatzi horiez gozatu egin beharko luketela, horiek baliozkotzen baitute euren lana. Testu horiek, hainbeste urtean miresten dihardugun horiek, ez dira bat-batean sortzen: aurrez zenbait prozesu landu eta oinarri sendoak ezarri behar dira.
- Amara Berrira etorri naizen lehen aldia da, eta ikusi dut irakaslea ez dagoela ikasgelan ikasle-talde batekin, eta ez dizkiela irakasgai guztiak ematen, ezta irakasgai bat osorik ere.
- Ikusten dudanez, harritu egin zaitu, baina hala da. Irakasle bakoitza jarduera bazueta espezializatzen da, eta jarduera horietan, bizitzan bertan gertatzen den bezala, irakasgaiak elkarloturik daude, bat nagusitzen bada ere. Eta ikasle-talde askok egiten dituzte jarduera horiek.
- Badakit jardueratan adin askotako ikasleak nahasten direla, baina bakoitzak lan desberdinak egiten dituzenez, bere unearekin eta adinarekin bat datozenak betiere, adin-nahasketa hori ia ez dut sumatu ere egin kanpotik.
- Nik ezagutzen nuen eskola, baina ikusten dudan bakoitzean antolamendu orokorrak harritzen nau, zeren nahiko ikastetxe handia da eta, hala ere, funtzionatu egiten du. Dena harmonian balego bezala da. Lan koordinatua ikusten da.
- Horixe jakin nahi nuke nik ere: nola lortzen den hori. Topaketa hauetan arituko gara horretaz, oraingoa harrera-saioa da eta. Nolanahi ere, hori bera berriazko asmoe-tako bat da, eta hori da giltzarrietako bat; orobat, asmo horren eta antolamendu-eta prestakuntza-egituren diseinuaren eta funtzionamenduaren artean dagoen koherentzia. Gai horri ere helduko diogu.
- Nik ikasleak zoriontsu ikusi ditut, naturaltasunez, gozatuz. Eta irakaslea oso hurbi-lekoa iruditu zait.
- Niri ia harrigarria egiten zait adin guztietan nabaritzen den autonomia. Nola dabil-tzan eskolako prentsara edo meteorologi zentzora joan-etorrian. Nola arduratzen diren irratia- ren, telebistaren eta mediatekaren funtzionamenduaz eta mantentze-lanaz, irakaslerik aurrean izan gabe ere.

- Espazioaren egitura benetan interesgarria iruditu zait. Ikusi dudanez, girotzeak ez du beharrezko ez den elementurik, eta aseptikoegia iruditzen zait, hotzegia; bestetik, ordea, ikasgelak biziz gainezka daude.
- Ez da esaten diguten lehen aldia. Helduko diogu horri ere.
- Inoiz ez dizuete esan baliabide asko dituzuela?
- Gure artean hitz egin dugu horretaz, eta guztiz kontrakoa esan dezakegu. Gure ikastetxea askoz txikiagoa da eta ia honek adina baliabide ditu; altzari aldetik, berriz, askoz hobe da.
- Bitxia da, zeren bi iritzi horiek ere entzun baititugu behin baino gehiagotan. Uste dut antolamendua bera eta zein ikuspegitatik begiratzen zaion daudela horren oinarrian.

"Behin baino gehiagotan galdetu digute: Ez al dago informatika-gelarik? Ezetz esaten diegu, eta harrituta geratzen dira. Baina ondorengoa ere entzuten dugu: orde-nagailu asko ikusten dira ikasgeletatik pasatzean.

"Ez duzue uste antolamendu- eta ikuspegi-kontua dela? Edo Informatika-eskolak hartzera ikasgela berezi batera joaten gara, edo aplikazio informatikoak hainbat testuingurutan erabiltzen ditugu eskola-orduetan.

"Halaber, egia da, printzipioz, dagoena erabili egiten dela, eta, horregatik, dena ikusteko moduan dago. Ohartzen zarete ehunka ikaslek erabiltzen dituztela baliabide horiek? Ziur asko, horregatik ez zitzaizkien asko irudituko Carmen eta Martari. Altzarietako dagokienez, egia da urteetan bestelako baliabide teknikoak erosteari eman zaiola lehentasuna, baina, nire ustez, altzariak ere gero eta hobeak dira.

"Galdera honetan nahi baino gehiago luzatu naiz, ez baita nire asmoa orain erantzutea. Aurrerago izango dugu egokierarik. Helburua kokatzea izan da. Nondik nora doan ulertzea, hori posible egiten duen funtsa ezagutu nahi izateko.

- Hori ebaluatzen zaila izan behar du benetan. Nola zaintzen duzue bilakaera?

"Ez pentsa, sistematizazio handia dago. Nolanahi ere, funtsezko gaia da, eta curriculumaren hirugarren fasea deitzen diogun horretan garatuko dut.

"Besterik ez baduzue esateko, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari (IHP) helduko diogu.

"Hezkuntza-proiektua, hezkuntza-asmoaren baliokide den arren, normalean asmo hori jasotzen duen dokumentu idatzia izendatzeko erabiltzen dugu. Gure kasuan, labur-labur jasotzen du: garapenetan sartu gabe, hezkuntza-asmoaren eta jarduteko moduaren oinarriak aipatzen dira.

"Eskuan ditudan orri hauek osatzen dute Amara Berriko Hezkuntza Proiektua. (01 dok.)

"Dokumentuaren edukia: hezkuntza-asmoa eta asmo horren oinarriak dira ardatz. Ikastetxearen bizkarrezurra da. Antolamendu-estiloa eta programatzeko, esku hartzeko eta ebaluatzeko estiloa ezartzen ditu.

"Sistema honetan halako garrantzia du, non norberaren eta taldearen garapenerako proiektu bihurtu baita, eskola osoarentzat.



HEZKUNTZA ASMOAREN ETA JARDUTEKO MODUAREN OINARRIAK

SISTEMA-KONTZEPTUA

Liburuaren ikuspegia aurkeztu dudanean eman dut lehen gakoa: ikastetxea, eskola, batasuna dela ohartzea eta ulertzea. Esan dut hor kokatzen garelako perspektibaz ikusteko eta engranaje honen zatiak baloratu ahal izateko, baita osotasun horren barruan guk geuk dugun egitekoa kokatzeko eta egokitzeko ere.

Amara Berrirantz, ikastetxearen batasun eta osotasunaz hitz egitea sistemaz hitz egitea da. Nik neuk, 1979an, Ludwig von Bertalanfy-ren lana ezagutu nuen, eta haren sistemen teoria orokorrak erakarri egin ninduen. Haren lana xehatu nahi izan nuen, ahal nuen neurrian. Ez dakit noraino iritsi nintzen, baina badakit kontzeptuak harrapatu egin ninduela.

Nire ustez, sistema izatea da ikastetxearen ezaugarria, edo, hobeto esateko, ikastetxearen izatea. Zerbaitegatik nahi izan du Amara Berrik, sortu zenetik, kontzeptu horretan sakondu. Hainbesteko grinaz, non urteetan bere ikerketak honako izenburua izan duen: *globalizazioa sistema ireki baten barruko bizi-prozesu gisa*. Oraindik gogoan ditut eztabaida haien aberastasuna eta nahi genuena egiazki adierazten zuen izenburu hori aurkitzeak eman zizkigun lanak.

Gaur egun, hizkuntzaren ekonomia dela eta, Amara Berri Sistema esaten diogu, baina horrekin ez da galdu nahi inondik inora aurreko edukia: globalizazioa, bizi-prozesua, sistema irekia.

Globalizazioaz bizi-prozesu gisa aritzean –beste batzuetan ere aipatuko dut kontzeptu hori– garatzen ari den pertsona jarri nahi dut erdian, pertsona bizia eta bere ingurune kide eta parte den pertsona. Bizitza globala dela esaten dugu, eta eskola, aldi berean, izatea, garatzea eta osotasunean bizitzea ahalbidetuko digun gizarte gisa ulertu behar dela.

Eta sistema dela diogu elementu guztiak (elementu naturalak eta fisikoak, giza elementuak, hezkuntza-asmoa, antolamendu-egitura, bizi-jarduerak, metodologia, baliabideak, jarraipena, ebaluazioa etab.) etengabe elkarrekintzan daudelako, eta horietako bakoitzak sisteman eta elkarrekintzan duen lekuaren arabera soilik hartzen duelako zentzua.

Lan-sistema ere bada, ez da metodoa; diziplinarteko sistema; sistema kontzeptuala; antolatze, planifikatzeko, gogoeta egiteko, aztertze eta erabakiak hartze sistema. Ez dago elementu isolaturik eta estatikorik, eta osotasuna ez da zatien batura; aitzitik, sortzen diren harreman guztiak sartzen dira sisteman.

Ez da amaitua dagoen zerbait. Sistema irekia esaten diogu, bizitza bera bezala, etengabe aldatzeko gai delako, sortzen diren elementu berriak barrutik txertatuz (ez kanpotik batuz), eta, aldi berean, sistema-antolamendua galdu gabe, elkarrekintza berriak sortuz.

Bizitza, osotasun global gisa ulertzen bada ere, modu partzial eta itxian eskain daiteke. Hau da, irakaskuntza jakin batean arreta jarrita, prozesu globaletik isolaturik, lehenago ere irits daiteke emaitzara, baina hor bukatzen da. Aitzitik, aurrerapen globaleko sistema irekia taldean garatzeak beharrezko egiten ditu elementu guztiak, eta bakoitzari denbora jakin bat egokitzen dio. Hemen aurkezten ari naizen sistema irekiak, emaitza zehatz batez haratago, prozesu harmoniko bat ahalbidetzen du; prozesu horretan ez dago arlo nagusirik edo besteen gainetik baloratzen denik: denak batera garatzen dira.

Pedagogia irekia subjektu bizitik gertuago dago, pedagogia itxi, estandarizatuegi eta betiere kuantitatiboak direnak baino.

Ikuskera horrek pertsona eta ikastetxea osotasunetik, bizitzatik, ulertzera garamatza. Inola ere ez modu isolatuan, estatikoan, amaituan eta zatikatuan.

IKASLEEI BURUZKO IKUSKERA

24

Ikasleei buruzko ikuskera esaten diogu, zehazki haiei zuzenduta dagoelako gure lanbidea. Lan egiteko gure lehengai eta materia bizia dira. Baina ikuskera horrek hezkuntza-ekin-tza horretan parte hartzen dugunok ere barne hartzen gaitu; azken batean, pertsona-kontzeptuaz ari baita. Lanbide honetaz ari garelarik, ikasleak aurrez aipatu dugun ardatzean kokatzen ditugu. Gure lanaren ardatzean. Edozein analisi egiten dugula edo edozein erabaki hartzen dugula ere, ez ditugu ikasleak bistatik galdu nahi; aitzitik, ikasleen gara-pena eta, betiere aukera-berdintasunetik abiatutik, beren ona bultzatu nahi dugu, irakas-leen, familien, entitateen eta abarren bestelako interesen gainetik.

Ikasle bakoitza horrela ulertzen eta definitzen dugu:

- Izaki globala.
- Bakoitzak bere interesak eta motibazioak ditu.
- Kontzeptu- eta emozio-eskema zehatz batetik abiatzen da.
- Bakoitzak bere potentziala du.

Izaki globala

Bere baitan sistema bat osatzen du. Ez da izaki isolatua, ezta estatikoa eta amaitua ere. Prozesuan dago. Prozesua da. Eta osotasuna ez da zatien batura: osotasuna elkarrekin-tzan dauden zatiek osatzen dute, eta, hala, barrutik eragiten da haren garapena. Bakoitzak bere prozesua bizi du.

Gizabanakoaren errealtate global horretaz jabetzeak elkarrekin-tzan dauden parteak onartzera garamatza, guk nahi izan ala ez, horietako bakoitzak besteengan eragiten du eta. Horrek eragina du ikastetxearen ikuskeran, irakasleen estiloan, eta programatzeko, esku hartzeko eta ebaluatzeko moduan.

Bakoitzak bere interesak eta motibazioak ditu

Batzuetan esaten dugu: motibatu egin behar da. Baina, egiaz, ikasleak badu bere motiba-zioa. Garrantzitsuena eskola eta jarduera bera ikaslearen interesekin uztartzea eta interes horiek azaleratzeko moduan planteatzea da.

Baina zein dira interes horiek?

Jolasa (02-01 dok). Ez zaio beldurrik izan behar "jolas" hitzari, ikasleek lanari gustua har-tzeko bitarteko bikaina da eta. Hautxoak aske utzi eta haiei begira jarriz gero, jolastu egi-ten direla eta jolasean helduen mundua imitatzen dutela ikusiko dugu. Urte gehiago dituztenei erreparatzen badiegu, berriz, nerabezaroan eta gaztaroan jolasak eta imitazio-ak bestelakoak direla ikusiko dugu, baina horiek ere jolastu egiten dira. Eta terminoak ez gaitzala asalda: pertsona helduak gara (adinaz ari naiz), eta jakintsu, boteretsu, intelek-tual, artista, analista, estratega eta politikoa egiten dugu. Gu geu ere jolastu egiten gara, beraz.

Jolasa ez da gutxietsi behar, ezta edozein denbora-pasarekin nahasi behar ere; izan ere, hizpide dugun jolasa hezkuntza-asmoaren parte da. Ikastetxearen Curriculum Proiektuari heltzean ikusiko dugun moduan, jarduera horietako bakoitza gauzatu eta planifikatze-ra-koan hau jakin behar da: zein gaitasun garatzen eta zein eduki sustatzen laguntzen duen. Ikuskera horretatik, denek hobetze pertsonala eskatzen dute eta denetan dago harreman soziala. Jarduera batzuek harreman soziala berezko dute (adibidez, Merkataritza Sailean, ikasleek erosi edo saldu egiten dute, eta fabrika, biltegi edo banketxeaz arduratzen dira); beste jarduera batzuk, aldiz, indibidualagoak dira, baina beti dute harreman sozialarekin zerikusia duen zertarako bat. Esaterako, ikasle batek irratiz eman duen albistea edo egin nahi duen elkarrizketa. Zalantzarik gabe, hori ere jolasa da. Kasu horretan, ikaslea esata-

ria edo elkarrizketatzailea izango da. Mota horretako jolasek garatzen lagunduko diote, eta hau guztia irakatsiko, besteak beste: jardueraren gakoak ezagutzen, metodoarekin lan egiten, harremanetan jartzen, ardurak bere gain hartzen, erabakiak hartzen, ilusioa izaten eta gogoz lan egiten, etab. Onartzen dut, behin, elkarrizketa bat egiten ari zitzaidan kazetari batekin nengoela, haur horietako batekin trukatzeko gogoia izan nuela, hurrek bada-kitelako gaia bideratzen eta jolasean ari direnean dena ematen dutelako.

Esatari izatea, elkarrizketa bat egitea, salerosketan aritzea, etab. helduen munduaren imitazio dira. Jolas horiek gustuko dituzte, eta euren interesekin uztarturik daude; horregatik jartzen dizkiegu. Baina, ulertuko duzuen moduan, gure helburua ez da helduen mundua imitatzea, ezta gizartea bere horretan birsortzea ere. Errealitate horretatik abiatzen gara, beren interesekin bat egin dezan, baina jakinda esku-hartze egokiak agerian jar ditzakeela heldutzat hartzen den mundu horren kontraesanak eta mugak. Esku-hartze horrek aurrerapausoak eta gogoeta- eta bizi-dinamika dakartza, eta, ondorioz, norberaren eta taldearen garapena.

Kontzeptu- eta emozio-eskema zehatz batetik abiatzen da

Pertsona bakoitzak gauzei buruz dakiena daki; bere kontzeptu-eskema du, besteena ez bezalakoa. Zuk liburu hori esku artean baduzu, eta irakurri eta aztertu egin baduzu, liburuaz dakizuna dakizu. Zeure kontzeptu-eskema duzu. Nik liburuaz zuk kontatutakoa baldin badakit eta beste norbaitek eskuetan izan badu baina izenburua besterik ez badaki, garbi dago bakoitzak liburuaz dakiena dakiela, eta gaian sakondu nahiko bagenu, bakoitza, ezinbestean, bere kontzeptu-eskematik abiatuko litzateke. Dagoen lekutik abiatuko litzateke.

Bakoitza dagoen lekutik abiatzea kontzeptuari dagokiona baino zabalagoa da; izan ere, gizabanako bakoitzak bere emozio-eskema ere badu, bizi izandako historiaren emaitza, pertsonala eta besterenezina.

Bi eskemak estu-estu erlazionaturik daude, eta eskema horiek badirela ohartzea da programatzeko eta esku hartzeko orduan faktore garrantzitsuenetakoa. Curriculuma garatzean sakonduko dugu gaian.

Bakoitzak bere potentziala du

Begien bistakoa da gizabanako bakoitzak bere potentziala duela, hala dirudi, baina batzuetan ahaztu egiten dugu edo ez dugu ikusi nahi izaten. Hala gertatzen da, adibidez, subjektu bizitik urrun dauden sistema itxiekin lan egitean edo uniformetasuna helburu denean.

Jarduteko modu horrek deshumanizaziora garamatza, gizarteko sektore bat baztertzera eta eskola-porrota "ez ikastearen edo ez exijitzearen" emaitza bakarrik dela pentsatzera.

Badakit hemen gaudenok ez garela sistema itxien aldeko eta, gainera, ezagutzen ditugula, eskola eta unibertsitatea "gaingitu" arren, gure ikuspegitik erabateko porrot intelektual eta pertsonaltzat jo ditzakegun pertsonen kasuak.

Gizabanako bakoitzaren potentziala besteen ez bezalakoa dela onartzea, hori ere elementu erabakigarria da programatu, esku hartu, ebaluatu edo ikastetxea ulertzeko.

Hori onartuta, hurrengo urratsa hau da: norberaren mailan eta erritmoan lan egiteko eta norberaren potentziala (edozein delarik ere) bete-betean garatzeko modua ematen duen diseinua egitea. Eta hortik abiatuta, ezin dezakegu eskola-porrotaz hitz egin.

PRINTZPIO METODOLOGIKOAK

Azter dezagun terminoa: printzipioak pentsamendua eta jokabidea zuzentzen duten oinarrizko ideiak dira. Metodologikoa, berriz, metodoari dagokiona da, jokatzeko eta jarduteko moduari dagokiona, alegia. Beraz, printzipio metodologikoak gure hezkuntza-jarduera berariaz zuzentzen duten ideiak eta ikuskera dira. Esan daiteke eskolaren izana bera printzipioek osatzen dutela.

Zein dira printzipio horiek?:

- Indibidualizazioa.
- Sozializazioa.
- Jarduera.
- Sormena.
- Askatasuna.
- Globalizazioa.
- Normalizazioa.

Atzera egingo dut. Sistemaz hitz egitean, izan den errealitate baten gisa aipatu dugu. Kosmosaren eta planetaren ezaugarria da hori, eta, kasu honetan, baita ikastetxearena ere. Sistemaren kontzeptutik abiatuta, ikasleekiko ikuskerari eta ikuskera horren ezaugarriei heldu diegu: izaki globala, motibazioak dituena, kontzeptu- eta emozio-eskema jakin bat daukana eta bere potentziala duena. Gertaera erreal horrek gizabanakoa gure jardueraren erdian jartzera garamatza, bai eta honako printzipio hauek ezartzera ere: indibidualizazioa, sozializazioa, jarduera, sormena, askatasuna, globalizazioa eta normalizazioa. Printzipio horiek gidatu behar dute gure hezkuntza-jarduera, bat datoz pertsona-kontzeptuarekin eta. Hala jasotzen da Hezkuntza Proiektuan: "ikasle bakoitza izaki globala da (globalizazio printzipioa); inguru eta bere burua kokatzeko beharra du (normalizazioa); bizi, sentitu, ezagutu, partekatu, adierazi eta harremanetan jartzeko beharra du (sozializazioa); bere adimena azkartzeko (jarduera) eta aztertzeko eta erabakiak hartzeko (askatasuna) beharra du, dagoeneko eginda dagoena eta jakina dena gaindituz (sormena). Bere interesak ditu. Bere kontzeptu- eta emozio-eskematik eta duen potentzialetik abiatzen da (indibidualizazioa)". Ikasleei buruzko ikuskera eta printzipioak oso estu erlazionaturik daude. la gauza bera dira.

Printzipio horiek ez ditugu asmatu. "Eskola Aktibo"tik hartu ditugu, baliagarri zaizkigulako. Ez da indarrik xahutu behar asmatuta dagoena asmatzen. Hori bai, berrinterpretatu egin ditugu, eta etengabe berrinterpretatze horrek sentiarazten digu printzipio horiek bizirik daudela.

Gure oinarri teorikoaren eta metodologikoaren sostengu diren kontzeptu guztiak bizi-premietatik eta horien gaineko gogoetatik sortzen dira. Bizia ukitzen dute. Hain zuzen, gure berrinterpretazioa bizitik abiatzen da eta bizia bera du helburu. Edozein eskola-jarduera edo eskola-esparrutan, behatu, gogoeta egin eta ikertu egiten dugu. Antolamendu-egituretan ere, ikertu, kontrastatu, aztertu eta berrinterpretatu egiten dugu, taldean betiere, eta, hain zuzen, hor sortzen da eta hor irauten du bizirik ikastetxeko kultur corpusak, apurka-apurka dokumentu idatzietan jasotzen ari garen kultur corpusak.

Gaia atera denez, dokumentu horien gainean zerbait aurreratzeko aprobetxatuko dut. Adibidez, hezkuntza-proiektuko esaldi bakoitza une jakin batean egindako eztabaida bateko gogoetaren baten sintesia da. Horietako bakoitza berrinterpretatu egin daiteke, eta, garatuz, dokumentu idatzi bat sortu edo dagoena eguneratu.

Urtetan, garapen luzeagoak gogorazten zizkiguten dokumentu idatziak sortuz funtzionatu dugu, baina indar handia eman diogu gure eskola-kulturaren ahozko transmisioari. Baina kultur corpusa zabaldu eta sistema honetan inplikaturako jende-kopurua areagotu egin den neurrian, hain bizia den transmisio-bide horrek ere pisua eta ardura sortu ditu; izan ere, ez dago zalantzarik, edukiaren parte bat eta ñabardura ugari bidean galtzen dira.

Eredu hori bazter utzi gabe, idazteko behar handiagoa sortu da, eta dokumentu idatziak aldatu egin dira. Inoiz ez itxiak. Beti berrinterpretatzeko zabalik daude. Bestela, gure ikuskeraren oinarri den sistema irekiaren ideiarekin kontraesanean egongo ginateke.

Printzipio metodologiko bakoitzari buruzko dokumentu idatziak ditugu; baita lehen zirriborrotutako jolasaren kontzeptuari eta aurrerago agertuko diren beste hainbat kontzeptuari buruzkoak ere. Dokumentu horietako asko eta asko liburuaren laugarren kapituluan aurkitu ahal izango dituzue.

Goizeko saio honetan, ikastetxea martxan ikusteko bisita egin dugu, eta IHPren oinarriak ikusi ditugu. Arratsaldeko saioan, berriz, Hezkuntza Proiektuari berari helduko diogu, hau da, hezkuntza-asmoari. Eta orain –berezkotasan handiagoz, hitzaldia oso lotua izan da eta– geratzen zaigun denboran galdera, erantzun, zalantza eta iradokizunetarako tarte zabaldu nahi nuke.

- LHI batean lan egiten dut, eta Amara Berri Sistema ezagutu beharra daukat, hainbat ikastetxek gauzatu egin nahi dute eta. Zuzenean ikusiko dudan lehen aldia da, eta Euskadiko PAT bateko kide bati esan diot burua irakiten daukadala gaur ikusi eta entzun dudan guztiarekin. Horregatik, benetan harritu nau IHPk lauzpabost orri baino ez dituela ikusteak. Posible al da hain leku mugatuan, zuk esan bezala, eskolaren bizkarrezurra biltzea?
- Lehenik eta behin, espero dut irakite horretatik eltzekari ona ateratzea.

"Eta IHPri dagokionez, oso motza iruditu zaizu eta, gainera, ez dakit ohartu zaren, euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dago; beraz, jo ezazu bi edo hiru orri direla, zuk ondo esan bezala, ikastetxea zuzentzen dutenak, eta ez da gehiago behar.

"Bidez batez, nire ustez dokumentuek oso laburrak izan behar dute eta muina baino ez dute jaso behar.

"Irribarre egiten duzue, ezta? Badakit ez dela erraza. Orain beldurtu egiten naiz nik neuk egiten nituen txosten luze haiek ikusita. Gure gaitasuna kilotan neurtzea bezala zen. Baina zenbat eta laburragoa izan dokumentua, ziur asko, hainbat eta gehiago dakigula erakutsiko du, laburbiltzeko gai izan garelako, eta hobeto gorde ahal izango ditugu buruan ideia horiek. Eta buruan badaude, bihotzera pasatuko

dira, eta bihotzetik praktikara, hau da, bizitzan erabiltzera. Horretarako egiten ditugu dokumentu horiek, bestela ez lukete zentzurik izango eta.

- Loli, ikasleekiko ikuskeraz hitz egiten duzunean, beti iruditzen zait gure jardueraren gunea izan behar dutela azpimarratzen duzula, eta niri logika hutsa iruditzen zait. Baina susmoa dut hori esatean zerbait gehiago adierazi nahi diguzula.
- Esan nahi dut edozein irakasle-talde ados jar daitekeela ikasleak eskolaren gunean jartzeko, gure jardueraren gunean, haiengana zuzenduta baitago gure egitekoa. Baina zenbait ikastetxek deitu digute, ez atzera ez aurrera geratu direlako edo gatazka larriak izan dituztelako, eta, analisisa eginda, kontzeptu hori ez zegoela batere garbi ikusi da. Zalantzarik gabe, euren jardueraren ardatz edo gune horretan oso alderdi garrantzitsuak jartzen zituzten; adibidez, ingurumenari lotutako gai bati buruzko proiektu bat, generoaren hizkuntzari buruzkoa, erlijioari buruzkoa, hizkuntza bat garatzeari eta berreskuratzeari buruzkoa, etab. Ikastetxearen jarduera guztia gai horien inguruan antolatu nahi zuten, eta oso zaila da irakasle guztiak (are zailago eskola-elkarte osoa) horretan bat etortzea. Izan ere, pertsonarekin erlaziozko alderdiak diren arren, inoiz ezingo dute pertsona bera ordezkatu edo haren lekua bete. Ez dira hezkuntzaren gune, lortu nahi diren helburuak baizik, oso helburu garrantzitsuak, batzuk gure garapenerako funtsezkoak; baina hortxe kokatu behar dira, helburuen atalean. Horrek gatazka asko ekiditen ditu.
- Eskola-elkartea aipatu duzunean, irakasleez eta ikasleez ari zinen funtsean, ezta? Zail egiten zait ikuskera-gai horietan harantzago irits daitekeela pentsatzea.
- Ikasle, irakasle, familia eta zerbitzuetako langileez ari nintzen. Zerbitzuetako langileak esan dut, eta badakit horrela elkar ulertzen dugula, normalean termino hori erabiltzen baitugu, baina ez nau asebetetzen. Nire ustez, ikastetxeko pertsona guztiak gara edo izan beharko genuke zerbitzuetako langileak, bakoitzak betetzen duen eginkizunetatik abiatuta. Hori esan dudanean atezaindegietan, jantokietan eta abarretan ere gauzatzen diren hezkuntza-funtzioez ari nintzen. Kontuan izango dut galdera hori, eta saio hauetan une egokian emango diot erantzun osatuagoa. Baina zera aurreratzen dut: badira, edo izan beharko lukete, eskola-elkarteko sektore guztientzat antolamendu- eta prestakuntza-egiturak.
- Gutxi gorabehera, printzipio metodologikoak hezkuntza-jarduera berariaz zuzentzen duten ideia gisa definitu dituzu. Aipatu dituzu, eta, ulertu dudanez, aurrerago azalduko dira. Esan dezakezu zerbait horietakoren baten inguruan? Izan ere, ez dakit zenbaterainoko garrantzia duten.

- Noski. Har dezagun aipatu dugun lehenengoa. Indibidualizazioarena zela uste dut. Nahiago duzu beste bat?
- Berdin dit, horixe bera.
- Esan dut printzipioak hezkuntza-jarduera berariaz zuzentzen duten ideiak edo ikus-kera direla, eta printzipio horiek pertsona-kontzeptuarekin bat datozelako aukeratu zirela. Horrez gain, esan dut ez ditugula asmatu, baina berrinterpretatu egiten ditugula, gure kontzeptuetan eta gure jarreretan bizirik iraun dezaten, lan egiteko orduan. Halaber, bizitzako edozein egoeratan aplikatzeko ere balio dute. Printzipio horri ematen diogun interpretaziora gerturutzen saiatuko naiz, baina, esan dizue-dan bezala, laugarren kapituluan duzue dokumentu osoa (01-1 dok.).

Indibidualizazio-printzipioa

Indibidualizazio-printzipioak antolamendu-egitura jakin bat sortzera garamatza, zeinak jarduera jakin batzuk biltzen baititu, pertsona bakoitzari bere mailan eta bere erritmoan, bere gaitasunetatik eta bere egoeratik lan egiteko modua ematen dioten jarduerak, hain zuzen ere.

Guk proposatzen dugun egituran testuinguru batzuk biltzen dira, jolasaren pizgarria jasotzen duten testuinguruak, hain zuzen ere. Jarrera hori ezagutzeko eta garatzeko modu bat da, baina lan hori ongi diseinatu behar da. Ahalegina ere ezinbesteko osagaia da, hala gehiago aurreratuko baitu. Era berean, ikasleak egiteko modukoa izan behar du, eta, horretarako, bere maila, gaitasun, potentzial eta erritmora egokitu behar da gauzatzeko orduan.

- *Oso loturik dago desberdintasunaren eta aniztasunaren kontzeptuarekin:*

Pertsona guztiak desberdinak gara, adin, historia, nortasun, ikasteko modu, potentzial, erritmo eta abarri dagokienez.

- *Gizakia osotasunean aztertzen du:*

Osootasunetik soilik ikus daiteke banakotasuna, banakoaren arrastoa, norberaren nortasuna.

- *Metodologia baten bidez gauzatu da:*

Printzipio honetan planteatu diren ezaugarriak dituen metodologiaren bidez.

- *Banakako esku-hartzea dakar, baina irizpide komunekin:*

Ikuspegi honek irakasleei kontzeptua barneratzea eskatzen die ezinbestean. Eta, hori lortzen denean, gure burua irizpide komunetatik esku hartzera behartzen dugu, betiere gizabanako bakoitzaren, ikasle bakoitzaren, errealitatera egokiturik. Lan egiteko eta esku hartzeko modu horrekin, desagertu egiten da eskola-porrotaren ideia, banakotasunetik bertatik benetako aurrerapausoa ematen da eta.

- *Banakako jarraipen edo ebaluazioa eskatzen du:*

Ikasleak eta familiak estandarrekin zerikusirik ez duen analisi-esparruan sartzen ditu irakasleak. Esparru horretan, taldea dagoeneko ez da hurbileko erreferentzia-taldea. Banakoaren potentzian eta norberaren nortasunean oinarrituriko ikuspegia eskatzen du.

32

Indibidualizazio-printzipio hori edozein gizabanakori aplika diezaiokegu, baina, gure kasuan, bereziki irakasleei. Zergatik diodan hori? Nik neuk kontzeptua barneratuta nuela uste izan dut, eta, hala ere, agian nire izaera oldartsu eta grinatsuagatik, kostatu egin zait onartzea ideia bat, bikaina iruditzen zaizun ekimen bat, azalduta ere, ez zaiola talde osoari une horretan bertan iristen, beste pertsona baten ideia nigana iristen ez den moduan. Batzuek urteak behar dituzte zerbait berenganatzeko, eta beste batzuek minutu batzuetan lortzen dute. Esaten ari naizena begien bistakoa irudituko zaizue, baina niri izugarri kostatu zitzaidan horretaz ohartzea, eta, onartzen dut, erabiltzeko orduan oraindik ere ikasten ari naiz: pertsona bakoitza egon daitekeen lekuan dago, eta una iristen zaionean bereganatuko du. Ideia hori benetan barneratzen eta onartzen badugu eta irakasle, ikasle eta familiekin erabiltzen badugu, bakea ematen digu; izan ere, jardutearen gainetik, izatea bera jartzen dugu.

Nire iritziz, banakotasuna pertsonen, taldeen, herrien eta abarren nortasunari loturik dago. Nor egon daiteke horren kontra? Baina, hala ere, praktikan kontraesan ugari ikusten dira. Adibidez: eman dezagun eskola batean "etxerako-lanak" onartzen direla; irakasleak ikasgelako ikasle guztiei ariketa berak ematen badizkie, ordea, kontuan izan al ditu bakoitzaren beharrak? Beste adibide bat: ikastetxe guztiak modu berean ebaluatzen badira edo kanpaina eta proiektu berberetan sartzera bultzatu nahi bazaie, non dago euren nortasunarekiko errespetua? Non dago ikastetxeak bizi duen une zehatzarekiko eta bere historia eta jatorriarekiko errespetua?

Nire ustez, horiek dira printzipio horri buruzko gure gogoetaren giltzarriak. Ikusten duzen moduan, kontzientziatu egiten gaitu, eta jarduteko eta gure egitekoa betetzeko modu jakin batera garamatza. Beste printzipioak errepasatzen ditugunean, ideia batzuk errepikatatu egiten direla ikusiko duzue, edo batzuk besteetan oinarritzen direla; izan ere, beti gizabanakoaren inguruan dabiltza. Baina, dena den, bakoitzak ñabardura eta ikuspuntu desberdinak ematen ditu.

Agian hemen azaldu behar nuke sozionalizazio-printzipioa, kontrapuntu gisa; hau da, bi ezaugarri, elkarren artean kontrajarriak eta aldi berean ezin banatuzkoak, bat egiten dutela gizabanakoarengan: banakotasunak eta soziala denak.

Ikasleei aplikaturik, printzipio hori saio guztietan agertuko da: ezaugarri metodologikoe-tan, curriculumean, etab. Horregatik, agian, aski da dokumentua hartu eta bertan ager-tzen diren gakoak irakurtzearekin. Irakurtzean, bereziki irakasleei aplikatzen saia gaitezen nahiko nuke, koherentziaren kontu hori dela eta. Nola nahi dut ikasleek taldean lan egi-tea, nik ez badakit edo ez badut nahi taldean lan egin?

Sozializazio-printzipioa (01-2 dok.)

Izaki sozial izatera eta hala jokatzera (eta ez taldearen menpeko, indibidualista, mendera-tzaile, parasito eta abarren moduan) garamatza ikuskera da.

- *Sozializazioak elkarrekintza dakar:*

Elkarrekintza besteekin jardutea da. Eman eta jasotzea. Elkarrekin sortzea .

Nahita sortu dugun antolamendu-egiturak ikasleei elkarreragitea ahalbidetzen die, askotariko testuinguru eta taldekatzeen bidez, eta, horrela, talde-lanaren balioa bizi, garatu eta ezagutuko dute. Egitura hori norberaren lana jarrera irekiarekin ematean datza, beste pertsona batek hobeto egin dezakeela onartzen ikasiz. Beste pertsonen ekarkortasuna jasotzen eta ezagutzen jakitea da. Edonorekin lan egiten ikastea. Zailtasunei aurre egitea, norberak taldean duen egitekoa aurkitzea, etab. Ekarkortasuna esan dut, eta uste dut ez dela existitzen hitz hori; ez dut esan nahi nor-baitek egiten duen ekarpena, zerbait gehiago da. Horretan utziko dut, hizkuntza bizia delako, eta hala lan gehiago emango diogu Euskaltzaindiari. Gauza bera gertatzen da irakasleekin, printzipio horrek gidatzen bagaitu. Antolamendu-egiturak askotariko tes-tuinguruak ematen dizkigu guri ere: paralelo, sektore, ziklo, mintegi eta abarretako bilerak. Horietan ikasi dugu aztertu, planifikatu, bilakaera zaindu eta esku hartzeko elkarrekintza eta talde-lana ezinbestekoak direla, hezkuntza-koherentzia lortu nahi

bada. Gure artean egitea ikasleekin egitea proposatzen duguna: norberaren lana jarre-
ra irekiarekin ematea, besteena hartzea, edonorekin lan egiten jakitea, desadostasunak
gainditzeko jakitea, elkarrekin sortzea, laguntza eman eta jasotzea. Hori guztia gure
lanbidean dugun gaitasuna berrestea da. Nire ustez, horrela baizik ezin da lortu indar
moral, ondoren ikasleei horrelako jarrerak gara ditzaten eskatu ahal izateko.

- *Emozioak azaleratzen laguntzen du:*

Harreman sozialetarako bizi-testuinguruak sortzen ditugu, ondo dakigu-eta horietan
gogo-aldarteak azaleratzen direla, zentzumenek edo ideiek eraginda. Emozio horiek
guztiak –atsegin ditugunak eta atsegin ez ditugunak– azaleratzen uztea eta gure
burua ezagutzeko eta onartzea heldutasuna lortzeko modu bat da.

- *Kontzeptu- eta jarrera-eskemak aldatzeko ezinbesteko baldintza da:*

Printzipio horrek ez gelditzera garamatza, dakiguna jakintzat ez ematera.
Aurrerabidean jartzen gaitu, etengabe aldatzen eta garatzen ari den aurrerabidean.

- *Sozializazioa-elkarrekintza, gizabanakoaren eta taldearen nortasuna sortzen duen kontrastazioa:*

Taldean identifikatzen gara eta talde garelako ohartzen gara.

– Ikastetxeko ibilaldia amaitzean izan dugun atsedenditxoan, gurekin izan den
aholkularietako bati galdetuko diot ea zein iturri edo teoriatik edaten duzun,
baina sartzeko ordua zen, eta ez dugu astirik izan. Zure erantzuna entzun nahi nuke.

– Badakizue zein den iturria? Nik unibertsitate handia deitzen diot: eskola. Izan ere,
jakinduriaz beterik dago, biziz gainezka dago eta.

“Zer egin dugun urte hauetan? Hor ikertu. Hogeita hamar urte daramatzagu haur
horiengandik ikasten. Hogeita hamar urte ikertzen: haurrei behatuz, haiei begieta-
ra begiratuz, praktika aztertuz, hipotesiak eginez, sistematizatuz, gozatuz, sufrituz.
Egunero zentzumenak, burua eta bihotza zabalduz lan egin dugu.

“Sortzeko beharra dagoela ikusi dugu. Taldean lan egiten eta taldean lan egin nahi
izaten ikasi dugu: nirea azpian jartzen, gurea aurrera ateratzeko.

"Ikasi dugu ez dagoela lan handirik eta txikirik, denak beharrezko baitira engrana-jean. Nik ez dakit nondik edango genukeen hori guztia eskolatik kanpo! Horregatik deitzen diot unibertitate handia eta benetako iturria.

"Banaka, ordea, beste iturri batzuetara gerturatu gara eta gerturatzan jarraitzen dugu oraindik ere, betiere pertsona bakoitzaren ibilbidearen arabera. Ikasketa batzuk egin ditugu eta hainbat teoriak zirrara eragin ahal izan digute. Hainbat modutara izan dugu teoria horien berri: pedagogi berrikuntzaren mugimenduetako kide izateagatik, hezkuntza-erreformak edo hezkuntza-erreformek izan duten eragin itzelagatik, aldizkari espezializatuen edo bestelako argitalpenen bidez, kurtso eta hitzaldietan parte hartuz, etab. Zalantzarik gabe, edozein eskola-egituratan eta errealitate zehatzaren gainean elkarrekin lan egitean, norberaren biltegietan pila-tutako iturri horiek guztiak hor daude, eta, berriro ere, aspertsiozko ureztaketa gisa ageri zaizkigu, eta aniztasunez eta onuraz betetzen gaituzte. Baina talde gisa, inoiz ez gara saiatu iturri berberetatik edaten edo teoria jakin bat aplikatzen.

"Lan eginez, lana aztertuz, hobetzen saiatuz eta prozesu osoa hitzen bidez adieraziz (zer, zergatik, zertarako etab.). Horrela edaten dugu guk. Hortik sortzen da gure teoria pedagogikoa. Praktikatik induzitutako teoria eta praktikarekin erabateko koherentzia helburu duena. Horren bila gabiltza, eta hori da gure ekarpena. Ez zai-zue egokitu, ikasle-garaian, teoria jakin bati jarraitzen dion edo eskola jakin batekoa den irakasle baten klaseak eta erabat bestelakoa den eskolako kide dela dioen beste batenak berdin-berdinak izatea? Horrek zer pentsatua eman izan dit beti.

"Uste dut esan dudan guztiarekin erantzun diodala galderari, baina hori ez da oztopo sistema honetan autore, metodo edo teoria askorekin bat datozen puntuak egon daitezzen. Adibidez, testuinguru egonkorraz hitz egiterakoan, Bruner etortzen zait gogora, curriculum kiribilagatik, nahiz eta ez izan guk erabiltzen dugun testuinguru-mota. Ausubelen ikaskuntza esanguratsuan edo Vigostskyren garapen hurbileko eremuan edo garapen potentzialaren eremuan pentsatzen badut, badakit bi kontzeptuak metodologia honetan badirela, nahiz eta ez ditugun hitz horiekin adierazten. Piagetek dio ez dela sortzen ezagutzarik, banakako jarduera mental konstruktiborik ez badago, eta horrek berehala gure jarduera-printzipiora garamatza. Eta testuingurua antolamendu fisiko gisa hartzeak neurri batean Faure Metodoaren "txokoak" gogorarazten dizkit. Egia esan, bada biak nahasten dituenik, baina desberdinak dira: "txoko" horiek jakintza-arlo edo irakasgaika bereizten ziren, eta kasu honetan, berriz, irakasgaiak erlazionatzen dituen bizi-jarduerak markatzen du antolamendu fisiko hori. Ikasleek erabiltzen dituzten eskema edo teknika kognitiboei erreparatzen badiegu, berriz, Gowin edo Novak etorriko zaizkigu gogora. Eta hiz-

kuntzaren alderdiek Ignasi Vila gogorarazten didate. Barkatu, badirudi ezin dudala gelditu. Eta harreman sozialei kontzeptu-eskemen garapenerako halako garrantzia ematen diegunean, Cesar Collen idatzietan pentsatzen dut, eta gai horretan bertan edo beste hainbatetan azken hezkuntza-erreformako beste hainbat autore etorriko litzaizkidan gogora: Alvaro Marchesi, Isabel Solé eta nire ustez une hartan irakasleak prestakuntzan hain garrantzitsua izan zen Luis del Carmen. Eta horrela jarrai dezakegu, baina nahikoa da. Zorionez, eragin hori guztia eta gehiago jaso dugula eta jasotzen ari garela pentsarazten digu gure errealitate sistemikoaren esperientziak; baina berriro diot: talde moduan, ez gara inoiz saiatu iturri berberetatik eda-ten edo teoria jakin bat garatzen.

- Nola lortu taldea osatzea, hainbeste irakasle eta halako aniztasuna izanik?
- Egia esan, aniztasunak ez nau beldurtzen; aitzitik, beti aniztasuna lortu nahi izan dut, aberastasun-iturri dela iruditzen zait eta. Taldeetan eta eskoletan, parte garen naturan gertatzen den antzeko zerbait ikus daiteke. Aniztasunari esker irauten dute ekosistemek eta, halaber, aniztasunak ematen die ekosistemei ingurunearen eraginetik indarberritu, elkarrekintzan aritu eta eboluzioaren bidez iraunarazteko gaitasuna. Eta kopuruari dagokionez, taldean lan egiten jakinez gero, zenbat eta handiagoa, orduan eta hobea. Hori da nire esperientzia. Larritasunez bizi izan ditugu zerbait aurrera ateratzeko, premia konpontzeko edo sortzeko muga-egoerak, eta ziurtatzen dizuet ehun laguneko talde bat, nork bere lekua eta bere ekarpena bilatuz, larritasuna errealitate atsegin bihurtzen duen sorgailu bati konektatzea bezala dela. Beste aldea ere bizi izan dugu, ordea, klaustroaren ezegonkortasuna zela eta; izan ere, ikastetxea zabaltzen ari zen, eta, urtero, lanpostu finkorik gabeko irakasleak etortzen ziren. Pertsona horiek sisteman trebatzeari denbora eskaini behar izaten genion. Horrek irakasle-talde osoa antolamendu-egitura guztietan elkarlanean aritzea eskatzen zuen. Denbora gutxi geneukan, eta makineria osoa martxan jarri behar genuen ikasturte hasierarako eta ikasturtean zehar, berriz, aurrera egin behar genuen. Oso gogorra zen etortzen ziren irakasleentzat, baita beste irakasleentzat ere. *Sisiforen Mitoaren* antzera bizi genuen: harri ikaragarri bat altxatu behar zen; goian zegoenean, ordea, ikasturtea amaitu, eta harria erori egiten zen, eta hurrengo ikasturtean berriro altxatu behar zen. Ezegonkortasun ikuspegi horretatik, agian erosoago izango zen irakasle gutxiago izatea, baina, egiaren izenean, esan behar dut sekulako zortea izan dugula etortzen ziren irakasleekin. Beren egoera ezegonkorra edozein egoeratarako egokitzen irakatsi die. Gaztetasuna, ekarpenak egiteko eta taldean lan egiteko gogoia ekartzen dute. Badakigu lanpostu finkoa edukitzeak ez duela gaitasun handiagoa ematen, eta onartu behar dugu lankide horietakoren bat etorri izan ez balitz, sistema honen garapen batzuk agian ez zirela gauzatuko.

"Gaiarekin jarraituz, talde txiki batean lau pertsona gaizki konpontzeak ikaragarria izan behar du; aldiz, talde handietan, desadostasun gehiago izaten direnez, normaltasun handiagoz hartzen dira eta hobeto uler daitezke.

"Talde handi batean, edonorekin mota askotako egituratan lan egiten ikasten dugu, eta harremana hain zabala eta hain askotarikoa denez, beste ikuspegi batzuetatik egindako hurbilketak ezagut ditzakegu.

Taldea osatzeko lorkizunari buruz, berriz, ez dakit zer esan. Urte asko daramatzat lanbide honetan, leku eta egoera desberdinetan lan egin dut eta beti izan dut talde onak sortzen ikus-teko eta talde onetan aritzeko zortea. Baina hortik nola sortzen diren jakitera... Uste dut ez dakidala. Baina, ziur asko, beti izan dira gako komunak, eta horiek definitzen saiatuko naiz:

- *Taldea zereginaren inguruan sortzen da, eta aurretiko baldintza bat eskatzen du: nahi izatea.* Zereginak batzen gaitu. Ez da nahikoa ideiak edo laguntasuna eta kidesuna izatea taldeko pertsonen artean. Elkarren arteko ardura bat izateak sortzen du taldea, hura osatzen duten kideak egunean-egunean elkarrekin lanean aritzeak, zerbait ateratze aldera. Baina nahi izatea behar da, bestela ikasleekin bezala gertatuko da eta, nahi ez duten ikasleek ez baitute ikasten.
- *Ikastetxearen benetako antolamendu-egiturari dagozkionean eta egitura hori edukiz betetzen dutenean hartzen dute zentzua taldeek eta beren lanek:* zikloaren egitura, eta haren talde eta lanak; sektorea, mintegiak, eta haien talde eta lanak, etab.

Talde asko egon daitezke, eta bakoitza lan batean aritu; baina denek bizkarrezur bakar batetik abiatu behar dute, ikuskeratik, alegia: eskolaren antolamendu-egituren bidez lan eginez, norabide berean aurrera egitea ahalbidetuko dien sistemaren zati izan behar dute guztiek. Hori esanda, ikastetxeko talde bat nola lortu azaldu nahi dut.

- *Egitura bakoitzarentzat ongi zehazturiko lan-diseinua,* hizkuntza argi eta ulerterrazarekin, guztiok bat egin eta zerbait esan ahal izan dezagun, jarduera gure errealitatean oinarritzen da eta. Aurrerago jardungo dugu horretaz, baina gurea irakasleentzako lan-metodotzat daukagu, gure egitekoan sakontzeko eta bizirik mantendu nahi dugun proiektuaren indarra erakusteko aukera ematen digun lan-metodotzat. Horrek guztiak, halaber, Hezkuntzan ere izaten diren eta egunero begien aurrean izaten ditugun moda edo itxurazko berrikuntzetatik askatzen gaitu.

- *Beharrezkoa da egitura guztiak eta horien diseinua koordinatzea*, nor bere erritmoan baina norabide berean aurrera egingo duela bermatzeko, eta, hala, egitura guztiak engranaje beraren zati izan daitezen, eta garapenak, ikastetxeko talde osoarenak.
- *Irakasleen kokatze egokia* da, nire ustez, beste gako bat. Bakoitzak betetzen duen funtzioarekin gustura egoteko modu bat da: taldeak anitzak izatea eta norbere nortasuna hazten eta garatzen laguntzea; oreka bilatzea izaera, lan egiteko modu, adin, esperientzia eta sexu desberdinetakoak nahasiz.
- *Ikastetxeko egituretan, taldeko edozein kidek edo taldeburuak eskolaren kultur corpus hori azaltzea, printzipioetatik eta pertsona-kontzeptutik datorren hori, alegia, gure jarduteko eta erlazionatzeko moduan eragin dezan.*

Hitzen bidez, gorputzaren tonuaren bidez, keinuaren bidez esplizitatzea, pentsatuz egiatan bilerak ez direla zama, bestela zentzua galduko lukete eta; aitzitik, bilerak batera ikasteko eta garatzeko esparruak direla, eta gure egitekoan gaitasuna geureganatzera eta taldearen babesa sentituz segurtasuna areagotzera bideraturik daudela pentsatuz esplizitatu behar da.

38

Gaiak nire lanaren ingurukoak izaten direnez, beti egin ahal izango ditut ekarpenak eta, horren jakitun, bilerara lasai eta baketsu joatea ere esplizitatzeko modu bat da.

Printzipioetatik eta pertsona-kontzeptutik datozen esplizitatzeko beste modu batzuk edonoren mezua hartzea, entzutea, ulertu nahi izatea eta jasotzea dira; betiere inoren ekarpena gutxietsi gabe, hutsala badirudi ere, inoiz ez baita izango. Izan ere, ziur asko beste ikuspegi edo ikuspuntu batekoa izango da, eta, beraz, beti izango da aberasgarri. Hartzea esan dut, eta bereziki azpimarratu nahi dut irakasle berriei ikastetxeko atetik sartzen diren unetik egiten zaien lehen harrera, baita egitura eta talde bakoitzean egiten zaiena ere.

Norberaren erritmoarekiko errespetua esplizitatzea praktikan. Denbora pertsonalak onartzen direla esplizitatzea. Hori ulertu eta esplizitatzea da eraginkortasuna bilatzen dugunean maiz sortzen dugun intolerantziari atea ixtea. Ez dakit ondo azaldu dudan edo noizbait bizi izan duzuen. Niri asko sufriarazi dit. Izan ere, batetik, oso amultsua naiz, eta pertsona dena ematea gustatzen zait, ahalegina ahalik eta handiena izatea. Bestetik, ordea, pertsona guztien ahalegina errentagarri bihurtu dadin nahi dut; hau da, azken batean, eraginkortasuna bilatzen dut, eta askotan damutu naiz nire intolerantziak. Baina esplizitatzeak, hori guztia adierazteak, areagotu egiten du kontzientzia, eta taldeen bizian hain garrantzitsua den elkar ulertzearen atea zabaltzen du.

- *Lidergoa* da beste gako bat.

Nire ustez, lidergo batzuk, gutxi batzuk baino ez, berezkoak dira; arlo zehatzetan edo esparru orokorretan gauzatzen dira, eta ez dakizu zergatik, baina, izan, badira. Beste batzuk, berriz, pixkanaka-pixkanaka sortzen dira: pertsona bat ez zen nabarmentzen, eta bat-batean taldeak aurkitu egingo du. Pertsona zehatz bat dut orain buruan: bat-batean, oso-oso argia dela ikusten duzu; ohartzen zara printzipioetan, gizabanakoren ikuskeran eta ikastetxearen filosofian gaitasun handia duela; izan ere, garapen pertsonal handia izan du, eta hori islatu egiten da lanean eta taldeko bizitzan. Horregatik, taldeak pixkanaka-pixkanaka autoritatea ematen dio.

Nire ustez, pertsona lidergotik askatu, baina taldearen garapena bilatzen eta sortzen jarraitzen duenean mantentzen da lidergoa. Aldiz, pertsona hori askatzen ez bada, lidergoa ahazten ez badu, eta den moduan (pertsona bat gehiago) jokatzeko ez badu, betiere erantzukizuna alde batera utzi gabe, bere postuak ematen dion botereaz baliatu ahal izango du, baina pixkanaka-pixkanaka autoritatea galduko du.

Nire iritziz, lidergoa taldeko edozein kidek izan dezake, taldea beste norbaitek koordinatzen badu ere. Edozein egitura koordinatzen duen pertsonak izan dezake. Zuzendaritza-taldeak izan dezake eta izan behar du, ikastetxeko egiturak maila orokorrean koordinatzen dituzten pertsonaren edo pertsonen bidez.

Alderdi batean jarriko dut arreta. Nire esperientziatik abiatuta hitz egingo dizuet; alegia, ikastetxeko egiturak sustatu eta koordinatzeko egitekotik abiatuta. Egiteko hori bilerak bideratzeko ikuspegi jakin batekin loturik dago. Ea ondo azaltzen dudan.

Irakasleek egin nahi dutena egiteko oso denbora gutxi dutela pentsatzen dut nik: lan egiten duten testuinguru guztiak prest eta egoera onean eduki, bakarka beren jardueraz hausnartu etab. Horregatik, bilerak prestatzen denborarik ez ematearen aldeko naiz, ez daukagulako, eta, normalean, denbora hori ez diegu gure bizitzako beste arloei kendu behar, horiek ere funtzionatu behar dute eta. Bilerak prestatzen denbora ematea bilerak zama bihurtzea da eta, hala, zentzua galduko lukete.

Nire ustez, garrantzitsuena, batetik, bilera sistematiko horiek sortzen dituen egiturak *diseinu garbia* izatea da. Diseinu horrek lan-ildoak bideratzen du eta pixkanaka-pixkanaka, egunez egun eta urtez urte, sakonagoa da. Diseinua zikloarena, sektorearena, mintegiarena, eta abarrena izan daiteke, eta baliozko diseinuak lortu arte erabili eta jasan izan dugun gai-zerrenda baino askozaz haratago doa. Urte asko behar izan ditugu ardatz eragile izango diren diseinu hauek egiteko, eta hori izan da benetako pres-

taketa-lana. Bestalde, diseinua egonik, kideek, taldearen koordinatzaile edo buruek barne, ez dute ezer berezirik prestatu edo aztertu behar. Nire ustez, prestaketarik handiena, lehen esan dizuedan bezala, lidergotik askatzea da, besteek baino gehiago jakin nahi izatetik askatzea, eta, esango dutenarekiko izan ditzakegun beldurrak gaudituz, pentsatzen duguna adieraztea. Garen bezala agertzea, taldeko gainerako kideak bezala, gure lana bideratuko duen diseinua badugula jakiteak eta taldekideengan dugun konfiantzak ematen digun bakearekin; taldekideek ere, nire antzera, prestakuntza-esparru horri etekina atera nahi diote, eta esperientziaren bidez pilatu duten jakintza errealekin joaten dira.

Baina buru denak ezin hobeki jakin behar ditu bere egitekoak eta egiteko horiek eskatzen dituzten jarrerak.

Lehentasuna emango nioke, hartutako erantzukizunaren ondorioz, baldintzarik gabe buru-belarri aritzeari. Kideek ematen dituzten aurrerapausoekin besteengan eta norberarengan ilusioa sortzea da, eta aurrerapauso horiek banan-banan eta taldearen aurrean agertzea. Ekarpelik txikiena ere jasotzea. Taldea berregitea. Irizpideak hartzea. Irizpideak erabili eta exijitzea. Printzipioetatik abiatuta, pertsona-kontzeptutik abiatuta, ikastetxearen ikuskeratik abiatuta, birmoldatzea. Akatsak onartu eta barkamena eskatzea. Norberaren mugez eta gabeziez jabetu, eta taldearen heldutasunean konfiantza izatea. Arazoak sortuta ere zintzotasunez jokatzeko saiakerak, arazoak bizitzari berezko zaizkiolako. Normalean garapenaren krisi bihurtzen dira, eta garrantzitsuena da horiek nola konpondu jakitea. Lidergoaren eta taldea sortzearen arteko erlazioaren nondik norakoak horiek direlakoan nago. Azken batean, askatasun-kontua da, norberaren eta taldearen askapenari dagokiona. Zoragarria da konfiantza-giroan lan egitea: ideia bat ematea, astakeria bada ere eta nik neuk edo besteek zuzenduko badute ere, eta norbaitek ideia hori hobetzen duenean gozatzea; izan ere, etekina atera, sakondu eta lan egin nahi dugu, hori baita bileren irrika izateko eta bilerak bizirik atxikitzeke modua.

- *Irakasle-taldeak erabakiguneaz duen kontzientzia* ere gako garrantzitsutzat dut.

Batzuetan pertsonoi (irakasleoi buruz ari naiz) ikastetxean hartzen diren erabakien gaineko kontzientzia falta zaigu, baita guk geuk banaka hartzen ditugun erabakien gainekoa ere.

Gogoan dut eskola bat, non, beste hainbestetan bezala, inork ez zuen nahi zuzendaritza-taldekoa izan, ez zuelako nahi erantzukizun-mota bat bere gain hartu, eta izendapena administrazioak egin behar zuen. Klaustroa etengabe biltzen zen, nire ustez, funtsean zuzendaritza-taldeari zegozkion gaien (ez bestelako gaien) inguruko erabakiak hartzeko. Klaustroko kideen arabera, erabaki demokratikoak ziren, eta onartzen

zena onartzen zela neurriak hartzen zituzten, erabakia klaustro osoarena zelako. Baiezta dezaket kasu honetan ikastetxeak ez zuela funtzionatzen. Erabakiak hartzeko prozesuak geldotu egiten ziren; irizpideak falta ziren; egiturak soberan zeuden, edukiz husturik zeudelako. Kasu honetan, klaustroa tamaina ertainekoa zen eta ikastetxea, ia bi lerrotakoa, eta asko sufritu zuten.

Ezagutzen dut horrela funtzionatzen duen beste ikastetxe bat ere, eta ondo funtzionatzen du, klaustro txikia eta ilusioz beterikoa duelako, zuzendaritza-talde aditua eta arduratsua duelako eta ia pertsona berak daudelako egitura guztietan. Adibide hau eman dut, ezin delako orokortu.

Lehenengo adibideari helduko diot berriro ere, ikastetxe horretan esku hartu behar izan genuen eta.

Irakasle asko eta asko konbentziturik zeuden erabakiak klaustroko pertsona guztien artean hartzen zirela, eta klaustroan hartzen zirela ikastetxeko erabaki guztiak. Kontzeptu hura birmoldatu egin behar izan zen, eta ikusarazi irakasle bakoitzak ikasgelan egun osoan eta hezkuntza-prozesu osoan ikasleekin eta familiekin esku hartzean hartzen zituela erabakirik garrantzitsuenak. Halaber, ikusarazi behar izan zitzairen normalean, neurri handi batean, ikastetxe baten emaitza, ospea eta sinesgarritasuna erabaki horien arabera direla. Erabaki horiek ez ziren klaustroa eramaten eta klaustroak ez zuten horietan esku hartzen: irakasleek beren gain hartzen zuten beren ardua.

Horrez gain, ikusarazi behar zitzairen ezen, baldin eta eskola ondo ibiltzea nahi badugu, erabakiak hartzeko orduan ez dela aski bertan egon eta bozkatzeta. Gaia ezagutu ta eman behar da iritzia, hau da, kalitatezko iritzia eman behar da.

Urte batzuk igaro dira, eta esango dizuet eskola hori ondo dabilela. Irakasleak jabetu dira erabakiak hartzea zeregin partekatua dela erabat, eta ez duela jagoitik taldekeriaren lorratzik.

Irakasleek badakite etengabe erabaki garrantzitsuak ari direla hartzen beren gain, baita inprobisatzen ere, bai ikasleekin bai familiekin. Sistematikoki parte hartzen dute ikastetxeko antolamendu-egituretan. Lehen ez zeuden egiturak, edo hutsik zeudenak, edukiz bete dira apurka-apurka, eta prestakuntza- eta gaitasun-esparru bihurtu dira irakasleentzat, benetako erabakigune.

Hala ere, lan nekeza izan zen, gainerako egituren antzera, berari zegozkion egitekoe-tan erabakiak hartzea bere gain hartuko zuen zuzendaritza-taldea izatea. Irakasle-

talde osoaren laguntza behar izan zen. Gaur egun, ikastetxeko kulturaren oinarria hauxe da arlo horretan: egituretan erabakiak gaitasunetik abiatuta hartzea. Irizpideetan oinarritutako erabakiaren erantzukizuna norberaren gain hartzea, eskolaren printzipioetatik eta ikuskeratik abiatuta zalantzan jarri ahal izango den erabakia-rena, hain zuzen ere.

Nola pasatzen den denbora! Ia bukatzeko ordua da, baina oraindik bada argitu nahi dudana gauza bat: sistema ireki baten baitako bizi-prozesua den globalizazioaz hitz egin dut, baita sistema-kontzeptuaz eta izaki globala den gizabanakoaz ere. Une horretan, globalizazio-printzipioari buruzko dokumentua sartu nahiko nukeen, baina oraindik aurkeztu gabe nituen printzipio metodologikoak. Horregatik, dokumentua irakurri egingo dut orain, besterik gabe. Oso laburra da. Ideia gehienei heldu diegula ohartuko zarete, eta gainerakoak aurrerago azalduko dira. Behin eta berriro jotzen dugu printzipio horretara.

Globalizazio-printzipioa

Globalizazioa, sistema ireki baten baitako bizi-prozesua.

- *Bizi-prozesua. Bizia globala da.*

Gizabanakoa globala da: nortasuna, harreman sozialak, jakintza-arloekin estuen lotuta dauden ikaskuntzak.

Testuinguru sozialak, egonkorrak eta osagarriak sortzen dira. Lehenengo biek prozesu-irudipena sortzen digute; osagarrietan, berriz, ikasleei bizitzeko eta izateko aukera ematen dieten bizi-egoerak sortzen dira, eta bizi dutelako ikasten dute.

Ikastetxea osotasunean ulertzen da. Horregatik, antolamendu- eta prestakuntza-egitura sozialak, egonkorrak eta osagarriak sortzen dira; horiei esker, gizabanako bakoitzak bere egitekotik abiatuta bizi, izan eta garatu egiten da, eta ikastetxea osotasun-ikuspegitik kudeatzen da.

- *Sistema irekia.*

Sistema diogu, bere osagaiak (pertsonak, elementu fisikoak, hezkuntza-asmoa, antolamendu-egitura, bizi-jarduerak, metodologia, baliabideak, etab.) etengabe elkarrekintzan daudelako, eta horietako bakoitzak sisteman eta elkarrekintzan duen lekuaren arabera soilik hartzen duelako zentzua. Osotasuna ez da estatikotzat hartzen diren zatien edo euren artean harremanik ez duten zatien batura. Lan-sistema da, ez da

metodoa; diziplinarteko sistema da; kontzeptu-sistema; antolatzeko, planifikatzeko, gogoeta egiteko, aztertze eta erabakiak hartzeko sistema. Ez dago elementu isolaturik. Sortzen diren harreman guztiak sartzen dira sisteman.

Pertsona bakoitza eta guztiak hartzen ditu eta hainbat egituratan, gainera.

Ez da amaitua dagoen zerbait. Sistema irekia esaten diogu, bizitza bera bezala, etengabe aldatzeko gai delako, sortzen diren elementu berriak barrutik txertatuz (ez kanpotik batuz), eta, aldi berean, sistema-antolamendua galdu gabe, elkarrekintza berriak sortuz. Kontzeptu horietako batzuk aurretik ere azaldu dira.

Printzipio honekin (01-6 dok.) amaituko dugu saio hau, baina hurrengoetan ere azalduko zaigu, gure pentsatzeko eta jarduteko jarraibideak markatzen baititu.

Orain arte, Hezkuntza Proiektua sostengatzen duten oinarriez jardun dugu: sistema-kontzeptuaz, gizabanako-kontzeptuaz eta printzipio metodologikoez. Hurrengo saioan, berriz, Hezkuntza Proiektuari berari helduko diogu, hau da, hezkuntza-asmoari.



IHP: HEZKUNTZA ASMOA

Aurreko saioan esan bezala, hezkuntza-asmoan, eskola gisa garatu nahi dugun horretan, jarriko dugu arreta gaur. Hau da, ikastetxearen helburu orokorrez eta eskola-elkartearen ezaugarriez jardungo dugu, horiek osatzen dute-eta Hezkuntza Proiektua.

IKASTETXEAREN HELBURU OROKORRAK

Gaitasunak garatzeari esaten diogu helburu. Joerak dira, eta ez dira hemen eta orain ikasten.

Helburu orokor guztiak oso lotuta daude eta osotasun beraren zati dira, baina, hobeto ulertzeko, honako bereizketa hau egiten dugu:

1. Nortasunaren garapenarekin zuzenean lotuta daudenak.
2. Harreman sozialak gune dituztenak.
3. Jakintza-arloekin estuen lotuta daudenak ukitzen dituztenak.

Har dezagun Hezkuntza Proiektua (01 dok.). Ikusiko duzue helburuen hirugarren multzo hori ez dela azaltzen, edo, hobeto esan, izenburua agertzen da, hezkuntza-asmoaren zati delako, baina Ikastetxearen Curriculum Proiektura bidaltzen gaitu. Zergatik? Arrazoi praktikoengatik. Izan ere, metodologikoki arlo edo irakasgaien (hizkuntzak, matematika, artea, gizarte-zientziak, natur zientziak etab.) berariazko helburuetatik ateratzen edo induzitzen ditugu. Bigarren kapitulua lantzean egiaztatuko dugu hori, Ikastetxearen Curriculum Proiektuari buruzkoa izango da eta. Era berean, helburu horiek hogeita hamar urteko praktikan izandako esperimenezetik eta ikerketatik ondorioztaturiko epeen arabera planifikatzen dira, eta ziurtasun honetara iritsi gara: irakasle-taldeak behar bezala menderatzen duen curriculum-garapena egokia izanik, ez dira lortzeko helbururik zailenak.

Saio honetan, lehen bi multzoez arituko gara. Curriculumari dagozkio, praktikan egindako esku-hartzeen bidez garatuko dira eta; baina IHPn agertzen dira, bereziki azpimarratu nahi baititugu:

- Orokorrak direlako, bizitzaren edozein egoeratarako baliozkoak, eta gure arnasa izatea nahi dugu.

- Ez ditugulako ikasleentzat soilik egiten; erabat inozoak izango ginateke hala dela pentsatuko bagenu. Orain uste osoa dugu norberaren eta taldearen garapenerako proiektu bat osatzen dutela eskola-elkarte osoarentzat.
- Ezin direlako neurtu, eta ezin zaizkielako epe jakin batzuk zehaztu, eskola-garaia gainditzen baitute. Bizitza osorako helburuak dira, eta badakigu esparru horietan hil arte ikasten jarraituko dugula.

Zeintzuk dira helburu horiek? Zerrenda osoa IHPn azaltzen da, "Egindako dokumentuak" izeneko eranskinean (01 dok.). Irakurtzea aski litzateke zer-nolako ikastetxea hizpide dugun ohartzeko, baina haien izaerari lotzen saiatuko naiz, ahal dudan neurrian berrin-terpretatuz:

- *Jarrera arretatsua izatea sentitzen dudanarekiko, gertatzen zaidanarekiko, nire gorputzak behar duenarekiko. Gelditzen jakitea.*

Gure ustez, garrantzitsua da txikitatik kezka aurrean, zer gertatzen zaigun ez dakigula gauden egoera baten aurrean, gelditzen ikastea. Gelditu, nire gorputzari entzuteko; nire gorputzak jardueraz aldatzea, arnasa sakon hartzea, edatea, lasaitzea, irribarre egitea etab. eskatzen didala entzuteko. Gelditu, poza, ikara, beldurra, tristura, maitasuna, enpatia eta bestelako sentimenduez ohartu eta horiei aurre egiteko.

- *Unea, oraina gozatzea.*

Garrantzi berezia ematen diogu helburu horri. Irakasle bat ohartu zen ikasleak oso arduratuta zeudela ikastetxetik irtetean hain planifikaturik zeukaten ustezko "denbora libre"rekin: gaur lehen orduan zer daukadan, gero eta bihar nora joan behar dudan... Orduan sortu zen aipatutako helburua. Irakasle horri zirrara handia eragiten zion hain txikitatik egutegia ikasleen orainaren, eta, azken batean, bizitzaren jabe zela ikusteak. Gogoeta horren berri eman zigun, eta ohartu ginen helduoi, irakasleoi, gauza bera gertatzen zitzaigula. Behin baino gehiagotan gertatu zaizue, ezta? Adibidez, bileran batean gaude eta buruak premiazkoa den horretara ihes egiten digu, geroago egin behar dugun horretara. Hala, gure arreta murriztu egiten da eta egiten edo bizitzen ari garenaz gutxiago gozatzen dugu. Zera galdetzen diogu geure buruari: zer da bizitza? Guk hala nahi edo ez, atzokoa joan zen, eta ez da itzuliko, eta biharko eguna agian ez da iritsiko. Osotasunean bizitako une bakoitza da bizia. Orain eta hemen intentsitatez bizitzen ikasi egin behar da; erronka handia da, uneoro garatu beharreko gaitasuna. Hori esatean ez dut alde batera uzten ikuspegi sistemikoa, badakit-eta ezinbestean iraganak orainean eragina duela, eta orainak etorkizunean ere eragingo duela.

- *"Besteaz" kontzientzia hartzea. Bere presentzia areagotzea, bere izaera errespetatzea, ulertu nahi izatea, ondo moldatzea.*

Behin baino gehiagotan entzun izan diot ikastetxeko eraikinetan atezaintzaz ardura-tzen den lankide bati irakasleekin hitz egitera datozen familiak bere aurretik pasatzen direla, eta bilera-lekura joaten saiatzen direla, berari kasurik ere egin gabe. Azken batean, bera da, ordea, elkarrizketak bideratzen dituen eta ikastetxean nor sartzen den eta nor ateratzen den kontrolatzeko ardura duena.

Gertaera horrek, agian, oker bat edo sentsibilitate falta erakusten du, eta ikastetxeko bizitzan egoera askotan gerta daiteke.

Eskola-elkarte batean, edozein pertsonak eta bereziki zuzendaritza-taldekoek bil ditzakete jarrera horiek. Hortik abiatuta eta bestelako ñabardura batzuk ere kontuan hartuta sortu da azaldu berri dudana helburua: kontzientzia hartzea...

- *Egiturak aldatu eta sortzen diren arazo edo zailtasunak bideratzeko, jarrera aktiboa eta sortzailea izatea.*

Esaldi horiek, horrela esanda, agian hutsak irudituko zaizkizue, baina mamitsuak dira: eduki, bizipen eta gogoetaz beterik daude.

Amara Berrik lehen urteetan ez zuen gaur egun duen onarpen sozialik eta "instituzionalik". Ez zuen familiek oro har aspaldidanik ematen dioten babes eta konfiantzarik, eta irakasle-sektore batekin ere zailtasunak izan ziren.

Batetik, sormen, adiskidetasun eta talde-lanez beteriko urte zoragarriak izan ziren, ikasleak ikertu eta haiez goatzeko urteak, benetan sinesten genuen zerbaiten alde gorputz eta arima aritu ginen urteak. Bestetik, ordea, kanpora begira oso urte gogorak izan ziren. Familia askoren kritika negatiboa zen nagusi jendaurrean, beren seme-alabak jolasean ari ziren bitartean. Antzeko zerbait gertatzen zen irakasle-sektore horrekin ere. Gerora, distantziak ikusarazten dizu aldaketak ez direla erraz onartzen. Atzera egin dut, laurogeiko hamarkadaren erdialdera. Denborarekin, konturatu nintzen pertsona bakoitza ahal duen tokian dagoela, eta ez guk nahi dugun tokian. Ni ere ahal dudana tokian nago, eta ez beste batzuk nahi duten tokian. Ohartu nintzen ez genuela jakin ondo egiten, nigandik hasita. Nahiago nuke hobeto egin izan banu. Bildu, kontrastatu eta ulertarazten saiatu ginen etengabe, eta ez zen erraza izan. Hala ere, ezin dut ukatu, guztiarekin ere, asko ikasi genuela; izan ere, kontrastazioan identifikatu egiten zara, etengabeko berbalizazioan berregituratu egiten zaren moduan. Horrekin batera, batez ere, pertsonen fidatzeko, gorro-

torik ez izateko, liskarretan bataren edo bestearen alde ez egiteko, hutsak onartzeko, justizia ulertu eta gauzatzeko aukera eskaini zitzaigun, maitasun osoz begietara begiratu ahal izateraino. Hau esan nahi dizuet, esperientziak erakutsi didalako, beste faktore batzuekin batera, hor oinarritzen dela, funtsean, pertsonengan eta taldeetan jarrera-aldaketa ikusteko aukera.

Sufritu egiten genuen; izan ere, ikasleek gure arreta osoa merezi zuten, baina ezerk ez zuela funtzionatzen esaten zuten kritika haiek energia kentzen ziguten. Proiektua martxan jartzen ari ginen, eta, aldi berean, egiten genuena baliozkoa zela erakutsi behar izaten genuen behin eta berriro. Eta, horrela, egun batean zera esan genuen: bukatu da. Egoera hartatik sortu ziren ondoko bi helburuak:

- *Kritika aurrera egiteko faktore gisa, laguntza moduan, erabiltzen eta hartzen jakitea.*
- *Jarrera aktiboa eta sortzailea izatea, egiturak aldatzeko eta sortzen diren arazoei edo zailtasunei aurre egiteko.*

Kritika aurrera egiteko faktoretzat hartzea da sistema honen ezaugarri metodologikoe-tako bat (02-06 dok.). Hortik igarota ikasi dugu geuk eraiki nahi bada kritika onar-tzen eta egiten ikasi behar dela, aurrera egiteko, eraikitzen ez duen kritikak batez ere kritika egiten duena bera suntsitzen baitu. Hori izan zen gure ikasketa, gure eredia eta gure *diskurtsoa*, betiere egiturak aldatzeko eta arazoak konpontzeko jarrera sortzailearekin batera.

Esaten genuen: Zer iruditzen zaizu, gauzak ez doazela ondo? Bada, esan ezazu, laguntza gisa egindako kritika aurrera egiteko faktorea da eta. Amara Berrik oso ondo daki hori, baina ez esan "Honek ez du funtzionatzen", besterik gabe. Eman alternatiba hobea, hori da-eta *jarrera aktiboa eta sortzailea* izatea. Alternatiba hoberik ez baduzu, berriz, egon isilik, zeren berriro diot: eraikitzen ez duen kritikak batez ere kritika egiten duena bera suntsitzen du.

Pixkanaka, eskolako giroa aldatu egin zen, pertsonak aldatuz joan ginelako. Batetik, kontzeptuen eta, batez ere, jarreraren ikaskuntza horren bidez, antzeko egoeretan esku hartu eta egoerok aldatzeko ikaskuntza horren bidez -ikasleekin sortzen ziren egoerak, familiekiko elkarriketa eta bileretan sortzen direnak, irakasleon artean sortzen direnak-; eta, bestetik, hutsak onartzen ikastearen bidez.

Jarduteko modu hori ikastetxearen kultura izatera pasatu zen, baita helburu horietatik sortzen diren jarrera guztiak ere.

- *Hutsak onartzen eta aitortzen dituenari gizatasun kategoria emateko gai izatea.*

Eskola-elkartearantz sekulako erronka da hutsak gizakiari berezko zaizkiola ikastea. Hutsak onartzen eta zuzentzen saiatzen dena miresgarria dela ikastea.

- *Ideiak defendatzen eta argumentatzen jakitearen eta ideiak aldatzeko gai izatearen artean oreka lortzea.*

Esolan sortzen den dinamikarekin, ikasleek ikasten dute ez dela nahikoa zerbait baieztatzea edo ukatzea, eta ideiak argumentatu egin behar direla; baina, halaber, praktikan ikasten dute balore handia eduki behar dela ideiak aldatzeko gai izateko, beste pertsonen aurrean, batez ere.

Niretzat adibide bikaina eta sekulako ekarpena izan zen, urteen buruan, hasieran proiektu honen aurka egon ziren lankideak gogo handiz eta buru-belarri proiektu bera praktikara eramaten ikustea. Taldean lan egiten ikustea, ikastetxearen kultur corpusean nork bere ekarpena ilusioz eginez.

- *Elkarrizketaren bidez irtenbideak bilatzea. (Adostasunez hartutako erabakia botoaren gainetik dago). Ardura botoa ematerakoan.*

Ikasleek euren taldeetako bileretan pertsona helduen mundua imitatu ohi dute. Berehala egin nahi izaten dute bozketa, eta, ahal dela, irabazi, helburua hori izango balitz bezala. Baina eskola-elkarte honetan, ikasten ari gara botoa erabilgarri dela zer pentsatzen dugun jakin nahi dugunean eta asko garenean, edo ados jarri ezin dugunean. Halaber, ikasten ari gara adostasuna botoaren gainetik dagoela, eta pertsonen heldutasun handiagoa erakusten duela, guztien ona irabaztearen gainetik jartzen da eta.

- *Gutxiengoari entzun eta ulertzen saiatu ostean, gehiengoaren erabakia onartzen jakitea.*

Akordiorik ez dagoenean funtzionatu ahal izateko modu bat da, baina guztien onak eskatzen du egoerak hobera egin ahal izatea. Horregatik, beharrezkoa da gutxiengoari entzutea, eta, batez ere, ulertzen eta hortik ikasten saiatzea.

- *Desberdintasuna bertutetzat hartzea, eta ez faktore diskriminatzailetzat.*

Helburu horrek pertsona guztiak desberdinak garela gogorarazten digu. Bakoitzak bere maniak, bere aukerak eta bere mugak ditu. Nork bere kultura- eta gizarte-desberdintasunak, jatorriak, hizkuntza gailena, historia, balio-eskala eta helburuak ditu. Badakigu

desberdintasuna aniztasuna dela, eta, ondorioz, aberastasuna dakarrela. Bertute bat da, izateko modu bat, eta faktore diskriminatzaile inoiz ez izatea nahi dugu.

Helburu horrek bereziki Amarra Berriren aberastasun historikoetako batean pentsatze-
ra garamatza: ikasle gorrak, itsuak, autistak, Down sindromedunak, beste sindrome
batzuk dituztenak, bizkarrezur bifidoa dutenak, garapen-arazo larriak dituztenak edo
gaitasun azpimarragarriak dituztenak eta gutako gehienon kultur inguruneaz bestela-
koetatik datozen ikasleak daude. Ikasle horiek, eskolan lekua izateaz gain, eurek era-
tzen dute eskola eta eurei esker da den modukoa. Zalantzarik gabe, sistema honek asko
ematen die ikasle horiei, baina askoz ekarpen handiagoa egiten diote eurek eskolari,
edo, hobeto esan, eskola osatzen dugunoi. Zerumuga zabaldu digute. Gizatasuna eta
nik behintzat ez neukan sentsibilitate-mota bat ematen digute etengabe.

- *Muga sozialaz jabetu, errespetatu eta exijitzen jakitea, injustizia ekiditeko.*

Muga soziala da ikastetxean indarrean dagoen arau bakarra. Hau da, beste pertsonen
edo eskola-elkartearen eskubidea urratzen duena soilik debekatzen dugu. Esango nuke
hori dela justizia hartzen eta sortzen laguntzen digun modua.

50

Guretzat, muga soziala ez da arau edo legeen sintesia: besteen eskubideen aitortpena
da, betiere norberaren eskubidearekin orekatzen eta uztartzen saiatuz. Muga soziala
errespetatzea araua gainditzen duen eta askoz harantzago doan sentsibilitatea eta
kontzientzia soziala garatzea da.

Helburu honekin bukatu nahi dut:

- *Gure ikuskera, kosmosaren parte garen aldetik, gure bizimoduaren ezaugarri izan dadi-
la: naturarekiko eta natura arautzen duten legeekiko harremana, eta harekin elkarlane-
an aritzea.*

Helburu hori idaztean, taldean orduan sortzen ari zen sentsibilitatea jaso zen. Gure
burua *kosmosaren partetzat*, naturaren partetzat hartze hori. Ohartzen ginen bizia
globala dela, eta hala adierazten dugu gizabanakoaren definizioaz ari garela. Baina
gizabanakoa BIZI-sistemaren elementu bat da, natura-sistemaren elementu bat, eta
horren arabera hartzen du zentzua gure egoerak. Horretaz kontzientzia hartzea uni-
bertsoan gure lekua aurkitzen hastea zen.

Urte hauetan, parte garen natura biziaren mundu horrekiko kontzientzia aldatu eta
piztu egin da, eta prozesu horrek aurrera darrai gaur egun ere. Kontzeptualki, pertso-

na askorengan, behintzat, dagoeneko ez da honako erlazio hau nagusitzen: ni naturaren jainko, errege edo erregina naiz. Ohartu gara, ohartu naiz, aireak aire izaten jarraitzen duela ni gabe ere. Ni gabe, lurra eta ura lurra eta ura izaten jarraitzen dutela. Baina zer naiz ni aire, lur eta urik gabe? Umiltasun horretatik abiatu beharko litzateke *planetaren gainerakoarekin dugun harremana*. Umiltasuna esan dut, eta hitz hori ez dut inoiz erabiltzen, ez dator oso bat nirekin eta. Baina kasu honetan erabili egin behar izan dut, eta zintzotasunez, gainera.

Une honetan, gidatzen gaituzten legeak bizitzako oinarrizko gertaeren bidez aurkitzea da bai niretzat bai ikastetxe osoarentzat lortu nahi dudana erronka, azken batean, bizitzaren zentzua aurkitzea delako. Zentzumenak zabalik edukitzeko erronka da, honako alderdiez kontzientzia hartzeko:

- Espezie baten hondakinak bestearen elikagai dira. Materia etengabe birziklatzen da ekosistemaren bidez, biziaren sistemaren bidez.
- Naturaren zikloak eguzki-energiari esker gertatzen dira.
- Ekosistemei aniztasunak bermatzen die kanpo-eraginei aurre egin eta irauteko gaitasuna.

Helburuak hau dio amaieran: *harekin elkarlanean aritzea*. Hori da, hain zuzen, beste oinarrizko gertaeretakoa bat: naturan, lehia nagusi dela dirudien arren, elkarlana da nagusi.

Ekologo handiei jarraiki (Odum, Margulis, Margalef), hauxe nahi nuke bai niretzat bai ikastetxe osoarentzat: naturaren portaerak gure gizartea gidatzen duten printzipio bihurtzea. Hori da, hain zuzen, garapen jasagarria.

Helburu guztiak aipatzekoak badira ere, ohartuko zineten batzuk bakarrik azaldu ditudala, burura etorri ahala eta bakoitzak iradokitzen zidana adieraziz, bai eduki aldetik, bai bakoitzaren historia edo sorrera aldetik. Beste batzuk ez ditut aipatu ere egin, curriculumaz hitz egitean azalduko dira eta.

Ulertzen duzue orain zergatik nahi dugun helburu horiek gure arnasa izatea?

Ulertzen duzue benetan norberaren eta taldearen garapenerako proiektua dela eta eskolaz haratago ere baliozkoa dela?

Ulertzen duzue helburu horiek direla irakasleen benetako erronka?

Baina helburu-zerrenda hori dokumentu batean, paperean, geratzen bada, zertarako balio digu? Horregatik, urtero ikasturte hasieran batzar pedagogikoak egiten ditugu ikastetxe-ko irakasle guztiekin, bost eraikinetan egonda ere, klaustro bakarra osatzen dugu eta. Irakasleen adskripzioa amaitzearen denean eta ikasleek oraindik eskolak hasi ez dituztenean, denbora gehiago izaten da, eta, beraz, garai egokia da batzar horiek egiteko.

Oso loturik dauden bi lan egiten dira:

1. Eraikin guztietako irakasleek, zikloka antolatuz, ziklo horretako ikasleen ezaugarriak definituz ekiten diote goizari. Helburua ez da liburuetatik edo aurreko urteetako esperientziatik ateratako definizioa: helburua da irakasle-taldeak une horretan gaiak duen jakintza esperientzial eta bizipen bidezko abiaturako definizioa. Jarraian, bateratze-lana egiten da.

Urtero egiten dugu, eta urtero harrizten nau bateratze-lanak. Zein ezaugarri ditu 2 urteko adinak? Nola definitzen dira Haur Hezkuntzako bigarren zikloa; Lehen Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren zikloa, Goi Zikloko lehen zikloa (gaur egun, Bigarren Hezkuntzako lehenengoa)? Hain nabaria da irakasle-taldeak lan egin behar duen materia bizi horren gainean duen jakintza eta trebetasuna, zeren beti idazteko gogoia izaten baitut, hor agertzen dena jasotzeko gogoia. Nola edo hala jasotzen da, baina idatziarekin beti desengainua hartzen dut, eztabaidaren indarra eta ñabarduraren aberastasuna galtzen duelako. Zoragarria da, ziklo desberdinetan lan eginda ere, batzar horietan belarria adi izanik, ikasleek, gizabanako gisa, eskola-garaiaren adin desberdinetan izaten duten eboluzio-prozesu orokorraren berri izatea.

2. Bigarren lan honetan, zikloka antolatuz oraingoan ere, IHPn azaltzen diren helburu orokorrak irakurri eta banaka-banaka berrinterpretatu egiten dira, elkarren artean dituzten loturak ediren eta taldeka antolatzen dira, eta une horretako beharretara moldaturik idazten dira. Amaitzeko, ziklo horren neurria egokitutako esku-hartze estrategia orokorrak definitzen dira. Bateratze-lana ere egiten da.

Lan horiekin honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Eskolan lehen aldiz lanean hasiko diren irakasleek, hasieratik bertatik, ikastetxeak garatutakoa eskura izatea eta, taldean egindako berrinterpretazioaren bidez, garapen horiek hobetzeko aukera izatea, eta eurenenganatzea.
- Urtero lan hori egiten dugunok ohartzea, urtero-urtero elkarrekin berrinterpretatzen ditugunean, gure eskemak ere aldatu egiten direla denbora horretan. Horregatik, beti

sakondu, ñabardurak aurkitu edo ikuspegi berriak ezagut ditzakegu edo, besterik gabe, aurrekoa berretsi eta praktikara eramateko kontzientzia zabal dezakegu.

- Trebetasuna hartzea, eta, batez ere, kontzientzia hartzea lan egiteko ditugun ikasleei buruz dugun jakintza eta adin batetik bestera hedatzen den eboluzio-prozesu orokorrak.
- Gero eta kontzienteago izatea esku artean duguna norberaren eta taldearen garape-nerako proiektua dela. Gai horiei buruz gure artean hitz egin ahal izatea eta taldean sakontzea, ikasleekin eta familiekin ildo horretatik esku hartu ahal izateko.

ESKOLA-ELKARTEAREN EZAUGARRIAK

Atal hau Hezkuntza Proiektuaren barruan dago (01 dok.), eta orain arte azaldutakoaren sintesizat har dezakegu. Eskola-elkartea bereizten edo definitzen duten bederatzita puntu ditu. Egia esan, ez dago horiei buruzko dokumentu idatzirik, salbuespen bat kenduta. Beraz, ikusten duzuen moduan, asko dago egiteke; baina garrantzitsuena ez da dokumentu idatziak izatea, horiek egiterakoan sortzen den gogoeta- eta egiaztatze-prozesua baizik. Horrez gain, dokumentuen bidez, norberak eta taldeak barneratu egiten dituzten puntuok, eta, hala, ikastetxearen kultur corpus bihurtzen dira. Ikusiko duzuen moduan, ikuspegi praktikotik idatzita daude.

Irakurri egingo ditut:

Desberdintasunak eta aniztasunak eratzten dute eskola-elkartea.

Desberdintasuna: fisikoa, psikikoa, soziokulturala (ekonomia, hizkuntza, arraza, sexua, pentsaera).

Ikuspegi horretatik, elkarteak konpentsazioa proposatzen du.

Askatasuna jarduteko eta pentsatzeko autonomian oinarritzen da, tolerantzian, eta elkarrizketaren bidez adostasuna bilatzen du. Bide horretatik konpontzen ez diren arazoetan, taldearen gehiengoak lortu duen erabakia izango da jarraitu beharreko alternatiba praktikoa.

Jarrera aktiboa eta sortzailea du egiturak aldatzeko eta sortzen diren gatazkak edo arazoak konpontzeko bitartekotzat.

Jarrera irekia du eskola-elkartean sortzen diren arazo eta behar berriak planteatu eta konpontzen saiatzeko.

Inongo ildo politiko edo erlijiosoren mende edo baldintzapean ez dagoen eskolaren alde egiten du, baina guztiak onartzen ditu.

Kulturartekotasunari atek irekita dago; hala, kide bakoitzak, elkarrekintzaren eta informazioaren bidez, aurreiritzirik gabe, ondorengoak lortuko ditu: batetik, kultura desberdinekiko (gutxiengoarena-gehiengoarena) pentsamolde irekia, tolerantzia eta asimilatzailea, eta, bestetik, gure gizartearen mugikortasuna kontuan izanik, kultur eredu desberdinetan moldatzeko baliagarri izango zaizkion baliabideak. Gure ustez, ikuspegi hori herrien arteko elkar aditze hoberako oinarri da.

Elkarteak euskara adierazpidetzat eta komunikaziorako bidetzat indartzen eta sustatzen du, eta egiten dituen jarduera guztietan euskara erabiltzeko aukera ematen du.

Ingurunea zentzu historikoan eta belaunaldiarteko arduratik abiatuta ulertzen du, eta horrek jasotako ondarea zaindu eta garatzeko konpromisoa hartzerara darama.

Gorputz-, higie-, eta osasun-garapena giza garapenaren elementutzat ditu, eta sustatu egiten ditu.

Nortasunari buruzko ezaugarri edo ohar horietan, ildo nagusi horietan, esku-hartzeko orduan behar ditugun erantzun edo ikuspegi orokorrak aurkitu ahal izango ditugu. Gogoratzen saiatuko naiz, ea benetako adibiderik jar dezakedan. Bai, gogoan dut bat.

54

Bada denbora, duela hamabost bat urte-edo (ez nago ziur), irakaskuntzan oso denbora gutxi zeraman irakasle gazte bat ezagutu nuen. Urduria zen, eta sekulako ikasteko gogo zuen. Egun batean esan zidan ikasle baten ama joan zitzaioa, erabat haserre, bere semea ikasgelan ijitu batekin izan zela eta. Esan zidan gorriak ikusi zituela eta gaiak pentsatzen zuena ahalik eta hobekien azaltzen saiatu zela, eta niri galdetu zidan zer egingo nukeen nik. Esan nion: gure iritzia argumentatzea aukera bat da, baina beti gure iritzia izango da. Nire ustez, badugu beste aukera bat: eskola-elkartearen ezaugarrietara jotzea, horiek dira-eta ikastetxearen ikuskera adierazten dutenak eta horrelako erantzunetarako norabideak ematen dizkigutenak. Hezkuntza-proiektua atera, eta irakur geniezaiokeen honako ezaugarria: *Desberdintasunak eta aniztasunak eratzten dute eskola-elkartea. Desberdintasuna: fisikoa, psikikoa, soziokulturala (ekonomia, hizkuntza, arraza, sexua, pentsamendua...).*

Gogorarazi geniezaiokeen dokumentu hori bere eskuetan zuela bere semea matrikulatu aurretik izandako elkarriketatik, eta, halaber, galde geniezaiokeen benetan aniztasunaren aberastasuna onartzen zuen edo okerreko eskola aukeratu ote zuen.

Horrelako egoeretan, praktikoa da dokumentu horretara jotzea.

Gogoan dut beste gertaera bat ere. Ez dakit zein urtetan gertatu zen, baina badakit Donostian eskola-jantokiak erruz ari zirela zabaltzen ikastetxe publikoetan, eta Amara Berri artean ez zeukala. Eskola-kontseiluan irekitzeko aukeraz eztabaidatu zen, hainbat

familiak hala eskatuta. Une hartan, orain ezinezkoa dirudien arren, proposamen hark ez zuen aurrera egin. Oraindik hotzikara sentitzen dut gorputzean argumentu gisa erabili zen esaldian pentsatzen dudan bakoitzean: ez da behar bat, amen alferkeria baizik. Nagusiki gizonetako osaturiko kontseilu hark ez zuen gaur egungoak daukan ikastetxearen kulturaren babesik, dokumenturik ere ez baitzegoen edo zeudenak oso eskasak baitziren, eta proposamenaren aurka bozkatu zuen. Zorionez, erabaki hark gutxi iraun zuen, berehala berraztertu eta zuzendu egin zen eta. Hala ere, ikasteko balio izan zigun. Hortik sortu zen ezaugarri hau: *Elkarteak jarrera irekia du eskola-elkartean sortzen diren arazo eta behar berriak aztertu eta konpontzen saiatzeko.*

Urte batzuk igaro ostean, familia batzuek hala eskatuta berriro ere, eskola-jantokien inguruko beste proposamen bat egin zen. Ateak zabalik zituen jantokia proposatu zen. Hau da, eguerdiko ordutegian edozein ikaslek ikastetxetik ateratzeko aukera izatea: adibidez, egun batean, aitonaekin edo amarekin paseatzeko; beste egun batean edozein jarduerara egiteko etab. Ordurako lau jangela zeuden, eta 700 ikaslek jaten zuten bertan, txikiak bi urtekoak. Ez zen erraza bazkari-txandak eta denbora horretan eraikin horietako bakoitzean egiten diren jarduerak uztartzea, ordutegia ezartzea eta kirol-monitore, jantokietako begirale eta atezaindegietako langileen ardurak betetzea. Erabakia bera harira ez datorren arren, esan dezaket egin zen lehen gauza Hezkuntza Proiektura jotzea eta ikastetxearen honako ezaugarria gogoratzea izan zela: *jarrera irekia izatea sortzen diren arazo eta behar berriak planteatu eta konpontzen saiatzeko...* Horrek analisi- eta bideragarritasun-lan handia egitera behartu gintuen.

Esan dizuedan bezala, ildo nagusi horietara jo dezakegu ikastetxe-motaren arabera erantzun egokiak emateko.

Errepasoa egingo dut, ea gaiak aurrez azaldu diren ikusteko:

- *Desberdintasuna eta aniztasuna...*
- *Askatasuna.*
- *Jarrera aktiboa eta sortzailea...*
- *Jarrera irekia behar berrien aurrean.*

Horiek jorratu ditugu, neurri batean, baina gainerakoak ez.

Esan dizuedan bezala, gehienak idatziz jasorik ez badaude ere, oharren bat egiten saiatu-ko naiz, eskolako ezaugarritzat hartzera bultzatu gintuen pentsamoldea jasotzeko ahalegina eginez:

- *Inongo ildo politiko edo erlijiosoren mende edo baldintzapean ez dagoen eskolaren alde egiten du, baina guztiak onartzen ditu.*

Aniztasunez beteriko eskola da, eta, arlo honetan, gainerako guztietan bezala, egunero jardunean desberdinak izanez eta elkar errespetatuz, guztiok ikasi eta guztiok aurrera egin dezakegun uste sendoa dugu. Baina ez da gauza bera ikastea, edo, nahia-go baduzue, irakastea, eta doktrinatzeta.

Esan nahi dut sistema honetan benetan zail dela ikasleak doktrinatzeta. Batetik, metodologikoki, irakaskuntza ez dugulako azalpenean oinarritzen, ezta informazio-iturri bakarrean ere: bizipenean eta iturriak eta baliabideak ikertzean eta kontrastatzean oinarritzen dugu. Bestetik, IHPn espreski jasota geratzea nahi izan dugu, eta halaxe egin dugu, *eskola ez dadila egon inongo ildo politiko edo erlijiosoren mende edo baldintzapean*, eskola publikoak ez duelako inongo ideologiaren zerbitzura egon behar.

Praktikak erakutsi digu erabat elkarren kontrako ideologiak izanda ere, pertsonok zintzoki ikertzen badugu, bereizkeriarik gabe, inor egiaren podiumera igo gabe –eta nire ustez, halaxe egiten dugu eskola honetan–, elkarren arteko lana aurrera ateratzeko taldean lan eginez, eta, halaber, onartzen badugu inork ez duela egia osoa, elkarrekin hitz egiterakoan eta ikertzerakoan oso zaila da gure kontzeptu- eta jarrera-eskemak ez aldatzea, ez mugitzea. Pertsona biziak garelako eta kontrastazioa elementu aberasgarritzat dugulako gertatzen da hori. Badakigu ez garelako garatzen ni bezala pentsatzen dutenekin bakarrik elkartzen banaiz; aitzitik, nire iritziz berekoak ez diren pertsonak bilatu behar ditut horretarako, horrek egia zabaldu, gure ikuspegia aberatsago bihurtu eta nire lekua zalantzan jartzea ahalbidetzen duelako. Nire ustez, bestelako portarekin arazoa aurretikoa izango litzateke, jarrera-arazoa, eta, beraz, elkar ulertzeko oinarriak huts egingo luke. Nire iritziz, gero eta kulturartekoagoa eta anitzagoa den gizartean jarrera horiek lortzea, eskolan hezkuntza-helburu hori finkatzea, beste edozein ikuspegi politiko edo erlijiosoren gaineratik dago. Gizartean badira mota horretako beharrak azaltzen dituenari erantzuna emateko gizarte-esparru egokiagoak eta espezializatuak: familia-, politika- eta erlijio-esparruez ari gara.

- *Kulturartekotasunari ateak irekita dago; hala, kide bakoitzak, elkarrekintzaren eta informazioaren bidez, aurreiritzirik gabe, honako hauek lor ditzake: batetik, bestelako kulturen aurrean (gutxiengoarena-gehiengoarena) pentsamolde irekia, tolerantzia eta onarpenezkoa izatea, eta, bestetik, gure gizartearen mugikortasuna dela-eta, kultur*

eredu desberdinetan moldatzeko baliagarri izango zaizkion baliabideak. Gure ustez, ikuspegi hori herrien arteko elkar-aditze hoberako oinarri da.

Duela hogeitaz hamar urte idatzi zen ezaugarri hori eta, gure gizartean, gaur egun orduan baino askoz garrantzitsuagoa da kulturartekotasun kontzeptua. Beti bezala, nahikoa izan zen gaiari adituagoa zen norbait besteekin elkarrekintzan aritzea eta, hala, gaiarekiko sentzibilitatea eta ezagutza egituretan bertan kudeatzea. Hortik sortu zen ezaugarri hau.

Edozein egoeratan eta edozein edukirekiko legez, hemen ere beharrezkoa da *aurreiritzirik gabeko elkarrekintza eta informazioa. Hori pentsamolde irekia, tolerantzia edukitzearen parekoa da*, ez zerbait baimendu edo pazientziarekin hartzearen zentzuan; gainerako pertsonen iritzia eta praktikak, gureak ez bezalakoak izan arren, onartu, errespetatu eta kontuan hartzea ari gara. Pentsamolde *asimilatzailea* izatea, ez berezitasunak ezabatzen dituen asimilismo gisa ulertuta, kanpokoa zaigun zerbait asimilatzea edo antzeko egiteko gai izatea baizik. Horrek nortasunaren edo nortasunen gaia ukitzen du: nortasunak ez dira estatikoak eta itxiak; elkarrekintzan daude eta, beraz, aldatu egiten dira. *Hori guztia kultur eredu desberdinetan moldatzen jakitera eta, batez ere, herrien arteko elkar aditze hobera zuzendurik dago.*

- *Euskara indartzen eta sustatzen du.*

Ezaugarri horri curriculumaz azaltzean helduko zaio, kasu honetan bada-eta ikastetxearen hizkuntza-tratamendua inguruko garapen idatzia.

- *Ingurunea zentzu historikoan eta belaunaldiarteko arduratik abiatuta ulertzen du, eta horrek jasotako ondarea zaindu eta garatzeko konpromisoa hartzea darama.*

Kulturaren ikuspegitik, zentzu historikoa bilakaera dinamikotzat dut, ez linealtzat. Kontzeptu mailakatuak eta irekia da, eta belaunaldi bakoitza dagokion ardura bere gain hartzea darama.

Ingurune naturalaren ikuspegitik, berriz, ezin dugu lehen helburu orokorretako bat aurkeztean azaldu dugunetik bereizi: *gure ikuskera, kosmosaren parte garen aldetik, gure bizimoduaren ezaugarri izan dadila...*

Esango nuke ezaugarri honek gogorarazten digula ez dugula ondarea suntsitzeko eskubiderik; aitzitik, ondare hori neurritzeko erabili behar dugu, eta gorde eta garatu egin behar dugu. Ingurumenaren gaineko erantzua aurrera eramanez behar dugula gogorarazten digu.

- *Gorputz-, higie- eta osasun-garapena giza garapenaren elementutzat ditu, eta sus-tatu egiten ditu.*

Irakaskuntzak nagusiki alderdi intelektualari eta ezagutza-metaketari erreparatzen zion urteetan, gorputzari garrantzia eman nahi izan genion, bai ikuskeran bai curricu-lumean: gorputz-hezkuntza, arte-hezkuntza (plastika eta musika). Gorputza garatzea, zentzumenak garatzea. Sentsazioez eta behar fisiologikoez jabetzea eta hautematea. Menderatzea eta bere mintzaira ulertzea. Horrek guztiak eragina du higiean eta osasunean.

Higie fisikoari eta psikikoari garrantzia eman genion.

Garrantzia eman genion osasunari. Parte garen naturarekin harmonian bizitzen ikasi nahi genuen. Harmonian bizitzen gure inguruko pertsoekin. Harmonian geure buruarekin.

- Eta orain, saioa amaitu baino lehen, galdera-erantzunei egingo diegu tartea, zuen nahi guztiak jasotzeko.
- Nirea ez da galdera bat, baina esan beharra daukat ikastetxea lanean ikustea esperientzia harrigarria izan zela, eta ez da gutxiagorako izan zure ikuskera entzutea. Behin baino gehiagotan entzungo zenuten iritzi bera.
- Bai.
- Nola egiten duzue irakasleen adskripzioa eta nork egiten du?
- Ikastetxe osoaren beharren arabera egin eta aplikatutako oinarritzko adskripzio-iriz-pide iraunkorrak ditugu. Horiei, ikasturtero, hala behar izanez gero behintzat, une bakoitzeko lehentasun eta behar zehatzei erantzuteko beharrezko direnak gehitzen zaizkie.
- "Irizpide iraunkorrak:
 1. *Pertsona bakoitza ongi sentitzea*; izan ere, hori ona da berarentzat, eta, gainera, ongi sentitzen bada, hobeto beteko du bere egitekoa eta errendimendu handiagoa aterako dio. Horretarako, bakoitzarekin hitz egin behar da, eta kontuan izan behar dira:

- *Bere nahiak* honako alderdietan: irakasgai-mota, etapa, zikloa edo ikasleen adina, hizkuntza-eredua, zein arlo ikertu nahiko lukeen praktikan oinarrituta etab.
 - Bere prestakuntza ofizialak.
 - *Bere trebetasuna, baita prestakuntza-aukerak eta curriculumarekin lotutako zaletasunak ere.* Adibidez, mediatekan, eskolako prentsan, ikasle-antolamenduan edo arlo artistikoan esku hartzea; hau da, berariazko prestakuntzarik ez dagoen jardueretan.
 - *Bere egoera pertsonalak*, bai iraunkorrak bai une zehatz horretakoak: osasun-arazoak, haurdunaldia, ebakuntza-kirurgikoa. Irakasleen hobetze-ikas-taroretara joatea, euskarako R ikastaroak kasu etab.
2. Funtzionatuko duten irakasle-taldeak eratzea. Horretarako, aniztasuna bermatu eta honako alderdiak orekatu behar dira:
- *Adina.* Talde bakoitzean gazteak eta zaharragoak egotea.
 - *Izaera.* Izaera biziak eta lasaiak nahastea.
 - *Sexua.* Gero eta gizon gutxiago daude, baina bi sexuak egoteak eta, gainera, sexua bizitzeko modu desberdin eta agerikoak izateak taldeak aberasten dituzte.
 - *Estilo pertsonala eta lan-estiloa.* Oreka lortzea, ikasleengana gehiago edo gutxiago gerturatzeko diren pertsonak batuz. Pertsona indibidualistagoak eta itxiagoak, eta talde-lanerako kontzientzia eta erraztasun handiagoa dutenak. Pertsona intuitiboak eta arrazionalak, lanean sistematikoak direnak eta hain sistematikoak ez direnak. Ahal bada, aniztasuna lortu kanpoko itxuran ere etab.
 - *Sistema pedagogikoaren ezagutza eta aplikazioa.*
 - *Hizkuntzak menderatzea.* Irakasleek irakaskuntzarako darabiltzaten hizkuntzetan duten jakintza errealaren arabera orekatu behar dira taldeak, ez tituluaren arabera.

- Konpromiso- eta dedikazio- mailak, *egonez gero behintzat*.
- *Aniztasun ideologiko, politiko edo erlijioso nabaria*, ikuspegiak aberasteko.
- *Muga fisiko edo fisiologikoak, iraunkorrak edo une jakin batekoak*. Osasuna, haurdunaldiak, hobetze-ikastaroak. Batetik, irakasleen hutsuneak ez diezaien beti ikasle berei eragin, eta, bestetik, ordezkapen egonkorrek bideratu ahal izateko.
- *Hezkuntza-premia bereziei heltzeko gaitasuna, ikasleei, familiei, hezkuntza-premia bereziei arreta eskaintzeko zerbitzuari (ABZ) eta kanpo-erakundeei begira*. Horrelako beharrak dituzten sektoreetan ezinbestekoa da irizpide hori kontuan izatea.
- Ez da ikastetxearen irizpidea irakasleek ziklo osoan jarraitzea; hala ere, *ahal dela langile berri guztiak sektore berean ez sartzea, eta tutoretza berean aldaketa etengabeak ekiditea*.
- *Prestakuntza-ahaleginak ekidin eta errentagarri bihurtzea*. Irakasle batek zeinu-mintzaira ikasi badu eta ez badago beste eragozpenik, jarrai dezala ikasle gorrekin lan egiten, beste pertsonaren bat prestatzen den bitartean. Hala, ahaleginak errentagarri izango dira.
- *Irakasleek euren seme-alabekin edo familiakoekin lan egitea ekiditea*.
- *Egoera bereziak kontuan hartzea, baldin eta arrazoitu egiten badira eta ez badiete besteen eskubideei kalterik eragiten*. Adibidez, irakasle batek klasean izan ditzake bere neska-laguna izan daitekeenaren seme-alabak, eta arazoak izango dituenaren beldur da eta argumentatu egiten du.
- *Ordezkapenak egitea eta orduak konpentsatzea zikloak koordinatzeagatik bilerak dituztenei, mintegietan edo ekonomia-batzordean lan egiten dutenei etab.*
- *Eraikin, ziklo eta sektoreetan giza baliabideak orekatzea*.

"Esan dizuedan bezala, bestelako irizpideak ere ezar daitezke ikasturte bakoitzean, une horretan sortzen diren berriarazko beharren arabera. Adibidez: sektore bateko

eta ziklo jakin bateko departamentuak egonkortzea, dena delakoagatik bertako irakasleen artean ezegonkortasun handia izan delako (aurrerago hitz egingo dugu horretaz). Komunikabideak indartzea eraikin jakin batean, gabeziaren bat ikusten delako eta beharrezkotzat jotzen delako etab.

"Irakasle guztiek izan behar dute irizpide guztien berri, eta edozein iradokizun egi-ten denean kontrastatzeko prest egon behar dute.

"Irizpideak garbi baldin badaude, gutxienekoa da nork aplikatzen dituen. Dena den, zuzendaritza-taldearen egitekoa da, ikasketa-burutzaren bidez, kasu honetan zuzendaritza pedagogikoaren bidez, irizpideok aplikatzea. Elkarrizketa-prozesua etengabea da, denak bat etorri arte.

"Amara Berrin egiteko hori gauzatzea nahiko erraza izan da, irakasle-taldea hain handia izanda ere, ikastetxearen kultura egon delako eta guztia ikastetxearen onura orokorraren mendean jartzeko baldintzarik gabeko prestutasuna izan delako.

- Ezagutu ditut irakasleen kokatzearekin arazoak izan dituzten ikastetxeak, gaia klaustroan erabaki nahi delako, antzinasun handieneko pertsonak lehenetsita. Amara Berrin ere izango ziren arazoak sortu dituzten pertsonak, ezta? Nola konpontzen dira arazo horiek?
- Nire ustez, antzinasuna eskolak ongi funtzionatzeko irizpide baliozkotzat erabiltzea, hau da, antzinasuna aipatu berri ditudan irizpideen gainetik dagoela inork ez du sinesten. Antzinasuna nagusiki pertsonaren onerako erabiltzen den irizpide da, eta, esango nuke ez duela lortzen, gainera; izan ere, irizpide hori giroa ona ez denean erabiltzen da, eta giro zapuztuan inor ez da ongi sentitzen. Besterik izango zen lanpostua galduz gero edo bi pertsonak baldintza berak bilduko balituzte. Hala iruditzen zait niri.

" Amara Berrin sistema hau aurrera eramaten ari diren irakasleekin kokatzea dela eta urte hauetan sortu ahal izan diren arazoei dagokienez, esango nuke esku bateko atzamarrak aski direla arazo horiek zenbatzeko, eta, nik gogoratzen dudanez, hiru egoeraren inguruan sortu dira:

- *Bi urteko haurren eskolatzearen inguruan.* Adin horrek errespetu handia sortzen zuen irakasleen artean, eta ikastetxe moduan ez geneukan esperientziarik arlo horretan, ezta egiteko hori betetzeko pertsona egokienak nor izan zitezkeen

jakiteko ziurtasunik ere. Baina beti dago jarrera eta beldur horien kontrapisua izan nahi duenik, eta euren prestutasuna agertzen dute, ikastetxearen kultura hori, hainbeste urtean nagusi izan den hori, gal ez dadin eta guztien ona beste nahi batzuen gainetik gailen dadin (nahiok arras zilegi izanik ere).

- *Eraikin aldaketaren inguruan.* Oso eraikin desberdinak dira ingurune fisikoari eta ingurumenari, antzinatasunari, sarbide eta komunikazio-bideei eta abarrei dagokienez.

Normalean, aldaketak kosta egiten dira, baina, hala ere gehienek zera esaten dute: Han behar naute? Bada, ez dago arazorik. Pertsona guztiok, ordea, ez ditugu gertaerak berdin hartzen, borondate faltarik ez badago ere. Kasu horretan, aldaketa funtsatzen duten irizpideak erabiltzen dira, eta, alternatiba hoberik aurkitu ezean, aldaketa gauzatu egiten da; izan ere, irizpideen bidez azaldurik, kostata bada ere, ulertu eta onartu egiten dira. Onartu ez zuen kasu bakarria ezagutzen dut, eta prozesua oso gogorra izan zen. Kasu horretan, erabakia gauzatu izan ez balitz, ez ziren irizpideak beteko, taldekideak benetan kaltetuko zituen eta. Horrelakoetan, zuzendaritza-taldeak dagokion egitekoa bere gain hartu behar duela uste dut: erabakiaren ontasuna (batetik, pertsona horrek egiteko berrian eskain dezakeenagatik eta, bestetik, ondo sentituko delako) ulertarazteko ahal duen guztia egin ondoren, erabakiari eutsi behar dio edo, bestela, pertsona horrek oraindik ere erabakia ez dela zuzena pentsatzen badu, goragoko instantzietara jo dezan eskatu behar dio. Hizpide dugun kasuan, esan behar dut goragoko instantzietara jo zuela. Esan behar dut, halaber, erabakiari eutsi egin zitzaiola. Eta, era berean, justua da esatea profesional on gisa lan egin eta inplikatu zela. Denborak aurrera egin ahala, nik gustura ikusten nuen, talde hartan ekarpenak eginez eta zegokion lekuan, baina galdetu egin behar nion eta halaxe egin nuen. Bere erantzuna zintzoa izan zen, eta oso ondo zegoela aitortu zidan.

- *B ereduan* (euskara ikasi egin behar duten ikasleak) *edo D ereduan euskara ematearen inguruan* (hizkuntza gailentzat euskara duten ikasleak). Kasuren batean gertatu da honako kontraesana: hizkuntza berreskura dadin nahi izatea, baina dakienarekin lan egitea nahiago izatea.

Gogorra egiten zait hori esatea, lehen esan bezala, kasu horiek guztiak esku bateko atzamarrez kontu baitaitezke eta une horretan pertsonak egon ahal zuten lekuan zeudelako edo egiteko berrirako beharrezko eta berariazko gaitasunik ez zutela sentitzen zutelako gertatu baitira. Gero, ordea, edozein hizkun-

tza-eredutan lan eginez aritu dira buru-belarri. Halaber, gogorra egiten zait hori esatea, puntu beltzean zentratzea dela iruditzen zaidalako; baina puntu beltz hori ez genuke ikusiko, kasu honetan bezala, "orri zuri" handi batean egongo ez balitz. Konparaketa hori erabili badut ere, argi utzi nahi dut ez dudala atsegin beltza negatiboarekin eta zuria positiboarekin lotzea, sarri azaleratzen zaizkigun kutsuak dira eta: "Zer moduz zabilta?" "*Beltzak ikusten ari naiz*". Guztiarekin ere, kasu honetan, eutsi egingo diot konparaketari. Batzuetan erabiltzen dut, oso grafikoa delako eta, orria erakutsiz gero, konparaketarekin bat datorrela ikus daitekeelako: zuria da eta normalean beltzez idazten dut.

- Zalantza batekin geratu naiz: sistema hau abiatzean, bazen bestelako ildo edo metodo zehatzik Amara Berrin?
- Ez, inola ere. Ikastetxea, artean, legez eratu ere egin gabe zegoen. Urtebete baino ez zen abiatua zela, eta ez zegoen inolako proiekturik. Horregatik ekin ahal izan nion proiektu honi.
- Askatasunaren gaiak zerbait esatea nahiko nuke. Aurreko saioan eskatu behar nizun, lidergoak hitz egin duzunean, baina orduan ez da horretarako astirik izan.
- Askatasuna beste printzipio metodologiko bat da (*01-5 dok.*). Dokumentua irakurri eta, aukerarik bada, zabaldu ere egingo dugu.

Askatasun-printzipioa

- *Gure ikuspegitik, indibiduala denaren eta soziala denaren artean mugitzen den bizi-egoera da askatasuna.*

Besteen eskubidea urratu gabe gauzatzen da. Hain zuzen, besteen eskubide horrek markatzen du eskolan muga soziala esaten dioguna. Helburuez jardutean esan dizue-dan bezala, muga soziala da ikastetxean indarrean dagoen arau bakarra.

Ikasleak, esaterako, txiki-txikitatik badaki guneak eta baliabideak ikasle guztiei dagoz-kiela edo ikasle guztientzat direla, eta, beraz, bereak ere badirela eta erabil ditzakee-la. Baina, halaber, pixkanaka-pixkanaka ikasi behar du atzetik datorrenak bere lekuan eta egoerarik hoberenean aurkitzeko eskubidea duela.

- *Gure ikuspegitik, askatasuna pentsatzeko, adierazteko, aukeratzeko eta bakoitza den bezala azaltzeko eskubidea ere bada (betiere beste pertsonak eta gure ingurunea errespetatuz).*

Gure muga pertsonalak edo sozialak bizitzeko moduak gure askatasuna bortxa dezake. Muga sozialaz eta gizabanako bakoitzaren gaitasun eta garapenei loturiko muga indibidualez jabetzen ikasi behar da.

Autoezagutza, norberaren mugak eta gaitasunak ezagutzea eta muga horiek onartu eta gaingitu nahi izatea askatasunerako bidea da.

Askatasuna mugatzen duten beldur eta barneko zein kanpoko mamuak uxatzea.

Izaera kritikoa garatzeak aske izaten laguntzen du, eta alderantziz.

Zailtasunei aurre egiteko sormena izateak ere askatasunaren alde egiten du.

Dokumentua irakurtzen ari naiz, baina, zuen baimenarekin, azpimarratuko dut askatasuna mugatzen duten beldur eta barneko zein kanpoko mamuak uxatzea, gure loturetatik askatzea, gure hesietatik askatzea, sekulako erronka dela. Egia esan, gutxitan ikusi dut beldurren gaia askatasunaren esparru honetan garaturik, baina ildo horretatik ohar bat edo gogoeta txiki bat egin nahi nuke.

Bada denbora beldurren eta mamuen munduaz jabetzen hasi nintzela. Gogoan dut behin niretzat ibilbide miresgarria duen lagun batekin hitz egin nuela horretaz. Esan zidan: "Loli, beldurrak eta mamuak bizitzako aro guztiei dagozkie". Luze jardun genuen gaiaren inguruan; izan ere, eskolan ohartzen gara txiki-txikitatik ditugula beldurrak: beldurra otsoei, beldurra medikuei, beldurra hildakoei, beldurra mamuei. Gai horiek etengabe errepikatzen dira, eta euren jolasetan agertzen dira. Zortzi urterekin-edo, pertsona maiteak galtzeko beldurra eta lagun-taldearekin, koadrilarekin lotutako beldurrak. Azken horiek izugarri areagotzen dira bederatzia eta hamar urterekin: esamesen beldurra, alde batera utziak izateko beldurra, bizkarra emango dioten beldurra, baztertuak izateko beldurra. Nerabezaroan, berriz, beldur fisiologiko eta sexualak eta beselako beldur eta desorekak. Helduarora iristean ere, aurreko aroetan bezala, sufritzen jarraitzen dugu. Rolak aldatu egiten dira: seme-alabak edo bikotea galtzeko beldur gara. Maite ditugun pertsonak sufri dezaten beldur. Osasuna galtzeko beldur, lana galtzeko edo lanik ez aurkitzeko beldur. Bakardadearen eta heriotzaren beldur. Onartzen dut duela urte batzuk arte ez nintzela ohartzen hainbeste sufrimendu eta hainbeste min sortzen genuenik.

Aurrerago, gaiaz mota askotako kolektiboekin eztabaidatzeko aukera izan dut, eta orain konbentziturik nago izugarri sufritzen dugula buruko mamuak diren gauzengatik, existitzen ez diren eta agian inoiz jazoko ez diren gertaerengatik. Ez dira jazoko, baina dagoeneko sufritu dugu. Gertaera errealak handiesteagatik eta handitzeagatik ere sufritzen dugu. Eta badira ezinbestean sufriaraziko diguten gertaerak ere. Baina zertarako sufritu iritsi arte? Gertaerak, jazo, jazo egiten dira; garrantzitsuena da nola bizi ditugun.

Urtetan, ikasturtea amaitu eta Amara Berrin eskolatzeko-aldia bukatzen zuten ikasleak agurtzerakoan, beti gogorarazten nien non ikasi dudan ez dakidan hauxe: "Beldur horiek eta minez betetzen zaituzteten mamu horiek agertzen direnean edo hartzen zaituztetenean, egin globo handi bat zuen buruan. Sartu bertan pentsamendu horiek guztiak, eta zulatu, lehertu globoa behin eta berriro, ohitura hartzen duzuen eta desagertzen diren arte. Ziurtatzen dizuet zuen askatasunerako bidea eraikitzeko modu bat dela".

Hori azaltzeko beharra izan dut, nire ustez gure garapen pertsonala baldintzatzen duelako, gure pentsamendua hartzen duelako, gure proiektuak geldiarazten dituelako, gure aukeretan eragiten duelako eta ez digulako uzten gure izatetik bertatik adierazten eta azaltzen.

- *Lankidetzaren esparru baten barruan gizabanakoak bere buruarekiko duen autoritatea ere bada askatasuna.*

Askatasuna talde sozialetan gauzatzen da. Taldean elkarrekintzan dagoen elementu bakoitzak norbanakoaren eta taldearen askatasunaren garapena susta edo muga dezake, eta alderantziz.

Ikasleekin egindako talde-dinamiketan –gauza bera gertatzen da helduen munduan ere– pertsonen edo taldeen artean arazoren bat sortzen denean edo egoera bat ez atzera ez aurrera dagoenean, ezin dugu oztopotik begiratu, ez gara talde horietako kide eta. Badakigu edozein esku-hartzek, kanpotik eginda ere (hitz edo keinu huts batek), onerako edo txarrerako egoera aldatu egiten duela eta desblokeatu egin dezakeela. Guztia sistemikoa da, eta guztiak eragin egiten digu modu batean edo bestean, baita horren aurrean esku hartzeak edo ez hartzeak ere.

Askatasunik ez dago, bakoitzak nahi duena egitea bezala ulertzen badugu. Horrela ulertutako askatasunik ez izateak ez du esan nahi, ordea, askatasunik ez dagoenik,

ikuspegi hori faltsua dela baizik: soziala izatearen ezaugarria baliogabetuko luke, eta inork ezin dio ezaugarri horri ihes egin.

- *Gizabanako bakoitzak badu.* Baina askatasun-zatiak irabazi eta galdu ere egin daitezke.
- *Askatasuna marko sistemikotik abiatuta ulertzen da, eta aldaketarako bitarteko edo eragiletzat hartzen da.*

Askatasuna aldatzen ari den nortasuna da. Aldaketarako faktore da.

Askatasuna beti dinamikoa da. Sortzetik oso gertu dago. Zu birsortzea eta esparru soziala birsortzea da. Ni ez naiz ni bakarrik, elkarrekin eta elkarrekiko errespetuan baizik.

- *Askatasuna sortutako beharrekiko (afektiboak, onarpenezkoak, fisikoak, materialak...) mendekotasunik ez izatea ere badela esaten da.*

Ikuspegi honek gehiago erreparatzen dio behar ez izateari edukitzeari baino.

- *Askatasuna, ebazte hutsaz haratago, heztearekin eta haztearekin loturik dago.*

Lehen ere esan dizuedan bezala, ezarritako arauak arauan berean eta arau hori betetzeari jarrazten dizu arreta. Arauak ebatz dezake, baina ebaztea eta heztea ez da gauza bera.

Beharrak eragiten duen arauak konpromisoa eta ardura sortzen du, baina askatasuna araua baino harantzago doa: gure ingurunea hautemateko eta bestea eta haren egoera sentsibilitatetik abiatuta tratatzeko gonbita egiten digu.

Sentiberatasun sozialagatik araua betez, askatasun-maila berriak eskuratzen dira.

- *Askatasuna eragingarritzat eta helburutzat hartzen da.*

Bulkada da, eta, era berean, bizitzako helburu bihurtzen da.

- *Askatasuna prozesua da eta uneoro gauzatzen da.*

- Ez dizuete inoiz esan zuen teoria ikuskera holistiko baten inguruan dabilela etengabe?
- Bai, agian aipatuko dudana gain beste norbaitek ere bai, baina gogoan dut behin gure sistemari buruzko dokumentuak eskatzera etorri zela pertsona bat, teoria holistikoarekin loturiko doktorego-tesia egiten ari zelako.

"Sistema globala denez, eskola bisitatzen duten askok beste enuntziatu ugariarekin lotzen dute. Bisitak hartzen dituen taldeak ondo daki hori.

"Gauzatzen duzuen elkarlaneko ikasketa da'. 'Konstruktibismo hutsa da'. 'Balioetan oinarritutako hezkuntza da'. 'Kalitatezko irakaskuntza da'. 'Parte-hartzeko eta jakintza kudeatzeko sistema da'. 'Berdinen arteko ikaskuntza da'. 'Sarean antolatutako lana da'etab. Nork esan dezake kontrakorik? Baina hala bada ere, kontuz! Kasu honetan, nahitaez aplikatu behar dut printzipio hau: osotasuna ez da zatien batura. Izan ere, proiektu hau globala eta dinamikoa da, eta zati horiek guztiak eta beste hainbat ditu elkarrekintzan eta mugimenduan; beraz, proiektua horietako bakoitza baino gehiago da, funtsean.

"Eta ondorioztatu dezakedanagatik, zuk zeuk ere esan berri diguzu teoria holistikoarekin lotuta dagoela. Baietz uste dut nik. Kurt Goldstein da gehien ezagutzen dudana autorea: bere teoria holistikoa ikuspuntu sistemikoan oinarritzen du, eta, agian horregatik erakartzen gaitu. Gure sistema kaosaren teoriarekin lotuta dagoela ere esaten digute, baina, kasu honetan, esango nuke gehiago hurbiltzen dela orokorragoa den sistema konplexuen dinamikaren teoriara. Dena den, zeri buruz hari zinen zu?

- Bai, horretaz. Alegia, erakundeak osotasun gisa funtzionatzen duten sistemak direla, eta estimulu jakin batek erakunde osoan eragiten dituela aldaketak. Galdetu dizut ikusten dudalako bizitzako edozein egoerari aplikatzen diozula, eta, zehazki, oraintxe egin duzu, askatasuna definitzeko talde-dinamikaz aritu zarenean.
- Nire ustez, ikuskera sistemikoaren edo erlazio holistikoaren ikuskera edozein egiturako edozein errealitateri aplika dakioke, baita edonoren portaerei eta edonor horren inguruneari ere.



Ikastetxearen Curriculum Proiektua

Goizeko bederatzia dira. Dagoeneko ezagutzen dugu Hezkuntza Proiektua, eta logikoa da geure buruari nola gauzatzen den galdetzea. Bada, dakizuen bezala, hezkuntza-proiektua martxan jartzeari esaten zaio, hain zuzen, curriculum-proiektua. Benetako praktikan nola programatu, ebaluatu eta esku hartu jasotzen da bertan, baita hezkuntza-asmo horren ondorio diren ezaugarri metodologikoak ere.

Nire asmoa ez da ikastetxearen curriculum osoa azaltzea, oso zabala baita eta topaketa honen helburuaz haratago baitoa. Deskribatu egin nahi dut, ez besterik, eta benetako programetan oinarritutako adibideen bidez (ez adibide teorikoen bidez) planteamenduak, ezaugarriak, faseak eta sortze-, garatze- eta hobetze-prozesuak azalduko ditut.

Beraz, atal edo saio honen edukia curriculumerako sarrera izango da:

- *Testuinguru sozialak, egonkorak eta osagarriak*, zer diren argitzea, gure programatzeko modua ezartzen dute eta.
- *Jolasaren kontzeptua garatzea*, testuinguruaren oinarri gisa.
- *Zikloaren organigrama-eredua aurkeztea*, ikasleekin zuzeneko erlazioa duen oinarriko antolamendu-egiturara hurbiltzeko.
- *Jarduteko modua definitzen duten ezaugarri metodologikoak zerrendatzea*.

Hurrengo saioan, curriculumaren faseei buruz eta curriculumaren koordinazio-prozesuari buruz jardungo dut, ikastetxearen ikuspegi orokorretik.



CURRICULUMERAKO SARRERA

TESTUINGURU SOZIALAK, EGONKORRAK ETA OSAGARRIAK

*Testuinguru sozialen, egonkorren eta osagarrien bidez programatzea da Sistema honen ezaugarrietako bat. Bizi-jarduerak dira, eta gaiak erlazionaturik daude; adibidez, *auzoa, galleta-fabrika, diseinu-tailerra, mediateka, erreportajea* etab.*

Zer esan nahi dugu testuinguru sozialak, egonkorrak eta osagarriak terminoekin?:

- *Testuingurua:*

Ingurune erreala, fisikoa, egoerazkoa, bizitzazkoa eta harremanezkoa da. Hezkuntza-asmotik abiatzen den jolasa da. Arretaz begiratuta, ohartuko gara *galleta-fabrika* zerbaitegatik eta zerbaiteko jarri dela. Sei-zazpi urteko haurrei zuzenduta dago. Bertan, geometria, multzoak, zenbakizko garapena eta eragiketa bidezko kalkulua ikas daitezke. Merkataritza-transakzio bat egiten da, eta aurrezki-libreta erabiltzen da. Lan plastikoa eta mugimenezkoa gauzatzeko, sukaldeko errezetak egiteko eta, zirkulazio-seinale eta guzti, garraioa (jostailuzko kamioia) erabiltzeko aukera ematen du. Ikusten duzuen moduan, gaiak erlazionaturik daude, baina bat da nagusi, matematika kasu honetan. Mota horretako jardueri esker, kontzeptuetan aurrera egiten da eta, bizi-jolasa denez, emozioak azaleratu egiten dira.

- *Soziala:*

Harremanetarako bidea ematen duen jolasa delako, eta, hain zuzen, harreman sozialetan eta erkaketan aldatzen direlako kontzeptu- eta jarrera-eskemak. Erkatzearen bidez identifikatzen dira gizabanakoa eta taldeak.

Benetako harreman sozialetan oinarritutako jolasa denez, etengabe sortzen diren egoerak berriak, biziak, errepika ezinak eta aurretik sumatu ezinak dira beti, eta irakasle irekiak eta harkorrak eskatzen ditu, bana-banako behaketa eta esku-hartzea egiteko sormen-gaitasuna dutenak. Sistema horrekin eta ikuspegi horrekin lan egitea beti eza gutzen eta berritzen aritzea da. Gako hori ulertu gabe lan egitea, berriz, airerik eta ikuspeirik gabe geratzearen parekoa da, bizia mekanizatu eta akabatzearen parekoa.

- *Egonkorra:*

Aurkeztuko dizuedan organigraman ikusi ahal izango duzuenek, jarduerak lehen eskola-egunetik ezarri eta diseinaturik daude, eta fisikoki ere lehen egunetik existitzen

dira. Ziklo osoko programak izanik, bi ikasturtetan gauzatzen dira, eta, testuinguru zehatz batzuetan, hurrengo ziklora edo zikloetara ere heda daitezke.

Egonkorak ez du estatikoa esan nahi, ezta itxia ere; aitzitik, guztiz kontrako esanahia du: kasu honetan, sistemiko, elkarreragile eta sozialarekin lotuta dago.

Zergatik egonkorak?

Sei urteko haur batek gutun bat idazten ikas dezan nahi badut, jardun dezakegu egun batean, hamabost egunean, hilabete batean, eta, gure ahalegin guztia eginda ere, gutunak beti sei urteko haur horren une horretako kontzeptu- eta emozio-eskemak islatuko ditu.

Testuinguruak egonkorak badira eta ikasle hori aldian-aldian eta sistematikoki testuinguru horietatik igarotzen bada (gaur, bihar, hurrengo astean, hurrengo hilabetean, hurrengo urtean edo urteetan), denbora horretan bere eskemak aldatzen ari direnez, horietatik igarotzean, aipatutako testuinguru horrek eskaintzen dion jakintzan sakondu ahal izango du.

72

Kasu horretan, esaldi bakarreko edo biko gutuna idatz dezake, eduki komunikatibo handiagoa duen beste batekin jarraituko du eta, adinaren edo gaitasunaren arabera, gutun komertziala, zorion-gutuna, gutun literarioa edo informazioa bilatzeko gutuna idatziko du, posta elektronikoa erabili ahal izango du etab.

Egonkortasuna prozesuarekin loturik dago. Pertsona bakoitzari bere mailaren eta erritmoaren araberako ibilbidea egiteko aukera ematen dio. Halaber, irakasleei aukera ematen die ikasle bakoitzaren bilakaera banan-banan zaindu eta haiekin egin beharreko esku-hartzea banan-banan egiteko.

- *Osagarria:*

Hogeita hamar urte baino gehiago daramatzagu curriculumaren osagarritasuna iker-tzen. Osagarritasuna ikasgela edo departamentu bateko jardueren artean. Osagarritasuna zikloan, zikloen artean, mintegi bakoitzean etab. Koherentzia lortu nahi dugu: ikastetxe osoari dagokion curriculumaren osotasuna, eta gizabanakoari eta bere garapen posibleari dagokion osotasuna.

Ikasleak hainbat testuingurutatik pasatzen direnean, aniztasun horrek aukera ematen die testuinguru bakoitzean nortasunaren alderdi desberdinak garatzeko, testuinguru-

ren ikuspuntuaren arabera betiere. Diziplina edo irakasgai jakin batzuk ikas ditzakete, edo baita irakasgai beraren alderdi desberdinak ere. Batzuetan bakarka lan egingo dute, eta beste batzuetan taldeka. Testuinguru bakoitzean talde berri batekin erlazio-na daitezke. Hainbat prozedura, material eta baliabide erabili ahal izango dituzte. Testuinguru batzuek kontzentrazioa eskatzen dute edo baita, musikan kasu, denek batera abestu edo jotzea ere; beste testuinguru batzuk, berriz, bereziki esparrua zabaltzera zuzendurik daude, hau da, aldi berean gauza gehiago egin edo arlo gehiagotan jardun ahal izatera. Testuinguru batzuk erabat sormenezkoak dira eta beste batzuk, aldiz, behatzea, aztertzea, datuak antolatzea, alderatzea, zorroztasuna etab. eskatzen duten horietakoak.

Ikusten duzuen moduan, programatzeko modu hori, testuinguruen bidez programatzea, alegia, Hezkuntza Proiektuan agertzen den pertsona- eta sistema-kontzeptuetan oinarritzen da eta horiekin bat dator.

JOLASA

Jolasa da testuinguruen oinarria eta muina. Nolabait aipatu dugu gai hori. Esan nizuen badela dokumentu idatzi bat (*02-01 dok.*) eta horri helduko geniola. Uste dut haxe dela horretarako unerik egokiena, testuinguru sozialak, egonkorak eta osagarriak bizi-jarduerak baitira, hau da, hezkuntza-asmotik abiatzen diren jolasak.

Dokumentuan agertzen diren gako edo ezaugarri nagusiak azpimarratuko ditut; une horretan zerbait iradokitzen badidate, azalpen luzeagoa emango dut eta, bestela, aurrera egingo dut.

- *Jolasa bizipenak gozatu, sentitu, barneratu eta kanporatzeko balio duen jarduera naturala da.* Beti pentsatu izan dugu gure barne-mundua eta afektu-mundua adieraztea oso garrantzitsua dela heldutasuna lortzeko.
- *Norberaren interes eta motibazioekin dago lotuta, baita adin bakoitzari dagozkion motibazioekin ere. Bizitzarekin dago lotuta eta kultura eta espezie guztiei berezko zaie.*
- *Jolasa eragingarritzat eta helburutzat dugu:*

Gure ustez, eragingarrien eta helburuen pedagogia da: irakasle-taldeak badaki ikasleei helduen mundua imitatzea gustatzen zaiela, eta, horregatik, imitazio-jolas bat diseinatzen du, horren bidez ikas dezaten. Testuinguru guztiek zertarako bat dute euren horretan edo kanporako irteeran, eta zertarako hori da egiazki eragingarria eta helbu-

rua. *Bikoizketa* testuingurutzat hartzen badugu, zalantzarik gabe, bertan egiten den lana neketsua da, ahalegin handia eskatzen du; baina, hala ere, atseginez ekiten diote, jolasa beragatik eta, batez ere, amaieran pentsatuz. Film bat bikoiztu badute, ikuskatu eta sortu dutenaz gozatu nahi dute, beren ahotsak entzunez. Beste pertsona batzuk ikuskatzea ere nahi izaten dute. Hori da ikasle horien eragingarria eta helburua.

- *Ikasteko bitartekoa da:*

Bikoizketa eginez ikasten da bikoizketa egiten. Behin irakasle batek esan zidan: era-kutsi dizkiet zenbakiak, eta orain joan daitezke dendara erostera. Horrek ez du zentzurik pedagogia honetan. Zenbakiak ez ditut ikasten erosi ahal izateko. Ez dut ikasten jolasteko. Jolastu egiten naiz, eta jolastuz ikasi egiten dut: erosi egiten dut, eta erosiz zenbakiak eta zenbakien balioa ikasten ditut. Azken batean, jolasaren bidez sortutako beharrak bultzatzen nau ikastera.

Esan dizuet ez diogula beldurrik jolasari, guretzat ez baita denbora galtzea, bakoitzak nahi duena nahi duen modura egitea edo irakasle bakoitzaren hautamen edo aldar-tearen arabera unean-unean asmatutako jarduera.

Lanari gustua hartzeko modua da, apurka-apurka atsegin intelektuala ezagutu eta horretaz gozatzeko modua. Bederatzi edo hamar urterekin ikasle batzuek euren aisialdian gozatu egiten dute sortuz, irakurriz edo idatziz: batzuek liburuak irensten dituzte, beste batzuek pelikulen gidoiak idazten dituzte eta bada ipuinak eta antzezlanak asmatzen dituenik ere. Ezagutzen dut hagatxoekin eskulturak egiteko aterki zaharrak biltzen dituen neska bat, eta kontatu zidaten mutil-talde batek auzoko txakurren errolda egiten zuela.

- *Pertsona bakoitza hartzen du:*

Jolasean nork bere egitekoa edo rola du, bere izaera eta bizi duen unea abiapuntutzat hartuta; izan ere, testuingurua oso diseinaturik badago ere, oso zabala eta irekia da.

- *Pertsona osotasunean hartzen du:*

Diziplinei dagozkien alderdiak garatzeko modua ematen du, baina betiere nortasuna-ren eta harreman sozialen garapenari loturik.

- *Hemengoa eta oraingoa bizitzea ahalbidetzen du:*

Hasieran esan nuen bezala, ez dugu hezten ez "etorkizunerako" ez "gizarterako". Hitz egiteko modu bat da, azken batean, denak eragiten baitio denari, baita guk orain eta hemen topaketa hau izateak ere. Baina inork ez digu esaten topaketa honetan etorkizunerako eta gizarterako prestatzen ari garenik, ezta? Hori eskola-adinean dauden haurrei buruz hitz egitean bakarrik esaten dugu. Badirudi ez direla inor, ez dutela entitaterik beren baitan. Horregatik, eskola bera gizartea dela eta haurrek berezko bizitza dutela aldarrikatzen dugu.

Gogoan dut, duela gutxi, Amara Berrin sistema hau izan zuten lehen promozioko ikasleek lehentasunezko lekuan eta, batez ere, bihotzean daramadan zerbait eskaini zidatela omenaldi gisa, eskola osoari egindako omenaldi gisa. Orain helduak dira, eta, eskola-urteak gogoan, bideo-zinta bat editatu dute orduko ikuspuntutik: edukia sortu eta euren bizipenak birsortu dituzte. Aktoreak dira, eskola-garaian izan ziren bezalaxe..., eta, harira etorriz, beren hitzak eskura ez baditut ere, honela zioten: "eskolan ez zeneukaten demokraziaz hitz egin beharrik, han demokrazia bizi genuen eta. Horregatik, oso ondo dakigu zer den". Horrek eta antzeko aitortpenek bermatzen dute esan nahi dudana: biziaren eta harremanen ikuskera batek markaturiko eskola-gizarte batean bizi izan zuten eta bizi dugu oraina, eta, hori da, hain zuzen, etorkizunean eta gizarteko beste alor batzuetan eragin dezakeena. Antolamendu-egiturak eta egitura horietako testuinguruak esku-hartzearen estrategia giltzarritzat dituen eskola, horren alde egingo nuke nik. Azalpen gutxi, baina aurkikuntza asko eta bizipen ugari ematen dituen eskolaren alde.

Zenbat aldiz entzun ote dut gizarte eskolara eraman behar dela, azterketa sozial bat egin behar dela hezkuntza-erantzun egokia eman ahal izateko. Ikastetxeek ez dietela erantzuten interes sozialei, eta agian hala izango da. Hauxe da nire galdera, ordea: zein interes soziali buruz ari gara? Multinazionalen interesei buruz, hiritarren independentzia murrizten eta botere guztia berenganatzen duten fundazio soziopolitiko edo soziokulturalen interesei buruz?

Ni bestelako proposamena egitera ausartuko nintzateke. Hauxe da nire abiapuntua: hezten duena edo hezten ez duena ez da ikastetxea esaten zaion gizartearen parte hori bakarrik. Hezten duena edo hezten ez duena gizarte osoa da. Badakit hiri batek, daukan guztiarekin, hiri hezitzailea izan behar duela. Hezten duen herri edo auzoa. Horregatik, ordezkatzen dudana eskola gogoan harturik, dituen muga guztiekin ere, eskolan bezala jokatu nuke: edozein antolamendu-egiturak ondorio berak ez dituela jakinik, esku-hartzearen estrategia giltzarri izango diren antolamendu-egiturak sortuko nituzke. Nire ustez, egin daiteke, eta, hala ez bada ere, eskolatik gizarte berri batekin amets egitea ere errealitatearen parte da.

Aniztasunez eta erlazioz beteriko testuinguru sozialak eta entitateak sortuko nituzke (batzuk badira dagoeneko). Prozesuak eta baliabide komunak errentagarritasuna sustatuko dituzten testuinguru egonkorak. Desoreka sozialak murriztuko dituzten testuinguru osagarriak.

Horrek espazioa, denborak, baliabideak eta zertarakoa (hau da, eragingarria eta helburu soziala) aztertzea eskatuko luke. Testuinguru bakoitzak zer eduki ikastea ahalbidetzen duen eta horietako bakoitzean zer gaitasun gara daitezkeen aztertu beharko litzateke. Bilakaeraren zainketa eta hezkuntzaren arloko esku-hartzea ere definitu beharko lirateke; izan ere, edozein gizartetan, baliabide komunez hornitzea bezain garrantzitsua izan ohi da arduraren hartzea eta baliabide horiek mantentzeko adinako sormena izatea.

Kudeatze aldera, eskola-gizarte mota horretara begira jarri programatu bagenu, apur bat bederen, gure auzoak eta gure herria edo hiria bizigarriagoak, ekologikoagoak, justuagoak eta gizatasun handiagoak izango lirateke agian.

Behin, duela urte mordoak, familia-talde batekin izandako bileratik ateratzean, neska baten aita gerturatu zitzaidan, enpresaburua edo enpresa bateko gerentea, ez dut gogoan. Zera esan zidan: Loli, egunen batean, dena delakoagatik irakaskuntza uzten baduzu, dei egin ieza-dazu, enpresako aholkulari bikaina izango zara eta. Berehala ohartu nintzen benetan honakoaz jabetu zela: norberaren eta taldearen garapenerako proiektuaren indarrak; eskolari, familiari eta edozein enpresa edo gizarte-erakunderi ezar dakioken proiektuaren indarrak.

Sistema ireki batean kokaturik dago, testuinguru sozial, egonkor eta osagarrien bidez. Horrela ulerturik, jolas honek oreka elkarreragileaz hitz egiten digu. Ikasten dena ez da ikaskuntzen batura hutsa: testuinguru batean ikasitakoak beste testuinguru batzuek emandakoa garatzen laguntzen du.

Ikasleak hobeto ezagutzeko aukera ematen du. Jolasa ikasleek barne-mundua eta afektu-mundua adierazi ahal izateko bitartekoa da, eta, jolasa egonkorra denez, irakasleek prozesuen bilakaera zaindu eta modu sistematikoan esku har dezakete.

Jolas horren, eta, azken batean, eskolaren *arau bakarria muga soziala da, besteen eskubidea.*

Jolasa *berezkoa zaie bizitzako aldi guztiei. Ez da haurtzarora mugatzen.* Helduak gara eta gu ere jolastu egiten gara.

Gizartearen edozein lekutan hemen aurkeztutako ezaugarri guztiak (ez batzuk bakarrik) biltzen dituen testuingururik aurkitzen baduzue, jolas honetaz ari gara.


ZIKLOAREN ORGANIGRAMA

Jarraian, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko organigrama aurkeztuko dut. Adibide gisa balioko du. Agian, hortik hastea da errazena, baina beste edozein ere har genezakeen. Organigrama

guztiak laugarren kapituluan dituzue. Badira zenbait desberdintasun ziklo batekoen eta beste batekoen artean, baina horrek ez digu ardura orain, helburua ez baita hemen agertzen dena praktikara eramatea, horrelako programa batek dakartzan prozesuak ulertzea baino.

LEHEN HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO ORGANIGRAMA

1. Zikloa.— Lehen Hezkuntza



Organigramari begiratzen badiogu, goiko aldean, ezkerrean, hiru departamentu edo ikasgelak osaturiko sektorea daukagu: *Hitzaldiak*, *Txotxongiloak* eta *Auzoa*. Bertatik hiru ikasle-talde pasatzen dira egunero txandaka, eta, sektore horretako departamentu bakoitzean, irakasle finko bat espezializatzen da.

Era berean, eskuineko sektoreak ere hiru departamentu ditu: *Irratia*, *Antzerkia* eta *Prentsa*. Aurreko kasuan bezala, departamentu bakoitzean irakasle finko bat espezializatzen da, eta horietako bakoitzetik hiru ikasle-talde pasatzen dira egunero, txandaka.

Normalean, irakasle horietako bakoitzak talde baten tutoretza koordinatzen du. Guztietan, nahita, adin desberdineko haurrak nahasten dira. Kasu honetan, sei eta zazpi urtekoak.

Departamentu bakoitzean hainbat testuinguru daude, hau da, hainbat bizi-jarduera. Horietako bakoitzean irakasgaiak erlazionaturik daude, baina beti bat nagusitzen da.

Lehenengo bi departamentuetan, *Hitzaldiak* eta *Irratia* departamentuetan, alegia, lehen hizkuntza da nagusi, bai euskara bai gaztelania, talde bakoitzeko hizkuntza gailenaren arabera.

78

Beherago, *Txotxongiloak* eta *Antzerkia* ditugu. Departamentu horietan arte-hezkuntzaren alderdiak lantzen dira (plastika eta gorputz-hezkuntza), baina bigarren hizkuntza da nagusi (talde bakoitzaren hizkuntza gailenaren arabera, berriro ere).

Auzoan eta *Prentsan*, matematika da nagusi.

Programa hori bi ikasturtetan garatzen da:

- Lehen ikasturteko lehen hiruhilekoan (ikasturteko eskola-egunak hirutan zatituta) hiru taldetako ikasleek, nor bere irakaslearekin, lehen sektorean lan egiten dute; bigarren hiruhilekoan, bigarren sektorera pasatzen dira eta hirugarrenean, berriro aldatzen dira. Beraz, ikasturtean sektore batean aritzen dira bi hiruhilekotan eta beste hiruhilekoan, beste sektore batean. Berdin egiten da bigarren sektorearekin ere.
- Bigarren ikasturtean, taldeak hiruhileko batean bakarrik aritu ziren sektoretik hasten dira. Horrela, zikloa amaitzen denerako, bakoitzean emandako denbora orekatu egiten da.

Normalean, irakasle bakoitza sektore bakoitzeko departamentu batean espezializatzen da. Departamentuok elkarren osagarri dira, eta antzeko ikaskuntzen inguruan aritzen dira. Hala ere, ikasleentzat departamentuz aldatze horrek jolasaren interesa du. Desberdina da

auzoan egotea (sukaldea, logela, egongela eta josteko gela dituen etxea, dendak) edo matematikako denbora-pasak dituen prentsara edo galleta-fabrikara pasatzea.

Organigramaren erdian, *Mediateka* dago. Baliabideez hornitzen du eta departamentuetako lanerako oinarrizko informazio-iturria da.

Beherantz jarraitzen badugu, ABZ agertzen da, hezkuntza-premia berezien arreta bereziko zerbitzua. Funtsean, departamentuen barruan erantzuten die behar horiei.

Beste espezialitate batzuk ere badira: gorputz-hezkuntza, arte-hezkuntza eta ingelesa hirugarren hizkuntza gisa, eta bakoitzak bere testuinguruak ditu. Lehen aurkeztutako sei departamentuetan ez bezala, ikasleak ez dira egunero pasatzen departamentu horietatik, eta irakasleak jarduera horretaz ardura daitezke bi sektoreetan, baita beste ziklo batzuetan ere.

Azkenik, Ikasle Antolamenduak, batzar eta zerbitzuen bidez, adin guztietako ikasleak jar-tzen ditu harremanetan.

Jarduera guztiek dute zertarako bat, beren barruan gauzatzen dena edo kanpora ateratzen dena: ikasgelara bertara, edo ikastetxeko irrati, prentsa, telebista, erakusketa eta ikuskizunen bidez.

Ziklo bakoitzean hogeita hamar testuinguru sozial, egonkor eta osagarri baino gehiago daude, departamentuetan eta jarduera komunetan banaturik: *Mediatekan, Irratian, Prentsan etab.*

Beste testuinguru batzuk hemen aurkeztutakoak bezain baliagarriak izan daitezke. Guk aurkeztutakoek badute balio bat: pertsona ugari (Amara Berriko eta sistema bera dar-magun ikastetxeetako profesionalek) urte askoan probatu izana.

EZAUGARRI METODOLOGIKOAK

Ezaugarri horiei buruz egin ditugun dokumentuak banatuko dizkizuet. Horietako batzuen gainean informazio gehiago eman nahi dizuet, eta kasuren batean egin dut dagoeneko. Banan-banan aipatuko ditut:

- Antolamendu-egitura esku hartzeko estrategia giltzarria da (3. kap.).
- Curriculumean, ikuspegi sistemikotik aztertuta, hiru fase bereizten dira (2. kap.):

1. Testuingurua eta haren elementuak.
2. Jarduera bakoitzaren edukiak, helburuak eta muina.
3. Esku-hartzea, bilakaera zaintzea eta ebaluazioa.

- Testuinguru sozial, egonkor eta osagarrien bidez eta diziplina anitzeko ikuspegiarekin programatzen da. Horregatik, irakasgaiak erlazonaturik daude, bat nagusitzen bada ere (2. kap.).
- Jolasa da testuinguruen oinarria, ikasleen interesekin bat dator eta (02-01 dok.), (2. kap.).
- Jarduera guztiek dute zertarako bat, eta era hauetako batean gauzatzen da: beren barruan edo, ikastetxeko irrati, prentsa, telebista, erakusketa eta ikuskizunen bidez, kanpora irtenaz (02-02 dok.).
- Departamentu espezializatuak.
- Ziklo osoko programak (02-03 dok.).
- Adin desberdinekoak nahastea (02-03 dok.).
- Etapen espezifikotasunari eta etapen arteko koordinazioari eusten zaio.
- Ikasle-talde bakoitzarekin hainbat irakaslek lan egiten dute (02-04 dok.).
- Lan-metodoa beti erabiltzen da (02-05 dok.).
- Mediateka departamentuetako lanerako oinarrizko informazio-iturria da (03-03 dok.).
- Kritika eraikitzailea aurrera egiteko faktoretzat hartzen da (02-06 dok.).
- Aniztasunaren aldeko apustua egiten da. Programa ikasle bakoitzak bere erritmoan eta mailan lan egin dezan prestaturik dago. Ikaskuntza-prozesuak ez dira geratzen adina dela eta.
- Desberdintasuna bertutetzat hartzen da, eta ez diskriminazio-faktoretzat. Denok desberdinak gara. Hezkuntza-premia berezietatik (gorreria, itsutasuna, Down sindromea,

autismoa, bizkarrezur bifidoa, garapen-arazo larriak) arduratzeko arreta-zerbitzua dago (02-07 dok) (3. kap.).

- Bi hizkuntza-eredu (B eta D) leku berean ematen dira (02-08 dok.), (2. kap.).
- Ikasle-antolamenduak, batzar eta zerbitzuen bidez, adin guztietako ikasleak jartzen ditu harremanetan (03-08 dok.), (2. kap.).
- Proiektuaren kudeaketa ikastetxeko irakasle guztiei dagokie. Irakasleek taldean lan egiten dute, eta bilerak prestakuntza-esparrutzat hartzen dituzte: paraleloak, sektoreak, zikloak, mintegiak, Arreta bereziko zerbitzua (ABZ), bilera pedagogikoak, klaustroak, ikastetxeentzako aholkularitza (3. kap.).
- Familiekin egiten diren bilerak ere prestatzeko bitarteko eta esparrutzat hartzen dira (02-08 dok.).
- Jarduera osagarriak: kultura- eta kirol-jarduerak, jantokiak eta garraioa ere hezkuntzan esku hartzeko esparrutzat jotzen dira.
- Irakaskuntzaren kalitatea hobetu nahirik, ohiko bihurtu da ikastetxeak beste profesionalei atea zabaltzea. Beste ikastetxeentzako prestakuntza-plana daukagu (3. kap.).

Honenbestez, bukatutzat eman genezakeen bigarren kapituluaren sarrera edo lehen zatia, eta curriculumaren faseekin jarrai genezakeen. Baina uste dut hobe dela, berriro ere, ikasgela eta testuinguru batzuk bisitatzea eta horietatik edatea, bertan daude-eta gure eragingarria eta helburua. Bisitaren helburua bideratuagoa izango da oraingoan: bereziki, curriculumaren hiru faseak hobeto ulertzen lagunduko diguten alderdietan arreta jar dezazuen saiatuko naiz. Hain zuzen, gai honen bigarren zatian alderdi horiez arituko gara.

Aprobetxa dezagun jolasaldia departamentu hutsen batera sartu eta lasaiago hitz egin ahal izateko. Ondoren, ikasleak ikasgelara sartzen eta lanean ikusiko ditugu.

Iritsi gara. Eraikin honetako Lehen Hezkuntzako lehen zikloan gaude, argi dago, eta, lehen esandakoa errepasatuz, sei departamentu ikus ditzakegu. Hiru eta hiruro, hau da, bi sektore, bakoitza korridorearen alde banatara. 3. hizkuntzaren departamentu hau eta artearen bi hauek ere ikus ditzakegu: musika- eta plastika-departamentuak, alegia. Pixka bat harantzago, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta eskaintzeko berariazko guneak: gelatxo honetan, entzumen urriko ikasleekin lan egiten duen audiofonista dago;

hemen, ikasle horiek bere gorputz-erritmoa lantzen dute, eta, ondoko gela ziklo horretako bestelako hezkuntza-premia batzuetarako erabiltzen da.

Departamentu bakoitzean, sei eta zazpi urteko ikasleak daude. Une honetan, ez dut esan nahi 1. eta 2. mailako ikasleak direnik (legez hala diren arren): azpimarratu nahi dut ez dela ziklo osorako programa bat, non lehen ikasturtean 1. maila eta hurrengoan 2. maila egiten duten; aitzitik, programa horrek bi urte irauten du, eta aukera ematen du ikasle bakoitzak bere erritmoan eta bere garapen pertsonalaren arabera egin dezan aurrera. Baliteke lehenengo mailako norbaitek bigarren mailako ikasleek baino gehiago aurreratzea: norbait hori ez dugu geldiaraziko adina dela-eta. Kontzeptu hori oso garbi dugu irakasleok, nahiz eta mailei buruz hitz egiten dugun elkar ulertzeko eta, batez ere, besteek gu uler gaitzaten. Legalki, eraikin honetan eta ziklo honetan, besteetan bezala, 1. mailako hiru ikasgela eta 2. mailako beste hiru ikasgela leudeke. Baina, benetan, zer egiten dugu? Sei departamentu antolatzen ditugu eta guztietan adin desberdineko ikasleak nahasten ditugu (kasu honetan, sei eta zazpi urtekoak).

Hitzaldiak izeneko departamentu honetan sartuko gara. Barne-funtzionamendua ulertzeko argiena da. Departamentu gehienen antzera, lau testuinguru ditu:

82

- *Posta-trukea* eta *Ipuin asmatuak* dira ikasleei errazen egiten zaizkien testuinguruak; izan ere, Haur Hezkuntzan hasi ziren horiek ikasten, eta oso maila oinarritzeko edo maila konplexuagotara aritu daitezke. Horregatik, hasiera-hasieratik edozein ikasle pasatu daiteke bi horietatik..
- Beste bi testuinguruak, *Ipuinen laburpenak* eta *Hitzaldiek*, irakurmenean eta idazmenean menderatze-maila handia eskatzen dute, eta ikasle guztiek ez dute gaitasun hori lehen zikloaren hasieran; horregatik, ziklo horretan aurreko urtean izan zirenak (bigarren mailako ikasleak, alegia) hasten dira bi testuinguru horietan lanean. Lehenengo mailakoak, berriz, pixkanaka-pixkanaka sartuko dira, bakoitzaren gaitasunaren arabera.

Posta-trukean gaude

Gune honetan eta departamentu osoan egiten duten lana bakar-lana da erabat, nahiz eta, ikusiko dugun moduan, guztiak zertarako edo irteera sozial bat duen. Mahai osagarri batean dago ikasleek testuinguru honetan lan egiteko behar duten material suntsigarri guztia.


Uste dut badatozela jolasalditik. Isil-isilik egongo gara, eta bi gune hauen artean jarriko gara, sarrera ez oztotatzeko. Begiratu irakasleari: barruan dago ikasleen zain eta harrera egiteko prest. Garrantzi handia ematen diogu une horri, saioaren garapenean eragin zuze-

na du eta, nahiz eta batzuetan sortzen diren ustekabeek hori horrela izatea eragotzi. Pixkanaka-pixkanaka sartzen ari dira; agurtu egin ditugu eta beraiek ere agurtu egin gaituzte begiradarekin, keinuarekin.

Hiru minutu, eta dagoeneko beren lanean kontzentratzen ari dira. Zer egin dute?

HITZALDIAK DEPARTAMENTUKO ORGANIGRAMA

1. Zikloa.— Lehen Hezkuntza Hitzaldiak Charlas



Sartzearekin bat, gune bakoitzak duen mahai osagarri horretara jo dute. Hiru karpeta daude bertan, eta bakoitza kolore batekoa da, bertatik pasatzen diren sektoreko hiru taldeek ezagut ditzaten. Talde honen karpeta zuria da. Amaitu gabe utzitako lanak gordezten dituzte bertan, gutun batzuk, kasu honetan. Behar duten material suntsigarria hartu, eta, irakaslearengana jo gabe, lanean ari dira dagoeneko.

Beha diezaiegun. Lune eta Asier, legalki esanda, Lehen Hezkuntzako bigarren mailan daude. Beste bostak, berriz, lehenengo mailakoak dira. Ane gorra da, eta, horregatik, bere prozesuan laguntzen dion espezialista bat du ondoan. Irakasle espezialista hori departamentuko irakaslearekin elkarlanean aritzen da eta, beharrezkoa bada, behar duen edozein ikasleri laguntzen dio dagoen testuinguruan, hala bere funtzioa arruntago bihurtuz.

Zuen gutunak irakur ditzakegu?. Asierrek eskuarekin estali du. Sekreturen bat izango du, eta errespetatu egin beharko zaio. Gainerakoek, berriz, atseginez erakutsi dizkigute.

Koldo dagoeneko sinatzen ari dela dirudi. Zutitu, eta atzamarrarekin lan-metodoaren urratsei jarraitu die. Lan-metodoa beti eta testuinguru guztietan horman zintzilikaturik dago, haurren oso eskura, gaztelaniaz bata eta euskaraz bestea. Koldo euskarazkoari jarraitzen ari zaio, horixe da bere lehen hizkuntza eta. Urratsetako batean geratu, eta gutun-azal baten bila joan da. Helbidea eta igorlearen izena idatzi ditu. Gutuna sartu eta ikasgelatik kanpora eraman du, gutunontzira. Gune horretan bertan, departamentu bakoitzaren edo zikloko tutoretza bakoitzaren izena duten sei gutunontzi, txapel bat eta zorro edo poltsa bat daude. Txandaka, ikasle batek gutunak jaso, sei gutunontzietan sailkatu, txapela jantzi (publikoki kargua ematen dio) eta banaketa egiten du. Badira eskolatik kanporako diren gutunak ere. Jolas horri deitzen diogu testuinguru horren zertarakoa, hau da, bere irteera soziala.

Koldok irakaslearekin hitz egin du. Ziurrenera testuinguruz aldatuko da. Halaxe da: material suntsigarria bere lekuan utzi eta, abesten, hitzaldien gunera doa.

Ipuin asmatuetara joan gara

Hemen, izenak berak dioen bezala, ipuinak asmatzen dituzte. Hasiera, korapiloa eta amaiera kontuan izanda sortzen eta idazten dituzte.

Patricia, lan asko egin duzu eta oso ongi! Harro dago bere lanaz: hogeitaz idatzi dituela dio, baina oraindik ez duela bukatu. Halako zaletasunez ikusten ditudanean, idaztea hobby handi bat bihur daitekeela pentsatzen dut, akaso baita ogibide ere. Gogoan dut ikasle bat, leku honetan bertan, irudimenez eta indarrez beteriko istorio bat idazten ikusi

nuela, hirurogei orrialdekoa. Benetan harritu ninduen. Urte batzuetan bere arrastoari jarraitu nion. Gaur egun kazetari gazte bat da eta, zalantzarik gabe, idazle bikaina izango litzateke.

Carlosek *zuhaitza* nola idazten den galdetu dio irakasleari. Irakaslea makurtu, eta bere parean jarri da. Eutsi, eta, adeitasunez begiratu, esan dio: "Carlos, uste dut zuk ere bada-kizula nola idazten den, nik esan gabe. Saia zaituz". Esku-hartze horrekin jarduera-prin-zipioa aplikatzen ari da: *ikasleak bere kabuz egin dezakeen guztia eginda ez ematea*.

Badirudi Xabierrek amaitu duela bere ipuina. Bai, jarri ditu azalak ere. Erakutsi egin digu. *Bota biziduna*. Bost orrialde ditu. Irakaslea gerturatu egin zaio. Ipuina berraztertu, elkarri irribarre egin, eta Xabierrek ohar bat idatzi eta kortxoan jarri du. Publikoaren aurrean aur-keztuko duela iragarri du, eguna zehaztuz. Beste ohar bat irratiko gutunontzira eraman du, hurrengo eguneko saioan iragarri dezaten. Horixe da testuinguru horren irteera sozial edo zertarakoa. Bere ipuina hartu, eta entseatzeko gunera joan da. Ondo ahoskatzen saiatzen ari dela nabaritzen zaio. Ondo prestatu behar du publikoaren aurrean irakurtzeko.

Begira. Itziar Patriciaren ondoan eserita dago. Bere ipuina koadernaturik du dagoeneko. Ea entseatu behar duen galdetu diot, eta ezetz esan dit, aurkeztu zuela publikoaren aurrean. Zenbakitutako ipuinen zerrenda hartu du. Hauxe idatzi du: 93. zkia., ipuinaren izenburua eta egilearen izena, hau da, bere izena. Bere ipuinean ere 93. zkia. idatzi du. Sailkatu ondo-ren, asmatutako ipuinen parte izan dadin, departamentuan horretarako prestatu dagoen apalean utzi du. Bere ipuina, beste lauogeita hamabirekin batera, irakurri nahi duenaren eskura egongo da. Jarraian bere autokontrol fitxa hartu, eta amaitu berri duen jarduera idatzi ducoge su ficha de autocontrol y anota en ella la actividad que acaba de realizar.

Ipuin sintesia

Jarduera honetan, liburutegira joanez eta horrelako liburu bat aukeratuz hasten dira: letra gutxikoa, eta orrialde bakoitza laburtzeko modukoa. Antzeko liburuak egin behar dute, orrial-de bakoitzeko edukia laburbilduz eta ideia hori marrazki bidez adieraziz. Koadernatu, entse-atu, jende aurrean aurkeztu, sailkatu eta ipuinen sintesien liburutegian artxibatzen dute.

lunek ideia nagusia atera nahi du, baina, bere hitzekin egin behar duenez, sintesia jato-rrizko testua bera baino luzeagoa da. Hori gertatzen zaie hasieran.

Aurrean dagoen beltzaran horrek (izena ez dut gogoan) zoriontsu dirudi. Behin eta berri-ro begiratzen dio bere lanari. Orrialde bakoitza irakurri eta marrazki bakoitzarekin gozatu egiten du. Azala laztandu du.

Ohartzen bazarete, asmatutako ipuinaren formatua horizontala zen eta honena, aldiz, bertikala. Gero Hitzaldietan formatu handia ikusiko dugu. Koadernazio-mota ere desberdina da, bertan garatzen diren plastika- eta mugimendu-gaitasunak desberdinak direlako, baina, batez ere, zertarakoarekin batera, hori ere jolasaren eta gozamenaren parte delako.

Begira: irakaslea hurbildu, bere ondoan eseri, liburuxka hartu eta liburuxkaz gozatzen ari da. Esku-hartze hori azkarra baina konplizitatez eta hurbiltasunez betea da. Hunkitu egiten nau.

Testuinguru honi Hitzaldiak esaten zaio

Hortik departamentuaren izena.

Adin honetarako nahiko jarduera zaila da.

Liburutegira joan eta testu zientifiko bat aukeratzen dute.

Animismoaren aldia da. Gustukoa dute animalien mundua, natura oro har. Gogoko dute espazioari dagokion guztia. Nondik eta nola jaiotzen garen etab. jakitea interesatzen zaie.

Lana honetan datza: testua hartu, eta esaldiz esaldi (paragrafoa gehiegi da oraindik adin horretarako) hizkuntzaren itzulgarritasunaz ohartzea. Galdera egokia bilatzen dute, hau da, testuak edo esaldiak erantzuten duen galdera.

Galdera horiek idatzi egiten dituzte, eta publikoari hitzaldi bat emateko gidoi moduan baliatzen dituzte. Ez daukate testu idatzirik hitz egiten dutenean; gidoia soilik, erreferentzia gisa, behar badute ere. Sei edo zazpi urterekin ez da lan erraza. Bai, bai, irakur dezakezue lan-metodoa. Hau oso luzea da, baina ez die arazorik sortzen, urratsez urrats betetzen dute eta.

Lan metodoa**Hitzaldiak**

1. Liburu bat aukeratuko dut liburutegian.
2. DIN A4 orri batean hitzaldiaren izenburua eta nire izena idatziko ditut, eta aukeratutako gaiaren marrazki bat egingo dut.
3. "Testu hautatua" idatziko dut orri batean, eta testuaren fotokopia gehituko diot.
4. Orrialde bakoitza zenbakituko dut, fotokopiatzen ari naizen bitartean.
5. Beste orri batean "Lan-metodoa" idatziko dut, eta atzean lan-metodoaren fotokopia jarriko dut.
6. Esaldi labur bat edo lehen puntura arte irakurriko dut, jartzen duena ulertzen saiatuz.
7. Niretzat berria edo zaila den hitzen bat agertzen bada, azpimarratu eta hiztegiari begiratu edo galdetu egingo dut, zer esan nahi duen jakiteko.
8. Testuak erantzuten duen galderaren bat bilatuko dut.
9. Orriari idatziko dut, maiuskulak eta galdera-markak kontuan izanda.
10. Gauza bera egingo dut testu osoarekin, galderak gidoi moduan zenbakituz.
11. Orri batean idatziko dut: "Hitz berriak edo zailak".
12. Orri berean, lehen azpimarratutako hitzak idatziko ditut, eta nire hitzekin azalduko dut esanahia.
13. Kontinente, nazio, hiri, ibai edo antzekorik agertuz gero, mapan kokatuko dut.
14. Makinaz idatziko dut erabilitako bibliografia.
15. Azala apaindu eta nire izen-abizenak idatziko ditut.
16. Atzeko azala apainduko dut.
17. Horrela entseatuko dut:
 - Gidoia eskuan dudala, galdera baxu irakurri eta erantzuna ozen emango dut.
 - Agertzen diren datuen mapak, argazkiak edo eskema grafikoak aurkituko ditut.
18. "Aurkezpenen kartelean" nire hitzaldiaren berri emango dut, eguna zehaztuz eta nire sinadurarekin. Bi ale egingo ditut, irratian ere esan dezaten.
19. Aurkeztu egingo dut.
20. Publikoak kritika egingo du eta nik baloratu egingo dut.
21. Publikoaren jarrera baloratuko dut.
22. Hitzaldia prestatu eta aurkezterakoan nola sentitu naizen azalduko dut.
23. "Hitzaldi-zerrenda" izenburua idatziko dut, dagokion zenbakia jarri, eta sinatu egingo dut.
24. Hitzaldian pegatina itsatsiko dut, dagokion zenbakiarekin, eta artxibaturik geratuko da "hitzaldien liburutegian".
25. Hitzaldiari dagokion pegatina jarriko dut nire "autokontrol-orriari".

Irakaslea testuinguru guztietatik pasatu da, eta baxu-baxu esan die ikasleei: "Ordua da".

Inurri langileak dirudite: amaitu gabeko lanak, talde bakoitzaren karpetara; liburuak, liburutegira; material suntsigarria, bere lekura; beren mahaiak txukundu eta ziztu bizian desagertu dira. Bat oso atzean geratu dela ikusten dut. Ez, ez, badoa korrika!

Eskerrak emango dizkiogu irakasleari. Bere esku-hartzea eta sortzen duen bake-giroa benetan miresgarria da.

"Noiz izango da gaztelaniazko aurkezpenen bat?", galdetzen dio taldeak irajasleari. "Arratsaldeko lehen saioaren hasieran duzue bat", erantzun du. "Ez bazaizu axola, agian etorri egingo gara", gaineratu du taldeak.

- Departamentu bat ezagutu ahal izan dugu, baina oraindik denbora dezente gertzen zaigu gure saioa amaitzeko. Beraz, behatu dugunarekin lotutako galderetarako zabal dezakegu eta, gero, ikasleak itzultzen direnean, ikusi berri duguna osatzeko tartetxo bat izango dugu oraindik. Bihar, lehen orduan, beste ziklo batzuetako testuinguru batzuk ikusten jarraituko dugu.
- Departamentu batean, jarduera-printzipioa aipatu duzu. Hitz egingo zeniguke horretaz?
- Eskertzen dizut iradokizuna, oraindik hiru printzipio falta zaizkigu eta. Beraz, jarduera-printzipioa ikusiko dugu lehenik eta aurrerago helduko diegu besteei.

Jarduera-printzipioa (01-3 dok.)

Printzipio horrek pertsona baten jardunean eta bere egiteko gaitasunean eragiten du.

- *Autonomia sortzen du:*

"Ikasleek talde edo pertsona gisa beren kabuz egin dezaketen ezer eginda ez ematea irakasleek". Irakasleei ere aplikatu dakieke printzipio hori: irakasle bakoitzak egin dezakeena eginda ez ematea koordinatzen duenak, aholkatzen duenak etab.

- *Buru gogotsutzat eta gogoetatsutzat hartzen da:*

Buru ernaia, ekimena duena.

Jakin-mina, jakiteko gogoia, aurrera egin nahia etab. dakartza

Ezin daiteke aktibismoarekin edo mugimenduarekin nahasi.

Gogoetarik gabeko ekintza batek egoera bat honda dezake, baita behar bezala konpontzea eragotzi ere.

- *Aurretikoez ekintzaren kalitatea markatzen dutela ohartzea dakar:*

Nolabaiteko "bizi- eta emozio-tentsioaz" jardun eta bizitzeak –jarrera ireki, inplikaziozko, ez-utzikeriazko eta hor egotearen jarrera gisa ulertuta– kalitatearen kontzientzia markatzen du, eta horretaz ohartzea dakar printzipio horrek.

- *Beharrak, motibazioak, interesak bultzatuta sortzen da.*

- *Pertsona bakoitzak bere buruarengan duen konfiantzari loturik dago. Gogoeta egiteko, erabakiak hartzeko eta jarduteko gaitasunari lotuta. Autoestimuari lotuta.*

Autoestimu eskasak, pertsonak bere buruarengan konfiantza falta izateak, gogoetarako eta erabakiak hartzeko gaitasuna geldiarazten du. Ekintza geratu egiten du. Jarduera-printzipioak erabat kontrakoa lortu nahi du.

- *Egiteko gaitasuna edo trebatzeko jarrera eskatzen du:*

Batzuetan, pertsonok, eta, zehazki, irakasleok gure lanbidean konformatu egin gaitetzke, gehiago jakin beharrik ez dagoela pentsatuz, edo esanez: nik horretaz ez dakit, eta, beraz, ez dagokit; horrenbestez, bideak eta aukerak ixten dizkiogu geure buruari. Jarduera-printzipioak, berriz, zera esatera garamatza: ez badakit, trebatu egingo naiz. Horregatik, geure buruari eta ikasleei begira egiten dugun esku-hartzean eragiten duen printzipio aktiboa da. Jarrera horretan heztea da, etengabeko bilaketa eta norbere burua hobetze horretan heztea.

- *Helburua zein den garbi jakin behar da:*

Hortik curriculumaren bigarren fasea garatzearen garrantzia. Horri dagokionez, ez naiz sekula aspertuko behin eta berriz azpimarratzeaz: helburuak garbi izatea, ekintza zabalagoa izan dadin. Hurrengo saioan garatuko dugu.

- *Printzipio horrek, ikuskera horrek, norberaren inplikazioa dakar.*
- *Jarduerak mugimendua eragiten du, aritzea:*

Ekintzan jarrera lasterra. "Mugimendua ibilian erakusten da."

Zenbat aldiz, biziaren berezko ezaugarri da eta, egin behar dituzun gogoko ez dituzun gauzak: dei soil bat, e-mail bat bidaltzea, norbaitekin elkarrizketa bat izatea, zerbait antolatu edo konpontzea etab. Buruan daukazu, eta zenbat eta geroagorako utzi, orduan eta astunagoa egiten zaizu. Penen antzera, bizkar gainera igo eta konkortu egiten zaituzte. Horregatik esaten dugu: azkartasuna ekintzan. Lehen horren beharrik ez banuen ere, niri asko laguntzen dit mapara jotzeak; planning-az ari naiz. Agendan apuntatzea: halako eguneko halako ordua hau egiteko, beste egun oso hau honetarako... Agendan hustuta bakarrik sentitzen naiz ondo, zamarik gabe, badakit-eta une hori iristean horretan arituko naizela eta beteko dudala.

- *Norberaren estilotik abiatuta planifikatzeak indartu egiten du:*

Daukadanaz, nahi dudana eta lortu dudana jabetzea. Kokatzea, non nagoen konturatzeta. Zer falta den eta zer norabidetan jardun behar den ikustea. Kontziente banaiz, modu jakin batean bilatzen eta jarduten dut, neure estrategiak garatuz.

Nor bere garapenaren eta jardunaren subjektu edo protagonista da.

Azkena esan dudana hori lantzen ari naizen dokumentuan jasorik dago. Hala dela uste dugu, eta hortik abiatuta esku hartzen dugu geure lanean. Hala ere, nire ustez, pertsonak bata bestearengandik hain desberdinak garenez, baita ikasi, adierazi, komunikatu, pentsatu eta jarduteko moduan ere, ez dugu beti zuzenean planifikatzera jo behar. Nire esperientzia azalduko dizuet. Batzuetan gai zehatz hori ezagutzen dut, baina ez naiz konturatzen daukadanaz, nahi dudana, nola jardun behar dudana, eta, ondorioz, ezin dut ziurtasun osoz planifikatu. Kasu horretan, estrategia bat erabiltzen dut: gaia hartu eta buruan sartzen dut, nire nahiaren indar guztia jarritz. Badakit bilatzen ari naizena hor dagoela, edo subkontzientean, agian memoria historikoaren kon-

tua dela eta. Badakit mugitzen ari dela, baina nik egoten uzten diot, presionatu gabe. Horretaz ez hausnartzen saiatzen naiz. Barruan heltzen ariko balitz bezala da, baina uste osoa dut iritsiko zaidala, aterako dela. Ordenagailuari bilatzeko agindu konplexu bat ematea bezala: sumatzen duzu mugitzen ari dela, barruan bilatzen ari dela, eta, azkenean, pantailan erantzuten dizu. Hemen ere antzeko zerbait gertatzen da. Denbora pasatzen da eta, bat-batean, ez du axola noiz, edozein unetan, berdin egunez zein gauzez, jabetu egiten naiz. Bat-batean, ibilbidearen nondik norakoak ikusten ditut, eta jarduteko edo planifikatzeko bihozkada sentitzen dut. Idazten dudanean ere, poesia mota bat bereziki, antzeko prozesua bizi dut: ez dakit zer daramadan barruan, burrunba antzeko zerbait sentitzen dut, zerbait mugitzen ari dela eta azalerratu nahi duela sumatzen dut. Idazten jartzen naiz kolpe batean, buru-hausgarriaren piezak banan-banan erortzen eta bere lekuan jartzen ariko balira bezala. Zoragarria da. Idatzia irakurri, eta orduan jabetzen naiz sentitzen dudana, gertatzen zaidana.

Arrazoibidea, kontzientzia, giltzarri da gure bizitzan, eta horregatik azaldu dut hori guztia. Planifikatzen ikasi eta planifikatu egiten dugu. Bakoitzak bere estilotik abiatuta planifikatzen ikas dezan saiatzen gara, baina, ikuspegi sistemikotik, ezin dugu ahaztu bizitzak, bai gureak bai ikasleenak, egunero harritu gaitzakeela; izan ere, gauza askok eragiten dute: igurikimenez, nahiek, gure zentzumenen kalitateak, gure azalaren hautemateak, gure afektuek, intuizioak eta, batez ere, osotasuna bizitzeko eta hau guztia bideratzeko dugun irekitasunak.

- *Jarduera ahaleginari loturik dago:*

Ahalegin mentalik gabe, nekez emango da aurrerapausorik. Baina, aldi berean, egiteko moduko ahalegina izan behar da, zeren bestela deskonektatu egiten da, eta horrela planteatutako jarduerak ez litzateke baliozkoa izango.

- *Erabilitako metodologiak baldintzatu egiten du eta irakasleek horretan betetzen duten egitekoak eragin zuzena du jardutearen edo aritzearen kalitatean:*

Helburua ez da motibatzea: helburua jarduerak, jolasak eta testuinguruak ikasleen motibazioekin uztartzea da.

Gauzak ez dira eginda ematen. Eginarazi egiten da. Azalerratek eragiten da, aurrera eginarazten da.

Kalitatea sustatzen da kantitatearen gaineratik.

Ezarritako testuinguruak berak kokatzen ditu ikasleak: lan-metodoak, zertarakoak, baliabideek, garatzen diren ikaskuntzez eta gaitasunez jabetzeak, sortzen diren harremanek etab.

Jarduera prozesuala denez, prozesuaren urrats bakoitzean etengabe birkokatzeak, irakasleekin kontrastatzeak, ikaskideekin elkarrekintzan izateak eta kritika sistematikoak beren burua ezagutzea eta aurrera egitea ahalbidetzen die.

Irakasleek ikaslearen jardunean jartzen duten igurikimen positiboak (ongi egin dezaakeela pentsatzea eta hori transmititzea; emandako aurrerapausoak eta bere mugak eta aukerak ikusaraztea) autoestimua garatzen laguntzen du.

Pertsonok jasotzen dugun irudia gara, ematen duguten irudia.

Atera da lehen ere "orri zuriaren eta puntu beltzaren" konparazioa: Zer ikusten duzue hemen? "Puntu beltz bat." Ez, orri zuri bat eta puntu beltz bat.

Horixe gara. Horixe da ikasle bakoitza eta hori da aurrean jarri behar diegun ispilua, nolakoak diren ohar daitezen. Puntu bat, bi, bost, zer axola du? Badira puntu beltzak, eta normaltasunez ikusi nahi ditugu, gizatasunez, zeren ez genituzke ikusiko orri zuriaren gainean ez baleude. Gure esku-hartzearen gunea orri zuria izatea nahi dugu, ez puntu beltzak, zalantzarik gabe, ematen diegun irudia izaten bukatzen dute-eta, guk geuk ere ematen duguten irudia izaten buka dezakegun bezala.

Pertsona jakin baten jarduera geldiaraz edo galaraz dezakegu, aurreratu egiten bagara eta, emaitzak edo prozesuak lasterrago joanarazi nahian, ebaztera jotzen badugu. Metodologia honen bidez, ordea, zalantzan jartzen da eraginkortasun faltsu hori:

- Ebaztea eta heztea ez da gauza bera.
- Ebaztea eta ikastea ez da gauza bera.
- Ematea eta aurkitzea ez da gauza bera.

Baliteke dena delako pertsona horrek mugaren batzuk izatea dena delako jarduera horretan, aurretikoak deritzen horiek, jarrerak, eraginda. Aurretikoetan esku hartuz garatuko da. Curriculumaren hirugarren fasean jardungo dugu horretaz.

- Zergatik aukeratu duzue adin desberdinekoak nahastea eta, zehatzago esateko, bi adin jakinekoak nahastea?
- Gai horren inguruan bada dokumentu bat, nire ustez oso osatua dena eta, beraz, apenas beharko du luzatzerik. Zikloaren programari loturik dago. Jo dezagun bertara.

Adin desberdinekoak nahastea. Ziklo osoko programa

- *Amara Berri Sistemaren ezaugarri metodologikoa da, eta hezkuntza-asmotik abiatzen da.*
- *Aniztasunaren esparrua zabaltzen duen elementua da hau ere, sexu, adin, kultura eta beste hainbatekin batera:*

Aniztasunetik abiatuta sortzen den konparaketan jabetzen gara banakotasunaz.

Aniztasunaren esparrua zabaltze horrek bere lekua aurkitzen eta auto-kontzeptua egokitzen laguntzen dio gizabanakoari, beste pertsonetik kontrastearen arabera.

- *Indibidualizazio-printzipioa ezinbestean aplikatzea eskatzen duen eta, mailaren kontzeptuaz haratago, zikloaren programekin lan egitea ahalbidetzen duen elkarrekintza sozialaren esparrua da:*

Ikasle bakoitzak bere mailan lan egiten du. Horretarako programa irekia behar da: aurrerapauso handiagoak emateko gai denari, ez zaio geldiarazten adina dela-eta, eta zailtasunak baditu ere, bere erritmoan egingo du aurrera.

Programa gauzatzeko denbora luzeagoa da (bi urte), eta banakako esku-hartzea ahalbidetzen du, prozesuaz hausnartuz; analisisiei, egoerei eta estrategiei berriro heltzeko asti luzeagoaz etab.

Irakasleak hobeto bana ditzake banakako arretaren denborak; izan ere, nolabaiteko autonomia-maila duten ikasleak gai dira, batetik, laguntza noiz eskatu behar duten bereizteko eta, bestetik, behar duenari laguntzeko.

Talde erdiak badaki testuinguruek nola funtzionatzen duten, badute nolabaiteko autonomia-maila eta lagun diezaiekete departamentuan sartu berri diren ikasleei. Gure

helburua ez da irakasleak ordeztea, ikasleak laguntzaz duen sentsibiltatea eta zentzua zabaltzea baino.

Erreferentziak ematen dizkie ikasleei (batzuek urtebete daramate departamentuan eta beste batzuk hasiberriak dira). Ikaslerik gazteenek zaharragoetatik hartzen dituzte eurek ere lor dezaketenaren erreferentziak: jarduerari eta lan egiteko moduari dagozkionak; erabiltzen dituzten estrategia, ikaskuntza-estilo eta erlazionatzeko moduei buruzko erreferentziak; interesei, laguntzari eta abarri buruzko erreferentziak.

Ikasle zaharrago horien bidez, ziklo osoko programa zein den sumatzen dute. Era berean, ikasle zaharrenak emandako aurrerapausoetz jabetzen dira, euren burua ikasle gazteenekin konparatuta.

Ikasleei eta irakasleei segurtasuna eta lasaitasuna ematen die bi urtean ziklo berean egoteak.

Ziklora lehen aldiz iristen direnek, euren ezagutzatik abiatuta, galderak egiten dizkiete eskarmentu handiena duten ikasleei, eta azken horiek, lehen esan dudan bezala, "irakasle" rola bete dezakete, ikaskide horiei lagunduz, are hizkuntza hurbilagoa erabiliz, gainera. Galdera horiei erantzuteak, era berean, euren ideiak berregituratu eta ezagutzak finkatzeko aukera ematen die.

- *Talde-dinamikak etengabe garatzea sustatzen du, eta talde-dinamikak norberaren eta taldearen garapenerako hezkuntza-esparru dira.*

Ikasturtearen hasieran eta normalizazio-aldian (aurrerago arituko gara printzipio horretaz), adin desberdinekoak nahasteak zorabiatu xamar uzten ditu bai irakasleak bai ikasleak. Irakaslea une horretan ohartzen da gozatu egin duela, taldea finkaturik dagoelako eta dinamikak gauzatuta daudelako. Ikasle erdiak hurrengo ziklora pasatzen direnez eta taldea aurreko ziklotik datozenekin osatzen denez, ordea, berriro hutsetik hasi behar du.

Erosoagoa izango litzateke ikasle berberekin jarraitzea. Aldiz, modu honetan irakasleek sufritu egiten dute. Gogoan dut zer zioen irakasle batek: "Hain ondo gaude orain eta aldatu beharra ere! Berriro ere aldaketa jasan behar bai ikasleek eta bai nik!". Eta zera eransten zuen: "Baina egin egin behar da". Aldaketa etengabea da sarritan talde-dinamikak dakarten horretan hezteko esparrurik egokiena. Hezteko modu miresgarria da.

Lagun berriak egiteko, liderrak aldatzeko eta aurreko klixe edo estereotipoak aldatzeko unea da. Gehiegi harrotzen diren pertsonak berriro kokatzen dira talde berrian, eta onartuak sentitzen ez zirenek ere, ikustezin zirenek ere, beren lekua egin dezakete. Pertsona bakoitzari adinaren arabera rol desberdinak izateko modua ematen dio: urte batean txikiak direnez, batzuetan kexu dira zaharrenek ondo tratatzen ez dituztela eta; hurrengo urtean zaharrenek beraiek dira, ordea, eta gauza bera egiten badute... Hurrengo ikasturtean, ziklo berriari ekitean, gazteenak izango dira berriro ere. Jolas elkarrengile hori oso interesgarria da, eta hori da nahi duguna.

Halaber, apurtu egiten dira taldeak luze mantenduz gero batzuetan sortzen diren mendekotasun-harremanak.

Irekitzeko, erlazionatzeko eta talde itxiez haratago joateko gaitasuna indartzen du, edozein pertsona edo talderekin lan egiten ikasiz, lan harreman hori eta laguntasuna bereiziz.

- *Haur Hezkuntzan urte berean jaiotako ikasleak biltzen dira:*

Hain adin txikikoak direnez, hilabete batzuetan garapen garrantzitsuak egiten dira hainbat alderditan (mugimenduan, esfinterren kontrolean, hizkuntzan, autonomian...)

Nahita, taldekatze heterogeneoak egiten dira.

Formula horren ordez beste bat erabil zitekeen eta, hala, batzuetan, ikastetxe-motaren arabera, adin-nahastea ziklo osoraino hedatzen da (eskola unitarioetan, kasu), eta horietan ere balorazio positiboa egiten da.

Ezaugarri metodologiko hau oso ongi azaldu behar zaie familiei.

Gai hori Lehen Hezkuntzako etapa hasi aurretik egindako bileran jorratzen da, eta bilera horretan azaltzen zaie hainbat irakaslek talde berarekin lan egiten dutela.

Oso ongi ulertzen dute, baina hasieran errezeloak dituzte:

- "Ikasle zaharragoekin egotea?..." Zalantzarik gabe, ikasle zaharragoekin azkartu egiten dira.

- "Denbora galduko dute ikasle gazteagoekin egonda?..." Ez dute ezertxo ere galtzen, nor bere mailan eta erritmoan lan egiten du eta. Aldiz, gazteagoak direnak ulertzen dituzte eta horiekiko sentsibilitatea garatzen dute.
- "Talde berriak egitean, bere lagunengandik bereizi dute, eta ez du sufrituko?..." Gure ustez, askotan pertsona helduen arazoa da, euren lagun-taldea egina dute eta.

Ikasleei, hasieran kostatu egingo zaie agian, baina helburua, pixkanaka-pixkanaka, edo-norekin lan egiten ikastea da.

Tamalgarría litzateke aurreko lagunak galdu gabe harreman berrietara irekitzeko adin horietan daukaten gaitasuna mugatzea haurrei. Izan ere, elkar bilatzen dute jolasaldian, eta elkarrekin egon daitezke testuinguru komunetan ere (Mediateka, Prentsa, Telebista, Ikasle Antolamendua etab.).

Talde berriak antolatzea da ikasleek ikasturtea amaitzean irakasleek egiten duten lehen lana. Ziklo bateko irakasleak hurrengo zikloko irakasleekin biltzen dira, horiek ezagutzen dituzte-eta bildu nahi diren ikasle guztiak. Irizpide batzuk aplikatuz (03-07 dok.) osatzen dituzte taldeak. Ahaleginak egiten dira, ikasleek, behar badute, erreferentzia afektiboren bat izan dezaten.

96

Batzuetan familiak berriro aldatzeko eskatzen du, eta euren argudioak aurkezten dituzte. Beti esaten diegu beraiek eskatze hutsagatik ez dela aldatuko, baina hartutako erabakia berraztertu egingo dela, euren argudioak kontuan izanik. Izan ere, agian hanka sartu dugu eta, hala izanez gero, hutsa zuzendu nahi dugu. Benetan axola duena haurrak eta taldeak ahalik eta hobekien egotea da eta:

- "Ez da hobe nire alaba egun osoan irakasle berarekin egon dadin, hala ondo ezagutuko baitu alaba, hainbeste irakaslerekin egon ordez?" Irakaslea oso ona baldin bada, agian bai. Baina ez bada hain ona? Nolanahi ere, nire ustez, hobe da hainbat irakasle izatea. Dokumentua irakur dezakezue, eta bertan aurkituko dituzue hori baieztatzen erabiltzen ditugun argudioak.

- Ez al duzue eragozpenik izaten irakasleen aldetik, adin desberdinekoak nahasturik lan egiteko?
- Bai, beti egon da norbait, hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadetan batez ere, gai hori gogoko izan ez duena. Geroago ere, gogoan dut ikastetxe batean irakasleen sektore batean aparteko eragozpenak izan zituztela, sistema hori martxan jarri nahi izan zutenean. Baina niri normala iruditzen zait. Pertsona bakoitza egon daitekeen tokian dago. Aldaketarekiko beldurra sortzen da. Nire ikasgela, nire ikasleak utzi eta taldean lan egiteari beldurra, ia beldur inkontzientea. Pertsonok gure denbora eta gure erritmoa behar ditugu, baita inguruan dagoen taldeak egoera horiek mugiezintzat ez hartzea ere; izan ere, dena mugitu eta bukatu egiten da, kasu honetan bezala, aldatuz eta ikastetxeari oso modu positiboan eraginez. Horrek José M^a Zonta Ariasen esaldi bat gogorarazi dit: "mugimendu sinpleenei erreparatzen diet, eta hortik ikasten dut mugiezina denak beste abiadura batzuk dituela. Nireak ez bezalako abiadurak dira; hori da guztia". Hortxe dago auziaren iltzea: mugimendurik sinpleenei erreparatzea eta konfiantza izatea. Konfiantza izatea beti. Hizpide dudan ikastetxeko zuzendaritza-taldeak konfiantza izan zuen beti, eta urratsa eman zuen.

" Adin desberdinekoak nahasteari buruzko dokumentuaren amaieran, beste ñabardura batzuk aurkitu ahal izango dituzula uste dut (02-03 dok.).

" Atzera egingo dut. Uste dut ez diodala galderari osorik erantzun. Bigarren hau ere galdetzen zen 'zergatik bi adinekoren arteko nahasketa?'.

" Durangoko esperientzia deitu zitzaion hartan, 1972an (*La escuela que pudo ser*: Ed. Zero) sortu eta erein zen geroago Amara Berrin garatuko zen sistema honen lehen hazia, eta ordurako adin desberdinekoak nahasturik lan egiten genuen: hiru maila departamentuetan eta bost beste testuinguruetan: ikasle-antolamenduan, baliabideen gunean etab.

" Amara Berrin, gauza bera egin genezakeen, baita are adin gehiago nahastu ere. Baina ez dugu Amara Berrigatik soilik lan egiten, baizik eta eskolagatik oro har, eta, guk sortutakoa oso ona izan arren, orokortu ezin bada, sortutako horrek ez du irauten. Horrela bada, ohartu ginen ziklo osoko programa eta programazio horrek dakarren adin-nahasketa beste ikastetxe batzuetara hedatzeko baliagarriagoa zela, adin gehiago nahastea bera baino, eta emaitza berak lortzen genituela. Departamentuei buruz ari naiz, zeren testuinguru komunetan lau maila nahasten baitira, eta laurogeita hamarreko erreformaren aurretik, aldiz, sei nahasten ziren.

" Behin galdera erantzunda, sormen-printzipioari helduko diogu.

Sormen-printzipioa (01-4 dok.)

Sormena zerbait sortzeko trebetasuna edo gaitasuna da.

- *Sormena zerbait sortzeko trebetasuna edo gaitasuna da.*

Sortzeari adinako garrantzia eman nahi diot bizia mantentzeari. Ingurumenaren bizia, familiarena, bikotearena, lagunena, proiektu batena, enpresa batena, sistema honen bizia. Zalantzarik gabe, hizpide dugun sistema hau sormenaren emaitza da. Jaioarazi egin genuen, bizia eman genion, baina ziur nago horretarako adinako sormena edo are handiagoa behar duela bizirik mantentzeko.

- *Jakina dena eta eginda dagoena gainditzea da sortzea.*
- *Gizaki guztion gaitasuna edo potentzialitatea da. Berezkoa da: "Inteligentzia sortzaileria".*

Ingurunera egokitzeko eta ingurunea transformatu eta gure beharretara egokitzeko gaitasuna.

Uztarturik dago emoziozko adimenarekin: zu zeu izatea, zeure arrastoa uztea. Aurretikoak (autoestimua, interesak...).

Jardun aurretikoak: autoestimu baxuak eta interes faltak jardutea eta, batez, ere, sortzea markatzen, ahalbidetzen edo eragozten dute. Hanka sartzera eta apustu egitera ausartu behar da.

Sortzeko estilo desberdinak daude, ikaskuntza-estilo desberdinak dauden moduan.

Bakoitzak barruan duena ateratzeko eta ezagutzeko aukera, bere berezitasunaz ohar-tuz.

- *Sortze-ekintza, barne-eraginak eta kanpo-estimuluak bat egiten duten puntua. Jakina dena eta eginda dagoena gaindituz, dagoenetik abiatuz, ekarpen garrantzitsuak egiten ditu.*

Memoria historikotik abiatzen da. Genetikoa denak eta kulturala denak bat egiten dute. Bizitzeagatik "arrastoa", ideiak, bizipenak, ezagutzak etab. eskuratzen dira, eta hortik abiatuta sortzen da.

Sortze-ekintzak ahalegina eskatzen du. Ahalegin atsegina edo sufrimenduzkoa. Sentimenduekin uztartzen den ahalegin intelektuala eta erraietakoa.

- *Alor guztietan eta maila desberdinetan garatzen da bakoitzarengan.*

- *Haren garapena eta adierazpena ez dira linealak:*

Haren garapena eta adierazpena ez dira linealak.

- *Berez ager daiteke:*

- “Jenialtasunaren zoroaldia”. Ez nahasi sormena eta jenialtasuna.
- Ez nahasi sormena eta jenialtasuna arrakasta sozial edo komertzialarekin.
- Ez nahasi garatzea eta nabarmentzea. Batzuetan ospetsu bihurtzen denarengan pentsatzen da.

- *Haren garapena suspertu egin daiteke:*

Inguruak sormena garatzen laguntzen du edo garapena oztopatzen du.

- *Erabilitako metodologiak eta irakasleek horretan duten egitekoak eragin zuzena du sormenean:*

- Metodologia guztiek ez dute indar berberaz sustatzen sormena.
- Irakasleek ahalbidetzen dute; irakasleek, emateko baino gehiago, ikasleek barnean dutena atera dezaten eta kontzientzia har dezaten esku hartzen dute, ez beharri aurre hartzeko.
- Afektu- edo segurtasun-esparrua sortuz eta ikasle bakoitzaren ikasteko edo sortzeko estiloa errespetatuz esku hartzen dute.

Mari Angelesengan pentsatzen ari naiz, ikasle batengan. Gaur egungo izendapenen arabera, lehenengo ziklokoa izango litzateke, baina zortzi urte beteak zituen. Nire lehen urteak ziren irakasle-lanetan. Behin, idatzi labur bat egiteko eskatu nien, “hezurra” hitza eta gogoratzen ez ditudan beste bi hitz sartuz. “Txakurrak hezurra jan du” eta halako esaldiak idatzi zituzten.

Mari Angelesek, berriz, zera zioen... Uste dut gogoratuko dudala, zeren garai hartan ikasleen idatziak erabiltzen nituen idazten erakusteko: idatzi bakoitzean hoberena aurkitzen saiatzen nintzen, egin zuenari adore emateko eta gainerakoak sentsibilizatzeke. Hala, nahi gabe, buruz ikasi nituen batzuk:

Un día nuevo nace y yo sigo andando por esta carretera sin fin, con recuerdos grabados de mi pueblo. Aquel pueblo pintoresco, con la cigüeña blanca de flexible cuerpo muy esbelto situada en la torre de la casa del alcalde, pero aquel día, el mas triste de mi vida, mi madre murió. Ya no me quedaba nada allí, nada más que sus huesos, nada más. Me molestaban los gritos de Doña María hablando con Doña Paz desde las ventanas. Ya nada tenía...

Zortzi urte!

Zergatik kontatzen dizuedan hau? Idazten zuenean, zutitu eta ikasgelako alde batean jartzen zen, gainerako ikasleengandik urrun. Orrian edozein lekutan idazten zuen, alde batetik bestera zebilela eta testua ahots apalean erdi-ahoskatzen zuela. Orria oso narrasa zen, eta garbira pasatu behar izaten zuen norbaitek irakurtzerik nahi bazuen, orduan ez baitzegoen ordenagailurik. Baina beretzat egiten zuen. Bera horrelakoa zen. Hori zuen adierazteko modua. Bere sortzeko estiloa zen, eta niri izugarri gustatzen zitzaidan lan egiten ikustea.

- Ikasleak eta haien obrak desberdintasuna errespetatuz hartzen ditu. Prozesua baloratzen du, ez emaitza bakarrik. Pertsona bakoitza nondik abiatu den eta zein urrats eman dituen ikustea da, emaitza desberdina izanda ere; izan ere, desberdina da bakoitzaren potentziala eta bakoitzak bizi duen unea.

Aurrera egiteko aukerak oztopatu edo blokeatzen dituen jarrera "juzgatzailea" eta "gaitzespenekoa" (hitzen bidez, keinuen bidez...) ekiditen du.

- Irakaslea desagertu egiten da ikasleen obraren helburutik, ikasleek zertarakoarekin edo irteerarekin bat egin dezaten. Arestian, ikasteko eta sortzeko estiloa errespetatzeari buruz jardun dugunean, istorio bat kontatu dizuet: esan dizuet nire lehen urteak zirela irakasle-lanetan, eta izugarri gustatzen zitzaidala Mari Angelesi begiratzea, ikasgelan zutitu eta alde batetik bestera ibiltzen zenean, zirriborro, zirrimarra eta itxurazko desordenaren erdian eduki ona sortuz, men egin gabe. Esan dizuet izugarri gustatzen zitzaidala ikustea, beragatik. Baina onartu behar dut geroago ohartu nintzela jarduteko moduan nire antzekoa zelako gustatzen zitzaidala egiaz, eta idatzi hartan neure burua islaturik ikusten nuen, zera esaten zuenean: "Dagoeneko ez neukan ezer han, bere hezurak besterik ez, besterik ez". Ez zen nire esaldia, baina errepikatzeke modu hori, indar gehiago emateko, garai hartan asko erabiltzen nuen baliabidea zen. Behin, bat-batean,

hauxe galdetu nion neure buruari: baina zer egiten ari naiz? Beldurtuta geratu nintzen, imitatu egiten nindutelako eta esan nuen: Lolita txikiak egiten ari naiz (nire izenagatik). Orduan jabetu nintzen Amara Berriko eta sistema hau bera daramagun eta garatzen dugun ikastetxeetako kideek oso ongi dakiten horretaz. Desagertu egin behar dugu ikasleek egiten duten obraren helburutik, eta hori taldean lan eginez eta testuinguruak ezinbestean izan behar duen zertarakoa eta kanporako irteera indartuz lortzen da.

Irakasleen aldetik sormen falta baldin badago, litekeena da hori proiektatzea, ikasleen sormen-aukeretan ez sinetsiz. Sistema honek irakasle sortzaileak edo sormena eta ikuspegi orokorra garatzeko zabalik dauden irakasleak behar ditu. Sistema hau sormenari esker sortu da, eta sormenari esker irau du bizirik. Sormenean datza oxigenoa, ikasleen esperientzia pozgarria eta sistemaren beraren garapena.

- Modeloa estereotipotzat erabiltzeak sormena oztopatzen du. Aldiz, modeloa planteamendu berrietarako erreferentzia edo iradokizun gisa erabiltzea lagungarri izan daiteke.
- Egoera bakoitzean hainbat bide eta irtenbide aztertzea ahalbidetzen du, eta horrek gauza bakoitza hainbat ikuspuntutatik ikusteko ohitura sustatzen du.

Eta horrenbestez, bukatutzat emango dut printzipio hori. Normalizazio-printzipioa baino ez zaigu falta, eta hurrengo kapitulurako utziko dugu.

Eta azkar-azkar lehen zikloko ikasgelatara joango gara, ikasleak igotzen ari baitira eta aurkezpen bat ikusi nahi baitugu. Ez dakit zertaz den, zeren, ohikoa ez bada ere, ez zegoen bisitan aurreikusirik. Departamentuan sartu gara.

Arratsalde on. Gela barreneraino joango gara, arreta gal ez dezaten.

Ikasle bakoitzak eta irakasleak aulki bana hartu dute gune edo testuinguruetatik. Zirkuluerdian eseri dira departamentu erdian. Aurrean, mahai altu batean, hizlaria eseri da, mikrofonoa eskuan duela. Isiltasuna erabatekoa da, eta Argiñek kontakizunari ekin dio: *Hiru buruko otsoa.*

Lehen orria irakurri ondoren, dagokion sintesi-irudia erakutsi du. Halaxe egin du orri bakoitzarekin. Haurrak adi-adi daude. Nahiko idatzi motza da (...) eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila Amara Berriko plazan.

Hizlariak, kasu honetan ipuin kontalariak, hitza eman dio publikoari, kritika egin dezan:

"Ipuin originala da, zeren ez baitugu inoiz hiru buruko otsorik ikusi, eta asko gustatu zait, beldur pixka bat ematen duelako", dio Arturok. "Laburra da, baina uste dut gogor entseatu zarela, zeren oso ongi egin baitituzu pertsonaien ahotsak", gaineratu du Izas-ek. "Asko gustatu zaizkit marrazkiak eta koloreak, baina txakur txikia ez dakit non zegoen, ez zen ikusten", esan dio Mikelek.

Argiñek berriro erakutsi dio ipuinaren eszena eta txakurra non dagoen zehaztu du.

Behin eta berriro begiratu ondoren, hauxe adierazi dio: "Argiñe, txakur-kakak ezin du txakurraren neurri berekoa izan!".

"Txakurra pixka bat handiagoa egin behar nuen, baina kakak eta txakurrak kolore desberdina dute", erantzun dio Arginek.

Argiñek ipuina itxi du.

"Gustatu zait hasiera eta amaiera, baina ia ez zeukan korapilorik. *Luzeagoa egin zenezakeen*", ohartarazi du Olgak. "Olgak esan dizu korapiloa laburra iruditu zaiola, eta *luzeagoa egin zenezakeela*, hau da, *gehiago gara zenezakeela*. Baina, nire ustez, ipuin honen korapiloa aurrekoarena baino *gehiago garatu duzu*", mintzatu da irakaslea.

"Mahaitik gora oso lasai zeundela zirudien, eta oso ongi egin duzu. Baina mahaitik behera oso urduri zeunden", aipatu du Aitorrek. "Ez dizut ulertzen. Esango didazu berriro, mesedez?", galdetu dio Argiñek. "Begira, nik burura, aurpegira eta eskuetara begiratzen nizun, eta oso ahots politak egiten zenituen eta poliki hitz egiten zenuen eta iruditu zait oso lasai zeundela. Gero oinetara begiratu dizut, eta oso urduri zeunden, zeren etengabe mugitzen zenituen", zehaztu du Aitorrek. "Ez naiz konturatu, eta lurrera iristen ez zaizkidanez...", erantzun dio Arginek.

Irakasleak hitza hartu du: "Aitor, ea ondo ulertu dudan. Esan diozu Argiñeri *goitik oso lasai zegoela iruditu zaizula*, erabat ziur ez zeundelako. Horrela da? Ongi ulertu dut?". "Bai", erantzun dio Aitorrek. "Baina gero esan diozu *urduri zegoela oinak mugitzen zituelako*. Ziur zaude *urduri zegoela?*", galdetu dio irakasleak. "Agian ez, zeren hankekin lurra ukitzen ez zuenez...", erantzun dio Aitorrek. "Orain esango zenioke *urduri zegoela?*", galdetu dio irakasleak. "Ez. Esango nioke *iruditu egin zaidala* urduri zegoela, zeren nerbioak ezin baitira ikusi, irudipena baino ezin dugu izan" erantzun dio Aitorrek.

Barreari eutsi behar izan genion.

Bukatu da kritika. Txalo-zaparrada, eta Argiñek publikoaren kritika egin du. Eskerrak eman dizkie adi-adi entzun diotelako. Pozik dago ipuina gustatu zaielako eta kritika maitasunez egin diotelako, eta ez sufriarazteko. Eta hau esanez bukatu du: "Hurrengorako korapiloa gehiago garatu nahi dut. Eta oinak aulkiaren *egurrean* jarriko ditut, ez dakizuen irudi urduri nagoela, baina, bai, pixka bat urduri nengoen".

Irakasleak zer aurrerapauso eman dituen ikusarazi dio, eta esan dio: "Badakit pozik zaudela zure lanaz egin dugun balorazioarekin, eta ni hurrengo aldian ikusteko irrikan nago, korapiloa gehiago *garaturik* eta oinak, zuk esan duzun, moduan, aulkiaren *egurrean* dituzula, hau da, aulkiaren langetan".

Beste bi aurkezpen daude programatuta, baina joan egin gara. Departamentutik atera egin gara.

Solairuko hallean korrotxo bat egiten ari garela, iruzkinak entzuten hasi naiz: nola argumentatzen zuten, nolako naturaltasunez onartzen duten kritika edo nola defendatzen diren. Irakaslearen esku-hartzea hizkuntza aberasteko eta, batez ere, kontzeptuak argitzeke, eta esandakoa onartu edo zuzentzeko. Nik hitza hartzeko aprobetxatu dut: kritika zinez aurrera egiteko faktoretzat hartzen dugu. Beti hor dagoen testuingurua da, eta txiki-txikitatik hasita eskolatzeko-aldia amaitu arte egiten da.

Gure iritziz, kritika egiten ez da ikasten hari buruz hitz eginez, kritika eginez baizik.

Begira, hemen bertan dugu zikloko ikasleentzako gutunontzi bat, irratsaio bakoitzaren ostean iradokizunak eta kritikak egin ditzaten. Kritika egiten ikastea da kontua, eraikitze-ko. Horrela, elementu suspergarri bihurtzen da, Argiñerekin gertatu den moduan.

Nolanahi ere, komenigarria litzateke gai honi dagokion dokumentua irakurtzea (02-06 dok.).

Hau ziklo honetako liburutegia da. Egia esan, ikastetxeko mediateka orokorraren parte da, baina solairu honetan kokaturik dago, eta sei-zazpi urteko ikasleek kudeatzen dute txandaka. *Zer egiten duzue hemen?* Liburuzainak direla diote. Fitxategi honetan idazten dutela zein liburu banatzen diren, eta baita noiz itzultzen dituzten ere. Gaur hogeita hamalau liburu banatu dituztela eta, orain, jende gehiago ez datorren bitartean, departamentuan egin beharko luketen lana egiten ari direla.

Adin hauetan dagoeneko ikasten ari dira taldeari zerbitzu bat ematen ari direla. Horrek tratu-mota bat eskatzen duela, baita ardurak hartzen eta exijitzen jakitea ere. Alfabetoa erabiltzen ikasten dute etab.

Kaixo, Bego. *Irratia* departamentuko irakaslea da. Sartzeko esan digu.- Axola ez badizu, burua sartu baino ez dugu egingo, ikuspegi orokor bat izateko, baina ez gara hemendik pasatuko, asko dago ikusteko denbora gutxian eta.

Hitzaldiak departamentuaren departamentu osagarria da. Lehen hizkuntza da nagusi.

Testuinguru honetan, eguraldia behatzen eta iragartzen ikasten dute. Eguraldiaren bilakera zaintzen dute, datuak sarrera biko grafiko batean irudikatuz. Mapa politikoak eta mapa mutuak erabiltzen dituzte. Ikusten duzuen moduan, irakasgaiak erlazionatu egiten dira.

Gune honetan, berriz, albisteak idazten dituzte, informazio-iturri zuzenak eta zeharkakoak erabiliz eta bereiziz.

Hurrengo testuinguruan, denbora-pasak irakurri, idatzi eta prestatzen dituzte: txistekak, asmakizunak, poesiak, etab.

Eta azken testuinguru honi *Bitxikeriak* esaten diogu. *Hitzaldiaren* antzeko jarduera da. Begira neska horri. *Diplodocus*-i buruzko testu bat hartu, eta xehatzen ari da. Erantzuna testuan bertan duten galderak aurkitzen ari dira. Gidoi moduan, bere hitzak erabiliz idatziko ditu galdera-erantzunak. Eta departamentu honen guztiaren zertarakoa irratsaio bat egitea denez (albisteak, eguraldia, denbora-pasak eta bitxikeriak), galderak nork egingo dizkion aukeratu, eta berak erantzun egingo ditu. Jolas bat izango da, baina inork ez dio kenduko esperientzia hori: egun horretan, behintzat, publikoaren aurrean eta mikrofonoa eskuan duela, aditu izatea, diplodokoari buruz egiten dizkieten galdera guztiak erantzuteko prest.

Begira, eskuinean bi grabazio-kabina daude. Maria horietako batean eseri da. Argia piztu, eta hitz egiten hasi da. Normalean, grabatu eta ondoren entzun egiten dute, eta behin eta berriro grabatzen dute, irratsaioarako prest daudela iruditzen zaien arte. Irrati hau hurrengo zikloetan ikusiko dugunaren hastapena da.

Atera egingo gara, bisita egiten jarraitzeko.

Bakarrik ari nintzen barrez, gertaera bat etorri zait burura eta: haur bat kabinan grabatzen ari zen, zalantzaz eta etenez beterik, eta irakaslea begira izan zuen. Bukatu zuela ikustean, haren ondoan eseri, eta berriro berarekin entzutea proposatu zion. Behin entzunda irakasleak zer iruditu zitzaion galdetu zion. Haurrak hasperen egin zuen, oso txarra iruditu baitzitzaion, eta ondoren, serio-serio, erantsi zuen: "Baina hitz egiten ari zen hori ez nintzen ni!". Zer egin behar duzu horrelako erantzunaren aurrean? Izan ere, grabatzen hasten direnean, ez dute euren ahotsa ezagutzen.

Pasatzen ari garela: begira, bigarren hizkuntzaren departamentu honetako testuinguru batean, talde txiki bat txotxongiloen gidoi bateko pertsonaiak banatzen ari da. Historia buruz ikasiko dute. Jarraian, pertsona bakoitzak bere pertsonaia sortu eta karakterizatuko du. Entseatu, eta obra publikoari aurkeztuko diote. Publikoak, beti bezala, kritika egingo du.

Departamentu honetan, kristalaren beste aldetik ikus ditzakegu. Aurrean, gelaren alderik alde, etxea dago: komuna eta panpinen gela. Hango ilehoria umetxoa bainatzen ari da. Badirudi janaria prest dagoela. Ana mahaia jartzen ari da eta ia amaitu du. Estropezu egin du, zerbait erori zaio, eta lanbesaren bila doa; Xabier bitartean ez dakit zer lizatzen ari den.

Maidar egongelan duten ordenagailuan dago. Lide eta Ion, berriz, ehungailuan ehuntzen ari dira. Ion zutitu eta dendara joan da, artile gehiago erostera. Dendak ikasgelaren beste erdia hartzen du, eta bertan bazkaria prestatzeko produktuak erosten dituzte, eta, aldi berean, pisuaren eta bolumenaren neurriak lantzen dituzte. Irakaslea, bereizgarri duen jarduteko gaitasun horrekin, gune guztietatik pasatzen da eta ikasle guztiei eskaintzen die laguntza: ikasle bakoitzaren ardura hartzen du, eta banan-banan behatzen ditu, galderak egiten dizkie eta koadernoan oharrak idazten ditu.

Eta oraingoz, beste minutu bat bera ere ez, goseak amorratzen gaude eta.

Egun on. Atzo hasitako bisita eginez jarraituko dugu gaur, baina bigarren eta hirugarren zikloetan.

Bost minutu falta dira bederatzietarako. Egunero albistegi batekin hasten da eskola-eguna, txandaka irratiz eta telebistaz ematen den albistegiarekin. Gaur irratsaioa egokitu da. Une honetan, eskola osoa hedabide horien inguruan biltzen da.

Albistegi horietan, irakasle batek bere gain hartzen du koordinazioaren ardura, eta ikasle askok hartzen dute hitza, txandaka-txandaka, nahiz eta baduten tarteren bat bat-bateko ekimenetarako ere, beharizanen arabera. Programa hori euskaraz izaten da beti, hain zuzen, lehen helburua horixe izan zelako: ikasten eta hobetzen ari diren hizkuntzaren erabilera naturala sustatzea, horrelako modu erakargarrian.

Saioa bukatuta, bigarren zikloko ikasleek hartzen dute irratia erabiltzeko ardura eskola-egun osoan. *Telebistaz*, berriz, hirugarren zikloko ikasleak arduratzen dira, nahiz eta zerbitzu horietako prozesu, aurrerapauso eta zailtasunak zaintzen dituen erreferentzi irakaslea izan. Programak garatuagoak dira, departamentuetan egindako lanetik datoz eta. Programa horietan hiru hizkuntzak erabiltzen dira: euskara, gaztelania eta ingelesa. Departamentuek eguneko edozein unetan piztu ditzakete irratia zein telebista.

Azkar igoko gara, minutu batzuen buruan hasiko da albistegia eta. Kepa Junkeraren musika entzuten da. Ikus dezakezuen moduan, gaur irratsaioa egokitu da: departamentu horretara begiratzen baduzue, ikasle ilegorri hori irratia sintonizatzen ari da, eta telebistako pantaila, aldiz, itzalita dago. Korridorean aurrera goazen heinean, departamentuei erreparatuko diegu. Oraintxe sartu dira, baina isiltasuna da nagusi. Ikasleak prest daude albistesaioa entzuteko eta behar dituzten oharrak hartzeko (adinaren arabera, ideia nagusiak edo bestelako datuak), gero entzundakoaz elkarrizketan jardun beharko dute eta.

Familiek, oraingoz, irrati hau egunez sintonizatu dezakete, hiriaren inguru zabalean entzuten da eta. Epe laburrean izango da hori hobetzerik, irratia seinalea internet bidez joango baita.

Estudioan sartzten ari gara. Lan-talde teknikoaren atzean jarri gara. Maitek musika aldatu du: *Intxaur-kraskaria*. Une honetan *Saguaren dantza*. Atzamarrak nahasgailuan jarri ditu, eta aurrera eta estudioaren beste aldera begiratu du, kristalaz bestalde. Mikrofono nagusietako batean gaurko albistegia koordinatuko duen irakaslea dago, hizkuntza aldetik, ikasleentzat eredu ona den irakaslea. Lau ikasle daude gainerako mikrofonoetan, eta atzean dituzte beren txandaren zain daudenak. Mikelek, Maiteren ondoan eserita, arretaz begiratzen dio guztiari, hurrengoan bera izango baita teknikari nagusia, eta laguntzaile bat izango du. Jazz disko bat du eskuetan.

106

Hasi da albistegiaren lehen zatia, albiste hurbilenekoekin hasi ere, eskola-esparrukoekin, alegia. Lehen mailako albisteak dira, horietan biltzen dira-eta ikasleen pozak eta kezak. Badirudi neskak honak jakarri duela, eta argibideak ematen ari da, aurkitzen saiatzeko. Sumatzen da eskola guztiena dela, pertsona bakoitzarena, eta hedabideak, berriz, eskura dituzten bitartekoak. Entzun, eskola-zerbitzuen ardura txandaka beren gain hartu behar duten ikasleen izenak esaten ari dira: irratia, prentsa, telebista, mediateka, ingurumena eta higiena eta eskola-materiala dira zerbitzu horiek. Une horretan bertan, eskola egituraturik dago funtzionatzeko.

Maitek arretaz jarraitzen die hitza hartzen dutenei, musika aldatzeko eta bolumena gortzeko edo apaltzeko sarrera ematen diote eta.

Mañelek gure bisitaren berri eman du. Jakinarazi egin behar zen, bere esanetan, hainbat lekutatik zatoztelako. Espero dezagun ez direla saiatuko zuek elkarrizketatzen, izugarri gustatzen zaie eta.

Hurbileneko esparrutik hasi eta hiriko albisteetara igaroko dira, eta apurka-apurka hedatuz joango dira, nazioartera iritsi arte. Edozein albistegitan egin ohi duten moduan, egu-

raldiaz eta kultura- eta kirol-agendaz ere jarduten dira. Bitxikeriak, gizarte-, politika-, ingurumen- eta arte-arloko albisteak etab. azaltzen dira. Ikasleak estudioan sartu, dago-kien lekuan jarri, eta beste ikasle batzuek utzitako mikrofonoak berenganatzen dituzte.

Ikus ezazue koordinatzen ari den irakasleak nola eragiten duen elkarrizketa eta analisia eta nola jartzen dion umore-puntua, saioa bizia izan dadin.

Atera egin behar dugu. Une batean geratu egingo gara, hementxe, leku gehiago dago eta. Zera ikustea nahi dut... Bai. Albistegian aipatu dituzten ikasleak departamentuetatik ateratzen ari dira, zerbitzuez arduratzeko. Julio eta Josean Mediatekara doaz. Atzetik datozen bi neska eta bi mutil horiek *Prentsara* doazela dirudi. Horrela betetzen dira lau zerbitzuak, eta eskola-ordu guztietan jarduten dira.

Departamentuetan eta ikasgeletan ikasleak euskaran trebatzen ari dira –hori da helburuetako bat-, elkarrizketan eta entzundako albisteetan sakontzen diharduten bitartean. Mediatekara hurbilduko gara. Badirudi dena prest dutela, eta, horrela, probetxatu egingo dugu unetxo hau.

Egun on. Guztia prest duzue? "Aurreko egunean mailegatutako liburuak ea itzuli dituzten begiratzea falta zaigu. Oraintxe egin behar nuen –erantzun du Joseanek, eta ondoren Juliori esan dio, baina, Julio, egiezu kasu zuk." "Bai, noski", esanda, Julio taldearengana hurbildu da.

"Lan hau egitea gustatzen zaizue?", galdetu dio taldeak. "Bai, gustuko dugu Mediatekan egotea, baina ez da lan bat, zerbitzu bat baizik. Orain pozik nago; gero agian jolastokira edo beste lan bat egitera joan nahiko dut, ordea. Baina hemen egon eta lan-metodoak dioena bete behar dut, bestela Mediatekak ez luke funtzionatuko eta. Beste ikasleek beste zerbitzu batzuk betetzen dituzte" erantzun dio Juliok.

"Zein lan-metodo erabiltzen duzue?", jakin nahi du taldeak. "Hemen daukagun hau (03-03 dok.) euskaraz dago. Lehen hiru urratsak egin ditugu. Badakigu mediateka nola dagoen antolatuta: non dauden materialak, etiketen kodeak eta horrelako gauzak. Hasieran ez dugu jakiten, baina beti egokitzen zaigu badakien ikaskideren bat, eta azaldu egiten digu. Gero, ez dakien norbaitekin aritzea egokitzen bazait, nik azalduko diot. Ea hobeto adierazten dudana. Atzo arratsaldean sartu nintzen zerbitzu honetan eta gaur eguerdian joango naiz. Josean gaur goizean etorri da eta gaur arratsaldean joango da. Gaur eguerdian beste norbait etorriko da, eta, ez badaki, Joseanek erakutsi egingo dio. Norbaitek erakutsi egiten dit niri eta, ondoren, nik beste norbaiti erakusten diot, horrela da beti", azaldu dio Juliok taldeari.

"Liburu hau eraman nahi badut ikasgela batean lantzeko, zer egin behar duzu zuk?", galdetu dio taldeak. "Liburua eta irakurle-zenbakia duen karneta behar dut", zehaztu du Julio. "Ez daukat", adierazi dio taldekide batek. "Orduan nire karneta erabiliko dut. Barra-kodearen irakurgailuaren bidez edo teklatuaren bidez datuak sartu besterik ez da egin behar mailegatzeko. Itzultzeko gauza bera egiten da. Programa horretarako prestatuta dago", azaldu dio Juliok taldeari.

"Etortzen diren guztiak badakite zer nahi duten edo ez?", jakin nahi du taldeak. "Batziek bai eta besteek ez. Batzuetan gaia bakarrik dakite. Orduan ordenagailuan bilatzen laguntzen diegu, gaikako katalogoan", erantzun du Juliok.

Orain departamentuetatik etortzen hasiko dira, lan egiteko materialak behar dituzte eta.

"Zer-nolako materialak eskatzen dituzte gehien?", galdetu dio taldeak. "Denetarik: liburuak, CDak, bideoak, mapak, eta, batez ere, webguneren bat kontsultatzea", erantzun dio Juliok ezbairik gabe.

"Eta hemen egoten zarete egun osoan. Ez duzue uste lanik egin gabe eta ikasi gabe gertzen zaretela?", galdetzen dio taldeak. "Hemen lan asko egiten dugu eta asko ikasten dugu. Arratsaldea amaitzean, etxera joan aurretik, disko gogorren segurtasun-kopia egin, programa itxi, eta ordenagailua itzaltzen dugu, baina aurretik orri bat betetzen dugu. *Balorazioa egiteko argibideak* izena du (03-03 dok.), eta hor jartzen dugu Mediatekan ikasi dugun eta egin dugun guztia, eta, nire ustez, asko ikasten dugu", adierazi dio Juliok taldeari.

Nik azaldu diet hemen ikasleek balorazioa egiteko erabiltzen dituzten argibide berak erabiltzen dituztela irakasleek departamentuetan ikasleen bilakaera zaintzeko.

"Zertarako betetzen duzue fitxa hori?", galdetzen dio taldeak Juliori. "Pentsatzeko eta jakiteko ea hemen ikasi behar dugun guztia ikasi dugun, eta baloratzeko nola funtzionatu dugun. Orriaren amaieran dagoen laukian ikusi ditugun hobekuntzak edo izan ditugun arazoak idazten ditugu, baita bururatzen zaizkigun proposamenak edo iradokizunak ere", erantzun du Juliok. "Ostiraletan, Ikasle Antolaketan, aste horretan Mediateka-zerbitzuan izan garen guztiok elkartzen gara, eta nola funtzionatu duen eta zer hobetu dezakegun ikusten dugu. Horregatik betetzen dugu", gaineratu du Joseanek.

"Eskerrik asko. Oso ondo azaldu diguzue", eskertu die taldeak.

Joan egingo gara, ikasgeletatik ateratzen ari dira-eta, eta une honetan jende ugari etorzen da. Ohar zaitzete Mediateka honek oso ikuspegi berezia duela. Eskolaren birika bezala da. Liburuen eta beste baliabideen fondoak ez dira kontserbaziora bideratutako liburutegi edo mediatekarenak, erabilerara bideratutakoarenak baizik: eskola-orduetan departamentuetako eguneroko lanak sortzen dituen beharrei erantzuna ematea da beren bereizgarria. Hauxe da helburu nagusia: ikasleek eskola-esparrua gainditu eta hiriko liburutegi publikoak eta kultur etxeak sarri erabiltzeko kultura berenganatzea, horietan moldatzen jakitea eta, hemendik gutxira, hemendik bertatik munduko beste mediateka batzuekin konektatu ahal izatea.

Sara bigarren zikloan dago. Prentsarik ateratzen ari da.

"Sara, galdera batzuk egingo dizkizugu, ados? Zein departamentutan ari zara lanean orain?", galdetu dio taldeak. "Hitz eta pitzen", erantzun du Sarak. "Zertan ari zara?", jakin nahi du taldeak. "Poesia bat egin dut, eta prentsara eraman dut, ea egunkarian argitaratzen didaten. Eta orain, beste neska batzuekin batera, dramatizazio bat egingo dut", azaldu dio Sarak.

Taldeak jakinminenez: "Nola egiten duzue dramatizazio bat?" "Mediatekara joan, eta narrazio gisa idatzirik dagoen ipuin klasiko bat aukeratzen dugu. Irakurri egiten dugu, ondo ulertzeko, eta ondoren antzerki gisa idazten dugu", dio Sarak. "Hau da, literatur genero batetik bestera aldatzen duzue." "Bai, ipuin batetik antzerki bat egiten dugu", erantzun du Sarak, naturaltasun osoz. "Sara, eta zer da ipuin klasiko bat?", itaundu dio taldeak. Sarak hauxe erantzun die: "Ez dakizu? Adibidez: Katu Botaduna. Betiko ipuina da. Duela urte pila bat idatzi zen, eta nire aitak, amak, amonak eta lehenagokoek ere irakurtzen zuten". "Eskerrik asko, Sara. Ea ondo ateratzen zaizuen dramatizazioa", opa dio taldeak alde egin aurretik.

Begira ezazue atearen kristaletik. 2. zikloko merkataritza-departamentua da hau, eta dagoeneko zerbait badakizue horretaz. Ezin dugu sartu, une honetan saioa apurtuko genuke eta. Enkantea egiten ari dira, arrakastarik ez duen fabrikako stockarekin.

Departamentu honi, berriz, *Ikerketa* esaten diogu. Hiru ikasle atera dira bertatik. Agurtu egin gaituzte, eta euren lanari buruz galdetu diegu. Aritzek zera esan digu: "Bulego meteorologikoan gaude. Goizeko bederatzieta datuak hartu ditugu. Grafiko honetan irudikatu ditugu. Egunean hainbat aldiz jasotzen ditugu, hemendik pasatzen garen talde guztien artean, eta orduoro irratira joaten gara, eguraldiari buruzko informazioa ematera".

Agur esan digute, irratian hitz egin behar dute eta.

Departamentura sartu gara. Testuinguru horretan bertan, *Bulego meteorologikoan*, Ainhoa, Susana eta Julen daude. Meteorologiarekin eta aldaketa fisikoekin (uraren zikloa etab.) lotutako esperimenduak egiten dituzte. Su txiki bat dute. Haren gainean urez betetako kazola bat jarri dute. Susanak botila bat sartu du bertan. Ea hutsik dagoen galdetu diot, eta baietz erantzun dit. Ainhoak globo urdin batez estali du botilaren lepoa. Julenek su txikia piztu du. Ura berotu zain egon gara. A zer emozioa globoa puzten ari dela ikustean! Pentsatzen dut euren ondorioak aterako dituztela.

Hurrengo testuingurura joan gara. Talde osoa, entzungailuak jantzita, itsas hondoari buruzko dokumental bati begira dago, erabat bere baitan bildurik. Bildumazaletasunaren etapa da. Mahai gainean taldeak berak egindako album batzuk ikusi ditugu, animalien munduari buruzkoak. Bilduma horiek dira, hain zuzen ere, testuinguruaren zertarakoa.

Parkea da departamentuaren beste gune bat, baina, ikusten dudanez, ez dago inor.

Irakasleak, bere lana egiteari utzi gabe, keinu bat egin digu, leihotik begira dezagun. Parke aurrean dagoen eraikinean lau neska eta bi mutil, plano eskuan dutela, zuhaitzak aztertzen ari dira. Sistematikoki, kokalekua zehaztu, behatu, datuak bildu, argazkiak atera edo filmatu egiten dute. Badakite ezin dutela dena jaso. Hurrengo egunetan ere behatutakoren gainean lanean jarraituko dute, baina ea helburu nagusira iritsiko diren galdetzen diot neure buruari. Ohartuko ote dira, jarrera egoistagatik bada ere, errespetatu egin behar ditugula, gure osasuna airearen, uraren eta lurraren osasunaren arabera delako? Arnasa hartu, jan eta edan egin behar dugu. Ohartuko ote dira naturaren sarean, biziaren sare horretan, murgilduta gaudela, non espezieen arteko lankidetzak ekosistema iraunarazten duen?

Ikerketa departamentuko azken jarduerara pasatu gara. *Hiria* izena du. Mahai gainean planoak, argazkiak, apunteak etab. ikusten dira. Hurbildu egin gara. Egun on. Ia-ia ez digute erantzun. Eduardok bere apunteak utzi, eta behin eta berriro begiratu digu..

"Azalduko diguzu zer egiten duzuen jarduera honetan?" galdetu dio. "Bai. Irteerak egiten ditugu hirira", erantzun digu Eduardok. "Zertarako?" "Dagoen guztia ikusteko. Behatzeko."

Amaia, geratu ere egiten ez den ilegorria, elkarrizketan sartu da: "Ni, txikia nintzenean (zortzi urte ditu), kalean zehar nenbilenean ez nuen ikusten. Tira, begiak zabalik nituen eta begiratzen nuen, baina oso gutxi ikusten nuen. Orain asko ikusten dut".

"Zer ikusi duzu gaur?", galdetu dio taldeak Amaiari. "Txufli izeneko txakur bat. Txuri-bel-tza da. A zer-nolako begitxoekin begiratzen zidan! Uste dut nirekin etorri nahi zuela, baina etxera eramango banu nire amak... Gainera, uste dut atzean zegoen mutil bat haren jabea zela", erantzun du bizkor. "Txakur bat besterik ez duzu ikusi?", esan dio taldeak harrituta. "Ez. Askoz gehiago. Dena idatzita daukat. Nik lehen erakusleihoei eta horrelako gauzei begiratzen nien, baina gaur pertsona asko ikusi ditut, zeren eta nire amak esaten baitu pertsoneri begiratu behar zaiela. Esaten du hitz egiten ez diguten arren, begiratzu gero, asko esaten digutela. Batzuk presaka ikusi ditut, beste batzuk aurpegi goibel edo tristearekin eta neska bat sekulako izozkia jaten ikusi dut", erantzun ondoren, hasperenari eutsi eta ezpainak miatzatu ditu.

Micaela planoan eraikin batzuetako argazkiak jartzen ari da. Mario produktu natural eta landuei buruz behatutakoa laburbiltzen saiatzen ari da.

Ane eta Mattin, berriz, hitz egiten ari dira. Anek orri batean idatzi du: "*Hiriko azpiegiturea*".

"Azalduko diguzu zer den hiriko azpiegiturea?", galdetu die taldeak. "Lurraren azpian dagoena", erantzun du Anek. "Eta nola ikusten duzue?", jakin nahi du taldeak. Oraingoan, Mattinek erantzuten die: "Ez dugu ikusten, baina estolden tapei begiratzen diegu. Anek eta biok ez genituen inoiz hainbeste tapa eta hainbeste motatakoak ikusi, ezetz? Hodi batzuetatik ur garbiak pasatzen dira, eta besteetatik zikinak. Beste batzuetatik gasa doa, edo argia, edo telefona...".

Taldeak Aneri galdetzen dio: "Ane, jakin-mina daukat. Hirira irteerak egiten dituzuenean, bakoitzak nahi duenari behatzen dio?". "Egun batzuetan, irteera prestatzen aritzen gara. Euskotren eta RENFEkoei egin behar genizkien elkarriketak prestatu genituen, han gure zain genituen eta", azaldu dio taldeari.

Mattinek hitza hartzen du: "Gauza gehiago ere ikasten ditugu, eta protokolo esaten diogu: agurtzen, mesedez eskatzen, eskerrak ematen, itxaroten eta ez eteten une horretan saltzen edo hitz egiten ari bada... Baina bidean beste gauza batzuei erreparatzen diegu, nahi dugunari"; eta "Orain behatu duguna ordenatzen ari gara, eta daukagun guztiarekin lan bat egingo dugu ikasgela guztiaren artean", gaineratu du Anek. "Eskerrik asko", esanaz taldeak solasaldia eskertu die.

Uste dut behar baino gehiago luzatu garela.

Prentsara joaterakoan, musika-geletan geratu gara. Hau bigarren ziklokoa da. Ez gara sartu. Atearen kristalaz bestalde behatu dugu. Melodia bat entzun dugu, *Afrika* izeneko kanona. Ahotsaren heziketari garrantzi handia ematen zaio. Amaitu da kanona. Irakasleak irribarrez begiratu die, zorionduz. Begiez ikasgela arakatu dute. Irakasleak keinu bat egin die, ia sumagaitza, eta ikasleak eseri egin dira. Entzunaldia hasiko da orain. Irakasleak adierazi duenez, Vivaldiren obra da, Re maiorreko kontzertua, *Il Gardellino*. Orkestrari buruz ere hitz egin die, eta azaldu du zeharkako txirulak karnabaren kantua imitatzen duela. Begiak itxi, eta entzunaldiari ekin diote.

Hurrengo gelan txirula jotzen ari dira. Hirugarren zikloko ikasleak dira. Irakasleak aurrean dituen partituretan josirik dituzte begiak. Eskuineko eskuarekin konpasa eramaten ari da irakaslea. Ezkerrarekin jotzen ari direna seinalatzen du partituran. Ikasgela guztiak lehenengo ahotsa ikasten du. Baita bigarrena ere. Une honetan gaur ikasitakoa bi ahotsetara jotzen hasi dira. Isiltasuna eten gabe, flauta aurrean utzi dute, mahai gainean, eta ikasi duten horixe bera bi ahotsetara kantatzeko gertu daude. Kontzentrazioa antzeman daiteke, ezin hobeki egiteko desioa transmititzen digute.

Bukatu da. Lasaitasun-hasperena entzun da. Nabaritzen zaie emanaldian beharrezko den baina gozamina eragozten ez duen tentsio-puntu hori izan dutela. Zoragarria izan da.

Abesteari ekingo diote orain. Hemen lehentasunak intonazioa, artikulazioa, neurria eta fraseatzea dira.

Irakasleak leun-leun ekin dio abesteari, zer konposizio interpretatuko duten jakin dezaten. Horrela, badakite zein tonutan eta zein abiaduratan hasi behar duten. Segundo batzuen buruan, sarrera eman die.

Begirada eta eskuen keinuak dira taldearekin komunikatzeko bitartekoak. Arreta erabatekoa da. Inork ez du harmonia hautsi nahi. "Sinesteko ikusi egin behar hau!", entzun dut nire alboan. Azken nota entzun da, eta geldu geratu dira segundo batzuetan, isilik, azken soinu-uhina gure belarrietatik desagertu den arte. Badakite orduan amaitzen dela interpretazioa.

Jarraian, beste arte-gelak daude. Amara Berri Telebistako kamerekin topo egin dugu. Hiru zikloetako plastikari buruzko erreportajea grabatzen ari dira. Bigarren zikloan gaude orain. Iñakik bere lana erakutsi die eta prozesua azaldu du. Lehen testuinguruan, hegazkin bat diseinatu zuen. Testuinguru honetan, berriz, hegazkina egurrean egin du. Irribarretsu eta poz-pozik erakutsi digu, airean gora egingo balu bezala mugituz eta motorraren hotsa imitatuz. Pintura- edo akabera-gunean bukatuko du. Hegazkina egiterakoan gehien noiz

gozatu duen galdetu diote, eta inolako zalantzarik gabe erantzun du: inguratzeko zerra-ekin. Ion marrazten ari da. Ana, berriz, paperezatzeko paperekin egindako efektu handi-ko collage bat bukatzen.

Hirugarren zikloan zeramika lantzen dute. Telebistako kamerak atzetik ditugu. Eskuinetik sartuko gara. Ikasgela begiez arakatuko dugu, hormetatik hasita. Apaletan, hasitako lanak bildurik, hezetasunari eusteko. Jarraian harraska handiak. Pigmentu eta tresnen lekua. Oraindik erabiltzen ez duten baina ezagutzen duten tornua eta ijezkailua. Azkenik, informazio- eta dokumentazio-gunea, euskarri grafikoarekin edo birtuala bestela (internet bidezkoa). Bisitatu dituzten edo Donostian, Bilbon, Gasteizen, Madrilan, Bartzelonan, Valentzian... ikus ditzaketen erakusketei buruzko informazioa izaten dute bertan. Familiak asko inplikatzan dituzte jarduera honetan.

Ikasle guztiak diseinua egiten hasten dira, ahal dela eurek sortutakoa, eurena. Benetan harrigarria da hamar-hamabi urterekin zer egiteko gai diren ikustea. Hainbat modelatze-teknika ikasten dituzte: txurroak, plakak, moldegintza. Era berean, hainbat dekorazio-teknika erabiltzen dituzte: esgrafiatua, engobeekin pintatzea.

Enbarazu egiten diegu telebista-kamerei, eta, beraz, irten egingo dugu. Ondoko gelan, labea dagoen gelan, Esteban agurtu dugu. Pieza batean ditu eskuak. Menina bat dirudi. Nola egin duen azaltzeko eskatu diogu. Estebanek apalategi batean utzi du pieza, eta eskua aurrean jarri du, babesteko-edo. Eskolan Velázquez aztertu dutela esan digu, eta berak Bilbora joan nahi zuela, Guggenheim-en Valdésen Meninak ikustera. Aitarekin joan omen zen.

Bere Meninari begiratu dio berriro, eta aurrera jarraitu du: "Nik bestelakoa asmatu dut. Bloke bat hartu, eta modelatu egin dut, eta nahiko adierazkorra da. Gero arrabolaz zabal-dutako plaka batekin soinekoa egin diot, eta badirudi mugitu egiten dela". Berrir begiratu dio, eta gaineratu du: "Engobeekin pintatu dut, eta, distira atsegin dudanez, esmalte gardena eman diot pintzel batez. Ondoren, irakasleak labean sartuko dit, galdatau egingo da, eta beiradura bihurtuko da". Taldeak, "oso ederra geratuko da", esanaz agurtzen du.

Bisita egiten jarraitu dugu.

Prentsan sartu gara. Ikasleak agurtu ditugu. Leire, Haizea, Ibai eta Borjak osatzen dute ABEko (Amara Berri Egunkaria) erredaktore-taldea. Ibai eta Borja irtetear zeuden. Ibaik kamera digitala darama eskuan, eta Borjak grabagailua. Esan digute laster etorriko direla. Ikasleek handitan izan nahi dutenari buruzko inkestatxo bat egitera doaz. Irtetean, atea itxi dute.

Prentsan zer egiten duten azaltzeko eskatu diegu.

Lana eten, elkarri begiratu, eta Leire hasi da: "Lehen orduan, albistegiaren ostean, bilera egin dugu egun osoko lana prestatzeko".

Zutitu egin da. Lan-metodoa (03-04 dok.) hartu du gidoi moduan, haria ez galtzeko, eta jarraitu egin du: "Taldean *balorazioa egiteko argibideak* irakurri ditugu, zeren egunaren amaieran gure funtzionamendua baloratzeko balio digute, baita egunean zehar gogoan izateko ere". Jende askok eskolan zein egunkari erabiltzen diren jakin nahi izaten du. Nik azaltzen diet, irizpide moduan, eskolak ez duela ildorik markatu nahi. Informazio plurala bilatzen da, betiere merkatuak duen mugaren eta eskolaren aurrekontuaren barruan. Gure ustez, alderatzeak garamatza iritzia izatera eta iritzi hori aldatzera.

Leirek azalpenarekin jarraitu du: "ABEko lehen orrialdean jarriko dugun albistea eta egunkari osoko edukia aukeratu ditugu".

"Zein izango da lehen orrialdeko berria?", galdetu dio taldeak. Orain arte begira egon den Haizeak esan digu izenburua: "'Umeen kezak'"; eta naturaltasun osoz aurrera jarraitu du: "UNICEFi esker, badakigu munduan 10etik 9 haur pobrezian bizi direla eta, adibidez, 1996an 250.000 haur soldadu zirela. Oso albiste tristea iruditzen zitzaigun, baina aukeratzeko garrantzitsua".

"Idatzi duzue?", galdetu die taldeak. "Ez. Hemen albistea aukeratu bakarrik egiten dugu, eta, sarearen bidez, izenburua lehen hizkuntzetako departamentuetara bidaltzen dugu, han delegazio moduko bat dugu eta. Norbaitek idatzi egiten du, eta haren izena jartzen da", erantzun du Haizeak; eta "Orain albistean jartzeko irudi hau eskaneatzen ari nintzen eta, bitartean, Haizea hirugarren ziklokoek bidalitako literatur lanak jaitsarazten ari zen", gaineratu du Leirek.

Atea jo dute. Bigarren zikloko ikasle bat da, eta ikusi gaituenean joan egin da.

Leirek esan digu etengabe poesiak egiten ari direla. Izugarri gustatzen zaie prentsakoek beren poesiak argitaratzea, eta "Lumaren Kiliman" beraiek idatzitakorik agertuko den galdetzera etortzen dira. Nik ohartarazi diet gogor lan egiten dutela, indarrez bizi dutelako zertarakoa, kasu honetan, prentsan argitaratzea. Leirek aurrera jarraitu du: "Mikel M.-ren biko errimatu hau jartzea pentsatu dugu. Xelebrea da. Uste dut zortzi urte besterik ez dituela, eta oso ondo egin du".

Borja eta Ibai etorri dira. Laster batean, ordenagailu aurrean jarri dira, inkestaren make-tazioa oso aurreratuta utzi dute bertan eta. Ibaik kamera konektatu du, argazkiak pantai-

lan azaltzen ari dira, eta prestatuta zituzten tarteetan sartzeari ekin diote. Binaka azaltzen dira. Borjak magnetofonoa konektatu du, eta, bitartean, erantzunak hainbat koloretan idazten saiatzen ari dira. Jakin-minak jota gaude. Zer erantzun ote dute? Arkitekto, suhil-tzaile edo gozogile, itsas-biologo, albaitari, gorputz-hezkuntzako irakasle, aktore, ingeniari, futbolari...

"Zer atal ditu egunkariak?", galdetu du taldeak. "Lehen orrialdea. Inkesta edo elkarrizketa. Gure eskola. Albisteak. Lumaren Kilima. Kultur agenda. Eguraldia. Esaera zaharrak. Denbora-pasak", erantzun du.

"Zer programa informatiko erabiltzen duzue?", galdetu dio taldeak Leireri. "Hemen Publisher. Nire ustez, ona da, zeren denbora laburrean ikas dezakegu eta egunkaria oso polita geratzen da", erantzun du pozik.

Taldeak gehiago jakin nahi du: "Zenbat denbora egoten zarete prentsan?". "Bi egun. Ibai eta Haizea atzo eta gaur egon dira. Leire eta ni bihar ere egongo gara. Horrela, gauzak ahazten bazaizkigu, elkarri laguntzen diogu, eta beti jo dezakegu irakasle batengana: goizeko bileran izaten da bera, egun osoko lana bideratzen dugun artean; bukaeran ere bai, ediziorako. Beste momenturen batean bere beharra badugu, hedabideetakoren batean aurkituko dugu", erantzun du Borjak.

Harrigarria iruditzen zaigu egunkaria egunero ateratzea, dio taldeko batek. Hori entzutean, Borjak erlojuari begiratu dio, eta kezkaturik begiratu diote elkarri. Eskerrak eman dizkiegu denbora asko eman dutelako gurekin eta, agian, orain estu ibiliko dira bukatzeko. Ibaik, baikortasunez erantzun du: egunkaria aterako da.

Prentsatik atera gara. Minutu batzuk baino ez dira falta jolasaldirako. Azkar-azkar jaistea proposatu dut, norbaitek zerbait hartu nahi badu ere, eta tartetxo hori galderaren bat egiteko aprobetxatzea. Onartu egin dute.

- Azalduko zeniguke zerbait hizkuntza-ereduen gainean, eta eredu horiek ikasleei buruz nola erabiltzen dituzuen?
- Ez dakizuenontzat, legez, hiru hizkuntza-eredu daude, eta hirurek ere euren funtzioa bete dute:
 - *A eredu*: dena gaztelaniaz ikastea eta euskara irakasgai izatea planteatzen du.

- *B eredu*: erdia gaztelaniaz eta erdia euskaraz.
- *D eredu*: Dena euskaraz eta gaztelania irakasgai gisa.

"Esan behar dut gaur egun Euskadin familiek euren seme-alabek euskaraz ikastearen aldeko aukera garbia egin dutela.

"Halaber, argitu nahi dut, oraindik bakoitzak bere funtzioa betetzen duen arren, erabiliko dudan ikuspegitik, kasu batzuetan funtzio hori ahuldu egin dela.

"Batetik, urte askoan gaztelania-hiztunak ziren familia askok D eredu eskatu dutelako euren seme-alabentzat, D eredu hoberena zela zioten kanpainak, entitateek edo eredu horretan lan egiten zutenek orientaturik. Orientazio horiek ez ziren bate-re indibidualizatuak, ordea. Batzuetan, gainera, orientazio horiek ematen zituztenek ez zeukaten trebetasun pedagogikorik, ez zituzten ezagutzen ikastetxe bakoitzeko programak, ezta pertsona bakoitzaren beharrak ere.

"Bigarrenik, eta besteak beste arrazoi beragatik, sailkapen hori ahuldu egin da, eta oso desberdina da ikastetxe bateko edo besteko hizkuntza-eredu batez hitz egitea, ikasleak eredu horretan sartzeko erabilitako irizpideak direla-eta. Ezin dira parekatu bi ikasgela mota hauek: ikasle gehienek hizkuntza gailena gaztelania izanik helburua euskaraz ikastea duten D ereduko ikasgelak eta ikasleen hizkuntza gailena euskara izanik helburua euskara aberatsagoa ikastea eta hobetzea duten D ereduko ikasgelak.

"Amara Berrin, bi hizkuntza-eredu daude: D eta B. Bi eredu horiek badute zentzua eskola beraren barruan:

- *Batetik, eskaera soziala aintzat hartzen delako.*
- *Bestetik, programak eredu bakoitzarentzat pentsaturik daudelako.*

"Hoberena Curriculum Proiektuaren parte den dokumentua irakurtzea izango da: *Ikastetxeko hizkuntza-ereduak eta hizkuntza-planteamenduak zehazteko irizpide metodologikoak (02-08 dok.)*. Ondoren, behar baduzue, galdera gehiagorentzako tarte utziko dugu.

- Dokumentua irakurri ondoren, sistema hau gauzatzen duten ikastetxe guztiek plan-teamendu bera duten jakin nahi nuke.
- Ez. Ikastetxe bakoitzaren errealitate sozialaren arabera da. Sistema hau gauzatzen duen ikastetxe bat dut buruan: ikasle guztiak euskaldunak dira eta laguntza berezia eskatu digute gaztelaniarekin, ikasleak ez baitaude batere trebatuta hizkuntza horretan. Beste ikastetxe bati, berriz, ez zaizkio baliozkoak iruditzen Amara Berrin D ereduan erabiltzen diren lehen hizkuntzako programak, maila handiegia dutelako. Izan ere, ikastetxe horretan D ereduko ikasle askoren hizkuntza gailena ez da euskara.
- Nik uste nuen hirugarren hizkuntza gisa frantsesa erabiltzen zenutela, eta ingelesa laugarrena zela.
- Une honetan ez, baina ez zabilta gaizki, urte batzuetan lau hizkuntza irakasten ziren eta.

"Ikastetxea OHOkoa zenean, gaur egun baino bi maila gehiago zeuden, eta ikasleek ingelesean maila handia lortzen zuten, hirugarren hizkuntza gisa, frantsesa jarri zen. Azken batean, ondoko hizkuntza dugu. Ingelesa laugarren hizkuntza gisa geratu zen, irakasten hasteko ordenari zegokionez, baina indar handia ematen zitzaion.

"1990eko Erreforma geroztik, OHoko ikastetxe publiko guztiak, Gipuzkoan behintzat, Lehen Hezkuntzako Ikastetxetzat jo ziren. Gure kasuan, sortu zen Bigarren Hezkuntzak, hainbat ikastetxetatik zetozen ikasle eta irakasleekin, ez zuen ahalbidetzen sistemaren jarraipena. Amara Berrik erabateko anputazioa bizi izan zuen: frantsesa desagertu egin zen Lehen Hezkuntzatik. Ez zen kontuan hartu urteetan Haur Hezkuntzan eta OHoko zortzi mailetan sistema hau garatzeko egindako ahallegina. Aprobetxatu nahi dut esateko sistema horri Batxilergoko lehen mailan ere ekin zitzaiola, Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe batean, Amara Berritik pasatako ikasleekin. Klaustro haren guztiaren erabakiari esker, aurrera eraman zuten irakasleek inplikazio eta profesionaltasunari esker eta zuzendaritza-taldeari esker, eta gure esku-hartzearekin, funtsean arrazoi beragatik geldiaraziak izan ziren aukera eta errealitate ugari ireki ziren.

"Oroz gain, Goi Zikloko ikasleak, gaur DBHko lehen ziklokoak, desagertu ziren. Maila horretan, adin zaila bizi dute, baina irakasleek atsegin dute. Adin horretan hartzen dute ikasleek daukaten eta eraikitzen duten eskolaren kontzientzia handiena. Une

horretan laguntza indibidualizatua behar dute euren buruari begiratzen ikasteko, hamabi urte horietan jarraitutako prozesu osoa biltzeko eta ondo buka-tzeko, etorkizunari lasai begiratu eta aurre egin ahal izateko.

"Ikastetxeko curriculum orokorrean aldaketak egin behar izan genituen, ez delako gauza bera hamabi urteko ikuspegiarekin edo hamar urtekoarekin planifikatzea.

"Hotz-hotzean kontaktzen ari naiz, baina aitortu behar dizuet une hartan nire bizitza profesionalean sentitu ahal izan dudan minik handienetako sentitu nuela. Zerbait zirriboratu dut hemen, baina atzean dagoen analisia askoz sakonagoa da. Badakizue zer egin nuen? Negar egin eta idatzi. Katarsi modukoa izan zen.

"Oraindik gogoan dut:

Quiero llorar mi pena y te lo digo,
Para que tú, poeta de verdades,
En este anochecer de realidades,
transformes mis lágrimas en ríos.

.....

Un proyecto no son ...
Son ojos, boca
y corazones limpios,
son lágrimas y sueños de poeta...

"Eta sendatu egin nintzen. Amets egiten eta sortzen hasi ginen berriro ere. Amets egin eta sortu ahal izatea sekulako pribilegioa da, eta arau hura aplikatu zuenak ez zuen halakorik izan.

"Une honetan, hiru hizkuntza ditugu: euskara, gaztelania eta ingelesa, eta trataera bateratua ematen diegu. Hiruretan metodologia bera erabiltzen da eta batean ikasitako teknikak besteetan erabiltzeko eta errentagarri bihurtzeko aprobetxatzen dira. Hori dela eta, ez diogu hainbeste erreparatzen ingelesa ematen den urte-kopuruari, erabiltzen den metodologiari eta lortutako mailei baizik. Irizpidea hau da: maila bera edo hobea lortzea, denbora murriztagoan, metodologia on bati esker.

– Jakin-mina daukat: etxerako lanak ematearen aldeko zarete?.

– Ez. Uste dut ez direla beharrezkoak.

"Beti pentsatu izan dugu etxerako lanak, modu orokortuan, ez direla beharrezkoak, baldintza jakin batzuk betetzen badira:

- Curriculum egokia bada eta fase bakoitza garaturik baldin badago.
- Irakasleak curriculum barneraturik baldin badu eta trebetasuna erakusten badu.
- Beste ezaugarrien artean indibidualizazioa jasotzen duen metodologia jakin bat erabiltzen bada.
- Irakasleek programak koherenteak eta baliozkoak diren uste osoa baldin badute.
- Ikasleek eskola-orduetan lan egin eta etekina ateratzen duten uste osoa baldin badago, guztia antolaturik dagoelako eta denborarik galtzen ez delako, ez daukagu etxerako lanak planteatzeko beharrik, asko dira-eta lan-ordu errealak.

"Garbi dago baldintza horietakoren batek huts egiteak irakaslea bere lanaren baliozkotasuna eta ikasleen errendimendua zalantzan jartzera daramala, eta etxerako lanak bidaltzea hutsune hori betetzeko modu bat da.

" Programak finkatuta baldin badaude, etxerako lan gutxiago bidaltzen dira, bada-kigulako non gauden eta errendimendua handiagoa delako. Etxerako lanak bidaltzen badira, zuzendu egin behar dira eta behar bezala itzuli, eta horrek lan-denbora kentzen du.

"Niri ez litzaidake gustatuko etxerako lanak bidaltzerik, zeren dagoeneko lan egin dut, nahiz eta nahi izanez gero lanean jarrai dezakedan. Ikasleek oso ongi dakite bere amari edo aitari, etxetik kanpo lan egiten badute, etxera iristean ez zaiela esaten gauza berean lanean jarraitu behar dutenik, atsedean hartu behar dutela baizik, inork ez du-eta zalantzan jartzeko beren lana.

"Beti aldarrikatu izan dugu ikasleak atsedean hartzeko duen eskubidea eta ikaslearen lanaren onarpena, ordu asko ematen baitituzte lanean, eta, zalantzarik gabe, nekatu egiten baitira.

"Gainera, ezin dugu ahaztu ematen diguten irudia izaten dugula azkenean, eta etxean lan egiten jarraitu behar duela esaten badiogu, bidaltzen diogun mezua zera

da: lanik ez duela egiten. Askoz egokiagoa da 'Hartu atsedean, lan egin duzu' eta eta horrelakoak esatea, horrek ardura sortzen baitio, ezer egin ez balu bezala lanean jarraitzera bultzatu beharrean.

"Nolanahi ere, badira eskolatik kanpo egin behar dituzten lanak ere, eta etxerako lanak dira, baina testuinguruetako beharrak sortzen ditu. Kasu horretan, sistemaren koherentziagatik, etxerako lan horiek hainbat baldintza bete behar dituzte:

- Lan indibidualizatuak. Ez ikasgela osoarentzat, pertsona bakoitzak bere erritmoa, bere unea, bere maila eta bere beharra baitu, eta ezin dugu indibidualizazio-printzipioa urratu.
- Euren interesekin eta beharrekin bat etortzea, ikasleez dugun ikuskera dela eta.
- Lan zehatzak. Prozesuaren une batean.
- Betiere sailaren jarduerari berari loturik daudenak. Badakite zertarako egin behar duten.

"Adibidez: hiruhileko batean biderkatzeko-taulak buruz ikastea, hori ezin du inork bere ordeztu egin eta. Auzoari, familiari, zaborrei eta abarri buruzko landa-lana egiteko informazioa eta datuak biltzea, departamentu jakin batek behar duelako.

"Departamentuek, askotan, ikastetxeaz haratago doazen zaletasunak eta interesak sortzen dituzte, eta horrek denbora libreaz gehiago gozatzea dakar.

"Nolanahi ere, gai honi buruzko gogoetak biltzen dituen dokumentua pasatuko dizuet (03-06 dok.). Gure iritzia argi eta garbi azaltzen duelakoan nago.

Eta, jarraian, bizkor-bizkor, berriro ekin diogu bisitari, uste dut jolas-ordua amaitzear dela eta.

Eraikinaren beste aldera joan gara. Atondo nagusitik pasatu gara. Amona bat, emakume gazte bat lagun duela, zutik dago, taka-taka bati eutsita. Boris eta Arantza iritsi dira une horretan, eta konfiantzaz agurtu dituzte. Gero arte esanez egin du agur emakume gazteak. Amona taka-takarekin, Arantzak eta Borisek babesturik, igogailurantz abiatu da, astiro-astiro.

Baztertu egin gara, lehen zikloko bi talde, motxila bizkarrean dutela, auzoko kiroldegira doaz-eta igeri egitera. Irakasleetako bat Genoren zain geratu da, Down sindromea duen neskaren zain, atzean geratu baita mutiko batekin hitz egiten. Genok irakasleari eskutik heldu dio. Elkarri konplizitatez begiratu, eta pausoa lasterragotu dute.

Jolastokira ematen duen atletik, beste talde bat ikusi dugu. Kasu honetan, hirugarren zikloko neska-mutilak eta Gorputz Hezkuntzako irakaslea dira, lurrean borobilean eseririk. Horrela hasten eta amaitzen da edozein saio, bai bideratzeko bai baloratzeko.

Lehen solairura igo gara.

Ingelesa nagusi den hirugarren zikloko departamentuan sartu gara. Eguerdiko 12:00ak dira. Irakasleak departamentuko irratia piztu du. Lana eten egin da. Bigarren zikloko bi neska eguraldiaren berri ematen ari dira: *Weather report*.

Informazioa bukatzean, departamentuko lanari heldu diote berriro ere.

Young Writers da aurrean dugun testuingurua. Horman lan-metodoa irakur dezakegu. Hemen sormen-lana egiten dute. Lonek proiektu bat prestatu du. Martak, berriz, lagun bati bidaltzeko postala. Bien artean hitz egiten ari dira, lonek proiektuari zein irteera emango dion ikusteko.

Story Teller. Hainbat testu-mota erakutsi dizkigute: komikiak, errezetak, biografiak, erreportajeak...

Let's talk. Testuinguru hau hutsik dago. Irakasleak esan digu ikasleak telebistan antzezttera joan direla. Azaldu digu entzumena eta antzezpena lantzen dutela, nahiz eta entzumena laborategiko lanarekin ere osatzen den. Halaber, esan digu hizkuntzen planteamendu bateratua izanik, ingelesean, errentagarri bihurtzen dutela lehen eta bigarren hizkuntzan ikasitakoa: prozedurak, gogoeta linguistikoa eta testu-motak.

Gamesen, ordenagailua erabiltzen ari da talde bat, eta gogoeta gramatikalera eta egitura linguistikora bideratutako mahai-jokoetan ari da jolasean. Agur esan diegu: "*Adios*. Agur. *Bye-Bye*".

Telebistako estudiora joan gara. Kamerak lehen hizkuntzetako departamentuetako batean hirigintzari buruz prestatutako elkarrizketa grabatzen ari dira. Une honetan platoko kamera erabiltzen ari dira. Gaur goizean plastika-departamentuetan kamera autonomoarekin ikusi ditugu, erreportajea grabatzen. Bihar hartualdi horiek editatzeko erabiliko dituzte.

Ikastetxeko bi haurren aita elkarriketatzen ari dira, Donostiako Plan Orokorra egiten parte hartu zuelako. Galderak atseginez eta hizkuntza haurren adinera egokituz erantzuten dituen bitartean, paper batzuk zabaldu ditu eta gaiari buruzko material grafikoa aurkeztu du.

Estudioaren eskuinean, gaur atzo grabatutako hartualdien edizioa egingo duen taldea dago. Une honetan, kredituetako tituluak idazten ari dira.

Estudiora sartzeko atean, beiratearen ertzari itsatsitako sudurren bati edo besteri darion lurruna ikusten dugu. Euren txanda noiz ailegatuko den ikusi nahian ibiliko direla pentsatzen dugu. Kortxoan eguneko programazioa irakurri dugu, eta elkarriketaren atzetik *Zergatikiñak* dator.

Estudiotik atera gara, eta, hain zuzen, Sasaki Naskitik datorren bigarren zikloko talde batekin egin dugu topo. Departamentu horretan bigarren hizkuntzak dira nagusi, eta norma-lean txotxongilo-programa bat aurkezten dute: *Zergatikiñak*. Entzun dudanez, oso programa dibertigarria da. Galdera-ontzia agertzen da bertan, eta hortik izena.

Denbora agortzen ari zaigu. Gelditu egin naiz. Dani ikasle gorra da. Behar-mota horretan espezializatutako ABZko irakasle batek lagunduta dator. Urduri baina ilusioz beterik, esan digu irratian hitz egin behar duela, eta gurasoek etxean entzungo dutela. Hunkigarria da bere begien distira ikustea. Ordua baino lehen doa, sartu aurretik berriro entseatu nahi du eta.

Hirugarren zikloko bi departamentuetara igo gara, non natura- eta gizarte-arloak nagusi diren. Departamentu honetan ez dago inor. Irakasle bat ikasle batekin hitz egiten ari da korridorean, eta jakinarazi digu Urumea ibaiari behatzera joan direla.

Azaldu diet ibaiaren zati bat ikusten dutela kontzientzia hartzeko, ura aztertzeke eta ibaiak zer forma hartzen duen jakiteko. Urak ibaiertzera arrastatzen edo eramaten dituen hondakinei behatzen diete. Baita gizakiok botatzen ditugun hondakinei ere. Flora eta faunari erreparatzen diete, eta uraren analisi erraza egiten dute. Horrekin guztiarekin, ondorioak aterako dituzte.

Hurrengo departamentura joan gara, eta, tamalez, denbora zaindu beharko dugu. Irakaslea agurtu dugu. Irakasleak oraindik ez dira ohartu hor gaudela. Itxuraz, oso departamentu mamitsua da. Biziz beteta dago.

Begiratu hona: *Nire lehen atlasa*. Baliabide ugari erabiltzen dituzte (baliabide informati-koak, erliebezko mapak, atlasak etab.), planetaren itxura fisikoa ezagutzeko: ozeanoak,

tundrak, oihanak, basamortuak... Klima handiak, horien eraginak etab. aztertzen dituzte. Oraindik ere ez gaituzte ikusi.

Honako hau beste testuinguru bat da, *Munduan Zehar*.

Hemen ikasleek planetako errealitate globalari beste ikuspegi batetik begiratzea da helburua. Beirateez bestalde ikusiko dugu, zeren eta gune hori banandurik baitago, soinua beste testuinguruetan sar ez dadin. Hemen, euren neurrian, errealitate globalaz (gizarte-, kultura- eta erlijio-desberdintasunez, etab.) kontzientzia har dezaten saiatzen gara. Eta zein izan daiteke mundua ezagutzeko bitarteko egokia? Beraien antzeko neska-mutilen bidez ezagutzea.

Ikusten duzue? Une honetan Noagak (Burkina Faso) historia kontatzen duen bideo-zinta bati begira daude.

Markelek esan digu orain arte Palestina eta Israelen arteko gatazkari buruzko artikulu bat irakurtzen aritu direla. Haur palestinar batek eta haur israeldar batek hitz egiten omen dute, eta bakoitzak egoera nola bizi duen kontatzen omen du. Joan egin da. Hiru bideo-zinta utzi ditu apalategi baten gainean, eta bere taldera joan da. Gure iritziz, errealitate berrien aurrean jarrera irekia izatea eta harenarekin/gurearekin alderatzea planetan kokatzeko beste modu bat da. Gure kontzeptuak eta gure jarrerak aldatzeko aukera ematea da.

Hainbat baliabide erabiltzen dira, baina gero eta gehiago baliatzen gara GKEek argitaratutako bideoez. Mediatekan dituzue. Begira Markelek itzultzeko utzi dituen hiru hauei: Noagakoa da bata, Intermonena bestea eta azken hau Manos Unidasena dela uste dut.

Historian zehar da beste testuinguru baten izena. Friso handi bat gailentzen da. Azpian, argazkiak eta era guztietako erreprodukzioak daude.

Testuinguru honetan, kontzeptu orokorren bidez, historiako aro handiak bereiztea da helburua.

Halaber, azken belaunaldietan gure hirian zer gertatu den, zer eraiki den eta zer-nolako bizimodua izan den ere ikasten dute. Horretarako, informazio idatzia erabiltzen dute, ahozko informazioa lortzen dute eta Donostiari buruzko bideoak erabiltzen dituzte: Donostia 30eko hamarkadan, Gerra Zibilean, 60ko hamarkadan. Halaber, datuak eta irudiak kontrastatzen dituzte.

Bigarren zatia dator ondoren, eta egokiagoa izango zen talde honetako ikasleek eurek azaltzea. Baina irakasleak zera esan digu: "Gaur ez da posible izango, bisita berezia izan baitute, aurrerago hitz egingo dizuet horretaz, eta agurtzera jaitsi baitira.

" Begira, fase honetan euren historia eta espazioa aztertzen hasten dira. Euren bizitza kontatzen dute, argazki eta bestelako material grafikoez lagundurik. Euren zuhaitz genealogikoaz ahal dutena ikertu, eta denboran atzera egiten dute.

" Gurasoen historiarekin hasten dira. Aitona-amonek edo birramona-birraitonek euren adina zuteneko historiarekin jarraitzen dute: zer bizi izan zuten, euren espazioa eta aurreko belaunaldiari buruz dakitena (kontatu egin zietelako). Ahozko, idatzizko eta irudizko materialen bidez ikertzen dute. Elkarrizketak egiten dituzte eta beti historiak konparatu eta frisoan, denboran, kokatzen dituzte. Sekulako aurkikuntza da irratia, telebista, autoa eta telefonoa sortu ziren garaian kokatzea. Izan ere, beti izan direla uste izaten dute.

" Esan dizuet gaur bisita bat izan dela. Ez dakit ikusi duzuen: amona bat taka-takarekin."

"Bai, lehen orduan ikusi dugu, sartzerakoan", erantzun dio taldeak.

124

Irakasleak hauxe azaldu dio: "Lehen taldea harrera egitera jaitsi da, eta oraingoa, agur esatera. Izan ere, testuinguru honetan informazio-iturri bizia dugu, apartekoa. Donostiako instituzio batetik edadetu asko etortzen dira. Etortzen dira, edo ekarri egiten dituzte, gaur Maria bezala. Esperientzia zoragarria da. Zoriontsu etortzen dira, euren historia kontatzea eta behar den guztiari erantzutera. Ikasleek grabatu egiten dituzte. Informazio-iturri baliagarria direla ohartzen dira, batzuetan baita dibertigarria ere. Argazkia ateratzen diete eta dena txostenean jasorik geratzen da. Etortzen direnek itzuli egin nahi izaten dute, eta ikasleentzat magiazko mundua da: pizza, bollycao, kiroldegi eta telebistarik gabe bizi eta dibertitzen ziren. Oroitzapen agortezinen mundua aurkezten dute. Edadetu horiek etortzeko irrikaz egoten dira, baliagarri sentitzen direlako, eta, zinez, hala dira. Agurtzerakoan txostenean jasota geratuko den argazkia ematen zaie, eta pozarren joaten dira, berriro ere etortzeko gogoz. Konplizitate ederra sortzen da".

Hasi dira materialak Mediatekara itzultzen. Badira testuinguru gehiago ere, baina ikasleei agur esan eta laster batean atera gara. Gutxi falta da eskola-orduak amaitzeko, eta oraindik ere asko dago ikusteko. Jarduera nagusia matematika den departamentuan sartu gara. *Buru Belarri* izena du.

Beti bezala, agurtu egin ditugu, ia keinuarekin soilik, giro orokorra ez apurtzeko. Matematika-trebetasunak (multiploak eta zatitzaileak, kalkulu-estrategiak, neurriak etab.) garatzeko mahai-jokoak erabiltzen dituzten testuinguru batetik pasatu gara, bizi-bizi.

Hementxe geratuko gara. *Diseinua* esaten diogu, eta, izenak berak adierazten duen moduan, hemen geometria erabiltzen dute diseinu artistikoa edo funtzionala egiteko, eta lagungarri izango zaizkien kontzeptuak eta prozedurak jakin behar dituzte. Irudiak marraztu eta irudiei erraiak ateratzen dizkiete. Elementuak aztertzen dituzte. Azalerak eta bolumenak ikertzen dituzte, manipulaturaz, irudikatuz, eta azkenik abstrakzio-fasera iristen dira.

Ikus ezazue hau. Hori Gabi da. Amaia eserita dago, eta Gabi hanka neurtzen ari zaio. Badirudi bukatu duela. Amaia lekuz aldatu da, eta Gabik datuak orri batean jaso ditu.

Taldeak Gabiri zuzendu dio galdera hau: "Gabi, azalduko diguzu zertan ari zaren?". "Amaiarentzako aulki ergonomikoa diseinatzen ari naiz. Dagoeneko neurtu diot belauaren atzeko aldetik ipurdia amaitzen den lekuraino, zera, ipurmasaileraino, eta belauaren atzeko aldetik hankazpiraino. Eta bizkarraren zabalera eta luzera ere neurtu dizkiot, eta ezin du izan ez soberan ez faltan, zeren aulki hau beretzat da. Orain hemen bi lerro paralelo egin behar ditut. Hau beste honekiko perpendikular, eta angelu honek zenbat neurtzen duen ikusi behar dut. Ea ondo ateratzen zaidan." "Bai, noski, ondo aterako zaizu. Oso interesgarria da egiten ari zaren lana", animatu du taldeak.

Amaia, ezer esan gabe, bere lana azaltzen hasi zaigu: "Nire etxeko logelaren neurri guztiak hartu ditut, eta orain hemen marrazten ari naiz. Diseinu dibertigarria egin nahi dut, koloretsua. Bukatzen dudanean, aurrekontua egin behar dut. Polita geratzea nahi dut, eta garestia ez izatea; horrela, agian, nire amak logelaz aldatzen utziko dit, izan ere, oso hondatuta daukat posterrak jartzeagatik eta". "Bada, ea lortzen duzun", esan dio taldeak, eta Aizpearengana jo du: "Aizpea, eta zu?". "Nik neurri honetako eskailerak diseinatu behar ditut. Zenbat maila eta zein neurritakoak behar dituen kalkulatzeko ari naiz. Hori jakitean, egur bertikalaren luzera eta horizontalaren zabalera kalkulatzeko ditut, eta askoz gauza gehiago", erantzun du. "Gustura ikusiko genuke", baieztatu du taldeak, agurtu aurretik.

Irakasleak urrunetik agurtu gaitu lehen, ikasle bat bideratzen ari baitzen, eta orain guggana etorri da. Hurrengo testuinguruari buruz galdetu diogu, harritu egin gaitu-eta testuliburua erabiltzen ari direla ikusteak.

"Begira—esan digu—, ziklo honetara iritsi arte inoiz ez dute erabili testuliburua testuinguruaren oinarriko elementu gisa. Hemen, ordea, bai. Ikasleek zenbait gai argitu behar

dituzte, irakasleek alde aurretik azalpenik eman gabe. Hori egiteko gauza direla erakusten badute, eta hala eginen dute, aurretik egin dugun lana baliozkotu dezakegu. Badira beste arrazoi batzuk ere. Testuliburua, izenak berak dioen bezala, testu bat gehiago da; erabili ohi dituztenak ez bezalakoa, egitura propioa du eta egokia da ikasleek ezagutzea aiekasle batek bere beharra dauka—. Barkatu aedesenkusatu da; Igorrek deitu du, testuinguru honetan asmamen-, logika-, aritmetika- eta geometria-problemak sortzen eta ebazten direnez, *Prentsan*, denbora-pasen atalean, argitaratzeko prestatu duen orri bat irakasleak ontzat eman diezaion nahi du. Agurtu ditugu, eta alde egindugu.

Lehen hizkuntzak nagusi diren departamentuetara jo dugu. Korridorean gaude, eta dagoeneko mugimendu handia nabari da. Ordua da, eta materialak Mediatekara itzultzen ari dira.

Minutu batzuetan materialak gorde, eta gehienak desagertu egin dira.

Oraindik ere geratzen da luma- edo ordenagailu-zalerik. Irakaslea gugana etorri da, eta sorbaldak altxatu ditu, gure etsipenarekin bat eginez bezala. Ez gara luze egongo berarekin, oraindik lana dauka eta.

126

Begira, *Elkarrizketa* da teknika hori lantzen duten testuinguruetakoko bat. *Telebistan* ikusi dugu bat, hirigintzari buruzkoa. Hemen, berriz, *Albisteak*. Horien artean, egunkariko lehen orrialdeko albisteak ere idazten dituzte, gogoratzen duzue? Beste gune hau *Antzerkia eta Poesiarena* da.

Ikasle guztiak atera dira, Lander eta Gorka izan ezik. *Luma hegalarian* aritu dira, eta orain, sarearen bidez, euren idatziak bidaltzen ari dira, *Prentsan* argitara ditzaten. Haiengana jo dugu. Irakaslea ere bertan da, eskuan hainbat idatzi dituela. Gorkari galdetu diot, kide batek galdetu zidana: "halako produkzioarekin, prentsak ezin du dena argitaratu. Zer eginen da argitaratu gabe geratzen diren lanekin?". Gorkak honelaxe adierazi digu: "Urtero euzkarazko testuen bilduma bat egiten da eta gaztelaniazkoen beste bat, eta Mediatekan eta departamentuan gordetzen dira".

Beste ikasgelara joan gara. *Filmen bikoizketa* dugu hemen. Dagoeneko hitz egin dugu horretaz.

Jolas gramatikalak. Hitzaldiak: Gai kulturalak, zientifikoak, sozialak eta mitologikoak erabiltzen dituzte testuinguru honetan. Euren interesetatik sortzen diren kontuak. Kasu honetan, gaiak ez dio ardura. Teknika, metodoa, prozesua, garapena da nagusi. Departamentu honetan errepikatu egiten da *Luma hegalaria*. Irakasleak hainbat bilduma

erakutsi dizkigu. Ez diet begiratu ere egin nahi, zeren niretzat galbide baitira. Irakurtzen hasten banaiz, ez naiz hemendik mugitu ere egingo.

Eta, honenbestez, kitto! Goazen mokadu bat jatera, eta galdera-tartea zabalduko dugu. Kamerekin topo egin dugu: Gorputz Hezkuntzan prestatutako koreografiak filmatzen izan dira. Presaka dabilta, jantokian sartzeko ordua da eta.

Mokadu bat jan ondoren, eseri, eta galdera-tarteari ekin diogu. Taldean bi pertsona falta dira ikasgeletatik jaitsi garetik. Ez dut uste eraikinean galduko zirenik.

Hemen daude. Pozik datoz, eskuan orri batzuk dituztela. Orain arte lehen hizkuntzako irakasleekin izan dira, hainbat testu-bilduma irakurtzen. Hainbat idazlanen kopiekin datoz; irakasleek azaldu dietenez, eman ditzakete, ikasle horiei horretarako baimena eskatu baitaie noizbait.

- Ea, emadazu bat.
- Hau, oso polita baita: *El Tunel*.
- Ez, oso luzea da. Denak dira luzeak. Ea... daukazun motzena. *Debajo de la mesa* ize-neko bat eman dit. Irakurtzen hasi naiz, eta ezagutu egin dut. Mukiari buruzkoa da. U...! Hau oso aspaldikoa da! Gogoan dut ikasle honen materialak eman zizkidatela, ikastaro bat emateko. Irakur dezagun. Badakit gustatu zitzaidala.

DEBAJO DE LA MESA

Aquí sigo, debajo de la mesa, esperando que alguien me coja con su dedo y me lleve a otro sitio. Perdí mi familia, un lugar cómodo y acogedor, y mi dignidad. ¿Cómo pude ser tan tonto y dejarme llevar por un dulce dedo?

Llevaba metido en mi dueño desde que nació. Ahora la mesa se está haciendo vieja, como yo y algún día la quemarán y yo moriré.

Cuando llega la noche, me encuentro solo y aburrido, grito y no me oyen; me intento despegar y no lo consigo.

Pero como decía mi gran abuelo: ¿Qué más puede pedir un moco que una mesa vieja y acogedora?

(Nerea Ganzarain)

"Galderak, iradokizunak, iritziak —Badirudi Santik hitza hartuko duela. Arretaz jarraitu du topaketa hau, baina oraindik ez du hitzik egin.

- Txundigarria. —Badirudi arnasari eusten ari dela. Nik zera esan diot neure buruari: "Jende askok hitz bera erabiltzen du eskolan barrena ibili ondoren". Santik honela jarraitu duæ: Hau ikusi egin behar da, bestela ez duzu imajinatu ere egiten, beste-la ezin duzu sinetsi ere egin. Badakit etengabeko erlazioan dagoen osotasun batek sortzen duela bizi hau, jolas hau, jarduera mordo hau eta, era berean, ez dago ikasle galdurik. Bakoitzak bere egitekoa betetzen du, irakaslerik aurrean izan gabe ere lan eginez. Gozatu egiten dute eta, aldi berean, izugarri produzitzen dute. Zer faktore azpimarratuko zenituzke hau guztia gertatzeko?
- Zuk erantzun duzu. Dena beharrezkoa da. Baina, zuk eskatu bezala, faktoreren bat lehenetsi behar badut... Utzi apur bat pentsatzen...

"Lehenik eta behin, hauxe esango nuke: ikasle-antolamendua, bere departamentu eta testuinguru komunekin. Curriculumaren lehen fasearekin konformatzen naiz, gainerakoak berez etorriko dira eta. Egia esan, horixe da sistema hau gauzatu nahi dutenei eskaintzen dieguna. Zalantza egin dut lehen postuan irakasleak jarri ala ez, baina esango nuke ezetz: gauza baliotsuak lortzera ailega daitezke, baina ez du zertan izan hemen ikusi duguna. Egitura jartzen dut lehen postuan. Aurrerago ikusiko dugu nola edozein antolamendu-egiturak ez dituen ondorio berak. Egitura hau sortzea norabide berean aurrera egiten duten ezin konta ahala bide sortzea da. Ikasleen egitura honek sortzen ditu ikastetxeko gainerako egitura guztiak. Horrek, batetik, ikasgela eta taldea jabetza gisa hartzen dituen ikuspegia gainditzeko irekitasuna eskatzen die irakasleei eta, bestetik, taldean lan egitea exijitzen die. Egitura horrek ikasleak autonomiaz hezte eta irakasleak aurrean izan gabe ere ardurak hartzea ahalbidetzen du; izan ere, irakaslea aurrean ez badago ere, ikasle-antolamendu batek bere lana aztertuko du. Egitura horri esker, halaber, balio-eskala bat ezagutu, ikasi eta gozatu egingo dute ikasleek.

"Bigarrenik, ikastetxe honetako irakasleek duten prestakuntza-kontzeptua azpimarratuko nuke. Hirugarren kapituluan jardungo dugu horretaz. Prestakuntza-kontzeptu hori edukitzeak berdintasunean kokatzen gaitu; elkarrekin bilatzera, irizpide

batzuetatik abiatuta esku hartzera eta egituretatik ikastera garamatza. Hori esanda, pentsatzen ari naiz agian gaiari ihes egingo diodala, baina, bai, ihes egingo diot. Gerta daiteke berak lan egiten duen taldean edo taldeetan orokorra den iritziaren edo ikuspegiaren kontra egiten duen norbait egotea. Bestelako iritzia izatea normala da. Kontra egitea, ordea, jarrera-kontua da, desberdina da. Kontra egiteak askatasuna oztopatu, blokeatu eta hil egiten du, ezinegona eragiten du, bilgunea apurtzen du, eta hori taldearentzat oztopo eta ezinegon bihurtu daiteke. Hori gertatuko balitz, taldeari esango nioke kontra egiten duenari ez aurre egiteko, baina ez amore emateko, irizpideei eta jarduera-ildoari eusteko. Kontra egiten duenari ez aurre egiteko, ezagutzen dugulako pertsona horren barrua edo bizitzaren ari den unea. Adibide bat jarriko dizuet. Neurri batean baino ez dago loturik azaldutakoarekin, eta niri lagungarri izan zitzaidan: ni nahiko leku isilean bizi naiz. Eta erabateko lasaitasun horretaz gozatzen egoten nintzenean ondoko etxeko txakurtxoa zaunka aritzen zen etengabe. Ni gero eta urduriago jartzen nintzen, zeren auzoko bizilagun guztiek baino zarata handiagoa ateratzen zuen. Behin leihora hurbildu eta begira egon nintzaion. Alde batetik bestera zebilen korrika, iraulkatu egiten zen, eguzkitan hankaz gora zegoela berriro zaunka egiten zuen. Hain aske eta hain zoriontsu ikusi nuen (hori ez dator bat aurreko adibidearekin), hori nahi izango nuke haur guztientzat. Orduan ohartu nintzen berari aurre egiteari utzi niola. Orain ez dut entzuten, oso tarteka ez bada, eta, nahi gabe, irribarrea ateratzen zait. Adibide horrekin hainbeste luzatu dut nire arrazoiketaren haria, beheko solairura ere iritsiko zen honezkero. Baina ez du axola, bildu egingo dut. Izan ere, horrelako jarrerak arazoak konpontzeko –betiere irizpideak mantenduz– eta mota honetako eskola lortzeko gako ere izan daitezke.

- Prentsan, kolore eta maketazio-estilo bera zituzten egunkari batzuk ikusi ditut, baina orrialde gehiagokoak, eta "Comenius" irakur zitekeen bertan. Esan dezakezu zerbait horretaz?
- Bai. Normalean, ez dugu proiektu partzialetan parte hartzen. Noizbait egin izan dugu, gure egitekotik desbideratzen ez bagaitu eta une horretan bereziki landu nahi den curriculumaren alderdiren bat sakontzeko balio badigu. Hori da, hain zuzen, "Comeniusek" kasua. Proiektuaren izenburua: "*Kulturarteko eskola-prentsa, topaketak sarean*".

"Kulturartekotasuna eta internet ziren une horretan praktikaren bidez sakontzea eskatzen zuten bi gai, baita orain ere. Hortik izena. Txekiar Errepublika, Erresuma Batua eta Herbeheretako ikastetxe banak eta Amara Berrik hartu zuten parte.

"Zer lortu nahi zen esperientzia horrekin?:"

- Eskola-elkartea gizarte antolatu gisa ulertzea.
- Hurbileko mundu horretako gertaerak bildu eta albiste bihurtzea.
- Pixkanaka-pixkanaka, eskola-elkartearen ikuspegia kulturartekotasunaren alde-
ra zabalagoa den gizarte baterantz zuzentzea.
- Balio-eskalak (kontzeptu- eta jarrera-eskalak) berregituratzeko aukera ematea,
albiste diren gertaerak kontrastatuz eta aztertuz.
- Hedabide berriak, internet, etab. praktikan ezagutzea.
- Internet bidez, lau herrialde horietako ikastetxeetan jasotako gizarte-oihartzun
hori trukatzeko aukera ematea.
- Beste hizkuntza batzuetan komunikatzeko nahia sustatzea.

"Lau ikastetxeok elkarrekin lan egiten dugu. Proiektua bideratu zutenak buru-bela-
rri aritu ziren eta gaitasun nabaria erakutsi zuten: gai izan ziren ikasleak modu akti-
boan inplikatzeko, deskribatu ezin ditudan ekintzen bidez. Horien artean, zuk aipa-
tu duzun egunkaria bera: internet bidezko prentsa, eleaniztasuna eta kulturarteko-
tasuna nagusi zituena.

- Jakin-mina daukat. Gorputz Hezkuntza gainerako ikasgaien ildo berari jarraituz
lantzen da?
- Gai horretaz zerbait esateko beharra sentitzen nuen, mintegi garatuenetakoa da-
eta. Horrez gain, ikastetxean zehar egindako bisitan Gorputz Hezkuntzaren ingu-
ruan ezer gutxi ikusi dugulako: igerilekura zihoazen bi talde eta, beste bat, borobi-
lean bildurik, saioa bideratzen ari zela.

"Gorputz Hezkuntzan ere lau testuinguru erabiltzen dituzte: *jolasak, kirolak, zirko
txikia* eta *dantzaldia*.

"Mintegi horrek oso garaturik ditu curriculumaren faseak.

"Bigarren faseari buruzko dokumentua banatuko dizuet, jolasei buruzkoa. Lan hau ez dute mintegikoek soilik egin: eskolaz kanpoko jardueretako kirol-monitoreek ere parte hartu dute. Mintegiak berak koordinatzen ditu, zuzenean, ikastetxearen kirol-eskaintza osatzen duten jardueren diseinuak eta funtzionamendu didaktikoa.

"Dokumentu hau (03-09 dok.) benetan osoa da, hiru zikloei dagokie eta. Zehatzagoak ere egin ziren, baina ez ditut eskura. Ez ditut eskura *Bilakaera zaintzeko argibideak*, eta eguneko jarduera definitzen duen fitxa teknikoa ere ez.

"Aurkeztuko dizuedan dokumentu hau eta *Bilakaera zaintzeko argibideak* baliatzen dira, bilerak borobilean eginez, saioak bideratu eta baloratzeko; ikusi genuena beزالako bilera horiek saio bakoitzaren hasiera eta amaiera adierazten dute.

- Ikusten dudanez, curriculum oso orekaturik dago. Biziki sustatzen ditu jarduera intelektualak, baina ez ditu bazter uzten arte-jarduerak, eta azken horiek, berariaz landu ez arren, departamentu guztietan izaten dira. Benetan gustura ikusi ditut, baina jakin nahi nuke musikan nola egituratzen den saio bat eta hortik aurrerako guztia.
- Gogorarazten dizuet topaketa hauen helburua ez dela programak aurkeztea. Bestetik, ordea, ulertzen dut bisitaren ostean ni zirikatzen hastea. Tira, ni erori egiten naiz zirikaldian.

"Begara. Egitura bera da, baina hirugarren zikloko saioa hartuko dut gunetzat, ziklo horretan aurreko mailetan landutakoa errentagarri bihurtzen da eta. Saio horretan ikusi genuen irakaslea da mintegiko koordinatzailea eta ikastetxeko garapen musikaren alma materra da.

"Zure galderari erantzunez, saioa lau zatitan banatzen da: *Instrumentua, Kantua, Solfeoa* eta *Entzumena*.

"Garrantzi handia ematen zaio sarrerako protokoloari. Soinurik egin gabe esertzen dira. Lehen unetik, isiltasunarekin gustura senti daitezten eta isiltasuna laguntzat har dezaten saiatzen gara. Ahotsaren tonua ere funtsezkoa da, baita hitz egiteko orduan erabilitako intentsitatea eta abiadura ere.

"Irakaslea zutik egoten da ikasleak iristean, eta, ondoren, isil-isilik, eseri egiten da. Protokolo hori bat dator eskola osoaren ikuskerarekin, baina hemen azken muturre-raino eramaten da, irakasgaiak berak hala eskatzen duelako.

"Irakasleak, isilean orain ere, txirula ateratzen du kutxatilatik. Instrumentuaren teknikari eskainitako tarte da. Honela dio irakasleak: "Do maiorreko eskala. Zein aldakari ditu?". "Bat ere ez" -erantzuten diote ikasleek, eta goranzko eta beheranzko eskala jotzen dute. Lau eskalatan trebatzen dira, oso modu dinamikoan. Atzamarrak mugitzeko, aginduak burmuinetik etorri behar duela ikasten dute, eta lehenik zer egin nahi duten jakin behar dutela, ondoren praktikatu eta trebatu ahal izateko. Ez zaie gogorra egiten. Nik ikusi izan dut ikasleren bat eskala errepikatzeko eskatuz. Hau guztia irakasleengandik ikasi dut.

"Gero, adibidez, *Branle* esaten du irakasleak, eta jo egiten dute, lehenengo aldiz agian. Behatuz hasten dira. Denek batera joan behar dute. Kontzentrazioa erabatekoa da. Adi-adi begiratzen diote irakasleari eta belarriak zabal-zabalik izaten dituzte norberaren soinua eta irakaslearena bereizteko. Beti esaten die: goxo, behartu gabe.

"Beste bi abesti errepatatzen dituzte, interpretazioa hobetzeko: arnasa eta postura kontrolatu, begi-belarri-atzamarrak koordinatu, batera sartu eta ziur jakin zein obra interpretatzen duten. Azken hori, irakasleek diotenez, ez da batere erraza, soinua desagertu egiten da produzitu ahala eta.

"Beste abeste bati ekiten diote ondoren, baina ez dute behin eta berriro jotzen. Hobe da apurka-apurka aurreratzea.

"Hemen, guk ikusi genuen partearekin lotzen da, eta solfeoaren lanketak jarraitzen dio: oraingoan abestu bakarrik egiten dute, baita hizkuntza-ariketak ere (alfabetizazioa). Azkenik, entzumena. Obra, autorea (datu biografikoren bat) eta garaia (hala badagokio) aurkezten dira, eta obraren analisisa egiten da. Amaitzeko, begiak itxi, eta entzun egiten dute.

"Irakaslea ematen dut. Izan ere, hainbeste aldiz ikusi dut eta hainbestetan azaldu didate...

- Mediatekan geundenean, han zegoen ikasleetako batek esan du orri bat betetzen zutela -"Balorazioa egiteko argibideak" deitu diola uste dut-, eta ostiraletan Ikasle Antolamendura eramaten zutela. Horri buruz zerbait jakiteko gogoz geratu naiz.

- Nik ere antolamendu horri buruz gehiago jakin nahi nuke, izan ere, bikaina iruditu zitzaidan gauza bat kontatu zidaten: ikasle batek paperontzitik paperak jasotzen omen zituen, bere ikaskideei zenbat gastatzen zuten erakusteko.
- Gaiari lehenago heldu nahi nion, baina hau une egokia da. Nolanahi ere, ez duzue ahaztu behar topaketa hauen helburua ez dela programa guztiak aurkeztea. Bestetik, ordea, ulertzen dut galderek ildo horretatik jotzea. Nolanahi ere, Ikasle Antolamendua hain garrantzitsua izanda, lehenago heldu behar nion gaiari, zuek galdera egin zain egon gabe.

"Antolamendu horretan eraikin bakoitzeko ikasleak, adin guztietakoak, erlazionatzen dira.

"Zergatik behar den testuinguru hori? Gainerako testuinguruekin osagarritasun funtzioa betetzen duelako. Gure iritziz, ikastetxeko helburu orokor batzuk garatzeko, harreman sozialei dagozkienak, hain zuzen, berariazko esparru bat behar da. Horretarako dago Ikasle Antolamendua.

"Iritziak errespetatzen ikasteko, besteen iritziak entzun behar dira; aztertzen ikasteko, aztertu egin behar da; eztabaidatzen ikasteko, eztabaidatu; bat etortzen ikasteko, bat etorri. Ideiak argumentatzen ikasteko edo aldatzeko gai izateko, gutxiengoei entzun eta ulertzen saiatzeko, eta abarretarako, beharrezkoa da garapen horiek ahalbidetuko dituen antolamendu-egitura. Edozein antolamendu-egiturak ez ditu ondorio berak. Horretaz, hurrengo saioan jardungo dugu.

"Zein da antolamendu horren egitura? Batetik, batzarrak daude (ikasgelakoak, ziklokoak eta orokorrak) eta, bestetik, zerbitzuak. Departamentuek funtzionatzeko, zerbitzuak behar dira. Gehienak ezagutu dituzue: Mediateka, Irratia, Prentsa, Telebista. Ez duzue ezagutu Material Zerbitzua. Astero, material suntsigarria kontrolatzen eta banatzen die ikasle eta irakasleei. Departamentuko ordezkari batek eskariak aztertzen ditu, horretarako ezarritako egun eta orduan. Higiene eta Ingurumen Zerbitzua, berriz, ikaskideak eraikinaren egoeraz eta ikastetxeko giroaz kontzientziatzeaz arduratzen da. Adin guztietako ikasleak daude zerbitzu horretan.

"Zerbitzu bakoitzak bere ardurak hartzen ditu, zeren, astero-astero, ordezkari bakoitzak (hautestontzietan aukeratuak) bilerara deitzen ditu zerbitzuko ikasleak eta erreferentzi irakaslea; bertan funtzionamendua aztertu, ekimenak proposatu eta arazoak konpontzen saiatzen dira.

"Mediatekak, esaterako, argitaratutako materialen azken nobedadeak lekuz aldatzea proposa dezake. Gogoan dut behin Higiene Zerbitzuak hormako idatziak karrikatzeko garbiketa antolatu zuela, eta hormak garbi-garbi utzi zituztela, jolastoki-koak, batez ere. Esan behar dut publikoari ere zabaldu zitzaiola. Kanpaina bikaina izan zen, eta ikasle zein irakasle denak inplikatu ginen. Kontzientzia handia sortu zen.

"Zuk entzun duzun beste adibide bat eman duzu. Aula aldizkarirako idatzitako artikululu batean kontatu nuela uste dut, eta GRAÓk argitaratu berri duen *Eskola-balioak eta hezkuntza hiritarrentzat* aldizkarian ere jasotzen da. Zuk aipatu duzun gertaeran, Material Zerbitzua ohartu zen paper gehiegi gastatzen zela. Zerbitzuko bileretan azaltzen zuen, baina Batzarrari ere, baina inork ez zuen sinesten, ez zegoen horren kontzientziarik eta. Zerbitzu horretako ordezkaria OHOk 7. mailako ikasle bat zen, eta denbora luzez, bera bakarrik, paperontzi guztietako papera jasotzen aritu zen arratsaldero. Papera xahutzen zen guneen ikerketa egin zuen, eta sektore guztietan aurkeztu zuen. Ezin zuten sinetsi hainbeste gastatzen zutenik. Ikerketa horren haritik, Ingurumen Zerbitzuak, zerbitzuko erreferentzi irakasleak lagundurik, gastu horrekin jarraituz gero eskola hornitzeko zenbat zuhaitz bota beharko liratekeen kalkulatu zuen. Egindako ikerketa ikastetxe osoari aurkeztu zion, eta datuek harridura sortu zuten. Hortik sortu zen birziklatzeko ideia. Birziklatzen hasi, eta kontzientzia handia lortu zen. Oso gogoan dut, orduetik denbora asko pasatu bada ere. Kontua ez zen hor geratu, ordea. Esan zuten: birziklatzea ez da aski: basoak berritu egin behar dira. Horretarako, udalak mendi-hegal bat utzi zigun. Beti gogoratzen dut lehen zikloko umeek nolako ilusioz eramaten zituzten familiakoak aste-buruetan euren zuhaitzak ikustera.

"Zerbitzuak biziz gainezka daude, zuen begiekin ikusi ahal izan duzue. Baina Antolamenduaren beste zati bat urteetan geldirik dago. Ikasgelako eta zikloko batzarra dago, baina ez batzar orokorrik, lokal egokirik ez daukagulako. Horrek ikasleek erabakiak hartzearen kontzientzia galtzea dakar, eta, zalantzarik gabe, alderdi horri dagokionez, prozesuak okerrera egin du. Eskolako bozeramaileak aspaldian ez du egitekorik, funtsean batzar orokorrari loturik zegoen eta. Nik oraindik ere badut itxaropena: egungo bitarteko teknikoekin (telebista, telefonoak, bideokonferentziak etab.) agian esparru hori berreskuratu ahal izango da. Baina egitura horren alderdirik garrantzitsuenak bileretan erabilitako metodologiari esker sortzen diren garapenak dira. Izan ere, garapen horiek ikastetxearen helburu orokor askori loturik daude. Planifikazioa eta bere edukiak aztertzean ikusi ahal izango duzue. Dokumentua banatuko dizuet (03-08 dok.).





CURRICULUMA LANTZEKO FASEAK

Curriculumean, ikuspegi sistemikotik, hiru fase bereizten ditugu:

1.a: Testuingurua eta haren elementuak.

2.a: Testuinguru bakoitzaren edukiak, helburuak, jardueren muina eta bilakaera zaintzeko argibideak aztertzea eta definitzea.

3.a: Esku hartzeko eta ikasleen bilakaera zaintzeko eta ebaluazioa egiteko programa.

Ikusi ahal izango duzuen moduan, hiru fase horiek ez datoz bat 1990eko Erreformen planteatzen zirenekin. Erreforma horretan orokorretik abiatzen dira: helburu teoriko batzuetatik zehazpenera, praktika deduzitzera. Gurean, berriz, aukeratu dugun jolas-jarduera batek abiatzen gara, hau da, errealitate konkretu batetik: espazio batzuk diseinatu, baliabide batzuek hornitu, denbora-banaketa aztertu, testuinguru osoa eta jarduera erreal osoa zehaztu, eta galdetzen diogu geure buruari: hemen, testuinguru honetan, eta orain, zein eduki ikas ditzakete ikasleek eta zein gaitasun gara ditzakete epe luzera? Helburuak ez ditugu guk asmatzen; aitzitik, jarduerak, testuinguruak – haren esparru fisiko eta haute-mangarriarekin– eta testuinguruko baliabide zehatzek zer garatzeko aukera ematen duten, horiek dira helburuak. Prozesu hori planteatzea lehen eta bigarren fasearen arteko koherentzia planteatzea da. Horrek ez du esan nahi erreformak ezarritako eduki eta helburuekin kontrastatzen ez dugunik, baina hori aurrerago etorriko da.

Ikuspegi sistemikotik hiru fase horiek bereizten ditugula diodanean, bakoitzak beste bietan eragiten duela esan nahi dut. Lehenengoa diseinatzeko, badakigu intuitiboki eta gutxi gorabehera jolasak edo testuinguruak zein ikaskuntza ahalbidetzen dituen, horregatik aukeratu baita. Adibidez, *Merkataritza-departamentu bat* antolatzen badut (salerosketan dihardutenak, biltegizaina, fabrika, bankua) intuizioak esaten dit hemen zer ikas daitekeen eragiketarako egiteari, merkataritza-transakzioei, lanean eta gizartean sortzen diren harreman, aukera eta gatazkei eta abarrei buruz. Behin diseinatuta, martxan jartzen da. Hortik abiatuta, errealitatek, alegia, bigarren fasea definitzen da: zein eduki ikastea ahalbidetzen duen, zein helburu garatzea ahalbidetzen duen. Bigarren fase horretan, lehen fasea alda daiteke, eta, halaber, biek eragina izango dute hirugarrenean, hau da, bilakaeraren zainketa, esku-hartzea eta ebaluazioa egiteko moduan. Eta hirugarren fase horrek aurrekoak moldatzera eraman gaitzake, eta horrela hurrenez hurren. Era berean, testuinguru batek departamentu bereko beste testuinguruetan eragin dezake. Departamentu batek, berriz, besteak alda ditzake, eta horrela testuingurua, departamentua, zikloa, mintegia eta ikastetxea finkatu arte. Azken batean, osagarritasun-azterketa

egitea da helburua. Azterketa hori ikastetxearen koherentziarekin, profesionaltasunarekin eta kalitatearekin zuzen-zuzenean loturik dagoen gakoa da.

Fase horiek ikastetxeko curriculumaren osotasunari dagozkio, ez testuinguru bakar bati. Hala ere, hobeto ulertzeko, departamenturen batean eta testuinguru zehatz batzuetan jarriko dut arreta. Horiek adibidetzat hartuta, zabalduz, hurbilenekotik orokorrera joango gara, eta, horrela, hobeto ulertu ahal izango dugu prozesu osoa.

LEHENENGO FASEA: TESTUINGURUA ETA HAREN ELEMENTUAK

Hala esaten diogu testuinguruak eta haien elementu guztiak diseinatu, eratu eta prest jartzeari. Lehendabizi banan-banan aipatu, eta ondoren garatu egingo ditut.

- Espazioaren azterketa eta antolamendua.
- Jarduerak eskatzen dituen baliabideak aztertu, aukeratu eta sortzea.
- Lan-metodoa, jarduera gauzatzekoan ikasleek beti aurrean duten baliabide berezia.
- Jardueraren zertarakoa edo irteera soziala.
- Denboraren eta ikasleen taldekatzeen azterketa eta antolamendua.
- Curriculum-egokitzapenak, egongo balira.


Elementu horietako bakoitzari helduko diogu, erreferentzia gisa hainbat adibide hartuta.

Espazioaren azterketa eta antolamendua

Ikus dezagun, zer adibide jar dezaket? *Auzotik* hasiko naiz. Kasu honetan, departamentu osoa testuinguru handi bat da, eta elkar eragiten duten jarduera asko edo testuinguru txikiagoak biltzen ditu. Lehen unetik, horrela antolatzea pentsatu zen, baina espazio aldetik ez da beti berdina izan. Normalean, behin-behineko diseinua egiten da, esperimentalak, eta aldaketak egiten dira, esperimentazioen emaitzen arabera. Horrela, behin betikoagoa izango da, eta orokortu ahal izango da.

Ikus dezagun gaur egungo planoak.

ESPAZIOAREN ANTOLAMENDUA



Diseinatzeko eta martxan jartzeko orduan, idatziz jasorik ez ditugun irizpide batzuei jarraitzen diegu. Segur aski, ez dugu irizpideok idazteko beharrik izan, gure jardueran eta gure ahozko transmisioan bizi-bizirik daudelako.

Espazioaren azterketa hori nola egiten dugun pentsatzen saiatuko naiz, eta, agian, hauxe izango da irizpide horietako batzuk idatziz jasotzeko modua.

Egitekoa hauxe da: departamentuko espazioa banatzea, bertan testuinguru bakoitza ahalik eta modurik egokienean kokatuz eta honako irizpideei jarraituz.

- *Espazioak testuinguru bakoitzerako edo bertan egiten den jarduera bakoitzerako ahalik eta egokiena izan behar du.*

Zer-nolako azpiegitura edo ekipamendua behar duten pentsatu behar da. Bata leihu ondoan kokatu beharko da, argia behar duelako; besteak horma beharko du, etab.

- *Bertan lan egiten duten pertsonen taldekatzeari eta lan-motari egokituriko espazioa.*

Ez da espazio bera behar jarduera talde bakar batean, banaka edo, adibidez, hiru pertsonako bi taldetan egiteko (bakoitza jarduera bat egiten ari dela). Era berean, ez da espazio bera behar funtsean buru-lana bada eta baliabide gutxi behar baditu, mugitu egin behar bada edo jolas-jarduera eta harreman sozialak lantzekoa bada.

- *Espazioak ekipamenduaren edo azpiegituraren bidez urrundurik edo isolaturik egon behar du, interferentziak sor ditzaketen jarduerak lantzen diren testuinguruetatik.*

Hizkuntza bat finkatzeko film bat bikoiztu edo antzezlan bat irakurritz entseatu behar badute, ahal dela espazio isolatu eta itxia beharko dute, gainerako jarduerak ez eragozteko. Galdera hauxe da: non egin daiteke hobekien bereizketa hori?

- *Hala behar izanez gero, beste testuinguruetatik iristen diren pertsonetikiko erlazioa errazten duen espazioa.*

Aukeratutako espazioak, kasu honetan **Dendak**, salmahai zabala jartzeko aukera ematea, eta ahal dela bi aurrealderekin, gainera; hala, eroatera joaten direnek berehala sartu ahal izango dute salmenta-departamentura edo kutxara, eta jendea ez da pilatuko.

Esperientziak erakutsi digu espazioaren azterketa eta diseinua funtsezkoa dela funtzionamendu egokia lortzeko. Zalantzarik gabe, baldintza berberekin baina diseinu hobearrekin,

praktikara hobeki egokitutako diseinuarekin, hobetu egingo da praktika bera ere; batez ere, giroa eta errendimendua.

Ikusi ahal izan dugun moduan, espazioaren azterketan azpiegitura eta ekipamendua aztertzen ditugu.

Azpiegitura

Sortzeko eta funtzionatzeko (kasu honetan, departamentua eta testuinguru bakoitza sortzeko eta funtzionatzeko) beharrezkotzat jotzen diren elementu- edo zerbitzu-multzoari esaten diogu azpiegitura. Instalazio-elementuak dira, obrako elementuak. *Auzoaren* adibidearekin jarraituz *departamentuaren azpiegitura* testuinguruak bereizteko holtzek osatzen dute. Departamentu gehienetan ez daude, baina kasu honetan ikasgelako hormak bezain garrantzitsuak dira. Hormak obrakoak dira eta holtzak egurrezkoak.

Holtzak diseinatzeko ere irizpide batzuei jarraitzen diegu, baina horiek ere ez ditugu idatziz jasorik. Kontuan izan behar da ikasleen adina. Lehen ziklo honetan, komeni da holtzak ikasleak baino pixka bat altuagoak izatea, barruan senti daitezen, espazioak bereizi eta babes ditzan; baina, aldi berean, ezin diete irakasleei gunea ikustea eragotzi. Horregatik izaten dituzte holtza horiek, hain zuzen, irekidura ugari, ate eta leiho ugari. Gortinak izanda ere, ezin diete eragotzi irakasleei ikasgelaren kontrola. Ikasleak hazten diren neurrian, hori ere aldatu egiten da. Ikusiko zenuten testuinguru batzuetan ikasleak, banaka edo taldean lan eginez, ia-ia bakarrik daudela egun osoan eta ardurak beren gain hartzen dituztela.

Bereizketa horiez hitz egitean, departamentuaz ari nintzen oro har. Orain *testuinguru baten azpiegitura* azalduko dut, adibidez, *Dendarena*. Sei edo zazpi pertsonak lan egin ahal izateko salmahaia behar du. Begira iezaiozue planoari. Harraska ere badago, ahal dela ur-hartunearekin, likidoak neurtzeko.

Ekipamenduari helduko diogu jarraian.

Ekipamendua

Ekipamendua funtzionamendurako (kasu honetan departamentu eta testuinguru funtzionamendurako) beharrezko objektuz hornitzea da. Eros daitezkeen eta luze iraun dezaketan elementuak dira.

Testuinguru baten ekipamendua ikusteko, *Dendaren* adibidearekin jarraituko dut:

- Guneko materiala gordetzeko apalategiak dituen altzaria.
- Salmahaiaren altuerara egokitutako 6-7 aulki.
- Produktuentzako orgak.
- 5 kg/10 kg-ko platertxoen balantza.
- Pisuak: (1) 1 kg / (2) 500 gr / (10) 100 gr.
- Produktuak.
- Edukiera neurtzeko ontziak. Edukiera berekoak, baina forma desberdinekoak:
 - 1 l - (2).
 - 1/2 l - (2).
 - 1/4 l - (2).
 - 1/8 l.
- Ontzientzako kubeta.
- Salmahaiari itsatsitako metro zurruna.

142

Testuinguru honetako ekipamenduaren elementu batzuk dira horiek. *Departamentuko ekipamendu orokorragoa* ere badago, eta ez du zerikusirik testuinguruekin. Elementu horiek gune neutroan daude, testuinguruetatik kanpo:

- Arbel ertaina. Gauza askotarako erabil daiteke: goiz hasieran, talde edo ikasgela bakoitzak irratsaioa eta telebistako programa entzuten dituen horretarako egokitutako gelan, albisteetako datuak idazteko; proposatzen diren asmakizunak ebazteko edo hizkuntza-jolasetarako; kritika kolektiboa adosteko, eskolako irrati edo telebistako gutunontzietara bidali nahi bada, etab.
- Kortxo ertaina, ezarritako testuinguruetakoak ez diren materialak jartzeko: egutegia, irakasleek asistentzia kontrolatzeko zerrendak, txangoetan eta bestelako irretan ateratako argazkiak, etab.
- Mahai edo altzari egokia, ikasleek euren gauzak gorde ahal izateko.

Garrantzitsua da dena antolatuz, prest eta leku egokian izatea.

Ez dezagun ahatz antolamenduak burua egituratzen duela.

Jarduerak eskatzen dituen baliabideak aztertu, aukeratu eta sortzea.

Batetik, erabiltzearen ondorioz gehiago edo gutxiago galtzen diren baliabide suntsigarriez eta departamentutik edo ikastetxetik kanpo dauden baliabideez ari gara eta, bestetik, giza baliabideei buruz.

Kokapenaren arabera, bi baliabide-mota bereizten ditugu: batetik, testuinguru bakoitzean departamentu barruan daudenak eta, bestetik, testuinguruak behar dituenak baina departamentutik kanpo daudenak, hau da, adin desberdineko ikasleei zuzendutako testuinguru komunetan edo ikastetxetik kanpoko eremuetan daudenak.

Berriro ere lehen zikloko *Dendaren* testuingurura itzuliz, honako baliabideak behar ditu:

- *Mertzeria, Kutxa, Elikadura* eta *Likidoetako* lan-metodo berezia.
- Jarduerari berezko zaizkion eragiketa bidezko kalkuluak betetzeko ereduak.
- Artileen eta gainerako produktuen prezio-zerrendak.
- Guneko jardueren kontrol-orria.

Testuinguru honetan ez da behar bertan ez dagoen baliabiderik. Aldiz, hizkuntzak edo gizarte-zientziak edo natur zientziak nagusi diren departamentu batera joanez gero, hainbat testuinguruk departamentutik ateratzea eskatuko dute: bibliografia jakin bat, CD bat, bideo bat edo DVD bat lortzeko; webgune batera sartzeko, etab. Horretarako, oraingoz eta aztergai dugun sisteman, Mediatekara joko dute. Baina nork kontrolatzen du departamentu batean behar diren baliabide horiek mediatekan izango direla? Departamentu horretako irakasleek, dagokien mintegiaren bidez.

Argi utzi nahi dut Amara Berriko *Mediateka*, funtsean, departamentuetan sortutako beharrek elikatzen dutela.

Batzuetan, gerta daiteke departamentu batek ibai edo baso batean ekosistema jakin bat aztertu behar izatea. Edo elkarrizketak egiteko jendea behar izatea, artelan jakin batzuk ikusi behar izatea, etab. Horiek ere, eskolatik kanpo egon arren, testuinguruaren beraren baliabideak dira.

Lan-metodoa, jarduera gauzatzerakoan ikasleek beti aurrean duten baliabide berezia

Ezaugarri metodologikoa da.

Lan-metodo bat irakurriko dugu. Kontakizunei buruzko hau izan daiteke egokia; 2. ziklokoa da eta lehen hizkuntzei dagokie. Behin baino gehiagotan erabili dut, edozeinek egiteko moduko jarduera da eta. Nork ez daki kontakizun bat idazten, asmatutako istorio bat idazten? Horrexegatik, hain zuzen, erraza delako, ondo etorriko zait adibide modura, curriculumaren bigarren faseaz hitz egiten dugunean. Beste ziklo bateko adibidea ere jarriko dut, lehenengo zikloaren zedarrietan ez gelditzeko. Telebista izan daiteke. Testuinguru komunak esaten diegun horietako bat da, ez baitagokio departamentu bati. Telebista-estudiora adin desberdineko ikasleak joaten dira, baina kudeaketa eta koordinazioa hirugarren ziklokoegi dagokie.

Bi lan-metodoak banatuko dizkizuet, banaka eta agudo irakur ditzazuen.

Lan metodoa

Kontakizuna

1. Gai bat aukeratuko dut, istorio bat kontatzeko.
2. Hasiera, korapiloa eta bukaera pentsatuko ditut:
 - *Hasiera:*
 - Noiz eta non gertatzen da istorioa.
 - Nork edo nortzuk hartzen dute parte (pertsoneiak) eta nolakoak dira.
 - *Korapiloa:*
 - Zein egoera edo arazo gertatzen da.
 - Zein ekintza gertatzen dira egoera edo arazo horren ondorioz.
 - *Bukaera:*
 - Zein irtenbide ematen zaio egoerari edo arazoari. Nola bukatzen da.
3. Istorioa idatziko dut.
4. Nire lana berriz aztertu eta honako alderdiei erreparatuko diet:
 - Ea nahi onua adierazi dudana, eta garbi dauden hasiera, korapiloa eta bukaera.
 - Ea akats ortografikorik dagoen. Zalantzarik izanez gero, hiztegia erabiliko dut.
 - Ea puntuazio-markak erabili ditudan.
5. Nire lana taldekideekin eta irakaslearekin kontrastatuko dut.
6. Aukeratua baldin bada, argitaratzeko emango diet edo entseatu egingo dut, emaldirako.

Lan metodoa**Telebista**

1. Eguneko lana prestatzeko bileran parte hartuko dut. Jarduera ezagutzen duen ikaskideak koordinatuko du.
 - Lan-metodoa irakurriko dugu.
 - Egunaren bukaeran beteko dugun autogogoeta-orria irakurriko dugu.
2. Grabazioa:
 - Platoko kameraren, kamera autonomoaren eta magnetoskopioen oinarritzko funtzionamendua ikasiko dugu.
 - Eguneko plana berraztertuko dugu, ordura arte zer eskaera izan diren ikusiz eta egun osoan sortzen direnekin osatuz.
 - Lan-egitasmoen hutsik geratzen diren tarteak guk geuk sortutako programekin osatuko ditugu.
 - Eskaerei erantzunez eta lan-egitasmoaren ordutegiari jarraiki grabatuko dugu.
 - Egindako programekin lotutako zailtasun eta iradokizunak lan-egitasmoan idatziko ditugu.
 - Egindako lanaren balorazio kritikoa idatziko dugu *autogogoeta orrian*, eta zailtasunak edo ekimen posibleak jasoko ditugu.
 - Aparatuak itzali eta gauzak bilduko ditugu.
3. Edizioa:
 - *Premiere* programa informatikoa erabiltzen ikasiko dugu, programa editatu ahal izateko.
 - Aurreko egunean egindako grabazioak editatuko ditugu: irudiak, ahotsa, musika, hots- eta irudi-efektu bereziak, hasierako karatula eta kredituetako tituluak aukeratuko ditugu.
 - Grabazioa artxibatu egingo dugu.
 - Programak itxi eta aparatuak deskonektatuko ditugu.

Lan-metodoak irakurtzean ohartuko zineten berehalako helburuak edo ekintza-helburuak direla, egin beharreko jarduerak, metatuz doazen jarduerak. Hain zuzen, pausoka metatzen direlako, ikasleentzako lan-metodo bihurtzen dira: banoa... aukeratuko dut... ordenatu egingo dut..., etab. Metodo horrek ikasle bakoitzak bere metodologia garatu ahal izateko bezain zabala izan behar du. *Testu bat aukeratuko dut* dio, baina ez zein testu edo zein liburu. Zaillegia edo errazegia aukera dezake. Ez du axola; horregatik ez zaio bidea itxi

behar, aukeratuz ikasten da aukeratzen eta. Irakasleentzat, lan-metodoa heziketarako eta ikasleen bilakaera zaintzeko bitarteko giltzarri bihurtzen da.

Zer lortu nahi da lan-metodoarekin?:

- *Ikasleei jarduteko autonomia ahalbidetzea.*

Metodo horrek nor bere lanaren aurrez aurre jartzen du. Idazkera bera ere lehen pertsonan gauzatzen da: bilatzen dut... aztertzen dut... Nor bere buruaren aurrez aurre jartzen du. Ez dago irakaslearen mende, benetan hala behar duenean izan ezik.

- *Nor bere prozesuan kokatzea (non nago, zer egin dut, zer falta zait...) eta, halaber, irakasleek ikaslea prozesu horretan kokatu ahal izatea.*

Ikasleek aurrean izaten dute beti lan-metodoa eta barneratzen dutenean soilik uzten dute. Lan-metodoari esker, ikasleak uneoro badaki zein urrats egin behar dituen. Badaki zeintzuk egin dituen, non dagoen, non izan dituen zailtasunak, zer falta zaion. Irakasleek ere, ikasle baten ondoan jartzean, erabil dezakete lan-metodoa, bai ikaslearen arreta bideratzeko, bai, prozesua barneratuta duela egiaztatze aldera, ikasleak bere hitzekin adieraz dezan.

- *Zikloko oinarritzko hiztegia garatzeko.*

Batzuetan lan-metodoan erabiltzen dugun hiztegiak galdetzen digute. Adibidez, aurkeztu berri dudana telebistaren lan-metodoan honakoak ditugu: *eskaleta berraztertuko dugu, ordura arte zer eskaera izan diren ikusiz/ Editatu egingo ditugu... hasierako karatula eta kredituetako izenburuak aukeratuko ditugu... zailtasunak edo ekimen posibleak idatziz jasoko ditugu*. Irudi lezake hizkera hori ez dutela erabiltzen adin horretako ikasleek. Gure ustez, ikasleek naturaltasunez erabiltzen duten hiztegi edo hizkeraz bakarrik baliatzen bagara, ez dugu beren maila hobetzen. Lehen egunean ez dakite zer diren *eskaleta* eta *kredituetako izenburuak*, baina testuinguru baten barruan ikasten dutenez, berehala berenganatzen dute.

Lan-metodoak egitean, kontuan izaten dugu hizkuntza aberasteko helburu hori, eta metodo batean aparatua *entxufea aterako dut* idatzi badut, hurrengoan aparatua *deskonektatu dut* erabiliko dut... Ziklo bakoitzean hogeita hamar testuinguru baino gehiago ditugu, eta bakoitzak bere lan-metodoa du, ikasle guztiek erabiltzen dutena. Horiek guztiek zikloaren oinarritzko hiztegia esaten dioguna osatzen dute.

Garrantzitsua da, lan-metodoa barneratu ostean, ikaslea gai izatea egiten duena zehaztasunez eta doitasunez adierazteko, eta irakasleei dagokie hori egiaztatzea.

Gogoan dut ikasgeletan lehen zikloari buruz filmatu genuen lehen bideoan ikasle guztiei egiten ari ziren jarduera zertan zetzan azalarazi geniola. Esperientzia zoragarria izan zen: egia da erabilitako hizkuntza ez zela oso ohikoa adin horretako ikasleengan (adibidez, *eduki desberdineko ontzi hauek erabiltzen ditut...*), baina naturaltasun osoz erabiltzen zuten lan-metodoaren bidez barneratu zuten hizkera.

- *Metodoarekin lan egiten ikastea.*

Duela egun batzuk aspaldiko ikasle batekin topo egin nuen. Nik ez nion eskolarik eman, eta ez nuen ikusi eskolatik atera zenetik. Andra eginda zegoen, baina gainerakoan berdin-berdin. Begirada bizikoa. Zeharo hitzuna, baina tonua ezta, sosegatua. Beti entzuteko eta jasotzeko prest... Esan zidan inoiz ezingo gintuela ahaztu, eskolan asko bizi eta ikasi zuelako. Batez ere, hiru alderdi azpimarratzen zizkidan:

1.^a: Bilatzearen ideia. Beti bilatzea.

2.^a: Buru eta jarrera irekia izatea guztiarekiko eta guztiekiko.

3.^a: Metodoarekin eta edonorekin lan egiten ikastea.

Behin eta berriro esan zidan: "Ez dakizu zenbat balio izan didaten hiru gauza horiek karrerako urteetan eta zein baliagarri zaizkidan orain nire bizitza profesionalean eta nire bizitzan oro har".

Bururatu zitzaidan esatea nik ez nuela inoiz oso metodikotzat jo. Zera erantzun zidan: "Agian itxuraz ez, baina metodoa behar dut. Egia da batzuetan ez diodala jarraitzen eta ez natzaiola metodoari lotzen, baina hori bera ere nire metodoaren parte da, eta hori ere Amara Berrin ikasi nuen".

Nola egiten da lan-metodoa?

Azaldu ditudan helburuek zehazten dituzte metodoa egiteko irizpideak.

Laburbildu egingo ditut:

- Progresioa egon behar du, horrela izango baitira baliagarri autonomiaz eta metodoarekin lan egiteko.

- Testuinguru horretarako ezarritako curriculumarekin bat etortzea; hala, ikasleak prozesuan kokatu ahal izango dira, eta irakasleek ikasleen bilakaera zaindu ahal izango dute.

Nik hauxe esango nizuke, batez ere, mintegietakoei, mintegietako koordinatzaileei eta mintegi guztiak koordinatzen dituzten ikasketa-burutzakoei: zailtasunen bat sortzen bada –eta sortuko da–, irakasleren batek lan-metodoari oso luze iritzi diolako, ez zaitezela eror metodoa aldatzeko tentazioan, aurrez iripideetara jo gabe, zeren berehala azalduko baita beste pertsonaren bat, oso laburra iruditzen zaiona. Halakoxea izan da nire esperientzia. Garbi dago ikasle txikienek urrats gehiago behar dituztela, eta ez du batere axola, banaka-banaka betetzen dituzte eta. Hazten diren neurrian, ordea, mezu gutxiago, baina konplexuagoak, behar dituzte. Baina ez da komeni urrats horiek kentzea; izan ere, ahoz banaka-banaka azaldu beharko balitzaizkie, ikasleek autonomia galduko lukete eta irakasleak zoratu egingo liriateke:

- Erabilitako hizkuntza aberasgarri izan dadila. Hemen ere gerta daiteke erabilitako hizkuntza zailegia dela iriztea, batez ere, lantze-prozesua bizi izan ez dutenen aldetik. Kasu horretan, gogoratu arestian esandakoa: zailtasunik ez badu, hizkuntza-maila ez da hobetzen. Mintzaera eta idazkera aberastu egin behar da, sinonimo eta abarren bidez modu sistematikoan esku hartuz, hasieran batez ere, eta ohartuz horrek normalizazio-epe bat eskatzen duela.
- Alferreko konplexutasunak ekiditea, eta hizkera zuzen eta kalitatezkoa erabiltzea.
- Gogoan edukitzea haren edukiak ezin duela adimen-aurrerapena eragotzi, arazoek konponbideak erakutsiz, irtenbideak emanez edo bidea edo ikuspegi edo interpretazio bakarra nabarmen markatuz.
- Lehen pertsonan idazten dugu, ikaslea inplikaturik senti dadin: "Zer egiten dut.", "Nola egiten dut.", "Non nago.", "Zein zailtasun ditut."...

Kokapena

Kopia finko bat jartzen da horman, dagokion testuinguruaren ondoan. Horrela, departamentuak departamentuaren beraren ikuspegi orokorra eta testuinguru bakoitzaren berariazko ikuspegia ematen die irakasleei, ikasleei, bisitariei eta abarri.

Beste kopia bat lan mahaian jartzen da, jarduera hobeto bideratzeko orduan eskura izateko eta ikasle bakoitzari buruz egin beharreko esku-hartzea era zuzenagoan egiteko.

Lan-metodoa, horman jartzen denez, ikasgelaren estetikaren parte da. Guneztat zeregina duen estetika da, elementu sakabanatzailearik gabekoa.

Jardueraren zertarakoa edo irteera soziala

Jolas elkarreragileak osatzen du. Batzuetan testuinguruan bertan dago: adibidez, *Merkataritza-departamentuan* edo *Auzoan*, horietan sortzen den salerosketa-jolasarekin. Beste batzuetan, berriz, departamentuetatik kanpo dauden testuinguruetan: *Irrati*, *Prentsa*, *Telebista*, *Erakusketa* eta *Ikuskizunetan*. Ikastetxean zehar egin genuen azken ibilaldian ezagutu zenituzten. Horietan nola lan egiten zen ikusi zenuten, eta, halaber, ikusi zenuten programa ongi zehazturik dagoela ikasten dituzten edukiei eta garatzen dituzten gaitasunei dagokienez.

- *Zertarakoa eragingarri eta helburu da ikasleentzat.*

Eragingarri da, jolasa delako, eta, helburu, berriz, zentzu publikoa edo soziala duelako. Norbaiti zuzendurik dago, eta kritika jasoko du lana zuzendurik dagoen publikoaren eskutik. Ikasle batek bihotzeko espezialista den mediku bati elkarrizketa egiten badio, hori da bere jolasa, eragingarria eta helburua.

- *Jolas hori bere bizitza errealari lotzen zaio.*

Erreportaria izango da, eta horrek ilusioa, autoexijentzia eta ongi egiteko gogoia sortzen dio: elkarrizketaren teknikari jarraituz prestatzen da. Kontuan izango du nori zuzenduko dion mezua. Ea zein den publikoarengana iristeko hedabiderik egokiena: irrati, prentsa edo telebista. Lanaren oinarria ez da irakasleen exigentzia; jolas elkarreragileak berak eskatzen dio garapena eta kalitatea egin behar duen jardueran.

Ezin dugu nahasi ikasleek nahi duten helburu-jolasa eta irakasleek lortu nahi dituzten helburuak, jardueran eta zertarakoan bertan planifikaturik daudenak.

- *Zertarakoak eduki batzuk ikastea dakar, eta hainbat gaitasun eta helburu garatzen ditu.*

Ikuspegi honetatik, ikasleen zertarakoa irakasleen zertarako edo hezkuntza-asmo ere bihurtzen da. Gakoa hezkuntza-helburuak garatzea da, baina ikasleen eragingarriari eta helburuari, hau da, jolasari, tartea eta garrantzia emanaz. Larritzen garenean, bai ikasle batek dituen zailtasunengatik bai denbora falta zaigula sentitzen dugulako... exijitu, behartu edo jolasa ezabatze hutsarekin indartu nahi izateko tentazioa izan dezakegu, eta horrek blokeo handiagoa eragiten du. Zertarakoa bizigarri handitzat hartuz eta zertarako horretara joz, ikasleek ilusioa berreskuratuko dute, eta aurrera egin ahal izango dute.

- *Zertarakoa antolamendu-egituraren zati da, eta, alde horretatik, pentsamendua sortzen du.*

Uste dut egun hauetakoren batean jarri dizuedala albiste bat idatzi behar duen ikaslearen adibidea. Ez du idazten ikasi bakarrik egin behar; irratiz irteera emateko, zerbitzua koordinatzen duen pertsona bilatu eta tarte bat emanarazi behar dio: zein egunetan?, zein ordutan?, etab.

Esan nizuen, halaber, ikasle horrek berak albiste beraren bilakaera zaintzen badu aste-betean edo hilabetean, eta irratian aurkeztu nahi badu, hedabideak berak esango diola ez dela hori egokiena, informazioa astun bihurtu delako; gainera, agian euskarri grafikoren bat beharko luke eta, beraz, telebista hedabide egokiagoa izango litzateke. Horrek guztiak, antolamendu-egituraren bidez, pentsamendua sortzen du; ez bere lanari irteera soizala aurkitzen ari denarentzat bakarrik, baita testuingurua kudeatu eta bizirik mantentzen duenarentzat ere. Biek erabakiak hartzen dituzte, ardurak hartzen dituzte euren gain. Euren bizitzarako bitartekoak eta baliabideak eurenganutzen laguntzen zaie: hobetzeko gogoari eta autoestimua sendotzeari eustea, hori indartzea, etab. Elkarrekintzan, testuinguruaren beraren bidez, pentsamendu soziala eta autoegituratzailea sortzen da.

- *Aurrera egiteko faktore gisa ulertutako kritika eraikitzaileak sustatu egiten du zertarakoa.*

Adibide bat jartzearen, irratsaio bati edo telebistako programa bati kritika eraikitzailea egiten bazaio, zertarakoak gero eta esanahi handiagoa du. Eztabaidatzeko foro bihurtzen da eta norberaren eta taldearen garapena dakar. Halaber, kritika bera eta zertarakoa edo testuingurua hobetzea dakar; kasu honetan, Irratia eta Telebista hobetzen du.

Denboraren eta ikasleen taldekatzeen azterketa eta antolamendua

Departamentu bakoitzean karpeta bat dago, irakasleek erabiltzeko. Irakasle berri bat etortzen denean, bereziki baliogarria da, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta horren gainean egindako garapenak jasotzen baitira bertan. Curriculum Proiektua ere biltzen du, bai eta horrek departamentuan izandako garapenak ere; hau da, denboraren eta ikasleen taldekatzeen antolamendua ere idatzirik daude bertan. Atal hau azaltzeko, **Auzoari** dago-kion karpeta hartuko dut, dagoeneko ezagutzen dituzue-eta departamentu horretako planoa eta beste hainbat alderdi.

- *Taldekatzea departamentuaren esparruan.*

Karpetako dokumentuaren arabera, honakoa adostu da: "sei-zazpi pertsonako lau talde izatea. Talde bakoitzak ibilbide hau egingo du: lehenengo egongelatik igaroko da, bigarrenik sukalde-logelatik, hirugarrenik josteko gelatik eta azkenik dendatik". Kasu honetan, "taldeak ikasturte osoan mantentzen dira. Ez da hala izaten departamentu guztietan. Honetan taldeak aldatu egiten dira arazoren bat sortzen bada, eta aldaketak banakoaren eta taldearen egoera nabarmen hobetzea ekar dezake".

"Bai talde-mailan bai jardueran funtzionatzen duten taldeak mantentzeko" erabaki hori hartzeko, bi irizpide erabiltzen dira:

- Adin horretako ikasleak gehiago zentra daitezen eta errendimendu handiagoa izan dezaten lortzea.
- Bilakaera zaintzen duten irakasleak zentratuago egotea.

- *Denbora-antolamendua departamentuaren esparruan.*

Talde bakoitzak ematen ditu:

- "Bi egun egongelan."
- "Bi egun sukaldean."

Irizpidea: Denbora hori nahikoa da ezarritako helburuak lortzeko. Denbora luzeagoa emango balute bakoitzean, agian interesa galduko luke.

- "Lau egun josteko gelan."

Irizpidea: Eskaera egiteko denbora behar izaten dute eta eskulana egiteko (horixe da jolasa, motibazioa, zertarakoa) gai izan behar dute.

- "Lau egun dendan."

Irizpidea: Jardueran zentratzeko eta kontzeptuak barneratzeko. Denbora laburragoa, praktikan, motz geratzen da.

- *Denboraren antolaketa Dendaren testuinguruan.*

"Lau egun jarraian. Bi egun azpigune bakoitzean: Mertzeria eta Kutxa. Elikadura eta Likidoak."

Mintegiak hartutako erabakien eta erabaki horien oinarrian dauden irizpideen adibideak dira horiek.

Curriculum-egokitzapenak, egongo balira

Lehenengo faseko edozein esparrutan izan daiteke curriculum-egokitzapenen beharra: aulki edo mahai berezi bat, braillen idazteko inprenta bat, bibliografia-mota bat, urratsak marrazki bidez adieraziko dituen lan-metodoa, giza baliabideren bat (laguntzailea, audiofonista, etab.). Denak prest izan behar luke.

Honaino, uste dut testuingurua osatzen duten elementuei buruz jardun dudala, baina, pentsatzen jarrita, bat falta zait. Ez dugu inoiz elementu horien artean sartu, ia denen parte baita; baina oso kontuan izaten dugu beti guneak diseinatzeko, baliabideak aukeratzeko eta mantentzeko, lanak aurkezteko... *Estetikaz* ari naiz.

Estetikak funtzionamenduan ere eragiten du. Ez dago antolamendu estetiko bakarra, baina betiere lortu nahi den helburuaren arabera egokitu behar da: lasaitzea, bizkortzea, kontzentratzen laguntzea, deshinitzen laguntzea, pertsonekiko eta gauzekiko errespetuan hezte, soiltasunean hezte (betiere helburua eragotziko duen gabeziarik gabe).

Uste dut, Ana, zuk esan duzula lehen, ikastetxeari lehen aldiz behatu diogunean, departamentuak soilgiak iruditu zaizkizula, baita hotzak ere, eta, aldi berean, biziaz gainezka zeudela.

Nire iritziz, ikasleek ematen diote bizia, baina hutsik daudenean hotzak dira, ez dago-eta apaintzea helburu duen apaingarririk. Ez da lekua "infantilizatu" nahi. Lehen esan dizuet lan-metodoa ikasgelaren estetikaren parte dela, guztia zereginaren inguruan antolatu nahi dugu eta. Hormetan jartzen da, kolorea eta markoan ipintzeko modua zainduz. Saiatzen gara testuinguru bakoitzak ikasleek behar duten guztia eta testuinguru horretan behar dutena soilik izan dezaten; saiatzen gara, halaber, departamentuek ikasleek eta irakasleek behar duten guztia eta hori soilik izan dezaten, baina ez da erraza.

Talde-planteamendu baten alde egiten dugu, gizabanakoen askatasunaren planteamenduen alde: baztertu gabe eta baliabideak eta espazioa pribatizatu gabe hartzen du jendea, nagusiki edonork erabiltzekoak baitira.

Elementu bakoitza (altzariak, material suntsigarria, mota guztietako baliabideak, kortxoak, arbela, kartel bat, idatzi bat), baita xehetasunik txikiena ere, zergatik eta zertarako dagoen jakin nahi dugu, eta zergatik jarri den leku jakin batean eta ez beste batean. Hori jakitea irakasleen trebetasunaren parte da.

Departamentu batean edo bertako edozein testuingurutan sartzean, bere itxurak adierazi behar digu, baita ikasleei ere, zertarako joaten diren leku horretara. Horrela, burua kokatu eta zentratu egiten da, eta giroa aldatu egiten da.

Edozein antolamendu-egiturak ez ditu ondorio berak eta, halaber, antolamenduaren xehetasunek, baita departamentu bateko estetikak ere, ez dituzte ondorio berak.

Estetikak, koloreak eta espazioan duen kokapenak edo tokiak eragin psikologikoa du gugan. Eskolan kolore neutro, argi eta beroen alde egiten dugu (normalean krema-kolorea), lasaigarrienak direlako, eta baliabideak aukeratzean, orduan saiitzen gara koloreekin jolasten.

Saio honen hasierara joko dut berriro ere.

Esan dugu curriculumaren lehen zatia testuinguruak eta haien elementu guztiak diseinatzeari eta prest izateari zegokiola:

- Espazioa.
- Jarduerak eskatzen dituen baliabideak.
- Lan-metodoa, baliabide berezi gisa.
- Zertarakoa.
- Denbora eta taldekatzeak.
- Curriculum-egokitzapenak.

Esperimentazio- eta analisi-urte luzeak behar izan ditugu, banan-banan, testuinguru guztiak baliozkotzeko.

Beti hiru urteko epea jarri izan dugu, gutxienez: lehenengoa martxan jartzeko, bigarrena sakontzeko eta hirugarrena testuingurua orokortu eta finkatuztat emateko. Baina gehienek askoz denbora luzeagoa behar izan dute, nahiz eta inoiz ez ditugun amaituztat ematen. Osagarritasun-azterketa egitean testuinguru bateko edo haren parte bateko faseren bat aldatzeak departamentuko, zikloko edo beste ziklo batzuetako testuinguruetan aldatetak egin beharra ekar dezake. Mintegi batek beste bat alda dezake. Egonkortuztat baina amaitu gabetzat jota, beti dago hura berrikustea, baina kontua ez da nahieran aldatzea. Urteak daramatzagu testuinguru finkatuekin, baina zehazten eta hobetzen jarraitzen dugu, eta oraindik testuingururen batek aldaketa handia behar du. Esan dizuedan bezala, urte luzetako lana da.

Nork baliozkotzen ditu testuinguruak?

Irakasleek ematen diete baliozkotasuna testuinguruei, mintegien bidez. Irakasleek diseinua onak direla nabaritu behar dute. Euren egitekoa betetzen lagundu behar die. Horrela ez bada, zer egiten da? Gaia dagokion mintegira eramaten da, kezka jakinaraziz edo proposamen zehatzen bat eginez. Mintegiak ekimen berria edo berriak eta akordio berri bat onartuz gero, horien oinarri diren irizpideak eztabaidatzen eta alderatzen ditu, eta indarrean dagoen funtzionamenduari eta erabaki haren oinarri izan ziren irizpideekin alderatzen dira, oinarriari betiere gaiarekiko trebetasuna egon dadin. Horregatik, akordioak eta horien oinarri diren irizpideak idatziz jasotzen dira beti, bai mintegian bai dagokion departamentuko karpetan.

Irakasleak ez du aldatzen diseinua bere kontura. Batetik, ikasleak ez direlako irakasle jakin batekin matrikulatzen. Ikastetxe batean matrikulatzen dira, eta ikastetxeari eskatzen diote erantzukizuna, irakasle bat zein bestea egon. Bestetik, hain zuzen horregatik, mintegiren bateko kide garelako. Gerta daiteke, esaterako, testuinguru batek hogeitertean ongi funtzionatzea, emaitza onak izatea eta irakasleen aldetik balorazio ezin hobea jasotzea, baina, bat-batean, nik, esperientzia gutxiago izateagatik edo eskolaren ikuskeratik urrunago egoteagatik, zalantzan jartzea. Mintegiak berraztertuko du, baina ziur asko ez du aldaketarik egingo; aldiz, niri laguntzeko eta ni prestatzeko modua aurkituko du, mintegia prestakuntza-esparru ere bada eta. Irakasle bakoitzak ez du diseinua aldatzen, baina horrek ez dio ikertzea eta esperimentatzea eragozten: hain zuzen, mintegiak berak bultzatu egiten du esperimentazioa eta ikerketa, eta sistema honen garapenaren oinarriak dira.

Berritot. Aldaketa bat egitea mintegi osoaren zeregina da, eta irizpideak aztertuz egin behar du. Baina horrek ez du esan nahi ezin duenik kideren baten gain utzi, aldi baterako, esperimentazio jakin bat, bai kezka bideratzeko, bai aldaketaren bat gauza daitekeela baina une horretan ezin dela orokortu ikusten denean.

Curriculumaren lehen fase hau bizi garen etxetat dut nik, eta etxea oso garrantzitsua da. Lehenengo fase hori soilik garatuta izanda ere, eskolak, oinarriko mailan, funtzionatu dezake, modu onargarrian funtzionatu ere. Departamentua eta haren testuinguruak prest badaude, irakasle berria etortzen bada ere funtziona dezake; izan ere, espazioa antolatuarik du eta eskura ditu beharrezko baliabideak, taldekatzeak, txandakatzeak, ordutegia eta testuinguru bakoitzari dagokion lan-metodoa edo lan-metodoak. Funtziona dezan, aski da talde edo ikasle bakoitzak dagokion lan-metodoaren urratsei jarraitzea eta irakasleak bila-kaera zaintzea eta dagokion esku-hartzea gauzatzea.

Amara Berrira sistema hau gauzatu nahi duten ikastetxeetako kideak etortzen direnean, hasierako prestakuntzaren ostean, lehen fase honi dagozkion garapen guztiak ematen diz-

kiegu: espazioa eta denbora aztertzen laguntzen diegu, baliabideen zerrenda eta lan-metodo guztiak ematen dizkiegu, baita jardueraren zertarakoa edo irteera soziala ere.

Ikastetxe horiei curriculumaren lehen zati honen diseinuaren eta praktikan jartzearen berri ematea beste sistema batean testuliburuak ematearen parekoa da. Ez zaigu burutik pasatzen eskola bakoitzak bere testuliburuak argitaratzea edo prestatzea, testuliburu on bat egitea ez baita lan erraza. Gauza bera gertatzen da sistema batean ere. Badira hogeita hamar urte diseinu hau martxan jarri zela. Hogeita hamar urte etengabe praktikan jartzen, sakontzen eta orokortzen, eta oraindik bada egitekorik. Hutsetik hastea erronka izan daiteke edo agian zentzugabekeria. Zergatik diodan hori? Segur aski hogeita hamar urte beharko lituzkeelako sortzeko, gure kasuan bezala, eta hainbeste dago egiteko... Ez du merezi dagoena errepikatzea; oraindik ere falta diren alderdiak garatu behar dira.

Normalean, etxea ez du pertsona bakoitzak edo familia bakoitzak eraikitzen. Taldeek eta talde teknikoez eraikitzen dute, eta eskolan gauza bera gertatzen da. Irakasle batek edo irakasle-talde txiki batek, normalean, ezin du horrelako edo antzeko diseinurik sortu. Antzekoa diot, beste bat hau bezain ona edo hobea izan daitekeelako. Uste dut aurrez ere esan dizuedala. Horrekin batera, esan nizuen honek duen balioa dela urte askoan pertsona askok eta askok gauzatu izana. Esan berri dudan hori sakondu ahal izango dugu beste ikastetxeei ematen zaien aholkularitzaz jardutean.

Lehenengo fasearen diseinua etxearen parekoa edo testuliburu on baten parekoa bada, zera esaten dut nik: eros edo aloka dezagun etxea. Kasu honetan, etxea uzten dizuegu. Zergatik? Diseinu honekin eskola funtzionatzen hasten delako, eta, hala, denbora gure ordezkari inork egin ezin duen hori egiten eman ahal izango dugulako: curriculumaren gainerrako bi faseetan, alegia.

Ea ondo azaltzen dudana. Guztiok behar dugu etxe bat. Etxea oso garrantzitsua da. Gure bizikaltatean eragiten du. Atsegin badugu eta eskura badaukagu, pertsona askok etxearen diseinu eta kalitate bera eduki ahal izango dugu, baina hori ez da garrantzitsuena. Garrantzitsuena da nor bizi den bertan eta nola bizi den, eta horrek sortzen du desberdintasuna.

Nor bizi den eta nola bizi den curriculumaren bigarren eta hirugarren faseei dagokie.

Bigarren faseari heldu aurretik, tartetxo bat utz dezakegu, galderaren bat egin nahi baduzue ere.

- Nik ez dut, antza, departamentuetan dituzten karpeta horietako bat bera ere ezagutzen. Begiratu ditzakegu, zer daukaten ikusteko?
- Ez dituzu ezagutzen, ez, nahiko berriak dira eta. Duela lau urte inguru horien premia sumatu genuen, eta egiten hasi ginen. Edukien zerrenda azaltzen duen lehen orria eman diezazueket, baita karpeta honen helburua eta nola erabili azaltzen duena ere (03-01 dok.).
- Beti harritu izan nau interesa duen edonori, besterik gabe, eskatutako materialak fotokopiatzen dizkiozuela ikusteak. Ez zarete plagiatuko ote dizkizueten beldur?
- Amara Berrin eskolaren alde egin dugu lan, beti, eskola oro har hartuta. Ez digu axola izan publikoa edo pribatua, joera batekoa zein bestekoa, herrialde batekoa ala bestekoa izatea; horregatik, ez dugu arazorik esku artean duguna azaldu eta, ondoren, behar dituzten materialak emateko. Plagio txikia gerta daiteke. Batzuetan oharkabean, nahiz eta sektore jakin batzuetan ohitura soziala den. Susmoa dut sistema honekiko interesa duten pertsonen etikaz jokatzeko dutela eta jasotakoaren jatorria argi azaltzen dutela.

"Bide batez, gogorarazi nahi dizuet ikasleen lana ere, euren egiletasuna ere, errespetatu eta aitortu behar dugula. Uste dut hori, Amara Berrin behintzat, barneratu dugula. Ez dugu marrakzi edo idatzi bat bera ere geureganatzen, ikaslearen baimenik gabe. Beste profesional batzuei ikastaro bat emateko lan batzuk erabili behar baditugu, pertsona horiei baimena eskatzen diegu eta, adinaren arabera, baita familiei ere.

- Ulertu dudanez, departamentuetan behar den guztia baina behar dena bakarrik eduki behar da, eta uste dut entzun dizudala hori lortzea ez zela erraza. Zergatik diozu hori?
- Bai, zera esan nahi dut: nahiz eta kontzeptualki jakin horrek horrela behar duela izan, praktikan zaila da, pertsona batzuentzat bereziki. Batzuetan, etxeetan bezala, gauzak gorde egiten dira badaezpada ere, eta garbiketa edo berregituraketa orokorra egitean ohartzeko zara zenbat alferrikako gauza pilatu dituzun hala behar ez zuten lekuetan, eta espazioa okupatzen dizu eta amorrarazi egiten zaitu. Departamentuak behar duen guztia eta behar duena bakarrik izatea irakasleak jardueraren muinarekiko duen trebetasunaren adierazle bat izan daiteke. Irakaslearen jarreraren eta arduraren adierazle izan daiteke, eta zer-nolako bizi-tentsioaz lan egiten duen erakuts dezake.

"Hori esatean, orain arte ikusitakoan eta nire esperientzian oinarritzen naiz; garbitasunari dagokionez oso zorrotza banaiz ere, nire bizitzako alderdi batzuk izugarri desordenatuak dira, eta jarduteko modu hori ez zitzaidan baliagarri eskolak emateko. Ohartu nintzen departamentuaren funtzionamenduak antolamendu handia eskatzen duela, ikasleen eta norberaren denbora errentagarri bihur dadin, baita ikasleei burua egituratzen laguntzeko ere.

"Pertsona batzuk, izaeragatik, bizi duten negatibitate edo izan duten heziketagatik, batzuetan ez dira zuzen-zuzenean helburuan eragiten duen xehetasun garrantzitsuaz ohartzen.

"Une jakin batean departamentu batean sartzen bagara eta jostura askaturik duen koltxoneta, erdi eroritako errezela eta baliabideetan nolabaiteko desordena ikusten badugu, normala da, gertatzen den kontua. Aldiz, hiru egun garrenean horrela jarraitzen badu, adierazle bat da, baina ez positiboa.

"Izan dut horrelako esperientziarik: familia batekin elkarriketa bat izan nuen departamentu batean, lokalak falta genituen eta. Pertsianak erdi jaitsirik zeuden, eta aulkiak, berriz, hutsik, hankaz gora, garbiketa egitera etorri behar zutelako. Pertsona batzuek, normalean, horrelako gertaeren baliozkotasuna edo ondorioak zalantzan jartzen ez badituzte, nekez izango dute departamentuan behar duten guztia eta behar dutena bakarrik. Lagundu egin behar zaie. Beste batzuk, berriz, ohartzen dira xehetasun horiez. Badakite zein diren jardueraren muina eta haren ondorioak, eta horien gainean trebetasun handia dute. Baina batzuetan, departamentu-motagatik, bertan behar den baliabide-motagatik eta duten produzitzeko indarragatik edo sormenagatik –guztiari erabilgarritasuna aurkitzen diote–, nahi gabe, ikasgelak biltegi bihurtzen dituzte. Horrelakoa nintzen ni lehenengo urteetan.

"Mintegian jorrazteko gaiak dira horiek. Lehenengo kasuan, kontzientzia sortzeko eta, bigarrean, irakasleentzat edo ikasleentzat baliagarri izan daitezkeen baina testuinguruetan zuzenean erabiltzen ez diren baliabideak gordetzeko lekua aurkitzeko. Horiek gordetzea komeni da, baina ez ikasgeletan. Mintegiaren espazioak edo armairuak bilatu behar dira, agian erabiliko diren material horiek gorde eta departamentuak arintzeko. Funtzionamendu-kontua da, baina bat dator sozializazio-printzipioarekin ere: ikasleek, helburu horrekin berarekin, nagusiki komunak diren guneak eta baliabideak erabiltzen badituzte, nik, irakasle, ezin ditut guneak pribatizatu nik neuk bakarrik erabiltzeko edo nire biltegi izan daitezen, beharrezkoa eta ezinbestekoa ez bada behintzat.

BIGARREN FASEA: TESTUINGURU BAKOITZAREN EDUKIAK, HELBURUAK, JARDUEREN MUINA ETA BILAKAERA ZAIN-TZEKO ARGIBIDEAK AZTERTZEA ETA DEFINITZEA

Etxea antolatu dugu dagoeneko. Esan dudan moduan, etxearekin bakarrik funtzionatu daiteke, baina, zalantzarik gabe, zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta hobeto funtzionatuko du eta askoz handiagoa izango da gogobetetze profesionala.

Zertan datza bigarren fase hau?

Irakasleentzat, prestatzeko, gaitasuna eskuratzeko, ezagutzeko, dagoeneko ezarrita dagoen testuinguru batek ikasleei ematen dizkien aukerez jabetzeko, ezagutza jakin batzuk eskuratzeko eta hainbat gaitasun garatzeko prozesua da. Norbere lana eta taldeko lana da, eta mintegi esaten diogun egituraren barruan (hurrengo kapituluan jardungo dugu horretaz) garatzen da.

Adibide bat jarriko dut. Mintegiaren zati bat bildu egin da: lehen hizkuntzetako departamentuetan lan egiten duten bigarren zikloko irakasleak dira. Departamentu bat aukeratu, eta bertako testuinguru batean jarri du arreta; adibidez, *Kontakizunean*. Gogoko dut adibide hori jartzea; batetik, esan dizuedan moduan, edonor delako gai kontakizun bat edo asmatutako istorio bat idazteko, eta, bestetik, jarduera horren edukiak eta helburuak finkatu ziren lehen eztabaida hartan egoteko aukera izan nuelako.

Testuinguru errealekin abiatu dira, lehen zatia garaturik dago eta: badute gune zehatz bat, azpiegiturekin eta ekipamenduekin, baliabide jakin batzuekin, jardueraren zertarako, jolas edo irteera sozialarekin, lan-metodoekin, denboraren azterketa jakinarekin, etab. Orduan, hauxe planteatzen dute: honekin guztiarekin eta honekin bakarrik, *zein eduki* ikas eta *zein gaitasun* gara ditzakete adin honetako ikasleek? Ez da lan teorikoa edo asmo onetan oinarriturikoa, ezta asmatua edo orientabide pedagogikoetatik edo legetatik hartua ere. Berriro diot: testuinguru errealekin abiatzen da. Gogora ezazue nola definitu dugun: faktore erabakigarria da lan hau baliozkoa izan dadin eta teoriaren eta praktika-aren artean koherentzia egon dadin.

Edukiak (03.02 dok.)

1. *Ipuin bat asmatzea, hasiera, korapiloa eta amaiera bereiziz.*

Aurreko zikloetan hasi ziren bereizketa hori ikasten, baina ziklo honetan dagoeneko argi eta garbi bereizi behar dituzte.

2. *Kontakizunean deskribapena eta elkarrizketa erabiltzea.*

Modu librean idatziko dute, baina idatziekin elkarrizketa eta deskribapenak izan behar dituzte.

3. *Puntuazio-markak erabiltzea (, ; - ? ¡ ...).*

4. *Aditz-denbora eta pertsona mantentzea.*

5. *Gaiaren koherentziari eustea (pertsonaiak, gertaerak, lekuak).*

6. *Lan-metodoa erabiltzea.*

7. *Autozuzenketa, norbere lanari buruzko gogoeta.*

Adin horietan, inpulsibotasun handia dute: lanaren azken hitza idatzi, eta amaitutzat ematen dute. Horregatik, berriro irakurtzeko ohitura harrarazi nahi diegu, ea adierazi nahi zutena idatzi duten ikus dezaten eta, hala ez bada, zuzen dezaten.

8. *Asmatutako ipuinaren irakurketa adierazgarria.*

Egin beharrekoa da, publikoaren aurrean aurkeztu behar dute-eta, bai zuzenean bai irratia bidez.

9. *Sortzaile izateko bere barruarekin bat egiten utziko dion giroaren balorazioa.*

Kontakizuna sortutako zerbait dela, eta ez kopiatutako zerbait, ikasi behar dute. Kasu honetan, sortzea barnetik ateratzea da, eta, horretarako, hori ahalbidetuko dien giroan lan egin behar dute.

Departamentu batean hainbat testuinguru daude, eta guztietan hizkuntza baten garapena izan daiteke nagusi, baina denetan ez da alderdi bera lantzen. Bakoitzak bere berezi-

tasuna du, eta irakasleak bere esku-hartzea bideratzen jakin behar du. Horregatik, garrantzitsua da edukiak definitzea, kasu honetan, kontakizunari dagozkionak. Eduki horiek ez ditut nik, irakasleak, bakarrik ezagutu behar: esku-hartzearen bidez, ikasleek ere jakin behar dute testuinguru horretan zer ikas dezaketen.

Hurrengo urratsa: jarduera hori eginez, hau da, kontakizun bat asmatuz, ikasleak hainbat eduki ikasiko ditu, eta, era berean, epe luzera, helburu batzuk lortuko ditu edo, bestela esanda, apurka-apurka hainbat gaitasun garatuko ditu. Mintegiak ondorioztatu egiten ditu helburu horiek.

Helburuak

- a. Istorioa koherentziaz egituratzea.
- b. Hainbat hizkuntz baliabide erabiltzea.
- c. Sormena garatzea.
- d. Idazmena garatzea.
- e. Ikasleak bere istorioez gozatzea.
- f. Autonomiaz jokatzeko.
- g. Norberaren lana eta besteena baloratzea.

Aurkeztu berri dudan horretan, 2. zikloko lehen hizkuntzaren mintegiko taldeak eztabai-datu eta analisi- eta sintesi-lana egin du. Kontakizunaren bidez ikasleek zein eduki ikasiko dituzten eta zein gaitasun gara ditzaketen aurkitu eta definitu dute. Batez ere, norbera prestatzeko lana egin dute taldean. Kontzientziazte-lana, testuinguru horretan euren esku-hartzea ahalik eta egokiena izan dadin. Horregatik jarraitzen da sakontzen, hain zuzen, eta beste urrats bat ematen da, are gehiago laburbilduz: esaldi batean edo bitan laburbiltzen dira eduki eta helburu guztiak, esku hartzeko orduan buruan gorde ahal izateko. Lan horri *jardueraren muina* aurkitzea deritzogu. Azken prozesu hori hobeto azaltzeko, zenbakitu egin ditut arestian azaldutako eduki eta helburuak, eta *muinak* eduki eta helburu guztiak biltzen dituela ikusiko dugu.

Jardueraren muina: kontakizuna

1. *Idazmena (d) autonomiaz garatzea (6, 7, f), bere barnetik (9) istorio bat sortuz (1, 9, c, d, e), horretarako hainbat prozedura eta hizkuntz baliabide erabiliz (2, 3, 8), bereiziz hasiera, korapiloa eta amaiera (1) eta koherentzia narratiboari eutsiz (4, 5).*

2. *Norberaren eta besteen lanetan izandako aurrerapausoak baloratzea (g).*

Berriro diot. Ikus dezakezue, beste eztabaida eta sintesi-lan bat da, eduki eta helburu guztiak eta bakoitza biltzen dituen.

Curriculum garatzeko edo programatzeko lan horretan, beste urrats bat egiten da. Datu-bilketarako fitxa bat egiten da, *Bilakaera zaintzeko argibideak* esaten dioguna, eta departamentuetan esku hartzeko balioko digu.

Metodologikoki, horrela egiten dugu:

Jardueraren muina hartzen dugu:

1. Idazmena autonomiaz garatzea, bere barnetik istorio bat sortuz, horretarako hainbat prozedura eta hizkuntz baliabide erabiliz, bereiziz hasiera, korapiloa eta amaiera eta koherentzia narratiboari eutsiz.
2. Norberaren eta besteen lanetan izandako aurrerapausoak baloratzea.

Idazmena autonomiaz garatzea:

Autonomia etengabe garatzen da ikastetxeko hainbat esparrutan, baina mintegi honetako irakasleek, hizpide dugun testuinguruaren (*Kontakizuna*) ardura bere gain hartuz, zera planteatu dute: zeri erreparatuko diogu testuinguru honetan, ikasleek autonomiari dagokionez aurrera egin duten ala ez jakiteko? Zerbait zehatza eta hautemangarria izan behar da, behagarria eta sistematikoki egiten dena. Bi adierazle ezarri dituzte, bilakaera zaintzeko bi argibide: lehenengoa, ea lan-metodoa nola erabiltzen duen eta, bigarrena, ea kontakizuna bukatzean, inork esan gabe, berriro irakurtzeko eta hausnartzeko gai den, idatzitakoa adierazi nahi zuenarekin bat datorren ikusteko.

Bere barnetik istorio bat sortuz:

Sormena ere etengabe garatzen da hainbat esparrutan, baina hemen, zehazki, bilakaera zaintzeko bi argibide ezarri dira: batetik, kontakizuna ez izatea kopia edo imitazioa, norberak barnetik sortua baizik eta, bestetik, idazteko eta sortzeko orduan izan duen kontzentrazio-maila. Kasu honetan ere bi argibide dira, baina gehiago edo gutxiago izan zitezkeen.

Hainbat prozedura eta hizkuntz baliabide erabiliz:

Puntuazio-markak erabiltzea, eta testu-motak bereiztea eta testu berean erabiltzea (deskribapena eta elkarrizketa).

Hasiera, korapiloa eta bukaera bereiziz:

Kontakizunaren adibidea (03-02 dok.) baliagarri izan zaigu prozesu honi jarraitzeko, baina *Telebistaren lan-metodoa* ere azaldu dizuedanez, adibide hori ere jarriko dizuet (03-05 dok.).

Laburbilduz:

Curriculumaren bigarren fase honetan, edukiak, helburuak eta jardueraren muina ezartzen dira. Lan horretatik abiatuta, ikasleen bilakaera zaintzeko argibideak finkatzen dira.

1. *Irakaslea testuinguru jakin batean kokatzen da, eta:*

- Lan-metodoa eta ikasleek jarduera hori gauzatzeko egiten dituzten ekintzak kon-tuan izanik, *testuinguru horren berariazko edukiak zehazten dira.*
- Ikaskuntza horiei esker gara ditzaketen *helburuak definitzen dira.*

Edukia "orain" ikasten duena da.

Helburua epe jakin batean garatu beharreko gaitasuna da, joera da.

2. *Jardueraren muina lantzen da*, edukiak eta helburuak laburbilduz.

3. *Ikasleen bilakaera zaintzeko argibideak zehazten dira*, jardueraren muintetik abiaturik. Bilakaera zaintzeko argibide horiek dira praktikan balioko digutenak, aurreko urratsetara jo beharrik izan gabe.

Analisi-sintesi-analisi prozesu baten aurrean gaude: analisia, edukiak eta helburuak ezartzeko; sintesia, jardueraren muina lantzeko; analisia, bilakaera zaintzeko argibideak zehazteko. Prozesu hori guztia norberaren eta taldearen prestakuntzarako bitartekotzat hartzen da.

Talde-lan horrek ondorengoetarako balio du:

- Norberaren egitekoan trebatzeko eta irakasle guztiek aberastutako ikastetxeko curriculumak sortzeko. Irakasle bakoitzak (sekulako trebetasuna izanda ere) bere

kabuz egin dezakeena baino askoz haratago doa eta, gainera, fase horrek funtzionatzen badu, ikasleek antzeko emaitzak lortzen dituzte edozein taldetan egonda ere.

- Esku-hartzea bideratzeko.
- Prozesuen bilakaera zaintzeko.
- Irakasleek eta ikasleek eguneroko lanari jakintza handiagoaz ekiteko; horrek nork bere buruarengan eta besteengan duen konfiantzan eragingo du, baita norberaren estimuan ere.

Curriculumaren lehen fasea azaltzean, esan dizuet eskatzen diguten ikastetxeei eman egiten diegula fase horren garapena. Baina ez dugu berdin jokatzeko bigarren fase honetan. Egiten irakasten zaie eta ereduren bat ematen zaie, kasu honetan bezala, baina ez besterik. Gure ustez, talde bakoitzak egin beharreko prestakuntza-lana da, eta ekarpen eta bereganatze pertsonal eta besterenezina eskatzen du. Talde eta pertsona bakoitza iristen den lekura iristen da eta bakoitza bere unean, gainera. Une horiek erabat indibidualizatuak dira, ikasleekin gertatzen denaren antzera. Mintegi berekoak izanda eta eztabaida edo lan berean parte hartuta ere, oso desberdinak dira pertsona bakoitzean sortzen diren aurkikuntzak eta erritmoak. Horregatik, fase hori ezingo da inoiz amaitutzat eman, paper gainean idatzirik egonda ere. Prozesu guztia barneratzen jarraitzea eta ikasleekin eta familiekin egiten den esku-hartze zuzenarekin lotzea. Horixe da gakoa.

Esan dizuet prozesu honen azken zatia dela (hau da, bilakaera zaintzeko argibideak) praktikan esku hartzeko orduan bereziki baliagarri izango zaiguna. Eta ez dezagun gure burua engaina: argi eta garbi, hori egiten jakitean eta horrek dakartzan ondorioetan datza gure egitekoaren alderdirik garrantzitsuena. Hor datza gure buruari exijitu behar dioguna eta besteek exiji diezaguketena.

Aitortuko dizuet Amara Berrin lehen ikasgela edo departamentua antolatu nuenean artean ez zegoela lan-talderik. Testuinguruak antolatu ostean, ikasleen bilakaera zaintzeko argibideak zehazteko premia larria sentitu nuen, iraupen profesionalagatik. Ikasle bakoitzaren bilakaera zaintzeko eta familien aurrean azaltzeko behar nituen. Horiek edukitzea nire egiaztagiria mahai gainean jarri ahal izatea bezala izan zen niretzat: testuinguruak aurkeztu, eta behaketa edo bilakaera zaintzeko argibideen bidez (printzipio metodologiko batzuen bidez eta pertsona-kontzeptuaren bidez arrazoitutakoak) seme-alaben prozesua kokatu. Ziurtatzen dizuet horrek ematen duela autoritatea norberaren egitekoan. Nik ez dut besterik behar izan.

Orain arte *testuinguru bateko curriculum*a nola lantzen den ikusi dugu.

Jarraian, ikus dezagun zein den *departamentu bateko curriculum*a.

Departamentuko curriculuma

Departamentuak hainbat testuinguru baditu, lan hori bera egiten dugu testuinguru bakoitzari dagokionez eta horrek osatuko luke departamentu horretako curriculuma. Hau da, departamentuko edukiak eta helburuak bertako testuinguru guztietako eduki eta helburuak dira. Gauza bera gertatzen da muinekin eta behaketa edo bilakaera zaintzeko argibideekin ere. Testuinguru bakoitzak bere muina eta bere argibideak ditu, eta horiek guztiek osatzen dituzte departamentuarenak.

Zikloko curriculuma

Zikloko mintegien arteko elkarlanaren emaitza da.

Ziklo batean zortzi edo hamar departamentu badaude, hogeita hamar edo berrogei testuinguru baino gehiago egon daitezke. Zikloko testuinguru guztietako helburuak meta-tzen baditugu (betiere orraztuz eta errepikapenak ekidinez, helburu batzuk hainbat testuingurutan garatzen baitira), zikloko benetako helburuak izango ditugu. Gauza bera egingo genuke edukiekin, muinekin eta bilakaera zaintzeko eta behaketa egiteko argibideekin. Behaketa egiteko argibide horiek bilakaeraren zainketa, esku-hartzea eta ebaluazioa egiteko oinarritzko mapa osatzen dute. Esango nuke familiei informazioa emateko oinarri ere badirela, baina horretan aurrerago sakondu nahi nuke.

Arlo, irakasgai edo diziplinaren curriculuma

Mintegiaren zereginaren baliokide da.

Gure kasuan, ez du interes berezirik arloa eta diziplina bereizteak. 1990eko Erreformen, arloen bidez, ikuskera eta ikuspegi metodologikoan aurrera egin nahi izan zen, diziplina zehatza gainditu eta curriculumean diziplinartekotasuna sartuz. Baina, gure kasuan, testuinguruka egiten den lanetik abiatzen gara, eta bakoitzean irakasgaiak erlazionaturik daude, bat nagusitzen bada ere; horrenbestez, testuinguru guztiak, neurri batean edo bestean, diziplinartekoak dira. Horregatik, praktikan, ez gara bereizketa hori egiten saiatzen.

Zer egiten dugu mintegi bakoitzeko edo ziklo bateko arlo edo diziplina bateko edukiak zeintzuk diren jakin nahi izanez gero?:

- 1ª. Ziklo horretako irakasle guztiak elkartu, eta banan-banan aztertzen dituzte ziklo horretako testuinguru guztien edukiei buruzko dokumentuak (hogeita hamar edo berrogei inguru, beraz), dagoeneko eginak. Eduki bakoitzaren ondoan, klabe bat

idazten da, eduki hori zein arlori, diziplinari edo diziplinei dagokien kontuan hartuta. Adibidez: hizkuntzei badagokie, (H) jarriko dugu bazterrean. Gorputz-hezkuntzari eta, aldi berean, matematikari dagokion edukia bada, berriz, (GH) (M) jarriko dugu, etab. Curriculum orokorra deitzen diogun horri loturik ere egon daiteke, eta kasu horretan (O) jarriko dugu. Curriculum orokor horrek aurretikoak, jarrerak lantzen ditu, eta horiei helduko diet berehala.

03.02, 03.04, 03.05 dokumentuetan, arloari dagokion zutabea hutsik dago. Horrela erabiltzen dugu, baina arestian azaldu dudana lana gauzatzeko balio du.

- 2ª. Zikloko dokumentu guztietatik, esaterako, matematikari dagozkion eduki guztiak bilduko ditugu, hau da, M dutenak. Eduki horiek zuzenean edo, hobeki, informatikaren bidez, orraztu egingo ditugu, errepikatu ez daitezten. Horrela, ziklo horretako matematikako berriazko edukiak lortuko genituzke.

Gauza bera egin daiteke helbuekin eta bilakaera zaintzeko edo ebaluazioa egiteko argibideekin ere.

Mintegi osoko edukiak edo helburuak ezagutu nahi baditugu (kasu honetan, Matematika-mintegikoak), M klabea duten lan guztiak bilduko ditugu, ziklo eta etapa guztietakoak. Horrela, eskolatzeko-aldia hasten denetik bukatzen den arte matematikan lantzen diren eduki guztiak zeintzuk diren jakingo genuke. Gauza bera egin ahal izango genuke Natur Zientzietako mintegiarekin edo beste edozein mintegirekin. Hori ezagutza erreala eta amaierakoa izango litzateke, baina aurretik ere, ziklo bateko edukiak ezartzeko ere, bazen ezagutzarik; izan ere, eduki horiek aurreko zikloetatik abiatu behar dute, edukien segida ezartzea edozein mintegiren oinarritzko egitekoetakoa da.

Hezkuntza Sailak, esaterako, Ikuskaritzaren bidez Ingurunearen Ezagutzaren arloko curriculum eskatuko baligu -eta ez Natur Zientzietako-, Natur Zientziei, Gizarte Zientziei, Teknologiarri, Geografian eta Historiari eta abarri dagokion guztia bilduko genuke.

Prozesua uler dezazuen saiatu naiz, baina argiago ikusiko duzue egiturak jorratzen ditugunean.

Lan hori guztia lehen aipatu dudana osagarritasun-ikerketarekin loturik dago. Denbora behar da, baina, esan bezala, informatika bitarteko ona da lan-mota hori arintzeko.

Bigarren fasea argi azaltzen saiatu naiz; ez dakit lortu dudana.

Curriculumaren hiru faseez aritzean, esan dizuet lehenengoa bizi garen etxea dela. Bigarrena, berriz, nor bizi den bertan: irakasle bakoitza, bere trebetasunarekin eta bere bilakaera posiblearekin. Hirugarrena, nola bizi den, hau da, nola bizi duen bere burua giza-banako gisa eta nola gauzatzen duen esku-hartzea.

Hirugarren faseari heldu aurretik, galderaren bat egiteko tartea utz dezakegu.

- Departamentu berean lan egiten duten irakasle guztiak formatu bera erabiltzen dute bilakaera zaintzeko edo ebaluazioa egiteko?
- Irakasle guztiak eduki bera dute abiapuntu: bilakaera zaintzeko argibideak, mintegian elkarrekin landutakoak. Hori da oinarritzkoena. Denentzako elementu funtsezkoa eta komuna dira, baina praktikara eramateko orduan bakoitzak formatua bere izaerara egokitzen du, betiere edukia mantenduz.
- Curriculumara definitzean, kontuan izaten dituzue legeak ezarritako eduki eta helburuak?
- Bai. Sistema hau gauzatzen dugun ikastetxeok (eta ustez edozein ikastetxek) lege-diaren alderdi guztiak hartzen ditugu kontuan. Uste dut Orientabide Pedagogikoez ari zarela. Egia esan, curriculumara lantzeko ez gara horietatik abiatzen, baina, modu batera edo bestera, gure subkontzientean ditugu eta, zalantzarik gabe, guran eragina dute testuinguruak bilatzeko orduan, une horretan gure helburu ez badira ere. Dena den, curriculumaren garapena nahiko aurreraturik dugunean, lege-araudiarekin alderatzen dugu.

"Alderatze hori egiteak kokatzen jakitearen balioa du: batetik, akatsak zuzentzen ditugu, baldin badaude, eta, bestetik, eduki edo helburu horietakoren bat bete nahi ez badugu, zergatia argumentatu eta aldarrikatu egiten da. Ez dezagun ahaztu eskolak irau egiten duela eta araudiak aldatu egiten direla, unean-unean boterea duenaren iritzia arabera.

"Adibidez, Durangon gauzatu genuen alderatze hori 1970eko Legearekin, eta *La escuela que pudo ser* izeneko lanean jasorik dago. Nire iritziz, orientabide pedagogiko haiek oso irekiak ziren. Irekiak diot, sarreran araudiari berari buruzko esaldi bat zetorrelako, ikastetxe batzuentzat oxigeno-poltsa modukoa izan zen esaldia. Proposatutako aukerak *indikatiboak zirela eta ez zutela beste aukera posibleen bat baztertzeko* zioen. Esaldi hartan oinarriturik, proiektu hau defendatu ahal izan

genuen. Alderatu egin genuen, eta orientabideak betetzen ziren, ikuspegiren batean salbu: ez genuen bete nahi, ez geunden-eta ados planteamenduekin. Zaharrei errespetua izatea zen horietako bat. Noski, zaharrek errespetua merezi dute, baina ez zaharrak izateagatik, gizabanako izateagatik baizik. Horregatik, errespetua merezi dute gaztaroan edo haurtzaroan ere. Garrantzitsuena bizitzako aldi bakoitzean sortzen diren behar pertsonalez sentsibilizatzea da. Bestetik, ez genuen familiaren garrantzia azaldu nahi, orduan bideratzen zen moduan; izan ere, ez zen ikasle guztientzako familia-eredu baliagarria, ikasle asko bestelako eredu batean jaio edo bizi zirelako.

"Esan dizuet, nire ustez, orientabide haiek oso irekiak zirela, eta gaitik urrundu egingo naizen arren, hau esan nahi dizuet: orientabide horiek betetzea eskatzen zuena bera ez zen gai ezer onartzeko orientabideek proposatzen zituzten eredu estandarretatik eta jardun tradizioaletik kanpo, araudi berritik kanpo; nahiz eta arauak horretarako baimena eman ematen zuen.

"Badirudi hezkuntza-erreformak ikasleen hoberako direla, irakasleak eguneratzea exijitzen dute eta. Hori inork ez du zalantzan jartzen. Baina, nire ustez, ikastetxe guztiok gaitasuna eta eguneratzea eskatu behar genioke administrazioaren gainekoari ere, haren esku-hartzea laguntza beharrean oztupo bihur ez dadin.

"1990eko Legearekin ere alderatu genuen, eta, eskatu zitzaigun bezala, Curriculum Proiektu berritua -gure kasuan alderatua- bidali genien, onar zezaten. Sistema hau darabilgun ikastetxe guztientzako egindako ikerketa izan zen, bakoitzaren bereizgarriak kontuan harturik.

"Kasu horretan, araudia betetzea exijitzen zutenek ezagutzen zuten gure historia, gure ibilbidearen balorazio positiboa egiten zuten eta ez zitzairen hurbiltasunik eta trebetasunik falta izan. Baina horrek ez gintuen salbuetsi eta ez gaitu salbuesten gaur egun ere normalean bete behar diren eta oraindik ere orokorrak diren dokumentu horietatik. Ez daude ikastetxe bakoitzeko errealitatera egokiturik, eta gehienak ez dira legediari jarraiki eguneratu. Adibidez, Erreforma hartan ziklo osoko programez hitz egiten zen eta diziplinarteko trataeraren bidetik jotzen zuen. Ikastetxe batek gai az pasatu egiten badu, ez du arazorik dokumentuak betetzeko; Erreforma horren espiritua eta hitzak praktikara eramaten baditu, ordea, gure kasuan bezala, murru baten aurrean jartzea bezalaxe da. Denbora luzea behar izaten da ahal dena eta ez besterik egiteko; izan ere, eskatzen dituzten datuak, esaterako, mailaren kontzeptutik abiatzen dira, eta diziplina baten ordutegia ere eska diezazukete.

"Ez nuen gaitik urrundu nahi, baina agian are gehiago urrunduko naiz

"Beste ikastetxe batzuei aholkua emateko taldean dagoen neska batek, bere egitekoaz galdetzen diotenean, zera esaten du beti: ikasleekin ikasgelan egon naizenean izan dudana egiteko bera dut orain beste ikastetxeekin: aurrera egin dezatela ahalbidetzea eta horretarako esku hartzea, eta, era berean, elkarrekintza horretan nik ere ikasi eta aurrera egin ahal izatea. Indibidualizazio-, sozializazio-, globalizazio-, jarduera-, sormen-, askatasun- eta normalizazio-printzipioek zuzentzen naute, eta horietan oinarritzen dut jarduera, ikasgelan nagoenean bezalaxe.

"Aberasgarria iruditu zitzaidan hari entzutea. Nire iritziz, hori da ikastetxeen hezkuntza-jarduerari dagokion organigramako pertsona guztien –bere egitekoa edozein delarik ere– eta administrazio osoaren funtzioa. Ikastetxeekiko harremanetan printzipio horiek aplikatuko balira, zalantzarik gabe, aurrerapauso handia lortuko genuke.

- Ez dituzue bereizten helburu kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak?
- Praktikan ez. Uste dut zerbait esan dudala horren gainean. Begira, 1990eko Erreformatik aurrera, mintegietan bereizketa hori lantzen hasi ginen. Ariketa mental gisa, oso interesgarria da, baina bereizketa metodologikoa da, edukiak ez dira-eta garbiak: prozedurazko eduki bat jarrerazkoa ere izan daiteke. Ariketa hori eginda eta horren ekarpena ulertuta, lan praktikoan ez gara kontuan edukitzen saiatzen; hala ere, badira ildo horretatik egindako dokumentuak, une hartan egin beharrekoak iritzi zitzaielako edo taldea osatzen dutenek egoki iritzi diotelako horiek egiteari.
- Nori dagokio mintegi guztiak koordinatzea?
- Sistema honekin dihardugun ikastetxeetan bada egitura bat, non mintegi guztietako koordinatzaileek parte hartzen duten, eta ikasketa-burutzari dagokio egiteko hori.
- Uste dut ez dituzuela testuliburuak erabiltzen, baina jakin nahi nuke zer pentsatzen duzun testuliburuak erosteko diru-laguntza ematearen proposamenari buruz.
- Testuliburua erabil dezakegu, eta testuinguru batean erakutsi genizuen, gainera, nola erabiltzen zuten. Baina ez da oinarrizko baliabidea.

"Diru-laguntza emateari dagokionez, ez dakit familia guztiei eman beharko li-tzaieken, modu orokorrean, edo desberdintasunak orekatzeko irizpidea erabili behar den. Nolanahi ere, garbi daukat ez direla testuliburuetarako diru-laguntzak eman behar, eskola-materialerako baizik, material hori edozein delarik ere. Horren baren sartuko litzateke testuliburua, baina ez lirateke baztertuko bestelako baliabideak. Testuliburuak diruz laguntzea edo doan izatea eskatzen da, oinarrizko baliabidetzat hartzen delako. Hori horrela, baztertu eta zigortu egingo lirateke berrikuntza eta ikerketa pedagogikoaz gehiago arduratzen diren eta testuliburua oinarrizko elementutzat ez duten ikastetxeetara joaten diren ikasleak.

"Hirugarren faseari helduko dio eltabila.

HIRUGARREN FASEA: IKASLEEKIN ESKU HARTZEKO, BILAKAERA ZAINTEKO ETA EBALUATZEKO PROGRAMA

Nola bizi garen. Horri dagokio hirugarren fasea.

Hemen normalizazio-printzipioa aipatu nahi dut; izan ere, *ordenatzea* da ematen diogun interpretazioetako bat. Dena den, printzipioa bera aurrerago garatuko dut.

Gizabanakoa osotasuna dela ahaztu gabe, lehen fasean testuinguruak eratzen ditugu; hau da, ikuskeratik abiatuta eta irizpide batzuk hartuta, gauzak ordenatzen ditugu.

Bigarrenean, funtsean, burua ordenatzen dugu, testuinguru horien hartzaile diren ikasleentzat zein eduki, zein helburu eta bilakaera zaintzeko zein argibide diren baliozkoak jakiteko.

Hirugarrenean, berriz, bereziki, gure afektuak, gure bizitza ordenatzen dugu, ikasleen *bilakaeraren zainketa, esku-hartzea* edo *ebaluazioa* zintzotasunez egin ahal izateko. Bizitzan, beharrezkoa da afektuak birkokatzea, gure kontzeptuek eta gure harremanek aurrera egin dezaten. Aurrerago sakonduko dut horretan.

Egiaztatu ahal izango duzuen bezala, ebaluatzea, esku hartzea eta bilakaeraren zainketa praktikan erabat erlazonaturik dauden ideiak dira. Niretzat oso antzekoak dira, baina esku-hartzearen kontzeptuaz hausnartuz hasi nahi dut; izan ere, profesional batzuek uste dute zuzentzea, ez onartzea eta eurek gaizki dagoela uste dutena azpimarratzea dela esku hartzea:

- Esku hartzea parte hartzea da, inplikatzeta. Gure ikuskeratik abiatuta, ezin dugu kanpotik begiratzten eta aztertzen duenaren lekuan jarri, nahi edo ez, ikasleen eboluzioan edo inboluzioan eragiten ari den elementu baikara. Ikasgelak, departamentuak, dau den moduan antolatzea hainbat helburu sortzen eta garatzen dituen esku hartzeko modu bat da. Horietako asko ez lirateke lortuko beste egitura batekin.
- Esku hartzea testuinguruak, baliabideak eta materialak behar bezala mantentzea da, utzikieririk gabe, horrek ondorio pertsonalak eta sozialak ditu eta.
- Esku hartzea momentu jakin batean irribarre egitea da, lan baten edo elkartasun-ekintza baten aurrean konplizitate- eta onarpen-begirada bat eskaintzea. Hutsak barkatzea da.
- Esku hartzea ikasleei barkamena eskatzea da, bai ikasgelara berandu iristeagatik, bai sentsibilitatea falta izan zaizulako edo bai iritzi desegokia zeneukalako.
- Esku hartzea besteei eta zure buruari gizabanakoen eta gure ingurunearen eskubideak errespetatzeko exijitzea da.
- Esku hartzea, guztiaren gainetik, ikasle bakoitza ematen ari den aurrerapauso guztiak biltzen dituen orri zuriaren aurrean jar dadin saiatzea da, alderdi postiboak azpimarratuz. Horrekin batera, baita norberaren puntu beltzak eta horiek gainditzen edo onartzen saiatzeko modua aurkitu ahal izatea ere.
- Esku hartzea birmoldatzea da.
- Gizatasunez esku hartzea da gure egitekoaren erronkarik handienetakoa. Are gehiago, edozein gizakik edozein egoeratan duen erronka dela esango nuke.

Termino hori interpretatuz, gogorazi nahi dut oso zabaldurik dagoela ideia bat, programatzea eta ebaluatzea generikoa dela, ikas daitekeela eta edozein ikastetxerentzat balio duela dioena. Hori ez da horrela, ordea. Koherentziaz jokatu nahi badugu, ebaluazioak ikastetxe bakoitzeko berariazko curriculumak izan behar du erdigunean, eta, hala, bat etorriko da ikastetxearen hezkuntza-ikuskerarekin. Hori horrela, proiektu bera duten ikastetxeetan komuna izan daiteke.

Jo dezagun praktikara. Demagun ni irakaslea naizela. Departamentu bateko arduraduna naiz, eta, bertan, besteak beste, *Kontakizuna* izeneko testuingurua dago (adibide ezagun bat erabiltzearen). Ikasleen bilakaera zaindu nahi dut hor, gune horretan. Zer egingo dut?:

- 1^a. Testuinguru horretara joan, eta ikasle jakin bati erreparatuko diot.
- 2^a. Lan-metodoaren bidez nola kokatzen den behatuko dut (02-05 dok.).
- 3^a. Adinaren arabera, ziklo honetan, kontakizun bat idazteko eginkizunari dagokionez aurrerapausoak apurka-apurka emateko badira bi ikasturte. Ikaslea lasaitzeko eta ez estutzeko modu bat da, eta, aldi berean, baita neure burua lasaitzeko eta ez estutzen saiatzeko modua ere.
- 4^a. Jarraian, mapaz jabetzeko prozesua hasten da. Biok aurrerapenen edo zailtasunen bilakaera zaintzeko kontuan izango ditugun alderdiek osatzen dute mapa. Mintegian lantzen ditugun bilakaera zaintzeko argibideak dituen orria erabiliko dut, eta orri hori, materialki ere, ikus dezaten gustatzen zait. *Berariazko mapa* deitzen diot horri, testuinguru bati dagokio eta. Argibide edo adierazle horiek ezagututa, ikasleak hobeto ulertzen du bere prozesua jarraitzeko irizpide batzuk erabiltzen ditudala. Argibide batzuk erraz ulertu ahal izango ditu: "Zer autonomia-maila lortzen ari zaren behatuko dugu, eta, horretarako, batetik, lan-metodoa erabiltzen badakizun aztertuko dugu, eta, bestetik, kontakizuna bukatzean, ea inork esan gabe berriro irakurtzeko eta horretaz hausnartzeko gai zaren, nahi zenuena jarri duzula ziurtatzeko". Argibide hori eta beste batzuk erraz ulertzen dituzte: adibidez, istorioak norberarena izan behar duela, originala, eta hasiera, korapiloa eta amaiera izan behar dituela. Beste batzuk ulertu ahal izateko, ordea, denbora gehiago behar da, eta egunero-egunero azpimarratzen ditugu, lana berraztertzerakoan: puntuazio-markak, ea aditz-denbora mantentzen duen, ea hainbat testu-mota bereizten dituen, etab. Argibide guztiak ez dira kolpe batean azpimarratzen, zuzenketa-kontzeptu jakin bat aplikatzen dugu eta.

Irakasleentzat ebaluazio-prozesu hori erraz samarra da, behaketa zuzenaren eta alderatzearen bidez egiazta daiteke eta. Baina bilakaera zaintzeko argibide horiek izan behar ditu eskura, ez edozein argibide, eta ikasleen adinari egokitutako esku-hartzea egin behar du, pixkanaka ikasleek mapa ezagut dezaten eta bertan kokatu daitezen.

Ebaluatzea askoz gehiago da, ordea.

Gerta daiteke azaldutako guztia betetzea, eta, programarik eta irakaslerik hoberenak izatea. Baina ikasle horrek ikasi nahi ez badu, egiten duguna egiten dugula ere, ez du ikasten. Zergatik?

Zergatik? Ikaskuntzak *aurretiko batzuk* dituelako. Nahi izatea da aurretiko bat. Garrantzi handiko edukia da hau ikastea: pertsona batek, ikasi nahi ez badu, ez du ikasten. Ez da

gauza bera ikasle hori mahaian erdi etzanda egotea, begirada erdi galdurik duela, gogorik gabe, edo gorputzaren jarreretan ere nabaritzen den interesa, kontzentrazioa eta bizitentsioa izatea.

Hori landu egin behar da, eta horrek irakasleonek bizitza jartzen du jokoan. Ez da gauza bera irakasleak eguna indarrak gabe hastea: "O, astelehena, eskolara joan behar" esanez hastea, edo egunari indar eta bizitasun osoz aurre egitea, bere buruari "Astelehena, eskolara noa!" esanez. Ziur, benetan, errendimendua ez da bera.

Nahi izatea helburu orokorretako bati oso loturik dagoen jarrera da: *uneaz, orainaz gozatzeta*. Hemen eta orain gozatzeta. Hori landu egin behar da, baina gozatu egiten duela ikustea edo kontrakoa ikustea adierazle bat da niretzat, aurretiko horren bilakaera zaintzeko argibidea.

Gertatzen da, halaber, pertsona batek ikasi nahi izatea, baina ezin izatea, beste aurretiko batzuk falta zaizkiolako: ez dago ondo fisikoki, afektiboki edo sozialki.

Gure sistematik abiatuta, ikaslea egarri bada, ezin diot esan lan egiteko eta gero edango duela. Ikasi egin behar du lan egin nahi badu eta egarri bada, edan egin beharko duela lehenengo, egarriarekin ezin baita lan egin, ezin baita etekinik atera. Urduri badago, har dezala arnasa sakon-sakon, eta hobeto sentituko da, edo egin ditzala luzaketa-ariketak. Hori egiten dugu edo egiten saiatzen gara helduok: gure behar fisiologiko edo mentalak ezagutzen, kalitate hobez lan egiteko eta etekin handiagoa ateratzeko. Eskola honetara hori ikastera ere etortzen dira, ildo horretako helburu bat ere badugu eta: *gorputza ezagutu eta bere gaitasunak garatzea*. Ikaslea bere gorputzari horrelako erantzunak emateko gai den edo ez behatzea adierazle eta argibidea da, bai irakasleentzat bai ikaslearentzat berarentzat.

Ikasle hori, adibidez, jolastokira joan, eta ikaskideek ez badiote jolasten uzten, gaizki sentitzen da. Ikasgelara itzultzean nik, irakasleak, esaten badiot "Ez eman garrantzirik, ez da ezer eta. Has zaitetz lanean", maitasun osoz esanda ere, esku hartu dut, baina azaleko esku-hartzea izan da, ez baita egia ez dela ezer gertatzen. Esku hartzeko beste modu bat, nire ustez egokiagoa, hauxe esatea izango litzateke: "Begira, pertsonoi, helduak izanda ere, zuri sufriarazi egin dizun hori egiten badigute, oso gaizki sentitzen gara. Zuri bezala, korapilo bat sortzen zaigu barruan, eta minez betetzen gara. Begira, korapilo hori barruan duzula, ezin dugu lanik egin, ezta zuk ere. Lehenengo korapiloa askatu behar da. Eta bada-kizu nola askatzen den korapiloa? Pertsona horiekin hitz egin behar duzu; ez errietan aritzeko edo haserretzeko, horrek ez du ezer konpontzen eta. Esaiezu egia. Esaiezu beraiekin hitz egin behar duzula. Nik lagunduko dizut, merezi baitu euren lana eten dezaten ere.

Esaiezu arima minduta duzula. Negargura duzula. Barruan lan egiten uzten ez dizun korapiloa duzula. Ziur asko ez zizuten min hori egin nahiko. Esaiezu zure lekuan jartzeko...".

Adibide hori baliagarria da ohartzeko aurretikoen gaineko esku-hartzea modu askotara egin daitekeela, baina, eskola-mota jakin batean egonik, gure hezkuntza-proiektutik egin behar dugula.

Azter dezagun adibide hori. Ikasle horrek aurretiko batzuk ditu. Afetiboki eta sozialki gaizki dago. Korapilo bat du... gaizki dago bere ikaskideekin... Jabetzen da horretaz? IHPn helburu bat dugu, ikaslea horretaz jabetu ahal izateko esku hartzeko: "Jarrera arretatsua izatea sentitzen dudanarekiko, gertatzen zaidanarekiko, nire gorputzak behar duenarekiko. Gelditzen jakitea..." Hori ikasi egin behar du. Badaki korapiloa duela, baina nola askatuko du? Esku hartzeko eta bilakaera zaintzeko argibide bihurtzen diren beste helburu batzuk ere baditugu: "arazoak konpontzeko jarrera aktiboa eta sortzailea izatea. Elkarrizketaren bidez konponbideak bilatzea..." Geldi ez geratzea, eta egoera konpontzeko alternatiba bat aurkitzea. Hori ikasi egin behar da. Ikasle bati konponbidea bilatzeko elkarrizketa erabiltzea barrutik ateratzen zaiola ikustea adierazle bat da niretzat, eta, hala ez bada, esku hartzeko argibide bat.

Hitz egin eta sentitzen duena adierazi behar die: "barne-mundua eta afektu-mundua adieraztea" da beste helburu bat, eta landu egin behar da. Kasu honetan, barne-mundua eta afektu-mundua adieraztea heldutasunaren eta barne-askatasunaren zantzu direla ohar daitezten. Helburu hori bilakaera zaintzeko argibide eta aurretiko horiek baloratzeko argibide bihurtzen da, ikusten badut ikaslea gai dela bere barne-mundua adierazteko. Ikusten badut besteengana joan dela hitz egitera eta "kritika egin diela, aurrera egiteko faktore gisa", jarrera alda dezaten "laguntzeko eta giza sentsibilitatetik sortzen den manera zuzenaz" hitz egiten diela.

Ikastetxeko helburu orokorrek gure arnasa behar lukete izan, baita esku hartzeko orduan transmititzen dugun airea ere. Baina bilakaeraren zainketaren eta ebaluazioaren gakoak eta argibide orokorrak ere badira. Helburu horiek beste mapa bat osatzen dute, nik *mapa orokorra* deitzen dudana, eta norberaren eta taldearen garapena eta aurretikoak (hau da, nortasunaren eta harreman sozialen alderdiak) ebaluatzerantz bideraturik dago. Jakintza-arloei loturiko ikaskuntzetarako, berriz, testuinguru edo departamentu bakoitzeko berariazko mapa dago, bilakaera zaintzeko argibideak deitzen dioguna

Ziur esaten dizuet: talde osoak (ez irakasle batek soilik) horrelako esku-hartzeak egin dituenean, eskola aldatu egiten da, kultura-mota hori sortzen delako apurka-apurka. Baina, koherentziagatik, ikasleekin horrelako esku-hartzeak gauzatu ahal izateko

teko, beharrezkoa da irakasleen artean ere gauzatzea. Bizitzan afektuak, emozioak, etengabe birkokatzen dira, gure kontzeptuek aurrera egin dezaten eta gure harremanak honda ez daitezen. Ezin dugu gure lanbidea harremanak hondaturik ditugula bizi, hondatze hori oso txikia izanda ere. Hori gertatu egiten da, eta gertatzea gizakioi berezko zaigu, gainera. Baina hitz egin behar da eta jarrera jakin batzuk izan behar dira. Hogeit bat urte nituenean gertatu zitzaidan gertaera bat –asko aipatu ahal izango nituzke– dut gogoan hori esaten dudanean. Onartzen dut zirrara eragin zidala. Kide batekin ez nuen enpatizatzen. Neska hark ez zidan arazo berezirik sortzen, baina beti kontra egiteko gogoia sartzen zitzaidala sentitzen nuen; ez nekien ondo zer gertatzen zen. Egun batean pentsatzen jarri nintzen, eta esan nion neure buruari: "Lolita, inbidia behar du izan honek". Ez dut gogoan lehenago sentsazio hori bizi izana. Buelta gehiago eman gabe, zutitu, bere bila joan, eta esan nion: "Zurekin hitz egin behar dut, zeren eta aztertu egin baitut zurekiko bizi dudana, eta uste dut inbidia dizudala. Inbidia zure izaeragatik, hain otzana, hain neurtua, inoiz ez diozu inori aurre ematen, inoiz ez zara asaldatzen, ez dakizu haserrea zer den, ez duzu arazorik sortzen, etab.". Gaur, ziur asko nire ikuspegia desberdina izango litzateke. Kontua da berak zera erantzun zidala: "Begira, aitortu behar dizut nik ere inbidia dizudala, baina, hain zuzen, erabat kontrakoagatik". Nik uste inbidia, beste edozein pasio-mota bezala, sendatu egiten dela zuzenean aitortuz gero, eta ohartzen zara, niri gertatu zitzaidan moduan, zer gutxi dakigun pertsonen barruari buruz. Gaur egun konbentziturik nago norbaitek benetan horrelako arazoak edo egoerak konpondu nahi dituenean (hau adibide bat besterik ez da), bere aurretikoak birkokatzen baditu, maitasun osoz egitea lortu arte, eta bihotza zabalik duela hitz egiten badu, harremanek aurrera egiten dutela. Hori da nire esperientzia. Nik, neska horren aurrean, ez nien nire ideiei uko egin behar izan, baina erabat ikuspegi desberdinarekin bizitzen hasi nintzen. Gertaerak jazo egiten dira, eta jazo egingo dira aurrerantzean ere. Garrantzitsuena, niretzat behintzat, zera da: nola bizi ditugun.

Norberaren eta taldearen garapena benetako helburu duen eskola bizia osatzeko orduan helburu orokorrek (*01 dok.*) duten garrantzia azpimarratu nahi dut berriro ere. Baina esan dut lehen ere badirela helburu jakin batzuk, horretarako berariazko egiturarik gabe (Ikasle Antolamendua kasu), beste testuinguru batzuetan garatu ezingo liratekeenak (*03.08 dok.*).

Hemen geldituko naiz, gai honi dagokionez.

Gure ustez, zer da ebaluatzea?

Ebaluatzea balioestea da, gure Hezkuntza Proiektutik abiatuta esku hartzea, ikasle bakoitzaren heltze-prozesuaren eta curriculumaren eta giza elementu guztien *bilakaera zainduz*, ahal den neurrian.

Ebaluatzeko irizpide batzuk erabiltzen ditugu, gure Hezkuntza Proiektutik abiatuta balio-esteko, esku hartzeko eta bilakaera zaintzeko arau batzuk, alegia. Zeintzuk dira?:

- *Aurrera egiteko balio izatea.*

Ikasleak sailkatzeko edo neurtzeko baino, ikasleek eta irakasleek aurrerapausoak emateko bitarteko izan daitezela.

- *Gizabanakoaren osotasuna aintzat hartzea.*

Garapen-esparru guztiak interesatzen zaizkigu: nortasuna, harreman sozialak, jakintza-arloei loturiko ikaskuntzak eta aurretikoak.

- *Prozesuala izatea.*

Helburua ez da azken emaitzak baloratzea, ikasle bakoitzak egindako ibilbidea baloratzea baizik: nondik abiatzen den, zein aukera dituen, non dagoen...

- *Testuinguru errealairen gainean egitea.*

Bilakaeraren tokian-tokiko zainketa egitea. Horri esker, ebaluazioa jarraitua izango da, eta eguneroko jardunaren gainean egingo da. Testuinguru bakoitzetik aldian-aldian eta sistematikoki pasatzeak pertsona bakoitzaren prozesuaz gero eta kontzientegoa izatea ahalbidetzen die irakasleei zein ikasleei. Sistema honetan ez dugu azterketara jo beharrik ikasle bakoitza nola dabilen jakiteko, nahiz eta adin batzuetan egin ditugun, teknika ikas dezaten. Kasu horretan eta normalean, ez da aski edozein ariketa jartzea: mintegiari dagokio ikuspegia zehaztea, planifikazioa eta sistematizazioa.

- *Irakasleek ikasle bakoitzari buruz esku hartzea.*

Irakasleek gauzatzen duten esku-hartzearen mailaz eta kalitateaz jabetu behar dute, baita ikasleek jarraitzen duten prozesuaz ere. Halaber, gure egitekoa da ikasle bakoitza bere prozesuaz jabetzea.

Baina egin dezagun atzera. Nola egiten dugu ebaluazioa?

Esandakoak laburbildu eta aurrera egingo dut, aurreko adibidearekin jarraituz:

- *Irakaslea*

1. Lan egiten dudan departamentuko behaketa-pisten bidez, ikasle horren bilakaera zaindiko dut testuinguru bakoitzean: nola planifikatzen duen, lan-metodoaren eta nik *lehen mapa* deitzen dudanaren aurrean nola kokatzen den, zein aurrerapauso egin dituen, zein zailtasun dituen eta nola gaindi ditzakeen.
2. Ikasle hori aurreko guztiaz hartzen ari den *kontzientziaren* bilakaera zaintzen saiatuko naiz. Alegia, alderdi hauen aurrean duen kontzientziarena: nola planifikatzen duen eta lan-metodoaren eta maparen aurrean nola kokatzen den. Halaber, bere aurrerapausoek duen kontzientziari erreparatuko diot, gehiago aurreratzen lagunduko baitio; baita zailtasunen kontzientziari ere, nola gainditu ikusteko.
3. Ikasle horrek azaleratzen dituen aurretikoen bilakaera zaintzen saiatuko naiz, beste argibide horien bidez, ikastetxeko helburu orokorren bidez: alegia, nik *mapa handia* esaten diodanaren bidez.
4. Ikasle hori bere aurretikoez eta aurretiko horiek birkokatzeko duen moduaz hartzen ari den *kontzientziaren* bilakaera zaintzen saiatuko naiz.

- *Irakaslea—ikaslea*

1. Ikaslearekin alderatuko ditut honako alderdi hauek: nola ikusten dudana eta zertan oinarritzen naizen uste dudana uste izateko, nola ikusten duen berak bere burua, eta niri buruz, irakasleari buruz, zer bizi duen. Elkarrekin aurrera egiteko modua eta, batez ere, estimua aberasteko modua da.

Bearrezkoa da une horretan kontrastatzea, sintesi fidagarria eta arrazoitua egiteko. Horrez gain, une hori, eguneroko lanean ainarrituta egiten den alderatzearekin batera, beharrezkoa da bi mapa horiek areago barneratu eta geure egiteko: hain zuzen ere, testuinguru bakoitzari dagokion berariazko mapa eta orokorra, biziaren mapa, helburu orokorrei dagokiena.

2. Aurreko prozesua laburbildu, eta sektoreko bilerara eramango dut.

- *Sektoreko bilera. Ikasle horrekin eta ikasle horren taldearekin lan egiten duen irakasle-taldea.*

Bilera hori taldearen tutoreak koordinatzen du, sektorearen diseinuari jarraituz (hirugarren kapituluan ikusiko dugu).

Ondo baderitzozue, galdera txanda zabalduko dugu.

- Galdera pertsonala da: asebetetzen zaitu egindako lanak?
- Ez dakit oso ondo zein izan den nire lana. Gure lana zein izan den esanda, aldiz, kon-tzientegoa naiz horretaz.

"Esan diezazuket merezi izan duela niretzat: sortu ditugun argi-itzalen parte eta lekuko izan gara, eta horiez gozatzen ikasi dut. Ohartzen naiz zer-nolako pribilegioa izan dudana, belaunaldi gazteenekin eta zalantzan jarri ezineko laguntasuna eta giza kalitatea duten kideekin erlazionatu eta haietatik arnastu ahal izateagatik. Profesionalki, uste dut gerta zekidakeen hoberena eta ezagutzen dudana hoberena dela. Eskolak biziak bete nau. Baina nire ustez hobea den zerbait aurkituko banu, ez izan zalantzarik, utzi egingo nuke orain daukaguna.

"Asebate hitza, ordea, ez dut inoiz erabiltzen, ez datorrelako bat nirekin, ez zaidalako gustatzen. Agian nik ematen diodan adieragatik izango da, izan ere goia jostzearekin lotzen dut, aukera berriak ixtearekin, geratzearekin, erosokeriarekin; azken batean, hiltzearekin.

- Laburbil dezakezu lehenengo maparen (alegia, lan-metodoaren) eta bigarren mapa orokorragoaren arteko aldea?
- *Lan-metodoa ikasleek pixkanaka-pixkanaka jarduera bat egiteko eta metodoarekin lan egiten ikasteko erabiltzen duten gida da. Ikasle batengana gerturatzen den irakasleari baliagarri zaio ikaslea lanaren aurrean nola kokatzen den, batez ere nola antolatzen den eta zer-nolako estrategiak erabiltzen dituen ikusteko. Metodoa da: zer egiten dudana?*

"Berariazko mapa (lehenengo mapa deitu diozu zuk, eta ez deritzot gaizki) ikasleek ziklo horrek irauten duen artean testuinguru horretan, jarduerak eginez, ikasi behar

dutena da. Irakasleek ikasleei begira duten hurbileko plana da eta, horregatik, beharrezkoa da –edo behintzat komenigarria– ahal den neurrian ikasleek ezagutzea. Bai irakasleek bai ikasleek ezagutzeak prozesuen alde egiten du. Bilakaera zaintzeko argibide horiek, mapa horrek, *zer ikasten dudan* adierazten du?

"Zuk bigarren mapa deitu diozuna, berriz, irakasleek behaketa eta esku hartzea egiteko erabiltzen dituzten argibide orokorrek osatzen dute. Epe luzera lortzen diren ikaskuntzak dira. Helburuak. Ezin dira garatu ziklo batean, edo eskola-etapa batean, bizitza osoan baizik. Orokorrak dira, bizitzako edozein alorretan erabil daitezkeelako. Irakasle batek norberaren garapenerako proiektutzat hartzen baditu eta egunegun barneratzen saiatzen bada, orduan izango da gai horiek bere esku-hartzean eta bilakaeraren zainketan proiektatzeko. Bigarren mapa honek *nola jokatzeko dudan, nola bizi naizen* erakusten digu.

- Zein irizpide erabiltzen dituzue mailaz igotzeko?
- Kontuan izaten dugu horri dagokion araudi ofiziala.

"Ebaluazioan erabiltzen ditugun irizpide berberetara baliatzen gara, mailaz igotzea eta ebaluazioa oso-oso loturik baitaude. Kontua ez da saritzea edo zigortzea, baizik eta ikasleak ziklo horretan jarraitzea edo hurrengo ziklora igarotzea, han, benetan, areago egin dezaketelako aurrera.

"Horrez gain, kontuan hartzen dugu zikloko testuinguruak une horretan ikasleak dituen beharretara hobeki egokitzea. Adibidez, ikasleak testuinguru manipulatio gehiago behar baditu eta horretarako ziklo batek besteak baino aukera handiagoa ematen badio, hori kontuan hartzen da.

- Normalizazio-printzipioa azalduko duzu?
- Bai. Ekin diezaiogun.

Normalizazio-printzipioa (01-7 dok.)

Testuingurua, departamentua eta eskola-esparru guztiak ezagutzera garamatzen printzipioa eta ikuspegia da normalizazioa, beti ere esparru horietan kokatzen jakiteko eta egoera kontrolatzeko. Ikasleei eta irakasleei zuzentzen zaie printzipio hori.

- *Normalizazioa esaten diogu, halaber, gauzak, burua, afektuak eta bizitza ordenatzeari.*

Nire ustez, gure afektuetan, gure buruan, gauzetan eta bizitzan ordena izateak sosegatu egiten gaitu, zabaldu egiten du autoezagutza, askatu egiten gaitu, eta iraganaz pentsatzeko, oraina bizitzeko eta etorkizunaz gogoeta egiteko perspektiba ematen digu. Baina ordenaren estiloa eta beharra oso pertsonala da.

- *Printzipio hau ageriko errealitatearen barruan kokatzen dugu.*

Ordenan, martxan jarri behar da ikastetxe osoa.

- *Printzipio hau etengabe aplikatzen dugu.*

Urte osoko lana da, baina une batzuetan ahalegin berezia egin behar da: ikasturte hasieran, sektorez aldatzerakoan, ikasle-antolamenduan, irakasleen ordezkapenetan...

Pertsona guztiok normalizazio-prozesua behar dugu, ordena jartzeko eta geure burua ordenatzeko prozesua; geure burua kokatzeko eta egoera menderatzeko prozesua, egoerak mendera ez gaitzan. Baina ikasturte hasiera da normalizazio-etapa nagusia.

- *Etapa horrek eskola-elkartea eta, batez ere, irakasle-taldea inplikatzeko du, bakoitzak betetzen duen egitekotik abiatuta. Izan ere, irakasle-taldea da eskola-curriculumaren azken erantzulea.*

Irakasleentzat, normalizazio-etapa hori, ikasturte bakoitzean eskolara iristen garen unean bertan hasten da. Areagotu egiten da ikastetxean ikaslerik gabe gauden egun horietan. Irakasleak antolatu egin behar dira, adskripzioaren bidez. Egiturak martxan jarri behar dira. Ordenan eta martxan jarri behar dira idazkaritza, eskola-jantokiak, autobusak, kirol-jarduerak. Ikasleen taldekatzeak berraztertu behar dira. Ikasleen etorrera eta harrera planifikatu behar dira, baita familiekin izan beharreko lehen elkarrizketak ere.

Irakasle bakoitzak, lehenik eta behin, bere aurretikoak prestatu behar ditu; nahi izate hori. Kontzientzia hartu, eta lehenengo fasea prest jarri behar du: espazioa, denbora,

taldekatzeak, baliabideak. Dena behar bezala dagoen eta ea lan-metodoak berritu egin behar diren (hondatu egin direlako) ikusi behar du. Kokatzea da: ni departamentuan, ni testuinguru bakoitzean.

Bigarren fasearen gaineko ideiak ordenatu egin behar ditu. Edukiak, helburuak eta muinak ezagutu behar ditu, eta eskura izan behar ditu testuinguru bakoitzean bilakera zaintzeko argibideak. Banaka edo paralelo esaten diogun mintegiaren sektore horrekin egiten da ibilbide hori. Departamentu berean baina beste ikasle batzuekin lan egiten duten irakasleek osatzen dute paraleloa.

Hirugarren fasea ere ordenatu behar dute irakasleek: ikasle bakoitzaren historiala ezagutu behar dute, harrera afektibo hori eratzeko eta esku-hartzea bideratzeko. Mentalizatu eta egunean-egunean hezkuntza-proiektua eta helburu orokorrak gehiago ezagutu eta barneratu behar ditu; hala, aurretikoak birkokatu ahal izango ditu, ikuskeratik abiatuta esku hartu ahal izateko.

- *Departamentuko karpeta oinarrizko elementua da, eta oso baliagarria irakasleek hori guztia lor dezaten. Ikuskerari eta funtzionamenduari dagozkien dokumentu giltzarriak biltzen dira bertan.*

Dokumentu horiek baliagarri izan daitezke martxan jartzeko, sakontzeko eta sintesi-ikuspegia izateko.

- *Irakasleek curriculumaren elementu giltzarriez hartu duten kontzientziaren ikuspegitik, apurka-apurka ikasleek ere elementu horien eta ikaskuntzen aurretikoez kontzientzia har dezaten esku hartzea da normalizatzea.*

Funtsezkoa da ikasleek hau senti dezaten: diren moduan onartzen ditugula. Une horretatik aurrera, normalizazioaren oinarrizko aldia hasten da, eta iraila ia-ia horretan bakarrik ematen dugu. Goizez lan egiten dugu. Behin betiko ordutegia prestatzen ari-tzen gara. Batzuetan, oraindik ere ikastetxeari esleitu ez zaion irakasleren bat falta izaten da. Dena ez dago erabat antolaturik. Gerta daiteke, esaterako, printzipio hori nahikoa barneraturik ez duen irakasle bat ausaz hartutako liburu batetik diktatzen hastea edo ikasleei hainbat problema ebazteko proposatzea, etab., zein maila duten ikusteko. Hainbestetan azpimarratu digute ikasleen abiapuntua zein den jakin behar dela! Ausaz hartutako liburu batetik egindako diktaketak enigma hori argitu ahal izango baligu bezala! Horrez gain, nik, irakasle naizen honek, eskola magistraletan azalpenak ematen aitzeko tentazioa izan dezaket, ikasleek lasterrago egin dezaten aurrera edo ikasleen akatsak saihesteko. Hori egia izango balitz, oraindik ere eskola magistra-

la izango litzateke gure oinarrizko elementua, eta ez genuke norberaren erritmoa errespetatuko. Hori ez da normalizatzea. Nire ustez, beste ikuskera edo behar pertsonal batzuen kutsuak dira. Nik onartzen dut, behin baino gehiagotan, niretzat baliozkoagoa zen programaren aurrean anarkia piztu izan zaidala. Gogoan dut behin eskola oso bat erriman eman nuela, errima landu beharrik izan gabe, ikasle guztiak esku hartzera bultzatuz. Eskola dibertigarria izan zen, eta bere ekarpena egin zuen, baina onartzen dut nire ahultasun-momentu baten ondorio izan zela. Hori ezin da luzatu, bestela ikasleengan ondorio kaltegarriak izango lituzke eta.

Normalizatzea pixkanaka-pixkanaka testuinguru bakoitza eta testuinguru bakoitzak bere baitan duena ezagutzea da, egoera menderatu ahal izateko. Normalizazio-aldi hori testuinguruz kanpokoak diren beste jardura batzuk egiten ematen badut, desnormalizatzea baino ez dut lortzen. Ikasleek nondik datozen eta nora doazen ez jakitea eragiten dut horrela.

Mintegietan lan egiten badugu, badakigu ziklo bateko programa erabat koordinaturik dagoela aurrekoarekin eta, beraz, testuinguru bakoitza lehenbailehen sartzeko da ikasle bakoitzak zer dakien jakiteko eta ikasleek euren egoera normalizatzeko modua: alegia, departamentuko testuinguru bakoitzeko lan-metodoa, baliabideak eta horien erabilera eta zertarakoa ezagutzeko modua.

Zenbat eta lehenago hasi testuinguruetan lan egiten, hainbat eta lehenago menderatuko dute egoera eta hainbat eta lehenago jakingo dute horietan moldatzen. Azken batean, horri esaten diogu normalizazioa. Bestela esanda, irakasleen zein ikasleen burua, baliabideak zein jarrera ordenatu izana da normalizazioa.

- Zure baimenarekin, galdera korapilatsu bat egingo dizut. Baduzue eskola-porrotik?
- Ez zait korapilatsua iruditzen. Guztiz kontrakoa. Oso interesgarria gogoetaren bat egiteko.

"Lehenik eta behin, norena izan daiteke eskola-porrotak?:"

- Hezkuntza Sistema Orokorrena izan daiteke.
- Erabilitako metodologiarena izan daiteke.
- Irakasleena izan daiteke.
- Ikasleena izan daiteke.

"Ziur esan dezakeguna zera da: ikasleek jasaten dute.

"Eskola-porrota loturik dago bizitza eta hezkuntza linealtzat hartzen dituen ikuskerarekin. Bide eta helburu bakarrekotzat dituen ikuskerarekin.

"Ikuskera hori da porrotaren jatorria, ez ikasleak.

"Ez da mundu gehiago ikusten Everesteko tontorrera igota edo igoarazita. Bide bat eta helburu bat besterik ez da. Agian mundu gehiago ikusiko da haranetan ibiliz eta ibiliz. Hori beste bide bat eta beste helburu bat da.

"Besteak beste indibidualizazio-printzipioan oinarritzen den sistema metodologiko batean, ikasle bakoitza pertsona izaten saiatzea eta bere bidea bere denboran egitea nahi dugu. Hori lortzea da ikastetxe baten helburua. Akatsak egin ditugu, nahi baino gehiago egin ere, baina metodologia hori garatzea, egunez egun egituretan irakasleen prestakuntza hobea bilatzea eta ildo horren barruko esku-hartzea garatzea ez dator bat eskola-porrotarekin, hala uste dut.

"Duela urte batzuk, kanpo-ebaluazioa egin ziezaguten nahi izan genuen. Benetan nahi genuen, ongi egindako ebaluazioak beti aurrerabidean jartzen gaitu eta. Garai hartan, ez genuen proiektu globalen ebaluatzailek aurkitu. Bai, ordea, probak egiten zituzten pertsonak. Azkenean, UNESCOko talde bat prest agertu zen: hainbat pertsona, hainbat hilabetetan, irakasleen inplikazio handiarekin. Hezkuntza Sailari ez zitzaion bideragarri iruditu une hartan. Aurrerago, Ikuskaritzaren bidez, kontraste-proba batzuk egin zizkiguten, eta ikasleek eguneroko lanean baino askoz hobeto erantzun zuten. Baina benetako frogak lehen promozioak OHOTik Irakaskuntza Ertainetara pasatzea izan zen. Ikasleek ez zuten arazorik izan. Familiek euren esker ona adierazi ziguten. Aldian-aldian Institutuko Zuzendaritzak bidaltzen zigun informazioa oso ona zen. Hori guztia ikastetxearen ildoaren eta lortutako ikasketa-mailen frogak izan ziren, beste frogak bat.

– Amara Berri Kalitatezko Ikastetxetzat hartzen da?

– Bai eta ez.

"Tira, uste dut ulertu dizudala.

"Kalitatezko ikastetxea dela pentsatzen duzulako zaude zu hemen, bestela ez zinazteke egongo eta.

"Urte askoan, erregistro-liburuan jasorik dagoen bezala, urtean batez beste seiehun pertsonak bisitatu dute Amara Berri, kalitatezko ikastetxea dela pentsatzen dutelako.

"Amara Berri hasieran lerro bakarra zuen (hau da, maila bakoitzeko ikasgela bat) eta orain, berriz, sei, familiek kalitatezko ikastetxetzat dutelako.

"Euskadin ofizialki sistema hau gauzatzen duten hogeit hamar ikastetxe daude, beste hainbatek modu ez hain ofizialean gauzatzen dute, eta beste leku askotako hainbat ikastetxetan ere ezartzen da. Hori guztia ere kalitate-adierazle da, eta kalitate-adierazle dira, halaber, hemen azaldu ditugunak ere, hogeita hamar urteko historia duen lanaren emaitza direnak. Hori guztia ikastetxea ebaluatzeko modu bat da.

"Horrek guztiak eta askoz gehiagok abalatzten du. Orain zuen esku dago epaitzea, baina nik ez dut zalantzarik: kalitatezko proiektu eta ikastetxea da.

"Baina kalitatezko ikastetxe izatea Label bat, ziurtagiri bat, akreditazio bat jasotzea dela pentsatzen badugu, orduan ezetz esango dizuet; ez dugu nahi izan, ez dugu behar izan, eta ez dugu eskatu ere egin.

"Behin tranpa batean erori ginen. Azalduko dizuet zergatik diodan hori. Irakasle-taldean benetan gutxiengoaren nahia zen, baina gainerako irakasleak ere ez zeuden bereziki kontra, eta, horregatik, eskola-mota jakin bateko kide izatea eskatu zen (ez dut izenik emango).

"Ikastetxearen alderdi jakin bati buruzko txosten labur bat egin genuen, gure eguneroko jardunari denborarik ez kentzeko eta, berehala, diploma bat eman ziguten akreditazio gisa. Une hartatik aurrera, eskola-mota hartako kide ginen. Aldi batez, gainera, ikastetxeko ezaugarrien artean idatziz jaso genuen talde hartako kide gine-la. Egia esateko, uste dut txosten harekin oso ekarpen txikia egin ahal izan genielako beste ikastetxeei, eta inoiz ez genuen bestelako ekarpenik bidali. Gure hirian antolatzen zen topaketa baten azpiegituran lagundu baino ez genuen egin. Eskolak, berriz, aldizkari batzuk eta hainbat esperientziaren deskribapena jaso zituen eta, batez, ere, gurea izatera pasatu zen akreditazio-diploma hura. Adibide horrek garbi erakutsi zigun edukitzea eta izatea ez dela gauza bera, eta, hala, gure lotsa ekiditeko, geneukan hori ezabatu egin genuen ikastetxearen ezaugarritatik.

"Esan dizuedan bezala, ez dugu beharrik sentitu Amara Berri akreditazioa izan dezan. Horrekin ez dut esan nahi akreditazioaren kontra nagoenik. Ezagutzen ditut eta zuek ere ezagutuko dituzue ahalegin handia egin duten ikastetxeak, eta ahalegin horrek bereziki euren antolamendu orokorra, egitura eta zuzendaritza-taldeak hobetzeko balio izan die.

"Ardura pertsonalak dituen baina planteamendu komunik, talde-lanik eta egitura operatibo definiturik ez duen ikastetxe batean egongo banintz, ziur asko, horretan saiatuko nintzateke ni ere; izan ere, pentsatzen dut gure sentsibilitatea areagotu ahal izango lukeela eta praktika hobetu ahal izango luketen kalitate-adierazleak aurkitzen lagunduko ligukeela. Uste dut horrelako edo bestelako egoeratan agian zoragarria irudituko litzaidakeela akreditazio horietakoren bat bilatzea, horrek ikastetxearen izaera benetan aldatu eta aberastuko lukeelako. Baina bestelako eragin-garri batzuk ere izan daitezke: marketing-a, lehiakortasuna, segidismo instituzionala, kanpo-onarpena behar duen autoestimu baxua, etab.

"Nolanahi ere, nik zalantzan jartzen dudana ez da akreditazioa izatea edo ez izatea. Balio-eskalak arduratzen nau. *Zergatik eta zertarako daukan edo eduki nahi duen jartzen dut zalantzan. Zalantzan jartzen dut ea mugitu egiten garen, hau da, ea mugimendu horiek gure ibilbidearen ondorio den barne-behar batek eragiten dituen edo mugitu egiten gaituzten. Eta, batez ere, nire buruari galdetzen diot ea pertsonak eta instituzioak gauza berari buruz ari garen kalitateaz hitz egiten dugunean.*

- Nola bizi du Amara Berri Ikerketa- edo Berrikuntza-ikastetxe izatea?
- Oso ondo.

"Oso ondo, nire ikuspegitik, bi arrazoi tarteko. Batetik, horrek ikastetxe askotan izan dituen ondorioengatik, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritza gai izan zelako eta gai delako oinarritik sortutako garapen eta eskaera bildu, bideratu eta irtenbidea emateko.

"Amara Berrin, sistema hori abiatu zenetik, beti izan ditugu atea zabalik esku artean genuena ezagutzeko edo esperimentatzeko interesa izan duten ikastetxe zein profesionalentzat. Garai hartan, prestakuntza-plan instituzionalizatu gutxiago zegoen, eta arduratuta geunden ikastetxe guztiok ahal genuena egiten saiatzen ginen, ahal genuen moduan. Amara Berrin, hilabeteen egun bat edo hainbat egun ematen genituen jasotako eskaerei erantzuten eta, irakasleok, eskolak amaitzean, hainbat ordu ematen genituen laguntza horretan. Zalantzarik gabe, ahalegina eskatzen zuen, baina ez zuten ahalegin txikiagoa egiten etortzen ziren pertsonak

ere. Egia esateko, ordea, suspertzeko eta eztabaidatzeko foro garrantzitsu gisa bizi genuen. Ikasgelak ere zabaltzen genituen, baina ez genuen horretarako azpiegiturarik eta ahal genuena egiten genuen. Gero eta eskaera gehiago iristen zitzaizkion gure ikastetxeari beste ikastetxe batzuetatik, beren ikasleak ildo honi jarraituz antolatzen lagun geniezaien.

"Pixkanaka-pixkanaka, prestakuntza-planak gero eta gehiago instituzionalizatu ziren, eta Hezkuntza Sailak ikastetxeei laguntza emateko ahalegin handia egin zuen. Baziren eta badira Pedagogi Aholkutegiak (PAT) gaur egun Berritzeguneak izenekoak, eta egiteko garrantzitsua betetzen dute esparru horretan, prestakuntza-plan ofizialak bideratuz: gai jakinei buruzko ikastaroak antolatzen dituzte, hainbat txostengile ekartzen dituzte, ikastetxeoi gure eskaeratan laguntzen digute, etab.

"Une batean, Saila ohartu zen beste eskaera garrantzitsu bat ere bazuela: ordura arte ikastetxe gehienek izan zituzten planteamendu partzialak edo teorikoegiak gäinditu nahi zituzten ikastetxeen eskutik zetorren. Proiektu global batean sartu nahi zuten, teoria eta praktika uztartuko zituena, Amara Berrin ikusi bezala. Gure aholkularitza eskatzen zuten.

"Hezkuntza Saila gai izan zen oinarritik sortutako eskaera hori jaso, bideratu eta bere egiteko. Nik oso ondo bizi izan nuen, zeren azken batean Saila hiritarren zerbitzura dagoen kudeatzailea da, eta zerbitzu hori antolatzen jakin zuen. Hortik sortu ziren ezaugarri jakin batzuetako ikastetxeentzako Ikertze eta Saiatze bidezko Ikastetxeak.

- Zer iruditzen zaizu prestakuntza instituzionalizaturik egotea?
- Abantailak eta arriskuak ditu.

"Sailak ikastetxeen esku eskaintzak eta baliabide gehiago jartzea eta bakoitzak, bere ibilbidearen arabera, erabili nahi dituen edo ez modu askean aukeratzea, oso baliotsua da nire ustez.

"Are baliotsuago da, gainera, eskaintza edo bideratzeko modua bera plurala bada, eta ikastetxe bakoitzaren benetako beharrak eta behar indibidualak ulertzeko eta jasotzeko gai den sentzibilitatetik sortzen bada.

"Hori guztia bikaina da, instituzionalizazioa ez bada sortzen boterea erabiltzeko edo marketing- edo moda-erakusleiho gisa (hori ere gertatzen baita), kanpaina horiek guztiek ikastetxeak banatu egiten dituzte eta. Bikaina da eskolentzako benetako zerbitzu gisa sortzen badira eta bakoitzak, esparru baten barruan, bere ibilbidea egin dezan nahi bada.

"Arriskuak ere baditu, ordea: batetik, ikastetxeok uste izatea prestakuntza-plana Administrazioari dagokiola eta eman egin behar didatela, eta nik eskaintzen didatenaren artean aukeratu behar dudala, beste alternatiba posible batzuk isilaraziz. Bestetik, ikastetxeok gai guztietatik pixka bat hartzearen eta urtero-urtero kanpaina guztietan sartu nahi izatearen arriskua dago. Nik beldur handia diot horri. Ikastetxe batzuk berrikuntzaren aitzindari direla uste dute, dauden ia proiektu guztietan (partzialak denak ere) parte hartu dutelako; baina agian bizkarrezurra falta zaie.

"Laburbilduz: nire ustez, baloratu eta aprobetxatu egin behar dira proposamen instituzional horiek, baliabide publikoen eskaintza direlako. Planak alda daitezke, eskaintzen dituen bera aldatu egiten delako, baina ikastetxeek aurrera jarraitzen dute, eta ez dute independentzia galdu behar.

- Atentzioa ematen dit gehienok erabiltzen dugunaz bestelako hizkera bat, zeuen-zeuena, sortu duzuela ikusteak.
- Izan daiteke, baina ez gara horren bila joan. Sortzen diren hitzak jaso baino ez dugu egiten, betiere nahi duguna adierazten badute. Esamolde horiek hobetu daitezke. Adibidez, *berariazko mapaz* eta *mapa orokorraz* hitz egin dizuet. Baina ez dakit, bada, benetan konbentzitzen nauten esamolde horiek. Zuk zeuk galdera egin duzunean *lehenengo mapa* eta *bigarren mapa* deitu diezu. Eta zergatik ez?

"Zalantzarik gabe, hitz edo esamolde batzuk besteak baino egokiagoak dira errealtate bat adierazteko, baina horrek ez nau asko arduratzen. Garrantzitsuena sortu den hitza jasotzea da, nolabait, nahi dugunarekin bat baldin badator, eta, esamolde egokiagoren bat sortzen bada, orduan aldatu egiten da.

"Hori esanda, gertatzerik nahi ez nukeen hizkuntza-aldaketa mota bat etorri zait gogora. Benetako gertaera baten bidez azaldu nahi nuke. Behin gure sistemarekin lehen urratsak egiten ari zen eta curriculumaren parte bat garatzen ari ziren ikastetxe batera joan ginen. Gai hori ez dator harira, baina eurek egindako idatzi bat erakutsi ziguten. Naturaltasun handia eta batere ohikoa ez zen ikuspegia zuen.

Ezusteko atsegina izan zen. Handik denbora batera, berriro bildu ginen, eta nik idatzi hura aipatu nuen. Gogo biziz esan zidaten: "Hobetu egin dugu". Irakurri nuen, eta zur eta lur geratu nintzen. Esan zidatenez, teknikoago egin nahi izan zuten, hizkera perfektuagoarekin; hala, 1990eko Orientabide Pedagogikoetara jo zuten, eta idatziaren hitzak, estiloa eta forma aldatu zituzten. Freskotasuna galdu zuen, arrastoa galdu zuen. Idatzi hura edonorena izan zitekeen. Gaur egun mundu erdiak erabiltzen, mundu erdiak kopiatzen eta gaurkotasunaren bandera gisa (nahiz eta erabiltzen dituztenen ideia eta jarduna erabat kontrakoa izan) erabiltzen dituen hitz usatu horiek zerabiltzaten.

"Gogoan dut gertaera hartaz hausnartu genuela. Irakasle batzuek jarduteko trebetasuna eta praktika bikaina dute. Hori guztia jakinduriatik eta oinak lurrean izateatik sortzen da, baita behatu, kontrastatu eta ikasi ahal izateko ikasleak egunez egun aurrez aurre izatetik ere. Eta, hala ere, gutxietsi egiten dute euren burua, pentsatuz beste pertsona batzuek egin dutelako edo liburu batean dagoelako kalitate hobekoa dela eta errespetu handiagoa merezi duela. Mingarria gertatzen zait hori.

"Hori pentsatzea akats bat da. Teorizatzen duenak bere egitekoa du. Halaber, asko dira besteek egin edo idatzi dutenari buruz idazten dutenak; horiek ere beren egitekoa dute. Eta ezagutzen ditut Amara Berrira laguntza eske etorri diren pertsonak, duintasun osoz aitortuz unibertsitatean daudela, espezialitate jakin bateko irakasleak prestatzen, eta praktikan ez dutela ikerketaren subjektu denaz ezertxo ere ezagutzen. Miretsi egin nituen pertsona horiek. Ez da erraza hori gertatzea. Beren jarrera aberasgarria iruditu zitzaidan, baina zenbatak egingo ote dute hori. Euren titulua dute, eta horrekin aski dute irakasteko, idazteko. Eta uste duzue pertsona horiek ziurtasun eza eragin dezaketela gudan?

"Nork dauka praktikaz praktikan bertan dihardugunok baino gehiago jakiteko aukera?"

"Inork ez digu aldarazi behar aipatutako bezalako idatzirik: koherentziaz beteriko idatzia, indarrez eta arrastoz beterikoa.

A stylized graphic in a lighter shade of red, depicting a hand holding a pen. The hand is positioned on the left, with the pen pointing towards the right. The graphic is composed of several overlapping, semi-transparent shapes that create a sense of depth and movement.

Antolamendu- eta prestakuntza-egitura

Antolamendu-egiturak eskolaren bizitza osoa biltzen du edo bildu behar du bere baitan.

Curriculumaz aritzean, zuzenean ikasleei dagokien antolamendu-egitura aurkeztu dut, testuinguru sozialak, egonkorak eta osagarriak bereiziz: departamentuak eta haien testuinguruak (*Mediateka, Irratia, Prentsa, Telebista, Erakusketak, Ikuskizunak, Ikasle Antolamendua...*). Horiexek dira oinarritzko egiturak. Ikasleek zuzenean parte hartzen dute horietan, eta, era berean, egitura horiek eskatzen eta zehazten dituzte ikastetxeko gainerrako egiturak: irakasleei, familiei eta atezaintzako langileei dagozkienak, kirol-jardueretakoak, jantokietakoak ...

Ez da nire asmoa denak garatzea. Irakasleei dagozkien batzuei helduko diet batez ere, ikastetxeko zuzendari pedagogikoa naizen aldetik, zuzenean dinamizatzea eta koordinatzea egokitu zaizkidanei.

Zein dira egitura horiek?

- Sektorea.
- Zikloa.
- Zikloen koordinazioa.
- Mintegia.
- Mintegien koordinazioa.
- Egitura pedagogikoa.
- Hezkuntza behar berezien Arreta Bereziko Zerbitzua (ABZ).
- IAZ (Ikastetxeen Aholkularitza Zerbitzua).

Egitura horiei heldu nahi nieke nolabait, baina, aurretik, ikus dezagun nola ulertzen dugun antolamendu-egitura hori.

ANTOLAMENDU EGITURA. DEFINIZIOA

Antolamendu-egitura esku hartzeko estrategia giltzarria eta prestakuntza-esparrua da.

Kontzeptu horien gainean hausnartzea eta hainbat egituraren diseinua aurkeztea izango da saio honen edo hirugarren kapitulu honen helburua.

Gaiari heldu aurretik, argitu nahi dut egituraren definizioa, batetik, ikastetxe osoko egiturari aplikatzen diogula, eta bestetik, egitura txikiagoei, alegia, ikasle, irakasle, familia eta jantokiei dagozkienei. Era berean, egitura horiek egitura txikiagoak dituzte: sektorea, zikloak eta mintegiak. Halaber, horiek ere egitura dira, barruan beste parte batzuk antolaturik eta ordenaturik dituztelako. Adibidez, mintegi batek paraleloka, zikloka, eraikinak banaka hartuta edo eraikinen artean, etapaka edo etapen artean, etab. lan egin dezake. Beraz, berriro diot: eman dudan definizioa egitura orokorrari eta egitura txikiagoei aplikatzen diegu.

Horrekin batera, argitu nahi dut esku hartzeko giltzarria eta prestakuntza-esparrua izatea errealitate bera aztertzeko bi ikuspegi direla.

190

ESKU HARTZEKO ESTRATEGIA GILTZARRIA ETA PRESTAKUNTZA-ESPARRUA


Irakasleen antolamendu-egitura ere, hezkuntza-asmotik abiatzen da. Egiturretan esku hartuta, ikasleen beharrei erantzun nahi zaie, baita irakasleen garapen pertsonala eta taldearen garapena bultzatu ere.

Esan dut ez ditudala aurkeztuko organigramak. Ez dakit grafikoki denak eguneraturik dauden. Ez ditut aurkeztuko, ikastetxearen ezaugarriak direla-eta oso konplexuak direlako, eta batzuetan gure organigramak beldurtzeko modukoak direlako. Gainera, beti ez dira berdinak izan. Aldatu egin dira, ikasle- eta irakasle-kopuruari, eraikin-kopuruari eta eraikinen egoerari eta ikastetxearen beste hainbat ezaugarriari egokituz. Izan ere, lerro bakarreko ikastetxeak eta, gurea bezala, sei lerrokoa den ikastetxeak ez dute antolamendu-egitura bera behar. Era berean, ez du egitura bera behar eraikin bakarreko ikastetxeak edo, kasu honetan bezala, hiriko hainbat auzotan bost eraikin dituen ikastetxeak.

Antolamendua soilagoa edo konplexuagoa izateak ez du esan nahi bata bestea baino hobea denik. Ez du ezer adierazten. Hau da benetan garrantzitsua: egitura, edozein delarik ere, ikastetxearen benetako beharrekin bat etortzea.

Antolamendu-eta prestakuntza-egitura

Organigramak aurkeztuko ez baditut ere, ikastetxe guztientzako orokortu daitezkeen egitura guztien oinarritzko eskema egiten saiatuko naiz.



Eskema hau aurrean dudala, berriro azpimarratuko dut. Gure jardunaren gunean ikasleak eta haien egiturak daude: **departamentuak eta haien testuinguruak, testuinguru komunak** (Irratia, Prentsa, Telebista, Mediateka...) eta **Ikasle Antolamendua**. Horietan, irakasleek ere betetzen dute euren egitekoa, zuzenean edo zeharka. Esku hartzeko, erabakiak hartzeko eta prestatzeko esparruak dira. Egitura horiek gure hezkuntza-asmoaren emaitza dira, eta eurak jartzen ditugu gure jardunaren gunean; eta mugatu egiten dituzte eskeman agertzen diren gainerako egiturak, mugatu eta beren zerbitzura jarri: **Sektorea** (ikasleen bilakaera zaintzeko), **Zikloa** (funtzionamenduaren koordinazio horizontala), **Mintegia** (irakasgaien koordinazio bertikala) eta **Pedagogikoa** (gai orokorren koordinazioa). Lau egitura horiek ez dira ikerketa bat edo ekintza zehatz bat egiteko sortutako batzordeak. Ez dira informatzeko egiturak, ezta ordezkartza-egiturak edo parte-hartze maila jakin bat duten egiturak ere. Irakasle guztiek, beren egitekoaren esparruetatik abiatu, sistematikoki garatzen dituzten egiturak dira, eta inor ez da kanpoan geratzen, inor ez da baztertzen.

Irakasle guztiak lau egitura horietako kide dira. Egiturretan aztertzen eta hobetzen da praktika, eta elkarrekintzarako eta aldaketarako esparru dira. Proiektu baten ildotik erabakiak taldean hartzeko benetako esparruak dira.

Nahiz eta ikastetxe batek irakasleen oinarritzko egiturak ezarri gabe eduki, egitura horiek eskaintzen dituzten garapenak gauzatu egin behar dira nola edo hala. Beti egin behar da ikasleen bilakaeraren zainketa, irakasgaien segida ezarri, etab.

Beste egitura batzuk, beste zerbitzu batzuk (aurrerago jardungo dugu horretaz), ikastetxearen ezaugarri jakin batzuen arabera dira. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak baldin badaude, horiei arreta eskaintzeko egitura, zerbitzua, beharko da.

Aipatu berri ditudan egitura horiek, irakasleen egituren antzera,

- **testuinguru sozialak, egonkorak eta osagarriak** dira.

- *Testuinguruak:*

Bilerak, bakoitza bere taldekatze-moduarekin, bere bilguneekin, bere denbora-antolamenduarekin, bere diseinuarekin edo lan-metodoarekin, bere baliabideekin, etab.

- *Sozialak:*

Elkarrekintza sozialean gauzatzen dira. Irakasle bakoitza hainbat egituratako kide da. Hainbat talderekin erlazionatzen da, ikasleekin gertatzen den moduan.

- *Egonkorrak:*

Iraunkorrek dira, baina egitura bakoitzak bere maiztasunarekin egiten ditu bilerak.

- *Osagarriak:*

curriculumaren barruan askotariko funtzioak betetzen dituztelako, guzti-guztiak osotasunerako beharrezkoak: curriculumaren koordinazio horizontala, koordinazio bertikala, ikuspegi orokorrak, ikasleen bilakaeraren zainketa, hezkuntza-premia bereziak, etab.

Lanaren gunea zeregina da. Egiturretan egiten den lana praktikatik abiatzen da, taldeko kideek betetzen duten egitekotik. Helburua da berriro ere praktikan eragitea, testuinguruetan, hortik sortu baita egituraren beharra.

Egitura horiek, arestian esan bezala, elkarren osagarri dira, helburu beraren barruan egiteko desberdinak betetzen dituzte-eta.

Egitura argia behar dute. Diseinua egin beharreko bidea da, oroz gain. Nork egin behar duen, noiz, zein den helburua eta bidaia horretan zein bitartekok lagun dezaketen zehazten du.

Garapena eta edukia.

Baliozko diseinu bat egitea ez da batere erraza. Zergatik? Bada, egitura, adibidez, irakasgai bat koordinatu beharrak sortzen duelako; baina behar hori ikustean, baliteke departamentuak lehen fasearekin bakarrik lan egiten aritzea, ez beste ezertan. Mintegia oinarritzko diseinuarekin hasten da lehen urratsak egiten, eta bide horretan aurrera egin ahala, bide luzeagoa ikusten da, perspektiba handiagoa hartzen da, beste fase bat ikusten da. Horregatik, diseinuak, beti, departamentu guztiek uzten duten erritmoan aldatzen dira, baina betiere bidea aurreraxeago irekiz, batzuen erritmoak besteak bultzatzen ditu-eta. Eta curriculumaren garapena urte askotako lana denez, une bakoitzerako egokia izango den diseinua erdies-teak aldaketa asko egitea eskatzen du, eta uste dut ez dela inoiz bukatutzat emango.

Batzuetan diseinua goitik egiteko tentazioa eduki daiteke, piramide-egitura izango balu bezala, baina horrek ez du ezertarako balio. Orri gaineko hitz hutsak baino ez lirateke izango, eta espiritua hutsaldurik izango luke.

Hori diot, zeren, gure kasuan, pertsona batek nola zehaztuko du bidea, bidea egiten ari ez bada, bidea egiten ari direnekin batera ibiltzen ez bada? Beste gauza bat da beste pertso-

na batzuen ibilbidearen emaitza den diseinua erabiltzea, gure errealitatera egokitzen bada.

Osagaiak

Diseinuak bidea nork egiten duen esan dezake, nor diren egituretako kide. Eta egiturak nortzuk hartzen dituen barruan, horiek egon behar dute egituran. Ziko horretakoa zara? Egitura horretakoa zara. Kanpoko inork bileretan parte hartzea, ez da komeni maizegi gertatzea, zeren eta funtzionamendua honda baitezake. Hori edozein egituratan gertatzen da.

Nork koordinatzen du?

Beti izan behar da egitura koordinatuko duen norbait. Oso handiak ez diren ikastetxeetan, ikasketa-burutzak koordinatu beharko luke. Beste batzuetan, berriz, ikusiko dugun moduan, aipatutako egituretatik sortutako beste egitura batzuk beharko dituzte, baina beti ikasketa-burutza da prozesu osoa koordinatzen duena. Ez du irakasgai guztiez jakin beharrik; baldin badaki, hobeto, baina haren egitekoa ez da jakitea, irakasleek menderatzen dute-eta irakasgaia. Egin behar duena zera da: diseinua aplikatu eta dagozkion funtzio guztiak bete.

Koordinazioaren egitekoak, oro har

Koordinatzaileen egitekoak zein diren jakitea ere ez da lan erraza izan. Ez da erraza, zeren eta egitura horiek zehazteko, hauek guztiak hartu behar baitira kontuan: egitura osatzen duten pertsonen beharra, edukia eta lortu nahi den garapena, eta, batez ere, zerbitzu horretan diharduenaren jarrerak eta gaitasunak.

Uste dut egiteko horietako asko lehen saioan azaldu nituela, lidergoaz aritzean. Une hone-tan, orain sortzen zaizkidan ideiekin zehazten saiatuko naiz:

- Berdintasunetik abiatuta aritzea, eginkizuna zerbitzutzat hartuta. Esango didazue: hori eginkizuna da edo jarrera da? Jarrera da. Baina jarrera horrekin jokatuta lortzen dena eta beste jarrera batekin jokatuta lortzen dena ez da gauza bera. Zerbitzutzat hartzeak ikastetxearen ikuskera eta kultura jakin bat sortzen du, eta, beraz, eginkizun bihurtzen da.
- Norberaren eta taldearen aurretikoak birkokatu beharra azpimarratzea, lana baloratzeko eta ekarpen guztiak jasotzeko.

- Sortzen diren eskakizun, proposamen eta interpretazioak berregituratzea eta bihurtzea. Kontua ez da "esan da, eta nik jaso egingo dut"; ikuskera bizirik mantendu behar da.
- Erabakiak hartzean irizpideak erabiltzea eta konparatzea, guztien ona kontuan izanik eta betiere ikastetxe-kontzientziarekin.
- Gure eginkizunean dugun erantzukizunagatik, askatasunez exijitzea akordioak bete daitezela. Ez da ahaztu behar askatasunez exijitzea zerbitzua emateko modu bat dela.
- Ikastetxean berriak diren irakasleei laguntzea. Laguntzea, koordinatzaile bakoitzak mintegian, zikloan edo ikastetxearen ikuskera orokorrean hezkuntza-premiei dagokienez betetzen duen eginkizunetik abiatuta.
- Egiturari buruzko dokumentu idatziak bizirik egotea, eta aldaketak jasotzea.
- Bilerak baloratzea, protokolo handirik gabe, egitura bakoitzak erabiltzen dituen karpeta edo baliabideak aurrean izanda. Horrela non geunden, non gauden eta egindako lanak gogobetetzen gaituen ala ez jakingo dugu.
- Balorazioaren ildo nagusiak jasotzea. Balorazio horrek eragina izango du ikasturte amaierako memorian eta urteko planean ere jasotzen da.

Badira beste faktore batzuk ere: espazioa, denborak... Baina horietan ez naiz sartuko. Garrantzitsuak dira, baina ezin naiz alderdi guztietan luzatu.

- *Jarduteko moduak bat etorri behar du printzipioekin.*

Irakasleen arteko harremanetan ikasleei buruz erabiltzen den ikuskera beraz jokatzea. Printzipioak eta printzipio horiek dakarten guztia kontuan hartzea da, bai elkarrizketan, bai garapenetan, bai erabakiak hartzean. Indibidualizazio-, sozializazio-, sormen, jarduera-, askatasun-, globalizazio- eta normalizazio-printzipioak.

- *Edozein antolamendu-egiturak ez ditu ondorio berak.*

Ez dituzte ondorio berak ikuskera piramidala duen egiturak eta ikuskera sistemikoa duenak. Buruak, erdi-mailako arduradunek (transmititzaileak) eta oinarriak osatzen dute lehenengoa, nahiz eta parte-hartzeaz hitz egiten den edo partaidetzakoa ere izan daitekeen. Ikuskera sistemikoan oinarritutakoan, berriz, ez dago besteen gainetik dagoen egiturarik; aitzitik, denak batera garatzen dira, eta egitura bakoitzak besteen arabera hartzen du zentzua. Egitura sistemiko batean ez dago lan handirik eta lan txi-

kirik. Denak dira beharrezkoak eta denak zerbitzuak dira. Egiturak zerbitzutat hartzeak modu aktiboan esku hartzera garamatza. Esku hartzea eta transmititzea ez da gauza bera. Esku hartzea –lehenago ere argitu dugu kontzeptu hori– parte hartzea, ekarpenak egitea, inplikatzeko eta esparru bakoitzean erantzukizunak hartzea da. Ikuskera piramidala gainditzeak eta zerbitzutat hartzeak autoestimua indartzen digu, berdintasunetik abiatuta ekarpenak egiteko, eta askatasun-maila handiagoa ematen digu, egokitu zaigun egitekotik exijitzeko.

Kontzeptu horretan sakontzea komeni da. Tamalgarria litzateke egitura sistemiko batean ikuskera piramidalarekin bizitzea. Horrelako egitura batek sortzen duenaren kontzientzia mantendu behar da. Nik, irakasle gisa ikasleekiko dudak egitekotik abiatu-rik, koordinaziotik, zuzendaritzatik edo ikasketa-burutzatik abiatu-rik, parte-hartze-ko aukera eman nahi izateak adierazten du nire egitekoa ez dudala zerbitzu moduan bizi, botere moduan baizik, eta ahaztu egiten dudala boterea egituretan dagoela.

Egitura pedagogikoetatik abiatuta hitz egiten ari naiz, horiek dira hemen aurkeztuko ditudanak eta. Horrela deitzen diegu, nolabait gerentziarekin erlazioz naturik daudene-
tatik bereizteko. Esan nizuen moduan, topaketa honetan ez dugu horiez jardungo, nahiz gerentziak eta gainerako egiturek edo batzordeek ere proiektu baten zerbitzura egon behar duten.

- *Sakontzea eta berrikuntza ahalbidetzen dute.*

Nire ustez, berrikuntzak, zentzua izan dezan, sakontzeari loturik joan behar du ezin-
bestean. Are gehiago. Sakontzetik sortu behar du berrikuntzak. Sakontzea arreta han-
diagoz hausnartzea da, zerbait aztertu edo barrentzea, ezin hobeki ezagutzera iristeko.
Sakontzea, kasu honetan, gure jardueran barrentzea da, gure egituretan barrentzea:
egituren egitekoan, euren osagaietan eta haien jarreretan, erabilitako metodologian
eta, batez ere, metodologia hori gidatzen duten printzipioetan. Sakontzetik berrikuntza
sortzen da beti, aldaketa eta berritasunak sartzen dira.

Zaren horretan edo behar duzun horretan sakontzen ez baduzu, eta kanpoko elemen-
tu bat garatzean jartzen baduzu arreta, ontasunez beterik badago ere, ekosistema
batean elementu arrotz bat sartzearen parekoa da. Kasu horretan zer egiten dugu,
berritu edo planeta desorekatu?

Egiten ari garena errentagarri bihurtzen duen edo hobetzen duen lengoia edo tekno-
logiaren bat ikastea berrikuntza izan daiteke, ez bere horretan, aplikatzean baizik.
Jarrera pertsonalak aldatzen saiatuz lan egitea da berrikuntzarik handiena. Agian gar-

bitu egin beharko genuke berrikuntza-kontzeptua, ez dadin uler berritze hutsagatik berritzea dela; berrikuntza-kontzeptua garena eta daukaguna sakontzetik datorrela ulertu behar dugu. Bestela, susmoa dut, apaintzen edo sustrairik gabeko zuhaitzak landatzen ari gaitzke.

Niri ez zait inoiz arduratu berrikuntza. Sakontzea interesatzen zait, ikertzea, horrek bermatzen duelako benetako berrikuntza. Ez naiz ari kanpoko kanpainetan oinarritutako berrikuntzari buruz. Barrutik berritzeari buruz ari naiz, barne-beharretik, egitura-tik berritzeari buruz. Kontzeptu horrek beste bide bat zabaltzen du normalean: sortze-arena. Sortzean berritu egiten da, baina berrikuntza-mota horrek arrasto propioa eta errepikaezina markatzen du.

- *Finkatu egiten ditu garapenak, iraunkor bihurtzen ditu eta aurrerabidean jartzen.*

Egitura sortzeak irakasleen edo pertsona bakoitzaren garapenak eta ekarpenak berekin ez hiltzea edo ez desagertzea dakar. Egiturari esker, isolamendua gainditu egiten da. Egiturak finkatu egiten ditu garapenak. Finkatzea sendotasuna eta irmotasuna ematea da. Lehen ez zegoena biltzean datza, sendoa izan dadin. Finkatzea da zerbaiti gero eta oinarri sendoagoa ematea.

Egiturari esker, finkatutakoak iraun egiten du, eta aurrerabidean jartzen da.

- *Egitura horrek, guztiaren gainetik, pentsamendu sozial autoegituratzailea sortzen du.*

Egiturak bildu egiten gaitu pertsonok, nor bere pentsamenduarekin, eta pertsonok egiten ditugu eta ematen diegu bizia egiturei. Bateratze-lana egiten dugu, ikasleekin egindako lan errealaren gainean jarduten dugu elkarrekin. Elkarrekintza horrek pen-tsamendu soziala sortzen du. Guztion pentsamendua, egituratik sortua. Sektorearen eta mintegia-ren iritzia garatzen dugu eta geure egiten dugu. Prozesu horretan, pentsamendu sozial hori autoegituratzailea da, geure pentsamendua aberastera eta aldatzera garamatzalako.

- *Balio-eskala bat sustatzen du.*

Kasu honetan, bat dator sistema-kontzeptuarekin, pertsona-kontzeptuarekin eta indibidualizazio-, sozializazio-, jarduera-, askatasun-, sormen-, globalizazio- eta normalizazio-printzipioekin.

- *Benetako talde-erabakiguneak dira, eta bertan ikastetxearen kultur corpora sortu, trukatatu eta garatzen da.*

Horretaz jardun dugu nahikoa.

- *Benetako prestakuntza-esparruak dira.*

Enuntziatu hori zabaltzeko, prestakuntza--kontzeptuari buruzko dokumentua aurkeztuko dizuet. Hain da argia, ez du azalpen gehiago behar.

PRESTAKUNTZA-KONTZEPTUA

- *Hezkuntza-proiektutik datorren ikuskeran oinarritzen da.*

Hezkuntza-proiektua da edozein analisi eta eztabaida bideratzeko edo edozein erabaki hartzeko epaile baliozkoa.

- *Helburua: norberaren eta taldearen garapena.*

Bizitzaren aurrean hartutako jarrera edo jokabide bat da. Edozein egoerak norberaren garapena ahalbidetzen du, eta horretaz kontzientzia hartzean datza jarrera hori.

Halaber, ikastetxean bizitakoak bizitzako beste alderdi batzuetan eragiten du, eta alderantziz. Horretaz jabetzea ere badakar aipatutako jarrerak.

Taldearen garapena pertsonen arteko elkarrekintzatik sortzen da. Inplikazioak, norberaren ekarpenak, prozesua sustatu edo geldiarazi egiten du.

- *Eskola-elkarteko kide guzti-guztiak hartzen ditu.*

Irakasleak, ikasleak, familiak...

Euren aniztasuna errespetatuz hartzen ditu, pertsona bakoitza den moduan edo egoera, esparru edo egitura jakin batean azaltzen den moduan.

Baztertu egiten dugu gure antzekoak direnekin soilik lan egiteko ideia, eta aniztasuna lortu nahi dugu, aberastasun-iturri baita.

- *Antolamendu-egituren bidez gauzatzen da.*

Taldea egitura bakoitzarentzat ezarritako zereginaren inguruan osatzen da. Eta lan horretatik abiatzen da gogoeta.

Egiturak elkarren osagarri dira, eta bakoitzak ikastetxearen funtzionamendu-esparru jakin batzuk hartzen ditu: ikasgelak-departamentuak, paraleloak, mintegi osoa, sektorea, zikloa, ABZ, familiekiko bilerak, esparru ekonomikoa...

Pertsona berak hainbat egituratatik esku hartzen du, hau da, hainbat talderekin lan egiten du, eta gai ugariaren inguruan, gainera.

- *Praktikari buruzko gogoetan oinarritzen da, praktikan aurrera egiteko.*

Hemen, orain, gu. Bakoitzak, bere kontzeptu- eta emozio-eskematik abiaturik (banakako erritmoa), egitura egonkorak izaki, dagoena, ikastetxearen historia, eginda dagoena berrinterpretatzea sistematikoki, ikastetxearen kultur corpusa (ikuskerak eta jarduteko modua) sortzen jarraitzeko.

Guztiok osatzen dugu sistema.

- *Kudeaketa modu kualitatiboan aldatzen du.*

Denok kudeatzen dugu ikastetxea.

Prestakuntza-mailak edo hezkuntza-proiektuaren barneratze-mailak geldiarazi edo sustatu egin dezake ikasgelaren kudeaketa, familiekin izaten diren bileren kudeaketa, curriculumaren garapena, baliabideen esleipena, etab.

Ikastetxearen ikuspegi orokorra ematen du, norberaz eta taldeaz haratago doana.

- *Etengabea eta amaigabea da.*

Garapenak ez dira amaitutzat ematen, garrantzitsuenak ez baitira emaitzak, prozesuak baizik. Garrantzi handia ematen zaio gogoetak dokumentu idatzietan jasotzeari.

Dokumentuak, prestakuntzaren antzera, gogoeta baten ondorio badira ere, ez dira inoiz amaitutzat ematen. Irakasle berriek, berriak direlako, eta denbora daramatenek,

euren bilakaeran beste une batean daudelako, edozein dokumenturen edukia berrin-terpretatu dezakete, eurenganatzeko eta bizirik iraunarazteko.

- *Barrutik sortzen da, ez kanpoko elementuak zuzenean ezarriz.*

Sistemaren ezaugarri bat da.

Kanpoko elementuak ez dira sisteman zuzenean ezartzen, besterik gabe; hori eginez gero, oraingo izate hori galduko bailuke.

Norbaitek behar bat ikusi eta teoria bat irakurriz edo ikasiz bere burua prestatzen badu, eta ikasitako hori zuzen-zuzenean indarrean dagoen sistemari ezarri nahi badio, hori kanpotik ezartzea da. Aldiz, teoria hori barneratzen badu eta, hortik abiatuta, gaiarekiko duen sentsibilitate bereziaz baliatuz, taldean eginiko alderatzearen bidez sortzen den ekarpena antolamendu-egituraren batera eramaten badu, hori ikastetxearen kultur corpusaren zati izango da.

- *Prestakuntza-gaiei lehentasuna emateak bat etorri behar du ikastetxearen batasun-ideiarekin.*

Ikastetxearen interesek mugatzen dituzte egituretako prestakuntza-plan orokorrak, baina hori ez da pertsona bakoitzak libreki, bere aukeren arabera, gara ditzakeen aukera indibidualen kalterako.

Lehentasanak ezartzeko, argi eduki beharko litzateke beti ikastetxearen mapa: garapenak, zer falta den, zer den aurretiko baldintza hurrengo urratsa egiteko, zenbat denbora dugun, etab.

HAINBAT EGITURAREN DISEINUA

Diseinu batzuk aurkeztuko dizkizuet, orientagarri gisa, aurrez azaldu dizkizuedan arrazoiengatik.

Sektorea

Ikasle berberekin lan egiten duten irakasleak koordinatzen ditu egitura horrek, bilakaera zaintzeko. Ziklo eta eraikin bakoitzeko organigraman bi sektore daude: batetik, hiru ikasle-talde eta dagozkien irakasleak eta, bestetik, beste hiru talde eta dagozkien irakasleak.

Sektorearen egitura sektore bakoitzeko irakasleek ikasleen bilakaera zaintzeko izaten dituzten bilerei dagokie. Hortik izena.

Zein talderen bilakaera zaindu behar den, talde horren tutoreak koordinatuko du bilera.

Argitu nahi dut Amara Berrin bilakaera zaintzen duen irakasleen artean banatuta dagoela tutoretza. Horrek ez du eragozten, ordea, pertsona bat izendatu ahal izatea familiari informazioa emateko edo familiak emandakoa jasotzeko. Egiteko hori pertsona edo irakasle batek har dezake gela bakoitzeko, edo ikasleak banatu egin daitezke, pertsonen lana orekatzeko eta, batez ere, benetan eginkizun aberasgarria edukitzeko. Talde-dinamiketan, ikasle-antolamenduko batzarretan, gela-taldeari eusten zaio.

Irakasleek ikasle bakoitzak departamentu bakoitzean izan duen prozesuaren sintesia eramaten dute bilerara. Sintesi hori berariazko maparen eta mapa orokorraren bidez jasotako datuekin egiten dute.

Garrantzitsua da sektoreko bileretan eskema bat erabiltzea, "izara", irakasle guztiek ikasle bakoitzari buruz egindako oharrak jasotzeko.

Bilera hastera doa. Gogoan izan behar dugu garrantzitsua dela gure aurretikoak birkokatzea eta ikasleei aurreiritzirik gabe eta etiketarik gabe begiratzea, oharturik pertsonok bilakaera izaten dugula, aldatu egin gaitzkeela eta oraina aztertuko dugula. Diseinua irakurriko dugu.

Sektorearen diseinua (ikasleen bilakaera zaintzea)

- *Irakasleen aurretikoak edo jarrera ikasle bakoitzaren aldera.*
- *Aurreko historia.*
 - Irakasleek ikasleak ezagutzen ez badituzte, aurreko txostenak irakurtzea, aurreko ikuspegiak berreskuratu eta etenik egon ez dadin.
 - Bilera bakoitza hasteko, aurrekoan kokatzea.
- *Departamentuaren testuingurutik abiatutako analisia.*

Irakasle-taldeak nola ikusten duen ikasle bakoitza une horretan, ikaskuntza-prozesuari dagokionez:

 - *Irakasleen ikuspegia alderdi hauei dagokienez:*

- Ikaskuntzaren aurretikoak:
 - . mapa orokorra.
 - . Helburu orokorrak.
 - . Ikasi nahi izatea (borondatea).
 - . Egoera fisikoa.
 - . Egoera psikologikoa.
 - . Egoera afektiboa (autoestimua).
 - . Egoera soziala.
- Jardueraren muina:
 - . berariazko mapa.
 - . Bilakaera zaintzeko argibideak.
- Bi alorretan izandako aurrerapenak.
- Bi alorretan izandako zailtasunak.
- Ikasleen kontzientzia alderdi hauekiko:
 - Aurretikoak: jarrerak, helburu orokorrak.
 - Muina: Bilakaera zaintzeko argibideak.
 - Bi alorretan izandako aurrerapenak.
 - Bi alorretan izandako zailtasunak.
- Esparru horretaz haratago informazioa biltzea, egongo balitz.
 - Ikastetxea
 - Tutoretzak eta ikasle-antolamendua.
 - Familiak.
 - Kalea.
 - Erakundeak.
 - Kalea.
 - Erakundeak.
- *Sintesia*
 - Nola ikusten dugun une honetan.
 - Nola ikusten duen bere burua une honetan.
 - Estrategia bateratuak.
- *Sintesiari buruzko dokumentu idatzia*

Zikloa

Eta**pa** bakoitzeko bi maila izendatzeko erabiltzen den izendapen ofiziala da.

Ziklo bakoitzean, badira guneak, baliabideak eta kultur irteerak, eta txostenak egiten dira, familiekin egin beharreko bilerak prestatzen dira, etab. Ziklo osoak hartzen du parte horretan. Irakasleen esku-hartzea ez da departamentuan agortzen, ez eta zuzenean egokitzen zaizkion ikasleengan ere; aitzitik, egiteko hori esparru komunitara zabaltzen da, edozein ikaslek haren beharra baldin badu (batez ere, irakasleak diharduen zikloko ikaslea bada). Horrek guztiak eta beste alderdi batzuek ekintza eta planteamenduak koordinatzea eskatzen dute, ikastetxearen ikuskeratik abiatu**rik**. Hortik sortzen da, hain zuzen, irakasleen egitura honen beharra, zikloaren egitura esaten diogun honena.

Zikloaren diseinua

- *Parte-hartzaileak:*

Zikloko irakasle guztiak. Zikloaren koordinatzaile bat izaten da.

- *Helburua:*

Zikloaren koordinazio horizontala.

- *Denbora-antolamendua:*

Astean emango zaion denbora, ordutegi orokorraren barruan markatua.

- *Garapena eta edukia:*

Urtea hartzen duten gaiez eztabaidatzea, ikastetxearen ikuskera kontuan izanik, praktika koordinatuz eta irizpideak erabiliz.

Ikasle-antolamendua koordinatzea zikloari dagokionez. Horixe da egitura honen egiteko giltzarrietako bat.

Hezkuntza-proiektuari, Curriculum-proiektuari eta abarri dagozkien alderdi orokorren gainean eztabaidatzea, urteko planean agertzen diren alderdiei lehentasuna emanez.

Eguneroko bizitzan sortzen diren eta zikloari eragiten dioten ezustekoak.

Lanaren balorazioa, ikasturteko memoria bideratzeko. Memoria horrek, halaber, Urteko Plana bideratzen ere lagunduko du, haren egiturari dagokion alderdian.

- *Bitartekoak*
 - Urtea hartzen duten gaien zerrenda.
 - Hezkuntza-proiektua, Curriculum-proiektua. Departamentuetako karpitetan daude jasota.
 - Urteko plana

Mintegia

Departamentu guztietan irakasgaiak lotuta daude, baina horietako bat nagusitzen da. Beraz, departamentu guztiek nolabaiteko lotura dute. Egitura bat behar dugu, guk mintegia esaten diogu, eta egitura horrek zikloetako eta etapetako departamentu eta testuinguru komunetan irakasgaiarekin lotura duten gauza guztiak bildu behar ditu, pixkanaka curriculumaren hiru faseak zehazteko eta garatzeko.

Mintegietan lan egiteko bost fase edo taldekatze daude: banaka, paraleloan, mintegi osoa, mintegi artekoa, ikastetxe artekoa.

Mintegiaren diseinua

- *Definizioa:*

Irakasleak antolatzeko egitura. Bertan irakasgai, diziplina edo arlo bakoitzaren curriculum definitzen da.
- *Parte-hartzaileak:*

Diziplina horrekin lotutako irakasle guztiak¹. Bada mintegiaren koordinatzaile bat ere.

¹ Haur Hezkuntzako irakasleak gai "guztiek" daude lotuta, eta, hori dela eta, etapa horretako lanean, mintegi guztietako partaide dira. Mintegi guztietako partaide direlako, guztiak ezin dute mintegiek irauten duten denbora guztian egon, eta, beraz, ahal dela, mintegiak banatu egiten dituzte, bakoitzaren lehentasunak edo gai bakoitzean irakasleek duten gaitasuna kontuan hartuta.

- *Helburua:*

Alor bateko curriculumaren hiru faseak garatzea zikloetan edo etapetan zehar, printzipio metodologikoak ezarrita.

- *Denbora-antolamendua:*

Komeni da denbora tarte bat ezartzea ohiko ordutegiaren baitan.

Astean 60' edo 90'-ko saioak (paraleloak).

Mintegien jardunaldi osoko saioak irailean (astean egun bat eraikin guztiek eta ziklo guztiek) eta ekainean (bi egun).

Bigarren hiruhilekoan, paraleloen saio bat eraikinen artean.

- *Garapena eta edukia*

- Irakasleen bakarkako lana.

- Departamentuaren mantenimendua.

- Departamentuko testuinguruetako jardueren inguruko gogoeta egitea, beren jarduna hobetzeko.

- * Lan hori egiteko baliabideak:

- . Departamentuko karpeta.

- . Departamentuak behaketa egiteko dituen argibideak. (Geroago hitz egingo dugu horren inguruan).

- Hainbat taldetan baina departamentu beretan lan egiten duten irakasleen bilera (Paraleloak deitzen diegu. Zikloaren barruko lana da)

- Departamentuan egindako lanean sortutako bakarkako gogoetak kontrastatzea.

- Curriculumaren faseak aztertzea eta berrikustea.

- Departamentu horiei dagokien erabaki bat hartu behar denean, mintegi horretako koordinatzailearekin baloratuko da mintegi osora eramatea komeni den ala ez.

* *Baliabideak:*

- . Departamentuko karpeta
- . Urteko plana. Planean ageri diren akordioak lehenetsi behar dira

– *Mintegi osoaren lana (etapa artekoak, ziklo artekoak):*

Curriculumaren hiru faseen eta fase horiek praktikan jartzearen koordinazio bertikala gauzatzea:

- Ziklo edo departamentu jakin baten baliabideak berraztertu eta esleitzea, segidaren ezarketan eta adinari eta programari egokitzean oinarrituta.
- Baliabideak egiteari lehentasuna ematea eta lan hori antolatzea.
- Beharren arabera, materialak erosteari lehentasuna ematea. Material horien aurrekontua egitea, eta eskaera ekonomia-batzordeari helaraztea, haren ordezkariaren bitartez.
- Irakasgaia antolatzen duten edukiak hautatzea eta haien segida ezartzea, egitura logikoarekin, ziklo bakoitzaren adinaren ezaugarriak eta aurreko zikloetako ikaskizun berariazko edo garrantzitsuak kontuan hartuta.
- Mintegiaren irakasgaiarekin harremana duten alderdiak ikastetxearen beste testuinguruetatik biltzea eta integratzea, eta alderantziz.
- Testuinguru bakoitzean bilakaera zaintzeko argibideak frogatzea. Argibide horiek paraleloetan egiten dira, eta, horrez gain, sintesi-dokumentu bat (izara) egiten da, irakasleari informazioa igorri ahal izateko.
- Oinarrizko dokumentua frogatzea. Dokumentu horrek informazioa bideratuko die familiei.
- Alderdi edo gai orokorrei buruzko akordioak eztabaidatzea eta adostea, ikastetxearen ikuskerari dagozkion irizpideak erabilia.
- Irakasgaiari dagokionez, ikasleek eskolatzeko-aldian duten prozesuaren inguruko iritziak eztabaidatzea eta kontrastatzea.

* *Baliabideak:*

- . Departamentuko karpeta
- . Urteko plana

- *Mintegien arteko koordinazioa:*
 - Ikasketa-burutzak koordinatzen du.
 - Mintegietan irakasgaiak osagarriak diren aztertzea.
 - Hainbat irakasgaitan eragina duten izaera orokorreko alderdiei heltzea (fami-
lientzako txostenak; zuzenketak; etxerako lanak, baleude...).
- *Ikastetxeen arteko koordinazioa:*
 - IAZk koordinatzen du.
 - Koordinatuta lan egiten dugun ikastetxeotan Amara Berri Sistema praktikan
nola gauzatzen den aztertzea, eztabaidatzea eta kontrastatzea mintegietan.
 - Garapenak bateratzea.
 - Alderdi batzuk azpimarratzea, sakontzea.

Pedagogikoa

Ikastetxeko irakasleak biltzen dira egitura honetan, pedagogiako lana gidatzeko edo lan hori bateratzeko.

Egitura pedagogikoaren diseinua

- *Parte-hartzaileak:*

Ikastetxeko irakasle guztiak. Ikasketa-burutzak deitzen eta koordinatzen du.

- *Helburua:*

IHP eta ICPekin zerikusia duen pedagogia-lana orientatzea.


- *Denbora-antolamendua:*

Saio finkoak: irailean eta ekainean. Gainerakoak egituretatik edo urteko plana bete-
tzetik sortzen dira, komenigarri edo beharrezko izanez gero.

- *Garapena eta edukia:*
 - Hezkuntza-proiektuari eta curriculum-proiektuari buruzko urteko gaiak: adinaren ezaugarrien definizioa, ikastetxearen helburu nagusiak berriro interpretatzea, adskripzioaren irizpideak, urteko plana, memoria, ikasleen edo irakasleen oinarrizko egituren funtzionamendua, dokumentuak garatzea...
 - Ustekabeko gauzak.
- *Baliabideak:*
 - Urteko irakasgaien zerrenda.
 - IHP.
 - ICP.
 - Adskripzio-irizpideak.
 - Memoria.
 - Urteko plana.
 - Gai bakoitzerako dauden baliabideak.

Irakasleen antolaketan orain definitu dudan egitura **pedagogikoa** eta **klaustroaren** egitura honela bereizten dira: klaustroa ikastetxeko zuzendaritzak deitzen du, eta batik bat funtzionamenduko gai orokorrak jorratzen ditu, gerentzia esaten diogunarekin lotutako gaiak. Beste egitura bat ere badago: **langileen batzarra**. Batzar horretarako deia irakas-kuntza-taldeko edozeinek egiten du, zuzendaritza jakinaren gainean jarri ostean, laneko gaien inguruan jarduteko. Kasu horretan, borondatezkoa da bilerara joatea.

Begira. Aurreko eskemara itzuliko gara.



Curriculumari dagokionez, eskemaren muina garatzen dugu: ikasleen antolamendu-egitura. Gaur ikusi dugu ikuskera sistemikoan ikastetxeko gainerako egiturek muin horretan dutela sorburua, eta muinaren zerbitzura jartzen direla. Oinarrizko lau egituretan jarri dugu arreta. Irakasle guztiak daude egitura horien barruan, eta irakasle guztiek garatzen dituzte oinarrizko egitura horiek.

Eskema horretan, egiturak beste egitura batzuk sortzen ditu jarraian:

- *Arreta Bereziko Zerbitzua (ABZ):*

Ikasleen bilakaera zaindu egin behar da, baina hezkuntza-premia bereziak badaude, berriazko zerbitzu bat behar da. Egitura hau sortu da ikastetxe osoan planteamendu

komunak erabiltzeko beharra dagoelako, eta, aldi berean, hezkuntza-premia bakoitzari dagozkion berariazko planteamenduak behar direlako.

Egituraren koordinatzaile bat dago.

- *Zikloen koordinazioa:*

Hainbat ziklo daude. Ziklo bakoitzak aurreko zikloko prozesuak ditu bere barruan, eta ziklo bakoitzak hurrengo zikloetan eragiten du. Bestalde, gai funtzionalak ere badaude: adin guztietako ikasleak harremanetan jartzen dituzten eremuak, jarduera komunak, ospakizunak, lehenetsi beharreko baliabideak, familiekin egin beharreko bilerak eta elkarrizketak, irteerak, etab. Beraz, beharrezkoa da ekintza koordinatzea, eta, batik bat, planteamenduak koordinatzea, ikastetxearen hezkuntza-ikuskerarekin bat etortzeko. Hau da egitura honen helburua: ziklo guztiak norabide berean joatea, baina bakoitzak bere prozesua egitea.

Izenak adierazten duen moduan, egitura hau ziklo eta eraikin guztietako koordinatzaile guztiek osatzen dute, eta ikasketa-burutzak koordinatzen du.

- *Mintegien koordinazioa:*

Hainbat mintegi badaude eta denak beren artean lotuta badaude, ikusmolde eta metodologia berarekin bat etorri behar badute, beste egitura bat behar dute koordinatzeko, denak norabide berean joateko, baina beren mailan eta erritmoan. Era horretan, haien garapenek, haien bideek, topo egingo dute. Hortik sortzen da egitura honen beharra.

Egitura hau mintegi guztietako koordinatzaileek osatzen dute, eta ikasketa-burutzak koordinatzen du.

Eskeman ikus dezakezuen bezala, departamentuen beharrei erantzuteko, zirkulua handituz doa; zerbitzu eta diseinu berriak behar ditu, ikastetxearen baldintzak aldatzen doazen heinean.

Uste du argitasun handirik gabe ari naizela gai hauek azaltzen, eta, beraz, galderen txanda irekiko dugu, ziurrenik zuek jarriko dizkidazue-eta oinak lurrean.

- Ulertu dut diseinua aldatu egin behar dela proiektuaren garapen-unearen arabera. Hala ere, ez daukat argi eta garbi noiz behar diren egitura berriak, eta, batik bat, ez dut ondo ulertu koordinazioen gaia.
- Gaia zentratzeko (gai guztia zentratzeko!), historiaren inguruan hitz egingo dut.

"Proiektu hau Durangon hasi nuen, 1972an, eta OHOn garatu nuen, profesionalen talde bikain bati esker. Uste dut aurretik aipatu dudala: esperientzia hau *La escuela que pudo ser* lanean jasota geratu zen. Esperientzia hau garatzeak Euskadin izan zuen batik bat oihartzuna.

"Liburuan ageri diren gorabehera batzuk direla eta, 1979an Amara Berrin lanean hasi nintzen. Amara Berri sortzen ari zen ikastetxe bat zen. Durangoko espiritutik abiatuta, proiektua Haur Hezkuntzako etapan abiatu nahi izan nuen, etapa hori ez bainuen zuzenean ezagutzen. Beti bezala, eskolak ematen hasi nintzen.

"Bitartean, proiektua diseinatzen aritu nintzen, eta abian zegoen ikasgela gai horretan interesa zuten beste pertsona batzuentzat ere zabalik edukitzen hasi nintzen. Etapa horri aurretiko ikerketa esaten diot. Esan behar dut konpromisoa hartu nahi zuen jendea eduki dudala beti nire ondoan, eta beren ekarpena utzi dutela. Proiektua ezartzen hasi ginen ikasturtez ikasturte, mailaz maila. Une batean, ezin nuen hura koordinatu egun osoan zuzenean irakaskuntzan arituta. Hezkuntza Ordezkaritzak eskolak uztea proposatu zidan, proiektua garatu eta koordinatu ahal izateko.

"Une horretatik aurrera, proiektuaren pedagogia-koordinatzailetzat hartu ninduten. Nire ustez, kasu horretan izenak ez zuen garrantzi handirik. Gero ikusiko duzue zer dela-eta diodan hori.

"Hona artekoa sarrera izan da, orain hasiko naiz galderari erantzuten. Inork ez zidan eman nire eginkizuna garatzeko jarraibiderik, eta, beraz, nire diseinua egoki-tzen joan nintzen, eta Durangoko ildo berean jardun nuen.

"Irakasleek era horretara lan egiteko konpromisoa hartu zuten pixkanaka, baina behar apur bat nuen.

"Nire laguntza eta denen lana espero nituen. Azaletik esateko, taldearen hazia landatuta zegoen.

"Ikasgeletan bizi nintzen. Begiratu egiten nuen, ikasi egiten nuen. Nire ustez, ikasgelak irekita egotea, begiratu ahal izateko irakasleek jarrera ona edukitzea, proiektu-

tu bat garatzeko ekarpen handienetako bat da. Ondoren hitz egingo dugu gai horren inguruan.

“Adibidez, ikasleak kontzentratuta ez bazeuden, ikasgelaren diseinu fisikoa aztertzen genuen, eremu irekiagoetan edo itxiagoetan, argi gehiagorekin edo gutxiagorekin lan egitean nola erreakzionatzen zuten, etab., eta beharrezko aldaketak egiten saiatzen ginen berehala. Nire ustez baliabide jakin bat ikasleen interesekin bat bazetorren, baliabide horren bila joaten nintzen, ahalik eta arinen sartzeko eta probatzeko.

“Ikasgelei behatzen denbora luzean jarduna nintzen, Durangon, sei urtean aritu bainintzen horretan. Giroari erreparatzen nion: ea ikasleek gozatzen zuten, ea beren jokoetan rolik bazegoen, panpina-eredu jakin batzuk ukitzean zein erreakzio zuten, zein elkarrizketa-mota zituzten.

“Horrek guztiak baliabideak beren interesekin bat etortzeko eta ikasgelaren diseinu fisikoa hobetzeko balio zigun.

“Batik bat, irakasle-motei eta beren parte-hartzeari behatzen nien. Batzuetan, beste ikasgela batera joaten nintzen arin, ikasgelan geratzen nintzen, irakasleak ikus zezan beste ikasgelan zein esku-hartze zehatz zegoen: nola jokatu taldeko saio batean, nola aztertu jazotako gertaera bat, etab., nire ustez, horrek berari zerbait baliagarria ekar ziezaiokeelakoan.

“Ziur nengoen pertsona guztiok badutela zerbait besteek baino hobea, eta denok ikas dezakegula. Nik asko ikasi nuen.

“Adibidez, uraren erabilera probatu nahi bagenuen, ura batetik bestera eramatean, korridoreak busti egiten ziren, eta nik zoru-garbigailuarekin lehortu behar izaten nuen lurra.

“Baliabide jakin bat sortzea garrantzitsua zela uste bagenuen, ahal genuenean elkartzen ginen, eta konpromisoa hartuta genuen guztiok materiala ateratzen hasten ginen.

“Taldea zereginaren inguruan sortzen da. Konturatu ginen gauza guztiak denonak zirela.

“Azken finean, nor nintzen ni? Pedagogia-koordinatzailea, zuloak estaltzen zituena. Gustatzen zitzaidan nire zeregina, baina ez neukan nire lanean pentsatzeko astirik. Banekien irakasleekin batera irakasleen diseinua, ikasgelena eta nirea bera ere zehazten ari ginela, esku artean genuenaren zerbitzura. Esku artean genuen, baina batik bat gure bihotzean eta gure buruan, azken batean, gainez egiten zigun gure bizitzan.

"Jolas-orduak moldatu egin genituen, gehiagotan topo egin ahal izateko. Egun batean, hiru urtekoen irakasleekin biltzen nintzen, curriculuma lantzeko. Hurrengo egunean, "lau urtekoen" irakasleekin. Bilera horiek mintegiaren lehen bilerak izaten ziren.

"Eguerdian, beste saio batzuk edukitzen genituen funtzionamenduaren eta ikuskeraren teorikoaren inguruko gaiak jorratzeko, beti errealitate zehatz bat kontuan hartuta. Hori zen zikloaren egitura edo bestela etaparen egitura, orduan jende gutxiago biltzen baikin. Beste egun batzuetan, materialak egiten genituen.

"Hezkuntza-premia bereziak bazeuden, bateratu egiten genituen, irtenbidea bilatzen laguntzeko, baina orduan ez genituen gaur egun ditugun kasuak. Ez genuen gaiaren inguruko esperientziarik, gaitasunik eta ezta kontzientziarik ere, nik neuk ere ez. Ondoren etorri zen hori, gerora ikusiko dugun bezala, baina ordurako sumatuta geunden egituraren beharra zegoela.

"Izan ere, bagenituen oinarritzko egiturak, eta ikastetxe askorentzat aski ziren. Nik egitura guztiak koordinatzen nituen, nahiz eta legez ez izan ikasketa-burua. Berez, ikasketa-buruak koordinatu behar zituen egiturak. Gai hau berriro aipatuko dut.

"Aurreneko saioetan kontatu nizuen zailtasun handiak izan genituela, baina proiektua OHOn sartzen hasi zen. Proiektua bultzatzen eta koordinatzen jarraitu nuen nik, ildo beretik, bai irakasleen egituretan, bai familiekin zeuden harremanetan eta, batik bat, ikasgeletako esku-hartzean. Diseinua ondo zebilen, eta ikasgela edo departamentu irekiak izatea eta pedagogia-koordinazioaren diseinua ikastetxearen kultura bihurtu ziren. Orduan, ikastetxearen pedagogia-koordinatzailea deitzen ninduten.

"Hainbat zuzendarirekin lan egin nuen. Ikasketa-burutzak bat zegoen azken mailatan, oraindik sistema heldu ez zen tokietan, izapide ofizialez arduratzeko. Beti eskertuko dut ikasketa-burutzak betetako egitekoa, nik proiektuan kontzentratu behar bainuen.

"Oraingo zuzendariak orduan Amara Berriko zuzendaritza bere gain hartu zuen, eta paper garrantzitsua eduki zuen une hartan. Beti izan ditu dohain bereziak gerenteari izateko, eta berak proposatu zuen gerora nire izena aldatzea, koordinatzailea eta ikasketa-burua ez baitziren nire izena. Adibidez, beste ikastetxe batzuetako prestakuntzaren ardura eta esku-hartze zuzena hartzen nuen nire gain, eta aholkularitza-taldea koordinatzen nuen. "Pedagogia-zuzendaria" izena eman zidan, eta nire zereginak ikastetxe osora hedatu zen. Nire ustez, izen horrek eginkizun-banaketari erantzuten zion. Pedagogiaren eremua zen nire ardura, beti egin nuen lana, eta ikastetxeko zuzendariarena zen gerentziaren eremua.

"Era honetako ikastetxean, gerentziaz arduratzeak ez du beste ezer egiten uzten, eta pedagogiaren eremuaz arduratzeak are gutxiago.

"Eginkizunak beste era batera bana daitezke. Zuzendaritzak egitekoa hartu zuen unetik, eginkizun-banaketa modu horretan definiturik egon zen. Nire iritziz, eginkizun-banaketa nire ibilbide pertsonalak eta profesionalak markatu zuen. Gure gaitasunek markatu zituzten betetzen genituen eginkizunak, eta, horrez gain -zergatik ez?-, gure izaerek ere markatu zituzten.

"Pixkanaka-pixkanaka ikastetxea lerro bat edukitzetik bost eraikinetan maila bakoitzeko sei ikasgela edukitzera pasa zen.

"Ikusi nuen nik ikastetxeari egin niezaiokeen zerbitzu handiena, ikasgeletan esku hartzea eta egiturak koordinatzea, eskuetatik alde egiten hasi zitzaidalako. Ezin nuen alde guztietara iritsi, eta ikaratu egin nintzen. Jakinaren gainean nengoen eginkizun horiek beti egon zirela sistema hori sortzerakoan eta garatzerakoan, eta eginkizun horiek gabe eraikina kolokan egon litekeela epe ertainera. Kolokan egon zitezkeen, horrez gain, irakasleak ezegonkor zeudelako.

"Haur Hezkuntzan, koordinatzaile bat jarri genuen, ikasketa-burutza bat, hogeita sei ikasgelaren zerbitzura. Ikasgela horiek hiru eraikinetan zeuden, hiru auzotan.

"Koordinatuta lan egiten genuen, eta zuzendaritza-taldeko kidea zen.

"Pixkanaka-pixkanaka nire eginkizuna berriro diseinatzen aritu nintzen, eta koordinazioko beste pertsona batzuekin partekatzen hasi nintzen.

"Mintegiko eta zikloko koordinatzaileak behar ziren.

"Une horretara arte, koordinatzailea pertsona bakarra zenez, mintegiak eta zikloak koordinatuta zeuden.

"Mintegietarako eta zikloetarako koordinazioa prestatu zenez, beste egitura batzuk behar izan ziren: zikloen eta mintegien koordinazioa. Urteek aurrera egin ahala, beste erabide batzuk probatu dira.

"Gerora, beste faktore bat egon zen, eta faktore hori ikastetxetik abiatu zen eta ikastetxera itzultzen zen. Egiturretan ere eragina zuen. Faktore horrek ikastetxea konplexuago egiten zuen, baina aberastasun handia ematen zion: Amara Berri beste ikastetxe batzuk aholkatzen zituen.

"Gai horren inguruan, gogoeta batzuk egin nahi ditut.

"Aholkularitza-taldea eta talde hori koordinatzen duen pedagogia-zuzendaria ikastetxe batekoa izatea eta beste ikastetxeen prestakuntzaz edo aholkularitzaz arduratzea, diseinu honen berezko ezaugarria da. Horrek adierazten du prestakuntza ez dela teorikoa eta ezta partziala ere, erreferente biziduna duela, eta ikastetxe osoa hartzen duela bere barruan.

"Taldea hau ezin da bereizi erreferente bizidun horretatik, bi arrazoi hauengatik:

1. Diseinuari leial izateagatik. Amara Berrik ekarpenak egiten dizkie beste ikastetxei.
2. Amara Berrik beste ikastetxei aholkatzen daukan esperientzia eta gaitasun handia errentagarri egiteko. Amara Berriko aholkularitza-taldea ikasgeletan behatzen aritu da; zikloetan, mintegietan, klaustroetan edo pedagogikoetan esku hartzen du, ikastaroak diseinatuz, ikastetxe arteko sarearen lana antolatuz eta zuzendaritza-taldeen prestakuntzan esku hartuz eta prestakuntza hori koordinatuz.

"Beste ikastetxeek ekarpenak egiten dizkiote Amara Berriri.

"Nire eginkizuna berriro diseinatu nuen, eta beste erabide horiekin partekatu nuen.

"Amara Berrin aholkularitza-taldeak duen eginkizuna beste ikastetxeetan betetzen duen eginkizun bera da. Eremu beretan esku hartzen du, diseinu berarekin, honako hauekin koordinatuta: ikasketa-burutzekin, koordinatzaileekin eta egituretako koordinatzaileekin.

- *Diseinuak aurkezterakoan, memoria eta urteko plana aipatu dituzu. Esan al dezakezu zerbait horren inguruan?*
- Bai. Hauexek dira lanketa-irizpideak:
 - Aurrera egiteko balio izatea.
 - Prestakuntza- eta funtzionamendu-egituretan zer uste duten jasotzea.
 - Funtsezko giltzarriak azaltzea.

- Lorpenak eta aurrerapenak aurrera egiteko ezinbesteko elementuak direla kontzientziazteko balio izatea.
- Aldatu, berriro hartu, abiatu, sakondu edo orokortu behar ditugun alderdiak biltzea edo aurreratzea.
- IUP egiteko balio izatea.
- Laburra izatea, eraginkorra izan dadin.

“Beste zerbait ere esango dizuet: egiteko erak ez du gainkarga izan behar egituretan. Hori erraza da dugun lan-diseinuagatik, haren garapena etengabe baloratzera behartzen baikaitu.

“Gustura joaten al dira bileretara eta departamentuko lanerako balio al digute? Hori da gauzak ondo doazen lehen adierazlea.

“Erabiltzen ditugun baliabideak aurrean edukita, gure ustez espero adina aurreratu bagara, agian ez da ezer gehiago esan beharko, irizpideei erantzun beharko zaie, memoria egiten duenarentzat egiten da-eta. Aurrera egiteko egiten da.

“Hortik ateratzen da urteko plana.

“Plana egiteko irizpideak:

- Aurrera egiteko balio izatea.
- Ikastetxean urteko planarekin engaiatutako egitura guztiek esku hartzea.
- Aldatu, berriro hartu, abiatu, sakondu edo orokortu behar ditugun alderdiak dituzten funtsezko gakoak proposatzea.
- Lorpenez edo aurrerapenez kontzientziazteko balio izatea, aurrera egiteko ezinbesteko elementu gisa.
- Laburra izatea, eraginkorra izan dadin.
- Egitura bakoitzaren diseinuarekin lotuta defini daitezela, eraginkorrak izan daitezzen.

“Aipatzen ari naizen pedagogiaren eremuan, nire ustez, funtsezkoa da ikastetxe osoa konprometituko duen ekintzaren bat proposatzea eta behar orokor batetik

abiatzea. Adibidez: curriculumaren hirugarren fasea egitea edo aztertzea eta askatasun-printzipioaren gainean gogoeta egitea. Ekintza orokor horiek ikastetxea kohesionatzen dute.

"Mintegi batean, curriculumeko lehen fasea igaroko ez luketen pertsonak baldin badaude -batik bat baliabideak egiteari dagokionez-, gauzarik garrantzitsuena hori delakoan, urteko planak ikuspuntua itzul diezaieke, eta koordinatzaileak ondokoa esan dezake: "Hori egia da, baina hirugarren faseari eman behar zaio lehentasuna".

"Gauza bera gertatuko zen zikloan: kasu honetan, irakasle guztiek askatasunaren inguruan gogoeta egingo dute, urteko planean markatuta dagoelako.

"Bi jarduera horiek garatzen badira, hori bera plan bat da, eta agian ez da beste ezer beharko.

"Baliteke egitura txikiagoek ez proposatzea berariazko ezer. Litekeena da sistematikoki aurrera egitea diseinuaren bitartez. Horretarako dago.

"Aldiz, litekeena da beste egitura batzuek berariazko zerbaitetan eragin behar izatea.

Galderak utziko ditugu, eta gaiarekin aurrera jarraituko dugu.

Laster batean igaro nuen gai bati helduko diot orain, arreta berezia merezi baitu:

Arreta Bereziko Zerbitzua (ABZ)

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzun nahi dien zerbitzua da.

Amara Berrin era honetako ikasle ugari dago. Arans-Giko profesionalak (Gipuzkoako Haur Gorren Entzumena Suspertzeko Elkarte) ohartu ziren guk erabiltzen genuen sistemak asko balio zuela entzumen-urritasuna zuten ikasleentzat, ikuskeragatik eta banakako erritmoan lan egiteagatik.

Ikasle horiek gure ikastetxera etorri ziren, zegozkien irakasleekin. Irakasle horiek gai horretan adituak ziren eta erabat lotuta zeuden gai horrekin. Une garrantzitsua izan zen, horrelako premien aldera sentsibilitatea landu genuen. Ziurrenik, ez behar adina. Ikastetxean ikasle gor, itsu, autista ugari eduki ditugu, baita Down sindromedun ikasleak eta garapen-arazo larriak dituzten ikasleak ere.

Horrez gain, iragaitzako ikasleak, beste kultura batzuetako ikasleak eta gaitasun bereziak dituzten ikasleak eduki ditugu.

Egoera gogorak ezagutu eta bizi izan ditugu, baina egoera horiek atsegin izan ditugu. Ez dago zalantzarik, ikastetxe honek ekarpenak egin dizkie ikasle horiei, baina, zalantzarik gabe, ikastetxe honek ere behar ditu horrelako ikasleak. Egunetik egunera sentikorrago bihurtu gaituzte, baina ez merezi duten bezainbeste. Eztabaida. Ezintasuna eragiten du batzuetan gehiago ezin emateak.

Ikasle horiek ez dira ikastetxeko kideak soilik, eurek eratzen dute ikastetxea den bestean.

Denborarekin, ikasi dugu desberdintasuna bertutea dela eta ez dela bereizketarako faktorea. Ikasi dugu pertsona guztiak desberdinak garela, eta aniztasunak taldea aberasten duela.

Egitura hau prestatu zen, bere diseinuarekin eta koordinazioarekin, eta hainbat memento eduki ditu. Hala ere, nik gaur egungo egituraz hitz egingo dut.

Egitura honetara igaro aurretik, ikasle horien aldera Amara Berrik dituen hainbat planteamendu aurkeztu nahi ditut:

- Ikasle horiek gainerako ikasleekin lan egin behar dute departamentuetan, eta ahal duten heinean, jarduera beretan parte hartu behar dute.
- Ikasle horiek talde-ikasgela batekoak dira, eta tutoreak hartzen du prozesu osoaren azken ardura.
- ABZ, bere izenak adierazten duen bezala, laguntzeko zerbitzu bat da, eta diseinuan azaltzen diren zereginak ditu.

Zerbitzu hau, egitura hau pedagogia terapeutikoko irakasle-talde batek, Arans-Giko irakasle talde batek, laguntzaileek eta zerbitzuaren koordinatzaile batek osatzen dute.

Arreta Bereziko Zerbitzua (ABZ)-ren diseinua

Diseinua aurkeztuko dizuet. Nire ustez, diseinu ona da. Eskema orokorra soilik aurkeztuko dizuet. Diseinu osoa aurkeztea gehiegizkoa izango zen, diseinuko zenbaki guztiak garatuta baitaude protokoloen, orientazioen eta abarren bidez.

Ezkerreko zutabea zerbitzu honen eginkizunak azaltzen dira.

Eskuineko zutabeak ondokoa argitzen du: nork, nola... Adibidez, ezkerreko zutabea hauxe azaltzen da: *egoera eta premia definitu, eta idatziz jaso*. Eta eskuineko zutabeak, berriz, ondokoa argitzen du: Curriculuma Norbanakoari Egokitzea behar du, edo curriculumera sartzea, edo laguntza. Laguntza barrukoa (laguntzailea, logopeda, fisioterapeuta...) edo kanpokoa (terapia psikologikoa, banakakoa edo familiakoa) izan daiteke, eta, kanpokoa denean, ez dagokio ikastetxeari. Laburbilduz, zutabe honek premia definitzen laguntzen du.


HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEN ARRETA ZERBITZUA. (ABZ)

<ul style="list-style-type: none"> • Premiak, ohiz kanpoko egoerak atzeman. • Eskaera jasotzea. • Eskaeraren azterketa. • Egoera eta premia definitu, eta idatziz jaso. 	<ul style="list-style-type: none"> • Nork: <ul style="list-style-type: none"> - Tutoreak, irakasleek, ABZk, familiak, erakundeek... • Norena: <ul style="list-style-type: none"> - Tutorea azken arduraduna. • Nola. <ul style="list-style-type: none"> - Eskaeraren fitxaren bitartez (*1) • Jasotako informazioan sakontzea: <ul style="list-style-type: none"> - sektoreko tutoreak eta irakasleek. • Ikasleei zuzenki behatzea (*2) • Aztertzea, ikusitako datuak alderatuta: irakasleek eta ABZk. • Behar badira: <ul style="list-style-type: none"> - Probak (*3). • Curriculum Egokitzapen Indibiduala (CEI). • Curriculum-egokitzapena. • Laguntza: <ul style="list-style-type: none"> - Barrukoa (*4). - Ikastetxez kanpokoa (*5).
---	--

<ul style="list-style-type: none"> • Esku-hartzearen plangintza. • Familiarentzako informazioa. • Azterketa eta plangintza ikasleekin • kontrastatzea (ikasleei jakinaraztea). 	<ul style="list-style-type: none"> • Erabakiak hartzea honako hauen gainean: <ul style="list-style-type: none"> - Zer (helburuak). - Nork (tutorea, irakasleak, ABZ, laguntzailea...). - Noiz. - Non. • Departamentuan (*6) – estrategiak- • Departamentutik kanpora (*7) –estrategiak- • Baliabideen gela (*8) • Nork: <ul style="list-style-type: none"> - Tutoreak, ABZko tutoreak. • Helburua: <ul style="list-style-type: none"> - Azterketak azaltzea eta kontrastatzea. - Esku hartzeko plana azaltzea eta adostea. • Nork: <ul style="list-style-type: none"> - Tutoreak eta ABZk. (kasu bakoitzean baloratu behar da). • Helburua: <ul style="list-style-type: none"> - Egoeraren berri ematea aurrera egiteko. - Plangintza azaltzea, eta gertatutako aldaketak aurreratzea. - Ikasleek onar ditzaten eta lagun dezaten saiatzea. - Itzaropenak markatzea.
--	---

<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Premia Bereziatarako (HPB) berariazko materialak egitea. • Planaren bilakaera zaintzea edo ebaluazioa. (*9) • Familiekiko harremana. • Espezialistekiko dagoen harremana. • Urteko plana eta prestakuntza-plana. • Irakaskuntza-taldeko kideei informazioa eta prestakuntza ematea HPBen inguruan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleek definituta eta egiaztatuta. • Sektoreko bilerak, hiruileko ebaluazioa eta beharrezkoa denean. • Egokitzapenaren azterketa. • Prozesuaren edozein unetan, tutoreak eskatuta. • CEIren aurkezpenean. • Ikasturtearen amaierako edo balorazioko elkarrizketan. • Zerbait kanpoko espezialistaren gain utzi edo ez baloratzean. • Kanpoko espezialistekin bilerak egin behar direnean, ABZko irakasleek bertan parte hartuko dute tutoreekin batera. • Orokorra. • Berariazkoa.
---	---

Eskemarekin jarraitzen badugu, ikusiko dugu egitura berriak sortzen direla, eta egitura horiek eskola-elkarte osoa hartzen dutela. Zerbitzu berriak. Egitura horietako gehienak ikastetxeko zuzendaritzak koordinatzen ditu: nik ikasleen eta irakasleen oinarritzko egiturak aurkeztu ditut. Gustura aurkeztuko nituzke familien egiturak, intentsitate handiarekin bizi baitituzte, eta, gainera, benetako prestakuntza-esparruak izan baitira niretzat, baina denbora amaitzen ari da, eta oraindik beste egitura bat falta zaigu.



IAZTIK (IKASTETXEEN AHOHKULARITZA ZERBITZUTIK) SAREAN EGITURATZERA.

Historia pixka bat. Irakasleen prestakuntzarekin, aholkularitzarekin, lotutako zenbait gertakari gogoratuko ditut, lehen ere hortaz hitz egin dugun arren.

Durangon, abian zeuden departamentuak ireki genizkien proiektu honetan interesatutako profesionalei eta erakundeei. Ordutegitik eta eskola-egunetatik kanpo, hainbat prestakuntza-ikastaro eman genizkien irakasleei.

Donostiara iristean, Amara Berrin, eskaerak iritsi ziren ikastetxera, lan egiten nuen ikasgela ikusi ahal izateko. Ikasgela hori ere abian zegoen. Eskolak ematen jarraitu nuen, eta eskola-egunetatik kanpo, ikastetxe jakin batzuk diseinatzen hasi nintzen, erakunde batzuek eskatuta. Bakarrik hasi nintzen lan horretan baina berehala talde-lan bihurtu zen.

Instituzionalizatu egin zen: hilabeteen egun bat edo bi ematen genituen eskolako ordutegitik kanpo, beste ikastetxe batzuetako kideekin biltzeko. Lehenago esan dizuet biltzeko eta eztabaidatzeko forotzat genituela bilera horiek. Abian zeuden ikasgelak bisitatzen genituen, ikastaroak ematen genituen eta biltzarretan parte hartzen genuen. Gerora, ikastaroak mugatu egin genituen, ikastetxeetako taldeez arduratu ahal izateko, aukera handiagoa baitzuten ahaleginak sendotzeko.

Hemen zaudeten pertsona asko prozesu horretako elementu bizardunak zarete, ez zarete prozesuaren berri duten pertsonak soilik. Hala ere, nire ustez, garrantzitsua izan da historiaren zati batzuk gogoratzea, gertakari batez kontzientziatzen lagunduko baitigute.

Gertakaria ondokoa da: **hasieratik izan zen egitura hau , beste edozein egitura bezala, eta kultura hau ere bazen.** Egitura hori gabe, ziurrenik Amara Berri ez zen izango orain den ikastetxea, eta hori egia da ez Amara Berriren kasuan bakarrik, baita sistema hori duten ikastetxe guztietan ere. Egitura hori gabe, era horretara lan egiten dugun ikastetxe guztiok ez genituzke beste begi batzuk, beste adimen batzuk, beste errealitate batzuk edukiko. Zalantza egitearen falta sumatuko genuke, taldean eztabaidatzearena. Taldean, sistemaren kultur corpusa, gure ikastetxeetako kultur corpusa sortzea faltako zen. Bultzada faltako genuke, estimulua, adorea, neurri batean hori dela eta bizi baikara, eta hori dela eta gainditzen baitugu "nirea", "gurea" sortzeko.

Pixkanaka-pixkanaka gero eta profesional gehiagok bisitatzen zuen eskola, eta gero eta ikastetxe gehiagok eskatzen zuen guk aholkatzea.

Aurreko saioan esan nizuen bezala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak oinarritik sortutako eskaera bat jasotzeko gaitasuna eduki zuen, eta oraindik ere badauka. Ikastetxeen eskaerari erantzuteko, prestakuntzako zereginak eman zizkion Amara Berriri, sistema honen ildotik. Aholkatzeko, ikastetxeko irakasle-talde bat hartu zuen kontuan.

Hasieran, prestakuntzaren diseinua egin genuen.

Ikastetxe bakoitzeko klaustroekin biltzen ginen, ez baitzen lan partziala, pixkanaka-pixkanaka irakasle guztiak engaiatzen zituen-eta. Sistema azaltzen genuen, eta aholkularitzaren diseinua erakusten genuen.

Ondoko jarrerak aurkitu genituen: beldurra, erantzukizun handia zela-eta zama, batzuek sinesgogortasuna, eta beste batzuek arbuioa. Normala zen. Aholkularitza-taldeak beldurra eta erantzukizuna sentitu zuen. Hala ere, ikastetxeko irakasle gehienak zeharo lilurata zeuden, eta behar adinako ahalegina egiteko prest zeuden.

Aholkularitza-taldeko pertsonok gauza bera sentitzen genuen.

Ikastetxeetako irakasleak gogor zebiltzan lanean urteetan, baina proiektu partzialetan. Batzuk aspertuta zeuden buru asko eta hanka asko zituztelako, baina, beren esanetan, bizkarrezurra falta zutelako. Horregatik eskatzen zuten guk aholkatzea.

Hasierako akordioen ostean, klaustroaren ondoren, abian jartzen hasten ginen:

- Elkarrekin lan egiten genuen, eraikineko tokiak antolatuz, etorkizunari begira.
- Tokiak, sistema abiatzen zen departamentuak, planoaren gainean eta *in situ* diseinatzten genituen.
- Curriculumaren lehenengo fasea ematen genien, hasi ahal izateko.
- Prestakuntzaren diseinu osoa jartzen genuen abian. Diseinuak bost egitura edo esku hartzeko eremu ditu:
 - Zuzendaritza-taldeak eta koordinazioak.
 - Departamentuei behatzea eta ikastetxeak antolatzeko egituretan parte hartzea.
 - Amara Berri bisitatzea, ezagutzeko eta kontrastatzeko.

- Prestakuntza-ikastaroak eta topaketak, gaiak mintegietan eta beste antolamendu-egitura batzuetan garatzeko.
- Klaustroa edo pedagogikoa.

Azkeneko egituratik, azkeneko eremutik, hasiko naiz, hortik abiatu baitzen.

Klaustroa edo Pedagogikoa

Amara Berriren aukerak kontuan hartuta, aholkularitza-taldeak klaustroetan esku hartzen du proiektu bat abiatu nahi denean, irakasleek sistemaren ikuspegi orokorra edukitzeko eta prestakuntzaren diseinuaren berri edukitzeko. Argibide horiek emanda, eta beren indarrak neurtu ostean, klaustroak proiektua gauzatzeko konpromisoa har dezakete, ikastetxeak hala adostuta.

Orobat, zuzendaritza- eta aholkularitza-taldeak komenigarri irizten diotenean ere jotzen da egitura horretara: estimulua behar dutenean, zailtasun bereziak dituztenean, egoera bat berririo aztertu behar denean, aholkularitzaren koherentziari eutsi behar zaionean, eta -zer-gatik ez?- baita adorea hartzeko eta talde-kontzientzia eragiteko ere.

Prestakuntza-ikastaroak eta topaketak

Prestakuntza-ikastaroak garapen-ildo jakin batzuk erakusteko egiten dira. Hainbat gairi buruzkoak izan daitezke: euskara, musika, gorputz-hezkuntza, ikus-entzunezko baliabideak edo arloko garapena.

Horiek antolatzeko, ikastetxeen eskaera esplizituak edo inplizituak hartzen dira kontuan, eta Amara Berrik beste ikastetxe horiei harrera egiteko zein gaitasun duen ere bai.

Topaketak. Egitura hauetan batera lan egiten da, eta curriculumaren alderdi jakin batzuk garatzen edo konparatzen dira. Edozein mintegiren lana izan daiteke: departamentua, tes-tuingurua eta haren edozein fase. Ezin daiteke falta curriculumaren oinarri den ikuskera-ren gogoeta.

Batera lan egiten dugun ikastetxeok hau nahi dugu: beste ikastetxe batzuekin kontrastatzeko modua izan, aukerak zabaltzeko, bat ez datozen dinamikak bideratzeko, gogo bizia eransteko... aukera eduki. Oro har, bitzta sortzen eta transmititzen dugula ohartzea.

Foro bat da, egitura bat, sare bat, mintegi bat, ziklo bat. Garrantzirik ba al du izenak? Garatuz doa, gero eta kontzientzia biziagoa eragiten ari da, eta sare hau osatzen dugun ikastetxe guztiok ari gara garapen horiek lantzen, hori da garrantzitsua.

Ikasteko eta alderatzeko asmoz Amara Berrira egiten diren bisitak.

Irakasleek egiten dituzte ikustaldiok, eta hainbat xederekin etortzen dira, sistemak ikastetxean dituen premien edo sistemaren beraren garapenaren arabera eta pertsonen prestakuntza-mailaren arabera. Gehienetan, beren praktika alderatzera etortzen dira. Zuzendaritza-taldeak aholkularitza-taldearekin adosten du ikustaldia.

Beste kide batzuek beren atea irekitzen dituztela ohartzea jada bada ikastea.

Horrez gain, aurkikuntza handia izan ohi da era horietako bisitak prestakuntza-eremu direla egiaztatzea. Aurretiko prestakuntza behar dute, errentagarriak izateko eta azalean ez geratzeko. Horretarako dokumentuak badaude. Eskematikoena aurkeztuko dizuet.

Dokumentuak ez ditugu edozein bisitarekin erabiltzen, elkarrekin lan egiten dugun profesionalak datozkigunean baino ez ditugu erabiltzen. Ondo etortzen da, zeren eta, batzuetan, pertsona batzuek nahiago izaten baitute materialak ikusi beste alderdi garrantzitsua-go batzuk baino, ikastetxean denbora gutxi daramatelako.

Amara Berrin, ez dugu ikastetxe perfekturik erakutsi nahi, ez dugulako.

Batzuetan, departamentuetan ordezkoa egoten da, eta horrek ez du esan nahi okerrago egiten duela. Ahal duena egiten du. Ez du axola. Departamentu batean, asko ikas dezake, edo, beharbada, egiazta dezake berak hobeto daramala.

Hori bikaina da. Garrantzitsua da alderatzea eta haztea. Irakur dezagun dokumentua.

BISITA

Aurretikoak birkokatzea, prestakuntza-eremu honetaz gozatzeko, testuinguru bakoitzean egitura, materialak, giroa, esku-hartzea, ebaluazioa, irteerak... ikusita, eta horien oinarri diren ikusmoldea eta irizpideak begiztatuta. Hau da, norberaren eta taldearen garapena bilatzea.

Edukiak	Helburuak
<ul style="list-style-type: none"> • Espazio- eta denbora-egitura ikustea, eta egitura horien oinarri diren irizpidez jabetzea. • Materialak eta hautaketarako, lanketarako, erabilerarako eta abarrerako irizpideak ezagutzea. • Giroa ikustea. Gorputzaren tonua, lane-ko giroa, kontzentrazioa, naturaltasuna. Ikasgelaren antolaketa fisikoa eta estetikoa. Kolorea, argia, aireztapena... • Irakaslearen esku-hartzea ikustea. <ul style="list-style-type: none"> – Kokapena, lekualdaketa, ahots-tonua; – Ikasleei eskaini beharreko arretaren banaketa; – Lanak zuzentzeko modua(k); – Lan-metodoa erabiltzea; – Jardueraren, ikaskuntzaren aurretikoen, plangintzaren eta ebaluazioaren muinaz kontzientziazteko estrategiak. • Jarduera bakoitzaren irteera-mota ikustea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgela, ikastetxea, edozein bilera, edozein topaketa, etab. prestakuntza-esparru eta norberaren eta taldearen garapenerako esparrutzat hartzea. • Praktika kontrastatzea eta baloratzea. • Sistema gehiago ezagutzea. • Aurretikoak birkokatzea, uneaz eta orainaz gozatzeko.

Bisita hauek komenigarriak dira irakasle guztientzat, baita koordinatzaileentzat eta zuzendaritza-taldeentzat ere. Bisitei berariazko ikuspuntua eman behar zaie, bisita bakoitzaren eginkizunaren arabera.

Departamentuei behatzea eta ikastetxeetako antolamendu-egituretan parte hartzea.

Departamentuei behatzea.

Zuzendaritza-taldearen lana da abian dauden ikasgelei behatzea eta haien bilakaera zaintzea, ikasketa-burutzaren bitartez, edo bestela, koordinatzaileen bitartez. Eginkizun hori betetzeko denbora behar da.

- Giroa behar da. Gaiaren inguruko kultura behar da ikastetxean.
- Eginkizun hori zerbitzu gisa ikusi behar da, eta, horretarako, departamentuaren atak ireki egin behar dira.
- Eginkizunean gaitasuna behar da.

Amara Berrin ikasi egin dugu hori. Nik ikasi egin dut, behaketari atak irekita lan egin dudalako.

Protokolo bat dago, eta zaindu egin behar da. Behaketa egiteko eta bilakaera zaintzeko diseinu bat dago, eta ez dut diseinu hori hemen sartuko, luzea delako. Diseinu hori curriculumaren fase guztiei buruzkoa da.

Departamentuetan ez gara ikuskatzeko sartzen, baizik eta ikertzeko, garatzeko, aurrera egiteko, eta hori dela eta prestatu behar da edukia.

Behatzen ari den pertsonak eta pertsona horri behatzen ari den lagunak behaketaren gaia zein den jakin behar dute, eta, ondoren, ikusitakoaz jardun behar dute. Behaketarako diseinatutako dokumentua irakasle guztiek eduki behar dute, baita ikusten ari denak ere, biek aurrera egiteko tresna da eta.

Normalean, aholkularitza-taldeak hartzen du bere gain zeregin hori. Gero, pixkanaka-pixkanaka zuzendaritza-taldearekin hasten da partekatzen, baina hari laguntzen eta aholkatzen jarraitu ohi du, eginkizun hori garatzeko konfiantza osoa duen arte.

Hainbat egituretan parte hartzea

Zuzendaritza-taldeari dagokio ikastetxeko egiturak koordinatzea eta dinamizatzea, kide bakoitzak duen eginkizunaren arabera: idazkaritza, janlekuak, kirolak, garraioa, ekonomia, pedagogikoak esaten diegunak, batik bat ikasleekin, irakasleekin eta familiekin lotuak.

Aholkularitza-taldeak, zuzendaritza-taldearen laguntzaile gisa, oraingoz egitura pedagogikoetan esku hartzen du, ez kanpoko behatzaile gisa, taldeko elementu beste elementu baten gisa baizik, gure harremanak hurbilekoak direlako eta gure topaketetako kultura dela eta. Eginkizun horretan dagoela, egitura pedagogikoek zein funtzionamendu duten ikus dezake, berregituratu egin dezake, gauzak eraldatu edo zerbaiten kariaz esku hartu, sistemaren alderdi teorikoetan sakontze aldera.

Zuzendaritza-taldeak eta koordinazioak

Aholkatutako ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin egiten diren bilerak dira, eta bilera horiek irekita daude beste antolamendu-egitura batzuetako koordinatzaileentzat, ikastetxeen premien edo aukeren arabera.

Egitura hau, gainerako beste egitura guztiak bezala, bertan parte hartzen dugunontzat bakarkako eta taldeko prestakuntza-esparrua izan dadin nahi dugu.

Honako hau nahi dugu:

- Ikastetxeaz kontzientziatzea.
- Zuzendaritza-taldearen eginkizunen inguruan sakontzea, talde bakoitzak bere eginkizunak aurkitu eta diseina ditzan.

Ez da koordinazio-eredu bakarra eman nahi. Ikastetxearen errealitatearen, bizi duen unearen eta zuzendaritza-taldeko kideen ezaugarrien arabera, hainbat eginkizun, jarduera eta estrategia esleiri daitezke, beti ere taldeko irizpidetik eta ikuspuntutik abiatuta.

- Ikastetxearen batasuna bultzatzea eta batasun horri eustea, proiektu orokor bat bultzatuta.
- Ikastetxearen egiturak esku hartzeko eta prestakuntzako esparru gisa ikustea eta hala erabiltzea. Era sistemikoan ikustea, zerbitzu gisa.
- Departamentuen behaketa zer den hautematea eta nork bere gain hartzea, norbere eginkizunetik bertatik, sistemaren bilakaeraren giltzarritzat, eta denek aurrera egiteko funtsezko elementu gisa.
- Nork bere gain hartzea antolamendu-egitura guztien koordinazioa, bakoitzak bere eginkizunetik.

- Sistemaren printzipioetan eta ikuskeran oinarrituta, eskaerak, azterketak eta erabaki-hartzeak itzultzen ikastea. Hau da, esaten dena besterik gabe ez onartzea, baizik eta, beharrezkoa bada, errepikatzea eta esandakoa birmoldatzea, berriro zalantzan jartzeko moduan.
- Idatzizko dokumentuak jasotzea, koordinatzea eta egitea.
- Esku hartzeko tresnetan sakontzea: IHP- ICP – Antolamendu-egiturak – Memoria eta urteko plana.

Hori lortu nahi izan dugu egituraren diseinua egiterakoan, ez beste ikastetxeetako taldeentzat, egiturarentzat baizik. Beraz, parte-hartzaile guztientzat nahi dugu, baita aholkularitza-taldearentzat ere.

Oso gertutik bizi izan dut egitura hori. Nola jaio den ikusi dut, aholkularitza-taldea jaiotzen ere ikusi dut. Niretzat, foro aberasgarrietako bat izan da.

Bere edukia ikastetxe bati dagokion guztia da. Beste ezer eska al daiteke? Orain edukitzen ari garen topaketa hauen edukiaz haratago doa. Liburu honen edukiaz haratago doa.

230

Agian, horregatik eduki du bilakaera handia gure garapenak. Bilera hauek, hasieran, zentratzeko bilerak izan ziren, historiaren ingurukoak, transmisioaren ingurukoak eta parte hartzekoak.

Saio haiek liburu honetako galderen eta erantzunen modukoak ziren. Zuen ustez, erantzun dut? Hori ez zen nire asmoa. Bilera haien eran egin nahi izan dut. Berriro galdetzeko erantzunak eman nahi nituen, nire ustez, bizitzan ez baitaude erantzun finkoak, ezta orokor bilakatzeko moduko erantzunak ere.

Foro honetan batik bat ikasi dugu aniztasuna dela gure aberastasunaren iturri. Nik ikasi dut bertan gauden ikastetxe guztiok elkarren beharra dugula. Sare bat sortzeko gai izan garela; batera lan egiteko, eztabaidatzeko, sortzeko, kultur corpusa definitzeko sare bat sortzeko gai izan garela. Egunetik egunera egitura gehiago har ditzakeen sare bat.

Hauek dira prestakuntza- edo aholkularitza-diseinu horretan ageri diren esku hartzeko esparruak.

– *Urte asko al daramazue prestakuntza-plan horretan?*

- Plan ofizial honi buruz ari bazara, uste dut ikastetxe batzuek hamar urte daramatela gutxi gorabehera. Beste ikastetxe batzuek gutxiago. Denbora asko dela dirudi, baina ez da asko. Kontuan har ezazue proiektu orokor bati buruz ari garela, proiektu horrek bere barruan dituela ikastetxe baten inguruko gauza guztiak. Bere edukia ikastaro partzial asko eta askoren emaitza da.

"Bere helburua da ikastetxe bat antolatzea, mailaz maila, definituz eta barneratuz doan ikusmoldearekin koherentzian. Denon artean ari gara sortzen kultur corpusa.

"Ikastetxeak hamar maila baditu eta maila bakoitzak praktikan jartzea, sakontzea eta orokortzea behar baditu, oraindik ibilbide luzea geratzen da.

"Ez dakit badakizun, baina Euskadiko ikastetxe gehienek hainbeste urte edo urte gehiago daramate prestakuntza-planetan. Eta horrela izan behar du. Beti prestatu behar da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak prestakuntza bultzatzen du, kalitateari laguntza emateko. Hala ere, garrantzitsuena ez da planak abiatzea, garapenak sendotzea baizik.

– *Ikastetxean, zer hobetzea gustatuko litzaizuke?*

- Ikasle-antolamendua, aberastasun handieneko testuinguruetakoa bat delako, eta nolabait geldituta dagoelako. Aurretik esan dizuedan bezala, bertan garatzen dira helburu nagusiak. Zaila da helburu horiek bestela lortzea.

– *Gehiago azal al dezakezu sarearen kontzeptua?*

- Ea. IAZn zentratu aurretik, ikastetxearen azkeneko eskema aurkeztu dizuet. Muina ikasleak dira. Hortik abiatuta, egitura berriak, eraztun berriak, zerbitzu berriak sortzen joan dira inguruan. IAZrena falta da, eta horrek ere agertu beharko luke, Amara Berri beti egon delako irekita beste ikastetxeentzat. Elkarrekin lan egiten dugun ikastetxeok antzeko eskema dugu: muinean ikasleak eta egiturak, sortzen ari diren zerbitzuak.

"Ikus ezazue eskema eta irudika itzazue eskema honen antzeko hogeitaz munitzen, elkarrekintzan. Ikasgelak ireki egiten dira. Mintegiak elkarrekin lanean aritzen dira, curriculumaren faseen gainean. Zuzendaritza-taldeak, beren eginkizunen gainean.

Bisitak daude, ikastaroak. Aukera eta errealitate mordo bat. Kultur corpusa dugu, garapen teorikoak, denon dokumentuak eta errealitate nabarmen bat.

“Nire irudimenarekin, hogeit eskema hauek zeruan kokatzen ditut, eta ez dut ahazten gehiago garela. Elkarrekintzan, mugitzen ikusten ditut, eta galaxia bat ikusten dut. Hori sare bat da. Sistema bat da. Gogora ezazue bertan ez dagoela ez lan handirik ez lan txirik ere, denok gara beharrezkoak.

“Ikastetxe bakoitzak bere erritmoa du eta bere bidea egiten du, pertsonak egiten duten moduan. Ikastetxe batek mintegi bati egiten dion ekarpenean gaindi gaitzake, beste ikastetxe bat gai da foro publiko batean gu ordezkatzeko.

“Hori sare bat da. Ikasleei hobeto erantzuteko bilatu nahian gabiltzala sortutako zerbitzua da.

“Galaxia horri begira *Amara Berri Sistemaren inguruan* amaitu nahi dut topaketa hau. Galaxia horretan ez da inor falta. Galaxia horrek bizia ematen digu, bizigarri berria, elkarrekintza berriak, amets berriak eta errealitate berriak.





Dokumentuak

Hezkuntza-asmoa adierazten du.

Eskola-elkarte osorako hazkunde-proiektua da (ikasle, irakasle, guraso, irakaskuntzaz besteko langileak) norberaren eta taldearen hazkunderako proiektua.

Antolamolde, programazio eta ebaluaketaren estiloa bideratzen du.

IKASLEAREN KONTZEPZIOA printzipio metodologikoekin erabat lotua.

Ikasle bakoitza izaki globala da (*globalizazioa*), bere burua kokatu behar duena (normalizazioa), bizi, sentitu, eriden, elkar hartu, aditzera eman, harremanak izan (*sozializazioa*), buruari eragin (*aktibitatea*), aztertu eta erabakiak hartu (*askatasuna*) behar duena, egina dagoena gaindituz (*sormena*).

Beraz, bere garapenaren esparru guztiak interesatzen zaizkigu: nortasuna, harreman sozialak, jakintzagaien ikaskuntzak.

Bizitza globala dela esaten dugunez, Ikastetxean bizi-egoerak sortu behar dira. Horietan ikasleak bizi ahal izango du eta bizi denez ikasiko du.

Ikasleak bere interes eta motibazioak ditu: jokoak, eta honen bidez, helduen mundua imitatzen du.

Ikasle bakoitza kontzeptu eta emozio eskema zehatz batetik abiatzen da eta bere ahalmena du (*indibidualizazioa*).

IKASTETXEAREN HELBURU OROKORRAK

Helburu hauek ikasleentzako ez ezik, eskola-elkarte osorako norberaren eta taldearen hazkunde-proiektutzat jotzen ditugu.

Norberaren garapenarekin biziki lotutako helburuak:

Nortasunari dagozkionak

- Bere barne mundua eta afektibitatea adierazi.
- Bere gorputza ezagutzuz eta garatuz joan.
- Arretazko jarrera garatu dezala:
 - Sentitzen dudana
 - Gertatzen zaidana
 - Nire gorputzak behar duena
 - Gelditzen jakitea...

- Jokaeran eta pentsaketan autonomia hartu.
- Bere burua ezagutzuz, gure mugak onartu eta autoestimua indartu.
- Jakin-nahia, behaketa eta bilatzeko grina garatu.
- Uneaz, orainaz gozatzen jakin.
- Kontzentratzeko gai izan.
- Egiturak aldatu eta sortzen diren gatazka edo zailtasunak konpontzeko jarrera aktibo eta sortzailea eduki.
- Sentiberatasun artistikoa garatu.
- Isiltasunaren garrantziaz jabetu.

Harreman sozialei dagozkienak

- Kosmosaren parte garena pentsatuz, gure bizitzeko eraren ezaugarri izan dadila: naturarekiko eta bera zuzentzen duten legeekiko harremanetan, berarekin kooperatuz.
- Bestearenganako kontzientzia hartu:
 - Bere presentziaz jabetu.
 - Bere izaera errespetatu.
 - Bera ulertu nahi izan.
 - Berarekin bat egin.
- Jarrera tolerantzia agertu.
- DESBERDINTASUNA dohaintzat hartu eta ez eragile diskriminatzaile bezala.
- Gizarteak, kulturak eta hizkuntzak sortutako inguruko parte sentitu, bertan gertatutako aldaketa eten gabe eta sakonen aurrean sentsibilitatea garatuz.
- Pertsonak direnagatik baloratu, eta ez dutenagatik.
- Kolektibitatearekiko zerbitzuetan konpromiso aktiboa hartu.
- Hartutako konpromisoen aurrean ardura hartu.
- Elkarrizketaz baliatuz, irtenbideak bilatu (adostasunezko irtenbideak, botoaren gainetik daude). Botoa ematerakoan, ardura.
- Giza sentsibilitatetik abiatuz, portaera zuzenak bideratu.
- Kritika aurrerapauso, hau da, laguntza bezala erabiltzen eta jasotzen jakin.
- Gizatasun kategoria eman bere hutsegiteak onartu eta aitortzen dituenari.
- Ideiak arrazoituz defendatu eta aldatzeko gai izatearen artean oreka lortu.
- Gutxiengoari entzun eta ulertzen saiatu ondoren, gehiengoak hartzen dituen erabakiak onartzen ikasi.
- Materiala zaindu eta era egokian erabiltzeko ohiturak garatu.
- Injustizia ekiditeko, MUGA SOZIALAz jabetu, errespetatu eta eskatzen jakin.

Diziplina-arloei dagozkienak

* Ikus Ikastetxearen Curriculum Proiektua

ESKOLA ELKARTEAREN EZAUGARRIAK

Ezberdintasunak eta aniztasunak eraten dute. Ezberdintasuna: fisikoa, psikikoa, sozio-kulturala (ekonomikoa, hizkuntzarena, arrazarena, sexuarena, pentsaketarena...).

Ikuspegi honetatik, eskola-elkarteak konpentsazioa kontuan hartzen du.

Ekintzen eta pentsaketaren autonomian oinarritzen da askatasuna, tolerantzia oinarri dela, eta elkarriketaren bidez adostasuna bilatuz. Bide horretatik konpondu ez diren arazoan aurrean, taldean gehiengoak hartutako erabakiak dira jarraitu beharreko aukera baliagarri praktikoa.

Egiturak aldatzeko, sortzen diren gatazka edo zailtasunak konpontzeko, jarrera aktibo eta sortzailea bidetzat hartzen da.

Eskola-elkartean sortzen diren beharrak edota arazo berriak planteatu eta konpontzen saiatzeko, jarrera irekia azaltzen du.

Eskola inongo ideia politiko eta erlijiosoren menpe edo eraginpean ez egotearen alde gara, nahiz eta guztientzako irekita eduki.

Kulturartekotasunaren aurrean jarrera irekia. Kide bakoitzak, elkarreaginaren eta informazioaren bidez, aurreiritzirik gabe, kultura ezberdinei buruz (gutxiengoenak – gehiengoenak) pentsamolde zabala, tolerantea, asimilatzailea izan dezala batetik, eta gure gizarteko mugikortasuna kontuan edukiz, kultura eredu ezberdinetan moldatzeko baliabideak izan ditzala bestetik.

Kontzepzio hau herriak elkarrekin hobeto ulertzeko oinarrian kokatzen dugu.

Eskolak, euskara adierazpen eta komunikaziorako bidetzat bultzatu eta sustatzen du, eta era berean, egiten diren jarduera guztietan euskararen erabilera ahalbidetzen du.

Ingurunea, bere zentzu historikoan ulertzen du. Belaunik belaun jasotakoa zaindu eta garatzeko konpromisoaz arduratuz.

Gorputzaren garapena, higiena eta osasuna, giza garapenerako elementutzat hartu eta bultzatzen ditu.

01-01 INDIBIDUALIZAZIO PRINTZPIOA

<p>Bakarlana, talde-lana, lan pertsonala, lan indibidualizatua eta indibidualizazio-printzipioa bereizten ditugu.</p> <p>Indibidualizazio-printzipioa pertsona bakoitzari bere mailan eta bere erritmoan, bere gaitasunetatik eta bere egoeratik abiatuta lan egiteko aukera ematen dion programa gauzatzea ahalbidetzen duen ikuskera da.</p> <p>Indibidualizazioa eta desberdintasunaren kontzeptua, aniztasunarena, oso loturik daude.</p> <p>Gizakiaren osotasuna hartzen du kontuan.</p> <p>Metodologia baten bidez gauzatzen da.</p>	<p>Bakarlana. Pertsona bakar batek egiten du.</p> <p>Talde-lana. Taldean egindako lana.</p> <p>Lan pertsonala. Ekarpen pertsonala egiten duen bakarlana edo talde-lana.</p> <p>Lan indibidualizatua. Pertsona batek bere mailan eta bere erritmoan egindako lana.</p> <p>Aurretikoak kontuan hartzea. Lan indibidualizatua izan dadin, ikasleak ahal duen zerbait egin behar du, dakienarekin loturiko zerbait, baina baita behar duenarekin loturikoa ere. Ahalegina ere ezinbestekoa da, gehiago aurrera dezan.</p> <p>Pertsona guztiak desberdinak gara.</p> <p>Izaki globalak gara:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontzeptu- eta emozio-eskema bat dugu. - Nork bere potentziala dugu. - Ikasteko modu bat daukagu. - Adin, interes eta motibazio jakinak ditugu. - Nortasuna dugu. - ... <p>Testuinguru sozialak, egonkorrak eta osagarriak sortzen dira, motibazio-elementu diren ikasle-en interesak eta kezak kontuan hartuz. Beraz, helburua ez da motibatzea, ikasleen interesekin uztarturiko programa bat sortzea baizik, bakoitzak edukiak bere mailaren eta erritmoaren arabera ikas ditzan eta hainbat gaitasun gara ditzan.</p>
--	--

<p>Banakako esku-hartzea dakar, baina irizpide komunekin.</p>	<p>Irakasleei kontzeptua barneratzea eskatzen die ezinbestean. Lan egiteko eta esku hartzeko modua ikasle bakoitzaren errealitateari egokitzen zaion neurrian, desagertu egiten da eskolaporrotaren ideia, banakotasunetik bertatik benetako aurrerapausoa ematen da-eta.</p>
<p>Ikasleen bilakaera banan-banan zaintzea eskatzen du, eta haien ebaluazioa banaka egitea.</p>	<p>Irakasleak estandarraz edo taldez haratago doan analisi-esparruan sartzen ditu ikasleak eta familiak, nortasun eta potentzial indibidualaren arabera bideratzeko.</p>

01-02. SOZIALIZAZIO PRINTZIOA

<p>Izaki sozial izatera eta hala jokatzerara garamatzan ikuskera da.</p>	<p>Guretzat, izaki soziala bere izatea eta jarduera muga sozialaren barruan garatzen dituen izakia da. Muga soziala, berriz, norberaren eskubidea eta besteena orekatzen eta uztartzen dituen esparrua da.</p> <p>Gizabanako guztiak gizartean bizi gara, baina egoera hori hainbat modutara bizi dezakegu: besteak menderatuz, taldearen menpeko, bizkarroi, bakarti, eta abar.</p> <p>Gizabanakoa izaki soziala da, eta besteen beharra du fisiologikoki, afektiboki... garatzeko. Imitazioaren bidez –irakatsi egiten digutelako- eta elkarrekintzaren bidez garatzen da.</p> <p>Muga soziala, arau edo legeen sintesia baino gehiago, besteen eskubideen aitortpena da, betiere norberaren eskubidearekin alderatuta.</p> <p>Sozializatzen hasten denarentzat, onartzea, baloratzea, ekarpenak egitea, funtzionamendu sozial mota batean sartzea eta hobeto moldatzeko estrategiez jabetzea dakar.</p>
<p>Sozializazioak elkarrekintza dakar.</p>	<p>Gizarteratzea eta elkarrekintza bereiztea. Ez gara ari integrazioaz, moldaeraz, elkarrekintzaz baizik, eman eta jasotzeaz, alegia.</p> <p>Testuinguru-, taldekatze- eta pertsona-aniztasuna dituen antolamendu-egiturak ahalbidetzen duen elkarrekintzaz.</p> <p>Nahita, pertsona-aniztasuna bilatzen da taldeetan, baita pertsona horiek hainbat taldeetako kide izatea ere. Elkarrekintza horretan, aberastu egiten da gizabanako bakoitza eta haren talde soziala.</p>

<p>Sozializazioak emozioak azaleratzen laguntzen du.</p> <p>Sozializazioa kontzeptu- eta jarrera-eskemak aldatzeko ezinbesteko baldintza da.</p> <p>Sozializazio-elkarrekintza, gizabanakoaren eta taldearen nortasuna sortzen duen kontrastazioa.</p>	<p>Barne-mundua eta afektu-mundua adieraztea heldutasunaren adierazgarri da.</p>
--	--

01-03. JARDUERA PRINTZIPIOA

<p>Jarduera-printzipioa pertsona baten jardunean eta bere egiteko gaitasunean eragiten duen ikuskera da.</p> <p>Autonomia sortzen du.</p> <p>Adimen ekinkor eta gogoetsutzat hartzen da.</p> <p>Aurretikoek ekintzaren kalitatea markatzen dutela ohartzea dakar.</p> <p>Beharrak, motibazioak eta interesek bultzatuta sortzen da.</p> <p>Pertsona bakoitzak bere buruarengan duen konfiantzari loturik dago. Gogoeta egiteko, erabakiak hartzeko eta jarduteko gaitasunari eta autoestimuari lotuta.</p> <p>Egiteko gaitasuna edo trebatzeko jarrera eskatzen du.</p> <p>Helburua garbi izan behar du.</p> <p>Norberaren inplikazioa dakar.</p> <p>Jarduerak mugimendua eragiten du, aritzea.</p> <p>Norberaren estilotik abiatuta planifikatzeak indartu egiten du.</p>	<p>"Ikasle bakoitzak bere kabuz egin dezakeen ezer ez egitea irakasleek". Printzipio hori ikasleei eta irakasleei aplikatzen dake. Irakasleak bere kabuz egin dezakeen ezer ez dezala egin ...k.</p> <p>Ernaia, ekimena duena. Jakin-mina, jakiteko gogoia, aurrera egin nahia... Ez da aktibismoa. Gogoetarik gabeko ekintza batek egoera bat honda dezake, baita behar bezala konpontzea eragotzi ere.</p> <p>"Bizi-tentsioa." Emozio-egoera.</p> <p>"Ez badakit, trebatu egingo naiz."</p> <p>Ekintzan jarrera azkarra. "Mugimendua ibilian erakusten da."</p> <p>Daukadanaz, nahi dudana eta lortu dudana jabetzea. Kokatzea, non nagoen ohartzea. Zer</p>
--	--

<p>Ahaleginari loturik dago.</p> <p>Erabilitako metodologiak baldintzatzen du eta irakasleek horretan betetzen duten egitekoak eragin zuzena du jardutearen edo aritzearen kalitatean.</p>	<p>falta den eta zer norabidetan jardun behar den ikustea etab.</p> <p>Kontziente banaiz, modu jakin batean bilatzen eta jarduten dut, neure estrategiak garatuz.</p> <p>Norbera da norbere garapenaren subjektu edo protagonista.</p> <p>Helburua ez da motibatzea: helburua ikasle bakoitzak dituen motibazioei lotzea da.</p> <p>Gauzak ez dira eginda ematen. Eginarazi egiten da. Azaleratzea eragiten da, aurrera eginarazten da.</p> <p>Kalitatea sustatzen da kantitatearen gainetik.</p> <p>Ezarrirako testuinguruak berak kokatzen ditu ikasleak: lan-metodoak, zertarakoak, baliabideek, garatzen diren ikaskuntzez eta gaitasunez jabetzeak, sortzen diren harremanek etab.</p> <p>Jarduera prozesuala denez, prozesuaren urrats bakoitzean birkokatzeak, irakasleekin kontratatzeak, ikaskideekin elkarrekintzan izateak eta kritika sistematikoak bere burua ezagutzea eta aurrera egitea ahalbidetzen diete.</p> <p>Irakasleek ikaslearen jardunean jartzen duten igurikimen positiboak (ongi egin dezakeela pentsatzea eta hori transmititzea; emandako aurrerapausoak eta bere mugak eta aukerak ikusaraztea) autoestimua garatzen laguntzen du.</p> <p>Jasotzen dugun irudia ere bagara, ematen diguten irudia.</p> <p>"Orri zuria, puntu beltza."</p> <p>Jarduera geldiarazi edo galaraz daiteke aurea hartuz, edo, emaitzak edo prozesuak azkartu nahian ebatziz.</p>
--	---

	<p>Metodologia honek zalantzan jartzen du eraginkortasun faltsu hori:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ebaztea eta heztea ez da gauza bera.• Ebaztea eta ikastea ez da gauza bera. <p>Baliteke baldintza jakin batzuek (aurretikoek) jarduera mugatzea. Aurretikoetan esku hartuz garatzen da hori.</p>
--	---

01-04. SORMEN PRINTZIPIOA

<p>Zerbait sortzeko trebetasuna edo gaitasuna.</p> <p>Sortzea bizia ematea da. Zerbait jaioaraztea. Bizia mantentzea.</p> <p>Jakina dena eta eginda dagoena gainditzea.</p> <p>Gizaki guztion gaitasuna edo potentzialitatea da. Berezkoa da.</p> <p>Uztarturik dago emoziozko adimenarekin: zu zeu izatea, zeure arrastoa uztea. Aurretikoak (autoestimua, interesak...).</p> <p>Sortze-ekintza, barne-eraginak eta kanpo-estimuluak bat egiten duten puntua. Jakina dena eta eginda dagoena gaindituz, dagoenetik abiatuz, ekarpen garrantzitsuak egiten ditu.</p> <p>Alor guztietan eta maila desberdinetan garatzen da bakoitzarengan.</p> <p>Bere garapena eta adierazpena ez da lineala.</p> <p>Berez ager daiteke.</p>	<p>"Inteligentzia sortzailea". Ingurunera egokitzeko eta ingurunea transformatu eta gure beharretara egokitzeko gaitasuna (ilea luzatzen zaizu edo beroki bat egiten duzu).</p> <p>Huts egiteari beldurrik ez izatea. Hanka sartze- ra ausartzea. Apustu egitea. Sortzeko estilo desberdinak daude, ikaskuntza- estilo desberdinak dauden moduan. Bakoitzak barruan duena atera eta ezagutzeko aukera, bere berezitasunaz ohartuz.</p> <p>Memoria historikotik abiatzen da. Genetikoak denak eta kulturala denak bat egiten dute. Bizitzeagatik "arrastoak", ideiak, bizipenak, ezagutzak etab. eskuratzen dira, eta hortik abiatuta sortzen da. Sortze-ekintzak ahalegina eskatzen du. Ahalegin atsegina edo sufrimenduzkoa. Sentimenduekin uztarturik dagoen ahalegin intelektuala eta erraietakoa.</p> <p>Faseak daude, gorabeherak,aldiak.</p> <p>"Jenialtasunaren zoroaldia." Ez nahasi sormena jenialtasunarekin. Ez nahasi sormena eta jenialtasuna arrakasta sozial edo komertzialarekin. Ez nahasi garatzea nabarmentzearekin. Batzuetan ospetsu bihurtzen denarengan pen- tsatzen da.</p>
---	---

<p>Sormenaren garapena suspertu egin daiteke.</p> <p>Erabilitako metodologiak eta irakasleek duten egitekoak eragin zuzena du sormenean.</p>	<p>Inguruak sormena garatzen laguntzen du edo garapena oztopatzen du.</p> <p>Metodologia guztiek ez dute indar berberaz sustatzen sormena.</p> <p>Irakasleek, emateko baino gehiago, ikasleek barnean dutena atera dezaten eta kontzientzia har dezaten esku hartzen dute, ez beharrari aurre hartzeko.</p> <p>Afektu- edo segurtasun-esparrua sortuz eta ikasle bakoitzaren ikasteko edo sortzeko estiloa errespetatuz esku hartzen dute.</p> <p>Ikasleak eta haien obrak desberdintasuna errespetatuz hartzen ditu. Prozesua baloratzen du, ez emaitza bakarrik.</p> <p>Jarrera "epaitzailea" eta "zentsura-jarrera" (hitzen nahiz keinuen bidezkoa etab.) eragozten ditu, horrek aurrera egiteko aukerak oztopatzen eta blokeatzen baititu.</p> <p>Irakaslea desagertu egiten da ikasleen obraren helburutik, ikasleek zertarakoarekin edo irteerarekin bat egin dezaten.</p> <p>Irakasleen aldetik sormen falta baldin badago, litekeena da hori proiektatzea, ikasleen sormen-aukeretan ez sinestuz.</p> <p>Modeloa estereotipotzat erabiltzeak sormena oztopatzen du. Aldiz, modeloa planteamendu berrietarako erreferentzia edo iradokizun gisa erabiltzea lagungarri izan daiteke.</p> <p>Egoera bakoitzean hainbat bide eta irtenbide aztertzea ahalbidetzen du, eta horrek gauza bakoitza hainbat ikuspuntutatik ikusteko ohitura sustatzen du.</p>
--	---

01-05. ASKATASUN PRINTZIPIOA

<p>Indibiduala denaren eta soziala denaren artean mugitzen den bizi-egoera.</p> <p>Pentsatzeko, adierazteko, aukeratzeko eta bakoitza den bezala azaltzeko eskubidea, betiere besteak errespetatuz.</p>	<p>Besteen eskubidea urratu gabe gauzatzen da. Besteen eskubideak markatzen du guk muga soziala esaten dioguna.</p> <p>Gure muga pertsonalek edo sozialek gure askatasuna bortxa dezakete. Muga sozialaz eta gizabanako bakoitzaren gaitasun eta garapenei loturiko muga indibidualez jabetzen ikasi behar da.</p> <p>Norberaren mugak eta gaitasunak ezagutzea eta onartzea eta muga horiek gainditu nahi izatea askatasunerako bidea da.</p> <p>Askatasuna mugatzen duten beldur eta barneko zein kanpoko mamuak uxatzea.</p> <p>Izaera kritikoa garatzeak aske izaten laguntzen du, eta alderantziz.</p> <p>Zailtasunei aurre egiteko sormena izateak ere askatasunaren alde egiten du.</p>
<p>Lankidetzaz-esparru baten barruan gizabanakoak bere buruarekiko duen autoritatea.</p> <p>Gizabanako bakoitzak badu.</p>	<p>Askatasuna talde sozialetan gauzatzen da. Taldean elkarrekintzan dagoen elementu bakoitzak norbanakoaren eta taldearen askatasunaren garapena sustatu edo muga dezake, eta alderantziz.</p> <p>Askatasuna, bakoitzak nahi duena egitea bezala ulertzen badugu, ez dago. Horrela ulertutako askatasunik ez izateak ez du esan nahi, ordea, askatasunik ez dagoenik, ikuspegi hori faltsua dela baizik: inork ihes egin ezin dion soziala izateak baliogabetzen du.</p> <p>Baina askatasun-mailak irabazi eta galdu ere egin daitezke.</p>

<p>Askatasuna marko sistemikotik abiatuta ulertzen da, eta aldaketarako bitarteko edo eragiletzat hartzen da.</p>	<p>Askatasuna aldatzen ari den nortasuna da. Dinamikoa beti. Sortzetik oso gertu dago. Zu birsortzea eta esparru soziala birsortzea da. Ni ez naiz ni bakarrik, elkarrekintzan eta elkarrekiko errespetuan baizik.</p>
<p>Askatasuna mendekotasunik ez izatea ere badela esaten da.</p>	<p>Sortutako beharrekiko (afektiboak, onarpenezkoak, fisikoak, materialak...).</p>
<p>Askatasuna, ebazte hutsaz haratago, heztearekin eta haztearekin loturik dago.</p>	<p>Ezarritako arauak bideratu egiten du norberaren arreta, aruari berari eta araua betetzeari buruz. Beharrak eragiten duen arauak konpromisoa eta ardura sortzen du. Askatasunak besteak eta haien egoerak sentikortasunez hartzeko gonbita egiten digu.</p>
<p>Askatasuna eragingarritzat eta helburutzat hartzen da.</p>	<p>Bulkada eta, era berean, bizi-helburu.</p>

01-06. GLOBALIZAZIO PRINTZIPIOA

<p>Globalizazioa, sistema ireki baten barruko bizi-prozesu gisa ulertuta.</p> <p>Bizi-prozesua. Bizia globala da.</p> <p>Sistema irekia</p>	<p>Gizabanakoa globala da: nortasuna, harreman sozialak, jakintza-arloei estuen loturik dauden ikaskuntzak...</p> <p>Testuinguru sozial egonkorak (prozesu-irudi-pena) eta osagarriak sortzen dira. Testuinguru horietan ikasleei bizitzeko eta izateko aukera ematen dieten bizi-egoerak sortzen dira, eta bizi dutelako ikasten dute.</p> <p>Ikastetxea osotasunean ulertzen da. Horregatik, antolamendu-egiturak (sozialak, egonkorak eta osagarriak) eta prestakuntza-egitura sortzen dira; horiei esker, gizabanako bakoitza bere egitekotik abiatuta bizi, izan eta garatzen da eta ikastetxea osotasun ikuspegitik kudeatzen da.</p> <p>Sistema diogu, bere osagaiak (pertsonak, elementu fisikoak, hezkuntza-asmoa, antolamendu-egitura, bizi-jarduerak, metodologia, baliabideak etab.) etengabe elkarrekintzan daudelako, eta horietako bakoitzak sisteman eta elkarrekintzan duen lekuaren arabera soilik hartzen duelako zentzua.</p> <p>Osotasuna ez da estatikotzat hartzen diren zatien edo euren artean harremanik ez duten zatien batura.</p> <p>Lan-sistema da, ez metodoa; diziplinarteko sistema da; kontzeptu-sistema; antolatze, planifikatzeko, gogoeta egiteko, aztertze eta erabakiak hartze sistema. Ez dago elementu isolaturik. Sortzen diren harreman guztiak sartzen dira sisteman.</p> <p>Pertsona bakoitza eta guztiak hartzen ditu, eta hainbat egituratan, gainera.</p>
---	---

Ez da amaitua dagoen zerbait. Bizitza bera bezala, sistema irekia dela esaten dugu. Etengabe aldatzeko gai da, sortzen diren elementu berriak barrutik txertatuz (ez kanpotik erantsiz), eta, aldi berean, sistema-antolamendua galdu gabe, elkarrekintza berriak sortuz.

01-07. NORMALIZAZIO PRINTZIPIOA

<p>Definizioak.</p> <p>Ordenatzea: biritza, afektuak, burua, gauzak.</p> <p><i>Testuingurua ezagutzea, menderatzea eta bertan kokatzea.</i></p> <p>Ageriko errealitatean oinarriturik.</p> <p><i>Ikastetxea orokorrean.</i> <i>Egitura : taldekatzeak, zikloak, bilerak familiekin, adskripzioa, zirkularrak...</i></p> <p><i>Testuingurua-ikasgela, ikasgelaz kanpoko testuinguruak (jolasaldiak, korridoreak, igerilekua...)</i> <i>Curriculumaren 1. fasea:</i> <i>organigramak- espazioa- denbora- lan-metodoa- baliabideak- zertarakoa.</i> <i>2. fasea :</i> <i>edukiak- helburuak- muinak- jarraipena egiteko pistak eta fitxa.</i> <i>3. fasea:</i> <i>ikasleek eta irakasleek elkarren arteko hasierako edo oinarrizko ezagutza izatea (historiala, behaketa zuzena eta esku-hartze afektiboa).</i></p> <p><i>Irakasleek curriculumean giltzarri diren elementuez duten kontzientziatik abiatu esku hartzea, ikasleek pixkanaka-pixkanaka elementu horien kontzientzia har dezaten, baita ikas-kuntzaren aurretiko elementuena ere.</i></p> <p>Etengabea da.</p>	<p>Testuingurua normalizatzea, ez bertan bi urtean garatuko den programa. Hala ere, hainbat testuingurutan, batzuetan, komeni da programaren hainbat alderditan eragitea, bai desbideratze orokorrak saihesteko, bai desbideratze horiek gertatzen direnean bideratzeko.</p> <p>Urte osoan egiten da, baina une batzuetan ahalegin berezia egin behar da printzipio hori praktikara eramateko (ikasurte hasieran, sektorez aldatzerakoan, ikasle-antolamenduan, ordezkapenetan...).</p>
--	---

<p>Eskola-elkartea eta, batez ere, irakasleak edo irakasle-taldea inplikatzeko, beraiek baitira eskola-curriculumaren azken erantzuleak.</p> <p>Departamentuarentzako oinarritzko dokumentuen karpeta.</p>	<p>Irakasleen normalizazioa. Aurretikoak prestatzea, curriculumean trebatzea eta esku-hartzea planifikatzea.</p> <p>Ni eta testuingurua. Ni eta paraleloa. Ni eta ikuskera. Ni eta harrera afektiboa.</p> <p>Ikuskerari eta funtzionamenduari buruzko dokumentu giltzarriak. Modu sistematikoan antolatuta, departamentua martxan jartzen eta sakontzen eta sintesi-ikuspegia eskuratzen lagun dezaten.</p>
--	---

02-01. JOLASA

<p>Bizipenak gozatu, sentitu, barneratu eta kanporatzeko balio duen jarduera naturala da.</p> <p>Norberaren interes eta motibazioei lotzen zaie, baita adin bakoitzari dagozkion motibazioei ere. Bizitzari lotzen zaio.</p> <p>Jarduera dakar, parte-hartzea.</p> <p>Eragingarriztat eta helburutzat dugu.</p> <p>Ikasteko bitartekoa da.</p>	<p>Helburua ez da motibatzea, gizabanako bakoitzak baditu bere motibazioak-eta. Jolasa interes horiekin uztartzea eta jolasari esker interes horiek azaleratzea dira giltzariak.</p> <p>Jolas guztietan, ahaleginarekin batera, ongizatea ere badago, erronkak gainditzeak dakarren gogobetetzea.</p> <p>Ez da jolas lehiakorra, kooperatiboa baizik. Arrakastak ez dakar bestearen porrota.</p> <p>Jolasaren bidezko ikaskuntzak eragingarrien eta helburuen pedagogian kokatzen gaitu: jolasa ikasleen interesekin uztarturik egoteak jolasera bultzatzen ditu ikasleak eta, era berean, jolasak zentzua hartzen du bere baitan; hau da, helburu bihurtzen da.</p> <p>Hortik abiatuta eta kontuan izanik ikasleek helduen mundua imitatzen dutela, irakasleek jarduera-jolasa diseinatzen dute; hau da, asmo bat duen eta benetan ikasteko bitarteko den testuingurua.</p> <p>Testuinguru batzuek berekin dakarte zertarakoa, hau da, eragingarria eta helburua; beste batzuek, berriz, kanporako irteeran: irratian, prentsan, telebistan, erakusketan eta ikuskizunetan.</p> <p>"Zertarakoak" pentsamendua sortzen du, pentsamendu soziala eta autoegituratzailea.</p> <p>Eginez ikastea. "Ez dut ikasten jolasteko, ikasteko jolasten naiz".</p>
--	---

	<p>Adibidea: <i>"Zenbakiak ez ditut ikasten erosi ahal izateko. Erosi egiten dut, eta, erosiz, zenbakiak ikasten ditut"</i>.</p> <p>Lanari gustua hartzeko bitartekoa da.</p> <p>Beldurrik ez izatea "jolas" hitzari, guretzat jolasa ez delako denbora galtzea, bakoitzak nahi duena egitea edo irakasle bakoitzaren hautamen edo aldartearen arabera inprobisatutako jarduera.</p>
<p>Pertsona bakoitza hartzen du.</p>	<p>Testuinguru zabala da, eta nork bere egitekoa du, bizi duen unea eta bere izaera abiapuntutzat hartuta.</p>
<p>Pertsona osotasunean hartzen du.</p>	<p>Bizitza globala da. Ikasleei bizitzeko eta izateko aukera ematen dieten bizi-egoerak sortzen ditugu, eta bizi dutelako ikasten dute. Horrek jakintza-arloei loturiko alderdiak garatzea ahalbidetzen du, beti ere nortasunaren eta harreman sozialen garapenari loturik.</p>
<p>Hemengoa eta oraingoa bizitzea ahalbidetzen du.</p>	<p>Ez dugu hezten ez "etorkizunerako" ez "gizarterako". Eskola bere baitan gizartea dela eta haurrek berezko bizitza dutela aldarrikatzen dugu.</p>
<p>Sistema ireki batean kokaturik dago, testuinguru sozial, egonkor eta osagarrien bidez.</p>	<p>Jolas elkarreragileaz hitz egiten digu. Ez da jarduera edo testuinguru bakoitzeko ikaskuntzen batura hutsa: testuinguru batean ikasitakoak beste testuinguru batzuetako hainbat alderdi garatzen laguntzen du.</p>
<p>Ikasleak hobeto ezagutzeko aukera ematen du. Irakasleentzat, jarraipena egiteko bitartekoa da.</p>	<p>Jolasak ikasleen barne-mundua eta afektu-mundua adieraztea ahalbidetzen duelako. Ongizatearen edo anomaliaren adierazle edo detektagailu da.</p> <p>Egonkorra delako, prozesuez hausnartzea, prozesuok behaketa eta jarraipena egiteko pisten bidez aztertzea eta sistematikoki esku hartzea errazten du.</p>

<p>Berezkoa zaie bizitzako aldi guztiei. Ez da haurtzarora mugatzen.</p> <p>Arau bakarra muga soziala da, bestearen eskubidea, gainerakoen eskubidea.</p> <p>Sormen-esparrua da.</p>	<p>Irakasleak esku-hartze jakin bat izatea ahalbidetzen du, zuzentzeko baino gehiago, eragiteko, ikaslea berez jabetu dadin, eta ikasleak irakaslearen beharra sentitzen badu lagundu egingo zaiola jakinez.</p> <p>Helduak gara, eta gu geu ere jolasten gara...</p> <p>Txikitan, jolasa manipulatioagoa da, antzezenaren behar handiagoa du. Beste adin batzuetan horrelako formatu ludikoak ez dituztela behar pentsatzea, eta, ondorioz, formatu horiek kentzea okerra da, eta horretan erortzeko arriskua dago. Horrekin, jolasaren magia ezabatuko genuke.</p> <p>Sormenez diseinatzen da. Sormena sustatzen du. Sormenaren bidez soilik irauten du bizirik.</p>
--	--

02-02. ZERTARAKOA

<p>Eragingarria da. Ikasleen interes edo motibazioetik abiatzen da.</p> <p>Helburua da. Jardueraren irteera sozial gisa definitzen da.</p> <p>Zertarakoak, irteerak edo bitartekoak eta hartzaileak baldintzatzen edo markatzen dute jardueraren gauzatzea.</p> <p>Bizitzari lotzen zaio.</p> <p>Zertarakoa antolamendu-egituraren zati da, eta, alde horretatik, pentsamendua sortzen du.</p> <p>Aurrera egiteko faktore gisa ulertutako kritika eraikitzaileak sustatu egiten du.</p> <p>Zertarakoak eduki batzuk ikastea dakar, eta hainbat gaitasun eta helburu garatzen ditu.</p>	<p>Jolasa, helduen munduaren imitazioa. Jolasa, hezkuntza-asmoaren emaitza.</p> <p>Eragingarria eta helburua ikasleentzat. Ez nahastu irakasleek lortu nahi dituzten helburuekin.</p> <p>Lana ez da irakaslearen exijentzian oinarritzen; jolas elkarreragileak berak eskatzen dio jardueraren garapena eta kalitatea.</p> <p>Zertarakoak zentzu publikoa du (irradi, prentsa, telebista, erakusketa, ikuskizun eta abarretarako irteera), eta horrek autoexijentzia eta ondo egiteko gogoia sortzen du. Horrekin batera, mezuak nori zuzendurik dauden kontuan hartzea dakar.</p> <p>Gerorako edo etorkizunerako baino gehiago, hemen eta orainarentzat lan egiten da bizi-jardueren bidez. Jarduera horiek ikasleei bizitzea eta izatea ahalbidetzen diete, eta bizi direlako ikasten dute. Ikaskuntza horiek orokortu egingo dira, eta, horiei esker, gaitasun berriak gartuko dituzte ikasleek.</p> <p>Aukeratzera, planifikatzera, sortzera, askotarikoko baliabideak erabiltzera, erabakiak hartzera, ardurak hartzera eta abarretara behartzen duelako. Bizitzarako bitartekoak eta baliabideak eskuratzen laguntzen du (hobetze-prozesua, hobetzeko gogoia, autoestimua finkatzea...).</p> <p>Esanahiz eta edukiz betetzen joaten da. Kontrastatzeko eztabaida-leku bihurtzen da, eta norberaren eta taldearen garapena dakar.</p> <p>Ikuspegi honetatik, ikasleen zertarakoa irakasleen zertarako edo hezkuntza-asmo ere bihurtzen da.</p>
--	---

	<p>Giltzarria hezkuntza-helburuak garatzea da, baina ikasleen eragingarri eta helburuari, hau da, jolasari, lekua eta garrantzia emanaz.</p> <p>Larritzen garenean, bai ikasle batek dituen zailtasunengatik bai denbora falta zaigula sentitzen dugulako... zertarakora beste edozein bizigarritara bezala jotzeak aurrerabidean jartzen gaitu. Aldiz, behartzeak edo "indartzeak", segur aski, blokeatzea eragingo du.</p>
--	--

02-03. ADIN DESBERDINEKOAK NAHASTEA. ZIKLO OSOKO PROGRAMA

<p>Amara Berri Sistemaren ezaugarri metodologikoa da, eta hezkuntza-asmotik abiatzen da.</p> <p>Aniztasunaren esparrua zabaltzen duen elementua da hau ere, sexu, adin, kultura eta beste hainbatekin batera.</p> <p>Indibidualizazio-printzipioa interakzio sozialaren esparrua da, ezinbestean aplikatu beharrekoa eta, maila-kontzeptuaz haratago, ziklo osoko programekin lan egitea ahalbidetzen duena.</p>	<p>Aniztasunetik abiatuta sortzen den konparaketan jabetzen gara banakotasunaz.</p> <p>Aniztasunaren esparrua zabaltze horrek bere lekua aurkitzen eta autokontzeptua egokitzen laguntzen dio gizabanakoari, beste pertsonetiko kontrastearen arabera.</p> <p>Ikasle bakoitzak bere mailan lan egiten du. Horretarako programa irekia behar da: aurrera-pauso handiagoak emateko gai dena ez da geldiarazten adina dela-eta, eta zailtasunak badi-tu ere, bere erritmoan egingo du aurrera.</p> <p>Programa gauzatzeko denbora luzeagoa da (bi urte), eta prozesuan banakako esku-hartzea egitea ahalbidetzen du, analisi, egoera eta estrategiei berriro heltzeko asti luzeagoaz.</p> <p>Irakasleak hobeto bana ditzake banakako arretaren denborak; izan ere, nolabaiteko autonomia-maila duten ikasleak gai dira, batetik, laguntza noiz eskatu behar duten bereizteko eta, bestetik, behar duenari laguntzeko.</p> <p>Talde erdiak badaki testuinguruek nola funtzionatzen duten, badute nolabaiteko autonomia-maila eta lagun diezaiekete departamentuan sartu berri diren ikasleei.</p> <p>Erreferentziak ematen dizkie ikasleei (batzuek urtebete daramate departamentuan eta beste batzuk hasiberriak dira). Ikaslerik gazteenek zaharragoengandik hartzen dituzte zer lor dezaketen jakiteko arrastoak: jarduerari eta lan egiteko moduari dagozkionak; erabiltzen dituzten estrategia, ikaskuntza-estilo eta erlazio-natzeko moduei buruzko erreferentziak; interesei, laguntzari eta abarri buruzko erreferentziak.</p>
--	--

<p>Talde-dinamikak etengabe garatzea sustatzen du, eta talde-dinamikak norberaren eta taldearen garapenerako hezkuntza-esparru dira.</p>	<p>Ikasle zaharrago horien bidez, ziklo osoko programa zein den sumatzen dute.</p> <p>Ikasle zaharrenak ere emandako aurrerapauso- ez jabetzen dira, euren burua ikasle gazteene- kin alderatuta.</p> <p>Ikasleei eta irakasleei segurtasuna eta lasaita- suna ematen die bi urtean ziklo berean egoteak.</p> <p>Ikasle gazteenek, euren jakinezetik abiatuta, gal- derak egiten dizkiete zaharrenei, eta azken horiek "irakasle" rola bete dezakete, ikaskide horiei lagunduz, are hizkuntza hurbilagoa erabiliz, gai- nera. Galdera horiei erantzunez, gainera, euren ideiak berregituratu eta ezagutzak finka ditzakete.</p> <p>Ikasturtearen hasieran eta normalizazio-aldian, adin desberdinekoak nahasteak zorabiatu xamar uzten ditu bai irakasleak bai ikasleak. Taldea finkaturik eta dinamikak eginda dauden une horretan, berriro hutsetik hasi behar dute. Irakasleek sufritu egiten dute, baina balorazio positiboa egiten dute, sarritan talde-dinamikek dakarten horretan hezteko esparrurik egokiena delakoan baitaude.</p> <p>Lagun berriak egiteko, liderrak aldatzeko eta aurreko klixe edo estereotipoak aldatzeko unea da. Gehiegi harrotzen diren pertsonak berriro kokatzen dira talde berrian, eta onartuak sen- titzen ez zirenek ere, ikustezin zirenek ere, beren lekua egin dezakete.</p> <p>Pertsona bakoitzari adinaren arabera rol des- berdinak izatea ahalbidetzen dio: urte batean txikienak dira, hurrengoan zaharrenak, eta hurrengoan, berriro ere, txikienak.</p> <p>Apurtu egiten ditu batzuetan harremanetan sortzen diren mendekotasunak.</p> <p>Irekitzeko, erlazionatzeko eta talde itxiez hara- tago joateko gaitasuna indartzen du, edozein pertsona edo talderekin lan egiten ikasiz, lan- harreman hori eta laguntasuna bereiziz.</p>
--	--

<p>Haur Hezkuntzan urte berean jaiotako ikasleak biltzen dira.</p>	<p>Hain adin txikikoak direnez, hilabete batzuetan garapen garrantzitsuak egiten dira hainbat alderditan (mugimenduan, esfinterren kontrolan, hizkuntzan, autonomian...).</p> <p>Nahita, taldekatze heterogeneoak egiten dira.</p> <p>Formula horren ordez beste bat erabil zitekeen, eta, hala, batzuetan, ikastetxe-motaren arabera (tamaina etab.) adin-nahastea ziklo osoraino hedatzen da (eskola unitarioetan, kasu), eta horietan ere balorazio positiboa egiten da.</p>
--	---

Adin desberdinekoak nahastearekin lotutako hainbat ohar.

<p>Batzuetan irakasleak mesfidati dira adin desberdinekoak nahastearen aurrean, hainbat arrazoirengatik.</p>	<p>Ez ditu bereizten zikloko programa eta zikloarentzako programa.</p> <p>Talde egonkorak, itxiak eta maila berekoak ematen duen batez bestekoaren erreferentziarekin lan egitera ohituta dago. Ikasle guztien-gana iristeko denbora falta bizi du.</p> <p>Uniformetasunean, homogeneousunean hezi da, eta, esperientzia horretatik abiatuta, zailagoa da aniztasunean egin beharreko lana ulertzea.</p> <p>Irakasle batzuek adin desberdinekoak nahastearen kontra egiten dute. Ikasgelari, euren taldeari atxikitzen zaizkie. Egoerari irtenbidea ematen diote, baina sakoneko arazoa konpondu gabe. Arazo hori erlazionatzeko, banatzeko eta taldean lan egiteko zailtasunetatik sortzen da normalean.</p> <p>Aldaketaren eta berria denaren beldur dira, ezaugarri metodologiko hori martxan jartzeak ekar dezakeen lanaren beldur.</p> <p>Ez dute garbi testuinguru sozial, egonkor eta osagarriaren ideia, eta horrek bigarren urtean</p>
--	---

<p>Hasieran, familientzat ere berria da egoera hau.</p>	<p>jarduerak errepikatu egiten direla eta, ondorioz, ikasleek aurrerapauso garrantzitsurik ez dutela ematen pentsatzera daramatza.</p> <p>Izan ere, oro har, adin desberdinekoak nahastuz lan egiten duten metodologiak berririk ez dute izaten.</p> <p>Txikiak gehiegi babesteko joera dute, zaharrek egongo direla-eta.</p> <p>Zaharrenei dagokienez, aurreko urteko jarduera berberak errepikatzen dituztenez, zalantzan jartzen dute euren ikaskuntzek nahikoa aurrera egingo ote duten.</p> <p>Seme-alabek lagunak gordetzea nahi dute, ez baitira ohartzen gai direla lagun gehiago egiteko aurrekoak galdu gabe.</p>
---	---

02-04. HAINBAT IRAKASLE TALDE BERAREKIN.

<p>Sistema metodologiko komuna eskatzen du: IHP, ICP, Antolamendu-egitura.</p> <p>Hortik, esku hartzeko diseinu komuna sortzen da, eta, horretarako, talde-lana egin eta estrategia komunak garatu behar dira.</p> <p>Ikasleen jarraipen zehatzagoa eta kontrastatuagoa egitea ahalbidetzen du.</p>	<p>Erlazioak sistema egituratuagoaren beharra dakar ezinbestean.</p> <p>Koordinazio estua eta erreferente berberetatik abiatzea eskatzen du.</p> <p>Esku-hartze ildo bera izateak sakabanatzea eta ziurtasun eza ekiditen ditu, bai ikasleen artean bai irakasleen artean.</p> <p>Irakasleen heldutasun pertsonal eta profesionala eskatzen du. Nirea den horretatik askatzea, gurea izan dadin. Jabetzatik askatzea (nire taldea, nire ikasgela). Taldean lan egitearen planteamendu hori aberasgarri da ikasle eta irakasleentzat.</p> <p>Irakasle bakarra izatea maitagarriagoa da? Hobe da departamentu gehiagotatik pasatzea, jarraipena irakasgai gehiagotatik egiteko, eta, hala, ikasleekin luzaroago egoteko? Hobe da programa gehiago izatea ikasleekin luzaroago egoteko? Ez da izango fidatzenago naizela nik neuk egindako behaketaz, besteek transmititutakoaz baino? Ez da izango errazagoa dela "nik neure burua koordinatzea" besteekin batera koordinatzea baino? ...</p> <p>Izaera-aniztasunak, esku hartzeko askotariko moduek eta ikuspegi, ikuspuntu, sentsibilitate edo hautemate desberdinak eskaintzeak aberastu egiten ditu nortasunaren garapena eta ikasle eta irakasleen harreman sozialen garapena.</p> <p>Irakasle gehiagorekin harremana izateko aukera daukate ikasleek, baita euren nortasunaren alderdi ugariak adierazteko eta ulertuak sentitzeko aukera handiagoa ere.</p>
---	--

<p>Tutoretzaren berariazko kontzeptua dakar.</p>	<p>Tutoretza uneoro eta irakasle guztiak gauzatzzen dute. Bileren denboraren arabera baina, bileren kalitatearen arabera da. Hala ere, irakasleek, ikasleek eta haien familiek badakite badela ekintza horiek guztiak koordinatzen dituen erreferentzia: tutorea.</p> <p>Tutoretza jarraitua da, nahiz eta adinen arabera zehazturiko ordutegiaz antolatzen den eta aurrez ezarritako programa baten bidez garatzen.</p> <p>Familiek ez dute erreferentzia bakarra. Irakasle-taldearen iritzi kontrastatuak eta esku hartzeko ildo komunak jasotzen dituzte.</p>
<p>Antolamendu-egitura.</p>	<p>Taldean aritzen den irakasleen aniztasunari esker garatzen den antolamendu-egiturak alderdi hauek ahalbidetzen eta bultzatzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Programen diseinua eta sakontzea aberatsagoa izatea (mintegiak, paraleloak, zikloak...). - Espezializazio handiagoa (departamentu gutxiago/ikasle gehiago). - Irakasleen jarraipen zabalagoa eta alderatuagoa (sektorea). - Irakasle berriak integratzea eta ekarpenak egitea. - Ikastetxean funtzionamendu- eta preskakuntza-esparru egonkorrak izatea.

02-05. LAN METODOA

Berehalako helburuak edo ekintza-helburuak. Egin beharreko jarduerak, aurrera doazenak. Aurrera doazelako, lan-metodo bihurtzen dira. Metodo horrek ikasle bakoitzak bere metodologia garatu ahal izateko bezain zabala izan behar du. Irakasleentzat, esku hartzeko eta segimendua egiteko tresna giltzarria da.

Helburuak:

- Jarduteko autonomia ahalbidetzea.
- Ikasleak bere burua prozesuan koka dezala (non nago, zer egin dut, zer falta zait...) eta ikasle prozesuan kokatzea.
- Zikloko oinarrizko hiztegia garatzea.
- Metodoarekin lan egiten ikastea.

Lan-metodoa egitea:

- Helburu horiek mugatzen dituzte lan-metodoa egiteko irizpideak.
- Bat dator testuinguruetan ezarritako curriculumarekin.
- Laburregia - luzeegia?
Ikasle txikienek urrats gehiago behar dituzte. Hazten diren neurrian, ordea, mezu gutxiago, baina konplexuagoak, behar dituzte. Baina ez da komeni urrats horiek kentzea, gero ahoz azaldu behar bazaizkie.
- Hiztegiaren zailtasuna?
Zailtasunik ez badu, ez du hizkuntza-maila hobetzen. Adierazpena hobetzea, sistematikoki sinonimoak erabiliz...
- Alferreko konplexutasunak ekidin, eta hizkera zuzen eta kalitatezkoa erabiltzea.
- Ez dezala eragotz ikaslearen adimen-garapena, irtenbideak eman edo bidea edo ikuspegi edo interpretazio bakarra gehiegi markatuz.
- Lehen pertsonan idatzirik, ikasleak bere burua zereginean murgilduta ikus dezala: zer egiten dudan, nola egiten dudan, non nagoen, zein zailtasun ditudan...

Kokapena:

Lan-gunean.

Kopia finko bat (horman...), departamentuaren ikuspegi orokorra emateko irakasleei, ikasleei, bisitariari eta abarri, guneko jarduerak kokatuz. Beste kopia bat eskurago jartzen da, jarduera hobeto bideatzeko eta ikasle bakoitzari buruz egin beharreko esku-hartzea egin ahal izateko.

Ikasgelaren estetikaren parte da:

Gunetzat lana duen estetika, elementu sakabanatzaile gabea.
Ez du "infantilizatu" nahi.

Planteamendu kolektibo batetik, askatasun-planteamendutik abiaturik, abegikorra da eta ez du baztertzen ez eta pribatizatzen, eta guneak edonork erabili ahal izateko modukoak ditu.

Garrantzitsua:

Ikaslea gai izan dadila egiten duena hitzez adierazteko, lan-metodoaren hiztegia baliatuz.

Erabilera normalizatzea.

02-06. KRITIKA, AURRERA EGITEKO FAKTOREA

<p>Balorazioa:</p> <p>Argumentatua.</p> <p>Aurrera egiteko faktorea, faktore lagungarria.</p> <p>Beharrezkoak dira kritika ahalbidetzen duten testuinguruak, esparru sozialak edo irteera egonkorak (ikasgela, irratia, ikasle-antolamendua...).</p> <p>Kritika egiten duenaren inplikazio pertsonala. Esandakoa nork bere gain hartu behar du.</p>	<p>Argumentuak lorpenei eta desberdintasunei, gabeziei, aukerei eta ikuspuntu desberdinei dagokienez.</p> <p>Norberak eta taldeak aurrera egitea ahalbidetuko duten aurretiko batzuetatik abiatuta egitea.</p> <p>Ez dira pertsonak kritikatzeko, pertsonen egintzak, egitateak, prozesuak, aurretikoak eta jarrerak baizik.</p> <p>"Kritika" hitzak ez dauka kutsu negatiborik (peioratiboa dena ekidin). "Puntu beltzak dituen fondo zuriari begiratzea".</p> <p>Egonkorra denez, metodologia honen bidez, esku-hartzea sistematikoa da. Kritika gauzatuz ikasten da kritika egiten, horretaz hitz eginez baino gehiago. Kritika modu eraikitzailean egiten eta jasotzen ikastearen garrantzia. Testuinguru batean ikasitakoa bizitzako beste egoera batzuetara hedatzen da, bai ikastetxe barruan bai kanpoan.</p> <p>Txikienekin kritikak berehalakotasuna eskatzen du, unea bizi dute eta.</p> <p>Nik iritzia dut, pentsatu egiten dut, esan egiten dut. Bakoitzak bere ikuspuntutik egiten du kritika.</p> <p>Gaitasunetik egindako kritika; kritikaren objektu den egintza, egitatea edo prozesua ezagutu egin behar da, iritzi argumentatua emateko. Iritzia ematea eta kritika egitea ez da gauza bera.</p>
--	--

<p>Kritika elementu bizigarri gisa.</p> <p>Kritika ahalbidetzen duen edozein testuingurutan, eduki batzuez jabetzea eta helburu batzuk garatzea dakarren ikaskuntza-prozesua da helburu.</p> <p>Irakasleen esku hartzeak kritikaren garapena bideratzen du.</p> <p>Edukiak</p> <p>Kontzeptualak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kritikak eraikitzeko balio behar du, aurrera egiteko. • Orokortasunak faltsuak dira. • Gertaera objektiboa eta nire iritzia desberdintzea: ("Horrela da", "Nik uste dut"). 	<p>Ikusten duguna eta sentitzen duguna desberdintzea. Analisi-irizpideekin koherenteak izatea, irizpideok sentitzen dugunarekin bateratuz. Izaki globalak gara.</p> <p>Ikasleak, kritikan pentsatuz, hobetzeko ahalegina egiten du. Zerbait aurkezten duen bakoitzean, besteek iritzia ematen dute.</p> <p>Kritika jasoko duenarentzat: Bere mugak onartzea, bere gaitasunez jabetzea, bere burua barrutik ikusten eta besteen aurrean azaltzen ikastea.</p> <p>Kritika egiten duenarentzat edo kritikan entzule moduan parte hartzen duenarentzat: Bestearen lekuan jartzea. Desberdintasunak onartzen ikastea.</p> <p>Muinetatik abiatuta esku hartzera behartzen ditu; hain zuzen, kritika-testuinguruaren muinetik eta kritikaren objektu den jardueraren muinetatik abiatuta esku hartzera.</p> <p>Ikasleak muin horiez jabetzera bultzatzen ditu, behaketa eta segimendua egiteko pisten bidez.</p> <p>Pixkanaka-pixkanaka sartzen ditu, landu nahi diren alderdi berriei lehentasuna emanez.</p> <p>Eskuratutako lorpenetan ere eragiten du, prozesua baloratuz.</p> <p>Helburuak</p> <p>Kognitiboak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Burua eta diskurtsoa egituratzea, iritzia eman aurretik adierazteko. • Emozioak kontrolatzea, grinak mendea hartzea, eragotz eta eraso dezaketen gorputz-mintzaira eta hizkera zaintzea.
---	--

Prozedurazkoak:

- Ez baieztatzea edo ezeztatzea argumentatu gabe.
- Ez ematea iritzia, nire iritzia baizik.
- Pertsona interesatuari zuzentzea, ez irakasleei edo moderatzaileari.
- Parte-hartzeak publikoa izan behar du, eta ez kidearekin edo testuingurutik kanpo.
- Grina geldiaraztea, ez etetea beste norbait hitz egiten ari denean, entzun ahal izateko.

Jarrerazkoak:

- Entzuteko jarrera.
- Hitz egiten ari denari ulertzeko xedea, harrera eginez eta berarekin enpatizatuz.
- Beste ikuspegiekiko jarrera irekia, malgutasuna, hitz egitean aske sentitzea.
- Norberaren eta besteen mugak eta gaitasunak onartzea.
- Hitz egiten ari dena errespetatzea, isilik egotea entzuteko, askatasun indibiduala eragotz dezakeen gorputz-mintzaira eta hizkera kontrolatzea.

Nortasunezkoak

- Gutaz edo gure egintzei buruz egiten diren balorazioak onartzea, eta, aurrera egiteko balio badigute, jasotzea.
- Iritzia emateko askatasuna, beste ikuspegiekiko jarrera irekiarekin batera.

Harreman sozialetarakoak

- Iritzi, bizimodu eta ideia desberdinak onartzea.
- Bizitzan hainbat eremutan izaten diren mugak, hala bakoitzarenak nola kanpokoak, onartzea, bai norberak eta bai besteek.

02-07. DESBERDINTASUNA DOHAIN GISA.

<p>Desberdintasuna dohaintzat hartzen da, eta ez faktore baztertzailatzat.</p> <p>Pertsona guztiak desberdinak gara.</p> <p>Aniztasuna gertaera naturala da. Aberastasun-iturri da berez.</p> <p>Aberasgarri izan dadin, ulertu eta baloratu egin behar da, eta "aurretiko" jakin batzuekin jarri bere aurrean.</p>	<p>Izaki sozialak baino gehiago, taldearen mendeko izakiak gara, eta, horregatik daukagu gure kidekoekin edo antzekoenekin gehiago identifikatzeko joera.</p> <p>Taldetan ezaugarri komunak kontuan hartuta biltzeko joera dugu: azalaren kolorea, adina, musika-mota..., nahiz eta, egia esan, gizabanako bakoitza desberdina den.</p> <p>Guztiok desberdinak gara.</p> <p>Orokortasunak faltsuak dira: emakumeak, arabiarak ... Ezaugarri komunak badira, baina berdintasunik ez.</p> <p>Desberdintasun handiez edo handikap-ez (sindromeak, urritasun fisikoak, mugimendu urritasunak...) baino askoz haratago doa. Gure izaera, gure maniak, gure trebetasunak etab. ditugu, eta horrek guztiak izaki berdingabe egiten gaitu.</p> <p>Adibidez, monolaborantzaren helburua lursail batek gehiago ekoiztea da, baina luzera pobretu egiten du, aurretik zegoen aniztasuna hondatuz lurra bera ere hondatzen duelako.</p> <p>Kontzientzia horrek sortzen duen jarrera da aberastasun horren elementu erregulatzaila.</p> <p>Kontzeptu- eta jarrera-eskema berriak sortzen ditu.</p> <p>Gizabanakoaren eta taldeen asmoak aberastu egin ditzake edo "arloan suntsi" dezakete.</p> <p>Aniztasuna aberasgarria dela jabetzeak besteei zure egiten laguntzen du, zurea absolututzat ez hartzen.</p> <p>Besteekiko kokatzen laguntzen du, eta kontrastaziotik abiatuak identifikatzen.</p>
---	---

Eskola-elkartea.
Desberdintasunak eta aniztasunak eratzten dute.
Kulturartekotasunaren aurrean zabalik dago.

Aniztasunaren irizpidea eta desberdintasunak elkarren ondoan jartzearen irizpidea gure antolamendu-egituraren oinarri dira.

Desberdintasun indibidualekiko sentsibilitateak eta horiek ulertzetik sustatzen dugu aniztasuna, talde-estereotipotik kanpo aterata.

Hala, kide bakoitzak, elkarrekintzaren eta informazioaren bidez, aurreiritzirik gabe, ondo-rengoak lortuko ditu: batetik, kultura desberdinekiko (gutxiengoarena-gehiengoarena) pentsamolde irekia, tolerantzia eta asimilatzailea, eta, bestetik, gure gizartearen mugikortasuna kontuan izanik, kultur eredu desberdinetan moldatzeko baliagarri izango zaizkion baliabideak.

Gure ustez, ikuspegi hori herrien arteko elkar aditze hobetarako oinarri da.

Aniztasuna bilatzen dugu. Nahita, desberdintasunak harremanetan jartzen ditugu irakasleen eta ikasleen antolamenduan, informazio-iturrietan, baliabideetan etab.

Gizabanakoa taldeen gainetik dago.

02-08. IKASTETXEKO HIZKUNTZA EREDUAK ETA HIZKUNTZA PLANTEAMENDUAK ZEHAZTEKO IRIZPIDE METODOLOGIKOAK.

HELBURUA:

Ikasleak bi hizkuntzak, gaztelania eta euskara, menderatzea; ez hizkera arrunta soilik, baita maila sakonagoan ere. Hala, lan egiteko, mintzatu eta idazteko eta gozatzeko bitarteko baliagarri izango dira beretzat.

EREDUAK.

B eta D ereduak

EREDUAK DEFINITZEKO IRIZPIDEAK.

Bi eredu en gizarte-eskaera.
Eredu bakoitzarentzako programa berezitua.

TALDEKATZE IRIZPIDEAK.

Hizkuntza gailena kontuan izanik taldekatzen ditugu. Ikaslearen hizkuntza euskara bada, D eredura joango da, eta, aldiz, menderatzen duen hizkuntza gaztelania bada, B eredura. Baina ikasle gehienak 2 urte dituztenean matrikulatzen direnez eta adin horrekin ia hitz egiten ez dutenez, D ereduan matrikulatzeko, gure ikastetxera jotzen duten familia askoren egoera islatzen duen adierazlea erabiltzen dugu: aitak edo amak, tutore edo arduradun legalek euskaraz jakitea.

Taldekatze horren alde egiteko, honako irizpideetan oinarritzen gara:

Hizkuntza minorizatuarekiko errespetua.

Gure ustez, hizkuntza minorizatu errespetatu egin behar da eta bere garapena sustatzeko baldintzarik hoberenak eman behar zaizkio. Ikastetxe honetan D ereduan dauden ikasleen hizkuntza gailena, ezinbestean, euskara da, baina guztiak ez dute behar beste garatuta. Ez dirudi gaztelania-hiztunak D ereduan eskolatzeak edo eredu horretara aldatzeak hizkuntza minoritarioak merezi dituen baldintzak sustatzen dituenik. Baina horrek ez du eragozten helburua, epe luzera, bat egin dezaten izatea, bi ereduak ikasleak bi hizkuntzetan lan egiteko gai izan daitezten.

Metodologia bera erabilia ere, hizkuntza bakoitzaren abiapuntuko egoera oso desberdina da.

Euskal hiztunek gaztelania ikasteko gizarte-ingurune erabat lagungarria dute; gaztelania-hiztunei, aldiz, guztiz kontrakoa gertatzen zaie euskararekin. Horregatik, euskara ikasteko denbora gehiago behar izaten dute, eta, sarritan, bestelako didaktika erabili behar izaten da.

Hizkuntza-zailtasunek ez dute ikasteko prozesua geldiarazi behar.

Egiaztatu dugu hizkuntzak lotuta daudela, eta batean emandako aurrerapausoek bestean eragiten dutela. Hala ere, nolabaiteko abstrakzio-maila edo zenbait prozesu mental eskatzen dituen kontzeptuen kasuan, jabe-kuntzari hizkuntza gailenean ekiten diogu; batetik, hizkuntz zailtasunak jabe-kuntza hori geldiaraziko lukeelako agian, eta, bestetik, errentagarritasunagatik. Adibidez, Haur

Hezkuntzan, *Etxean* eskaera bat egin nahi dutenean *Dendan* erosteko, eskaera-kontzeptua, zenbakiaren deskonposaketa-balioaren kontzeptua, batuketa, kenketa eta beste hainbat kontzeptu barneratu eta erlaziozatu behar dituzte. Hori guztia berenganatzeak ahalegin handia eskatzen die ikasleei, bizipen- eta manipulazio-eran irakatsita ere. Beren hizkuntza gailenean egiteak erraztu egiten du jabeakuntza, zailtasuna kontzeptuan soilik datzalako, eta ez hizkuntzaren menderatze-mailan. Behin kontzeptua barneratuta, bigarren hizkuntzan erabiltzeak ez du zailtasunik.

Praktikak erakutsi digu ikasle bakoitzak bere aukerak eta bere erantzuna duela.

Kasu batzuetan, D ereduaren matrikulatutako gaztelania-hiztunak lehen hizkuntzatik euskara zuten ikasleentzako berari jarraitu diote. Baina ez da hala gertatzen gehienetan. Hizkuntz helburua bi hizkuntzak maila zientifikokoan menderatzea bada ere, horrek beste etapa batzuk barne hartuko dituen epe zabalagoa eskatzen du.

ZEHARKA HIZKUNTZEN JABEKUNTZAN ERAGITEN DUTEN IRIZPIDE METODOLOGIKOAK.

Euskarari dagokionez, batez ere.

Jakintzat ematen dugu asko direla bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan eragiten duten baldintzatzaileak, batzuk erabakigarriak, gainera: faktore sozio-historikoak, sozio-estrukturalak, sozio-psikologikoak eta indibidualak (afektiboak, fisikoak eta intelektualak). Baina beti ezin dugu horietan eragin. Horregatik, eskola-esparruaren barruan, irakasleek zertan eragin dezaketen zuzen-zuzenean, eragile horiek bakarrik hartuko ditugu kontuan. Banan-banan aipatu eta bakoitzarekiko dugun jarrera eta esku-hartzea azalduko dugu:

Irakasleek bizipen-jarrera positiboa izatea euskararen aldera.

Irakasleak egitura linguistikoaren analisi-sintesisirako prestatzea.
(Mintegiko lana).

Irakasleek ikasle bakoitzarekin erlazio afektiboa izatea.

Egiaztatu dugu irakaslearen jarduteko modua, tratua gozotasuna, ahots-tonua, giro lasaia eta erreportzu positiboa erabiltzea garrantzitsuak direla edozein ikaskuntzatan, eta izugarri zaintzen ditugu bigarren hizkuntzaren barneratze-prozesuan. Irizpide komunetatik abiatutako jarduteko era komun baten bila aritu gara. Jarduteko era hori lortzeko, irakasleek alderatu egin behar dute euren jarduna eta iritziak komunikatu, eta benetan "ikertzeko" gogoarekin begiratu behar zaie haurrei. Irakasten duen irakasle jakintsua baino baliozkoagotzat jotzen dugu guk ikasleentzako garapena ahalbidetzearren ikusten, behatzen eta ikasle bakoitzarengandik ikasten dakien irakaslea. Izan ere, bilaketa-idea hori funtsezkoa da gure sisteman.

Euskararen ikaskuntza bizi-komunikazio bihurtzeko gai izango den sistema pedagogiko irekia.

HIZKUNTZEN SARRERA, IRAKURKETA ETA IDAZKETARI DAGOKIONEZ.

Aurretik ere aipatu dugun arren, berriro diogu: nolabaiteko abstrakzio-maila edo zenbait prozesu mental eskatzen dituzten kontzeptuen kasuan, hizkuntza-zailtasunak jabeakuntza hori geldiaraz

lezakeela-eta, jabekuntzari hizkuntza gailenean ekiten diogu. Irakurtzen eta idazten ikasterakoan izaten dira zailtasun nabarmenenak. Zailtzarik gabe, badira bai idazten bai ikasten bietako edozein hizkuntzatan edo bietan batera ikas dezaketen haurrak, baina, gure esperientziak erakutsi digunez, hori ezin da orokortu, kontuan izanik:

- Irakurtzea ez dela sinbolo batzuek interpretatzea bakarrik: horrez gain, informazioa lortzeko, besteekin komunikatzeko eta sentitzen duguna adierazteko bitartekoa ere bada.
- Irakurtzeak ulermena ere badakarrela berarekin; alegia, ideia nagusia eta ideia osagarriak bereiztea, sintetizatzea, testuak duen galdera inplizitua aurkitzea etab.
- Idaztea pentsatzen eta sentitzen duguna modu egituratuan adieraztea dela, eta, horrek, besteak beste, kontatu nahi denaren hasiera, korapiloa eta amaiera garbi edukitzea eskatzen duela.

Irakurketan eta idazketan maila horiek lortzeko, ezinbestekoa da hizkuntza menderatu eta garatzea. Hori dela eta, lehen hizkuntzan ekiten diogu, bigarren hizkuntzatik hasteko gaur egun gure ikastetxean orokorra ez den menderatze hori beharko litzatekeelako. Ikaskuntza-prozesuaren urratsak eta zailtasunak finkatzen dituzten neurrian, bigarren hizkuntzan egitera pasatzen dira. Adibidez, Lehen Hezkuntzako bigarren mailan, hitzaldi bat prestatzen dute lehen hizkuntzan, eta, gidoia egiteko, testuak zein galderari erantzuten dion bilatzen dute. Hirugarren mailan, behin lan egiteko modu hori menderatuta, euskaraz ere egiteko gai dira, zailtasun teknikoa gainditua baitute, eta, gainera, euskarara bera ikasteko bitarteko gisa ere erabil dezakete. Hitzaldiaren kasuan, esaldia zein galderari dagokion aurkitzen saiatuz, hiztegia aberastuz eta ulermena eta mintzamena hobetuz.

Argi utzi behar da maila orokorrean buruz ari garela; izan ere, ikasle batzuek aurreratu egiten dituzte prozesuak, eta, beste batzuek, aldiz, motelago sartzen dituzte teknika horiek bigarren hizkuntzan.

		Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza 1. zikloa	Lehen Hezkuntza 2. zikloa	Lehen Hezkuntza 3. zikloa
B	<i>Gaztelania</i>	ahozkoa idatzizkoa	ahozkoa idatzizkoa	ahozkoa idatzizkoa	ahozkoa idatzizkoa
	<i>Euskara</i>	ahozkoa	ahozkoa	ahozkoa idatzizkoa	ahozkoa idatzizkoa
	<i>Ingelesa</i>		ahozkoa	ahozkoa idatzizkoa	ahozkoa idatzizkoa

D	<i>Euskara</i>	ahozkoa idatzizkoa	ahozkoa idatzizkoa	ahozkoa idatzizkoa	ahozkoa idatzizkoa
	<i>Gaztelania</i>			ahozkoa idatzizkoa	ahozkoa idatzizkoa
	<i>Ingelesa</i>		ahozkoa	ahozkoa idatzizkoa	ahozkoa idatzizkoa

ESKOLA-ELKARTEAREN BARNE- ETA KANPO-KOMUNIKAZIOA

Familia edo instituzioekin izaten diren harreman guztietan bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) erabiltzen dira.

Familiekin egiten diren bileretan:

Haur Hezkuntza. Tutoreak koordinatzen du. Bi deialdi egiten dira: D ereduan lehen bilera euskaraz egiten da eta bigarrena, gaztelaniaz. B ereduan, berriz, lehen bilera gaztelaniaz izaten da, eta, bigarrena, euskaraz.

Lehen Hezkuntza. Ziklo osoko eta koordinazioetako talde osoa izaten da bertan. Bilera bakoitza legezko mailen arabera egiten da, hizkuntza-ereduak bereizi gabe eta bakoitzean bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) erabiliz. Ondorengo irizpideei jarraitzen zaie:

- Bilerek familientzat eta irakasleentzat prestakuntza-esparru izan behar dute, eta, beraz, helburua mezuak ulertzea da.
- Bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) erabili behar dira, ikastetxe honetako familiek biak hitz egiten dituzte-eta.
- Irakasleek emandako azalpenek arinak izan behar dute: ez dute ordubete baino gehiago iraun behar.
- Kontuan izan behar da gurasoen erdia baino gehiago euskaraz ez dakiten gaztelania-hiztunak direla (B ereduko ia guztiak eta D ereduko batzuk).
- Inor ezin da baztertu edo kanpo utzi hizkuntzagatik. Mintzaldiak ez dira itzuli behar; batetik, arinago izateko, eta, bestetik, bi hizkuntzak dakizkiten familiekiko errespetuagatik, bestela bi aldiz entzungo bailukete gauza bera.
- Gaztelania-hiztunak lasaitu egin behar dira, argi utziz helarazi nahi dugun mezua, oinarri guztiak, gaztelaniaz azaltzen direla eta euskaraz, hizkuntza presente izateko, beste zati batzuk, beste adibide aberasgarri batzuk adierazten direla.
- Euskaraz ez dakitenak euskaraz egiten diren hitzak jarrera positiboarekin entzutera animatu behar dira, pentsatuz beren seme-alaben hizkuntza dela, eta beren jarrerak seme-alabak euskarara ikasteko egiten ari diren ahalegina ulertzen lagun dezakeela.
- Bilerak ez dira planteatu behar hizkuntza bakoitzari denbora bera eskainiz: edukiaren edo mezuaren zailtasunaren arabera oreka eta bidezko presentzia lortu behar da.
- Proiektuari eta pertsoneri buruz dugun ikuskerarengatik, burutik kentzea hizkuntzen araberako lehia-, indar- edo banaketa-ikuspegia, eta elkarte askotarikoagoa ikustea, non pertsonak hazi, aldatu eta elkarrengana hurbiltzen garen.

Elkarrizketak eta txostenak, familien eskaeren arabera.

03-01. DEPARTAMENTUKO KARPETA

<p>Ikasgelako irakaslearentzat prestatzeko bitarteko bat da.</p> <p>Nori zuzendua: irakasle titularrari edo haren ordezkoa izan daitekeenari. Espezialistek eta ABZkoek ere euren karpeta izango dute.</p> <p>Helburua: bertara jo ahal izatea hausnartzeko, sakontzeko eta ikastetxearen izaera eta praktika ezagutzeko, eta, modu horretan, gero eta esku-hartze zuzenagoa eta bateratuagoa egin ahal izatea, bai ikasleekin bai familiekin.</p> <p>Edukia: ikastetxearen ikuskera eta ikuskera horren oinarri den filosofia jasotzen ditu, baita ziklo eta departamentu bakoitzean ikuskera hori nola zehazten den ere.</p> <p>Profesional askok urte luzetan egindako lana da. Ez dago amaiturik, eta bakoitzak antolamendu- eta prestakuntza-egituretan (mintegia, sektorea, zikloa etab.) egiten dituen ekarpenekin osatuz joango da.</p> <p>Dena ez da bat-batean sartzen. Egokiagoa da garapen berriak prestakuntza-egituretan landu ahala sartzea.</p> <p>Funtzionamendua: Orriek zigilua eta data dute, urtero berritu daitezten eta kopia zaharrik gera ez dadin. Ez da komeni bertatik ereduak, lan-metodoak etab. ateratzerik, hondatu egiten dira-eta. Kopiak behar badira, ikastetxeko agiritegi nagusira jo behar da, bertan baitaude originalak.</p> <p>Aurkibidean karpetak eduki osoa jasotzen saiatzen gara.</p>	<p>Segurtasuna ematen die irakasle berriei, bai eta urte gehiago daramatzatenei ere.</p> <p>Eskolaren izaeraren edo ildoaren inguruko ikuspegia ematen du. Kokatzen laguntzen du, bai ordura arte egindakoan bai egiteke dagoen edo sakondu behar den horretan.</p> <p>Ez da lineala, dokumentuz dokumentu antolatua. Esan daiteke testuinguru bat dela, eta bertan sistematikoki eragin daitekeela.</p> <p>Bigarren fasean, funtzionamenduaren beste alderdi batzuk jaso nahi dira (ordezkapenak, irakasleak kanpoan izatea, akordioak...).</p> <p>Karpetak eraginkorra izan behar du.</p>
--	---

1. SARRERA.	<i>Karpetaren helburua.</i> <i>Aldaketak edo hobekuntzak bideratzea.</i> <i>Ikastetxearen batasunaren kontzientzia. Bi eraikin.</i>
2. IHP.	Ale bat. Honako hauen zerrenda eta garapena: Ikasleei buruzko ikuskera. Ezaugarri metodologikoak. Helburu orokorrak – Adinaren ezaugarriak. Eskola-elkartearen ezaugarriak.
3. IIP.	Ezaugarri metodologikoak: zerrenda eta garapenak. Curriculumaren faseak. Ebaluazio-kontzeptua.
4. Zikloa.	Organigrama. Denbora-antolamendua: Egutegia, ordutegiak, txandatzek. Taldekatzek. Baliabide orokorrak.
5. Departamentua.	Organigrama. Plano orokorra. Azpiegitura / Ekipamendua. Baliabide orokorrak. Denbora-antolamendua (txandatzek). Taldekatzek. Mintegiak metodologiaren inguruan hartutako akordioak.
6. Testuingurua: jarduera.	
<i>Curriculumaren 1. fasea.</i>	
Espazioa.	Planoa. Azpiegitura. Ekipamendua.
Baliabideak.	Lan-metodoa. Guneko edo ikasgelaz kanpoko beste baliabideak.
Denbora.	Denbora-antolamendua (txandatzek).
Zertarakoa.	
Curriculum-egokitzapenak.	

Curriculumaren 2. fasea Jardueraren edukiak, helburuak eta oinarriak.

Curriculum-egokitzapenak.

Curriculumaren 3. fasea Esku-hartzea. Jarraipena edo ebaluazioa.

Curriculum-egokitzapenak.

Egindako lanen ereduak.

7. Inbentarioa.

8. Prestakuntza.

Aurretikoak.

Behaketa eta jarraipena egiteko pistak.

Kontrol-orria.

Eskaera-orria.

Prestakuntza-kontzeptua.

Sistema irekia.

Antolamendu-egiturak.

03.02 KONTAKIZUNAREN JARDUERAREN OINARRIA

LAN METODOAK

LITERATUR ATALA. KONTAKIZUNA

1. Gai bat aukeratuko dut, istorio bat kontatzeko.
2. Hasiera, korapiloa eta bukaera pentsatuko ditut.
 - Hasiera:
 - Noiz eta non gertatzen den istorioa.
 - Nork edo nortzuk hartzen duten parte (pertsonaiak) eta nolakoak dira.
 - Korapiloa:
 - Zein egoera edo arazo gertatzen den.
 - Zein ekintza gertatzen diren egoera edo arazo horren ondorioz.
 - Bukaera:
 - Zein irtenbide ematen zaion egoerari edo arazoari. Nola bukatzen den.
3. Istorioa idatziko dut.
4. Nire lana berriz aztertu eta honako alderdiei erreparatuko diet:
 - Ea nahi nuena adierazi dudana, eta garbi dauden hasiera, korapiloa eta bukaera.
 - Ea akats ortografikorik dagoen. Zalantzarik izanez gero, hiztegia erabiliko dut.
 - Ea puntuazio-markak erabili ditudan.
5. Nire lana taldekideekin eta irakaslearekin kontrastatuko dut.
6. Aukeratua baldin bada, argitaratzeko emango diet edo entseatu egingo dut, emanaldirako.

1. Idazmena autonomiaz garatzea, norberak barnetik istorio bat sortuz. Horretarako, hainbat prozedura eta hizkuntza baliabide erabili behar ditu, eta hasiera, korapiloa eta bukaera bereizi behar ditu, koherentzia narratiboari eutsiz.
 2. Norberaren eta besteen lanean egindako aurrerapausoak baloratzea.

ARLOA	EDUKIAK	HELBURUAK
	<p>Ipuin bat idaztea, hasiera, korapiloa eta bukaera bereiziz.</p> <p>Kontakizunean deskribapenak eta elkarrizketa erabiltzea.</p> <p>Puntuazio-markak erabiltzea (, ; - ? ! ...).</p> <p>Aditz-denbora eta pertsona mantentzea.</p> <p>Gaiaren koherentziari eustea (pertsonaiak, gertaerak, lekuak).</p> <p>Lan-metodoa erabiltzea.</p> <p>Auto-zuzenketa, norbere lanari buruzko gogoeta.</p> <p>Asmatutako ipuinaren irakurketa adierazgarria.</p> <p>Bere barnearekin bat egiten eta sortzaile izatea lagunduko dion giroaren balorazioa.</p>	<p>Istoria koherentziaz egituratzea.</p> <p>Hainbat hizkuntz baliabide erabiltzea.</p> <p>Sormena garatzea.</p> <p>Idazmena garatzea.</p> <p>Ikasleak bere istorioez gozatzea.</p> <p>Autonomiaz jokatzeko.</p> <p>Norberaren lana eta besteena baloratzea.</p>

KONTAKIZUNAREN JARRAIPENA EGITEKO PISTAK

Data:

--	--	--	--	--	--

1. Autonomia

Lan-metodoa
Auto-zuzenketa – gogoeta

2. Sormena

Norberaren barnetik
Giroa

3. Baliabideak

Puntua
Koma
Marra
Galdera-marka
Harridura-marka
Eten-puntuak

4. Testu-motak bereiztea

Deskribapena
Elkarrizketa
Aditz-denbora
Pertsona

5. Bereizten ditu

Hasiera, korapiloa, amaiera

--	--	--	--	--	--

6. Koherentzia

Gaia
Pertsonaiak
Gertaerak
Lekuak

03-03. MEDIATEKA

LAN METODOA

1. Programa informatikoa martxan jarriko dugu.
2. Mediateka nola antolatuturik dagoen ikusiko dugu: materialen kokapena, etiketen kodeak...
3. Ariketak egingo ditugu, programak ematen dituen aukerekin:
 - Liburuak aurkitzea.
 - Maileguak eta itzultzeak egitea.
4. Ea aurreko egunean utzitako materialak itzuli dituzten egiaztatuko dugu, eta, hala ez bada, material horiek berreskuratzeaz arduratuko gara.
5. Zerbitzua eskatzen duten pertsonen arreta eskainiko diegu:
 - Behar badu, materiala aurkitzen lagunduko diogu.
 - Erabiltzaile bakoitzak aukeratu duen materiala erregistratuko dugu.
 - Itzultitako liburua edo materiala erregistratuko dugu. Ahal badugu, bere lekuan jarriko dugu, eta, bestela, bilketa-lekuan utziko dugu, geroago kokatzeko.
 - Giroa zainduko dugu.
6. Erabiltzailerik ez dagoenean:
 - Mediatekaren inguruan dakiguna sakontzeko aprobeztatuko dugu.
 - Liburuak eta bestelako materialak dagokien apaletan eta ordena egokian daudela egiaztatuko dugu.
 - Hondatuta dauden liburuak eta bestelako materialak jasoko ditugu, konpontzeko edo apaletatik kentzeko.
 - Eskatu dizkiguten liburu edo bestelako materialen izenak hartuko ditugu, mediatekako fondon ez badaude.
 - Mediatekako balorazio-orrin zailtasunak, ekarpenak eta iradokizunak jasoko ditugu, liburuzainen bileran horien berri emateko.
7. Eguna bukatzean, segurtasun-kopia bat egingo dugu disko gogorrean.
8. Programa itxi eta ordenagailua itzaliko dugu.

BALORAZIO ORRIA

Data.

Izena

Autonomia.

Mediateka-kontzeptua.

Sinboloak interpretatzea: kodeak, ikonoak.

Kode hamartar unibertsalaren erabilera.

Liburuak eta bestelako materialak sailkatzeko irizpideak jakitea.

Programa informatikoaren erabilera.

Inplikazioa eta erantzukizuna.

Giroa. Muga soziala.

Materiala ordenaturik izatea eta zaintzea.

Taldeari emandako zerbitzua.

Behar duenari laguntzea.

Tratua, forma zuzenak. Giza duintasuna.

Mediatekaren funtzionamendua: aurrerapausoak, zailtasunak, iradokizunak.

03-04. PRENTSA

LAN METODOA

1. Eguneko lanak prestatzeko bileran parte hartuko dut:
 - Ikasleen bilakaera zaintzeko argibideak irakurriko ditugu, eta egunaren amaieran bete egingo ditugu horiei buruzko orriak.
 - Eguneko prentsa aztertu, eta ABEko lehen orrialdeko albisteak zein izango den erabakiko dugu, aukeraketarako ezarriko dauden irizpideak erabiliz.
 - Egunkariaren atal bakoitzeko edukia zein izango den erabakiko dugu, sailetatik jasotako albisteen artean aukeratuz.
 - Editoriala idatziko dugu.
 - Lana gure artean banatuko dugu.
2. Programa informatikoak erabiltzen ikasi ondoren, ordenagailuekin lan egingo dugu, binaka.
3. Egun osoan:
 - Ikastetxean sortzen diren albiste interesgarriak bilduko ditut.
 - Ikastetxeko kideei inkestak eta elkarrizketak egingo dizkiet.
 - ABEko kultur agenda egingo dut, hainbat materialetan bildutakoarekin (egunkarietan, liburuxketan...): ikuskizunak gomendatu edo horietako batzuen balorazio kritikoa egin, baita libururen batena ere.
 - ABEko atal bakoitza bukatzean, lana irakasleei erakutsi eta inprimatu egingo dugu.
 - Gure lanean inplikatuko gara, lan-giroa zainduz eta denbora kontrolatuz.
4. Egunaren bukaeran:
 - Balorazio kritikoa egingo dugu, bilakaera zaintzeko argibideen orria betez.
 - ABE fotokopiatu eta banatu egingo dugu, eta, irakurri ondoren, kritika egingo diogu.
5. Programa itxi eta ordenagailuak itzaliko ditugu.

Jardueraren oinarria

1. Gure kultur entitatearen berri eman ez ezik, haratago ere badoazen kazetaritza-testuak idaztea, lengoia eta baliabide informatikoen aurrean jarrera irekia izanez. Gaitasun kritikoa eta lana planifikatzeko eta koordinatzeko gaitasuna garatzea; halaber, lana taldeari emandako zerbitutzat hartzea.

ARLOA	EDUKIAK	HELBURUAK
	<ul style="list-style-type: none"> - Lana antolatu eta planifikatzea. - Albiste diren gertaeren balorazioa. - Ikaskideen lanak berrikusi eta baloratzea. - Mota askotako kazetaritza-testuak idaztea (editoriala, inkesta, elkarrizketa, kritika, kultur agenda...), bakoitzaren ezauzgarriak kontuan izanda. - Programa informatikoak erabiltzen jakitea. - Arau ortografikoez, hizkuntzaren zuzentasunaz eta lanaren estetika duen garrantziaz jabetu eta hori guztia barneratzea. - Gelditu, eta egindako lanaz hausnartzea. - Jarduera taldeari emandako zerbitutzat hartzea. - Laguntza ematea behar duenari. - Materiala ordenaturik izateko eta zaintzeko inplikazioa. - Comenius proiektuan parte hartzen duten herrialdeetako bizimoduak aldeztatzea. - Hizkuntz aniztasunera hurbiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikatzeko gaitasuna garatzea. - Kritika egitea. - Informatikaren balioaz jabetzea eta eskaintzen dituen aukerak baliatzea. - "Orain eta hemen" gertatzen denari lotzea. - Eskola-egitura gizarte antolatutzat hartzea eta haren egiturak, taldeari ematen zaizkion zerbitutzat. - Mundu hurbileko gertaerak jaso eta albiste bihurtzea. - Pixkanaka, ikaslearen begira-puntua gizarte zabalagora hedatzea. - Beste herrialdeetako ikastetxeetan jasotako gizarte-oihartzunaren trukea ahalbidetzea.

Izena:

Data:

1. Testuak idaztea
Ezaugarriak (kokapena, testu-antolamendua, hizkuntza eta edukia).

Argitaletxea
Inkesta
Elkarrizketa
Kritika
Kultur agenda

2. Teknologia

Eskanerra
Kamera digitala
Internet
Posta elektronikoa
Publisher

3. Kritika

Lehen orrialdeko albistearen aukeraketa argumentatzea
Ikaskideen lanak aukeratzea
Norberaren ekarpena

4. Plangintza

Taldeakoa
Akordioak
Akordioak betetzea
Banakakoa
Autonomia

5. Taldeari emandako zerbitzua

Behar duenari laguntzea
Egunkaria ikasgelan amaitzeko konpromisoa
Materiala ordenaturik izatea eta zaintzea
Euskara erabiltzeko ahalegina
Euskara naturaltasunez erabiltzea

03-05. TELEBISTA

LAN METODOA

1. Eguneko lana prestatzeko bileran parte hartuko dut. 6. mailako ikasleak koordinatuko du.
 - Lan-metodoa irakurriko dugu.
 - Egunaren bukaeran beteko dugun autogogoeta-orria irakurriko dugu.
2. Grabazioa:
 - Platoko kamera, kamera autonomoa eta magnetoskopioren oinarriko funtzionamendua ikasiko dugu.
 - Eguneko plana berraztertuko dugu, ordura arte zer eskaera izan diren ikusiz eta egun osoan sortzen direnekin osatuz.
 - Lan-egitasmoan hutsik geratzen diren tarteak guk geuk sortutako programekin osatuko ditugu.
 - Eskaerei erantzunez eta lan-egitasmoaren ordutegiari jarraiki grabatuko dugu.
 - Egindako programekin lotutako zailtasun eta iradokizunak lan-egitasmoan idatziko ditugu.
 - Egindako lanaren balorazio kritikoa idatziko dugu *autogogoeta orrian**, eta zailtasunak edo ekimen posibleak jasoko ditugu.
 - Aparatuak itzali eta gauzak bilduko ditugu.
3. Edizioa:
 - "Premiere" programa informatikoa erabiltzen ikasiko dugu, programa editatu ahal izateko.
 - Aurreko egunean egindako grabazioak editatuko ditugu: irudiak, ahotsa, musika, hots- eta irudi-efektu bereziak, hasierako karatula eta kredituetako tituluak aukeratuko ditugu.
 - Grabazioa artxibatu egingo dugu.
 - Programak itxi eta aparatuak deskonektatuko ditugu.

Jardueraren oinarria

Telebistako programak grabatu, editatu eta sortzea, ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide informatikoak erabiliz, eta gaitasun kritikoa eta lana planifikatzeko eta koordinatzeko gaitasuna garatuz; halaber, lana taldeari emandako zerbitzutzat hartzea. Muga sozialaren kontzientzia garatzea.

ARLOA	EDUKIAK	HELBURUAK
	<ul style="list-style-type: none"> - Lana antolatu eta planifikatzea. - Magnetoskopia eta kamerak ezagutu eta erabiltzea. - Jarduera taldeari emandako zerbitzutat hartzea. - Taldearekin lankidetzan jardutea, laguntza gehien behar dutenekin, batez ere. - "Premiere" programa informatikoa ezagutzea. - Edizio-lanak ezagutzea. - Ikaskideen lana berrikusi eta baloratzea. - Programen bidez, kazetaritzako testu-motak bereiztea. - Egindako lanaren balorazioa. - Materiala ordenaturik izateko eta zain-tzeko inplikatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikatzeko gaitasuna garatzea. - Zentzu kritikoa garatzea. - Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide informatikoen balioaz jabetzea, eta eskaintzen dituzten aukerak erabiltzea. - Eskola-egitura gizarte antolatutzat hartzea eta bere egiturak, taldeari ematen zaizkion zerbitzutat. - Pixkanaka, ikaslearen begira-puntua gizarte zabalagora hedatzea. - Muga sozialaren kontzientzia, hau da, bestearen eskubidearen kontzientzia, garatzea.

BILAKAERA ZAINTEZKO ARGIBIDEAK

Izena:

Data:

Planifikazioa eta koordinazioa.

Ezagutza eta erabilera:

Kamerak.
Magnetoskopia.
Lan-egitasmoa.

Fitxa teknikoak:

Inkesta.
Elkarrizketa.
Erreportajea.

Programa informatikoa.
Grabazioa.
Edizioa.

Kritika.

Norberaren lanaren autogogoeta.
Talde-lanaren balorazioa.
Lankidetzeta.

Taldeari emandako zerbitzua.

Behar duenari laguntzea.
Ardura hartzea.
Lankidetzeta.

Muga soziala.

Materiala zaintzea.
Tratua, forma zuzenak, giza duintasuna.

03-06. ETXERAKO LANAK SISTEMA HONEN IKUSKERAREN ARABERA.

<p>Ez dira beharrezkoak modu orokortuan:</p> <p>Curriculuma egokia bada eta fase bakoitza garaturik baldin badago.</p> <p>Irakasleak curriculuma barneraturik baldin badu eta trebetasuna erakusten badu.</p> <p>Berariazko metodologia indibidualizatua erabiltzen bada.</p> <p>Irakasleek programak koherenteak eta baliozkoak diren uste osoa baldin badute.</p> <p>Ikasleek eskola-orduetan lan egin eta etekina ateratzen duten uste osoa baldin badago.</p> <p>Baina badira etxean egiteko beti eman ahal izango diren lanak:</p> <p>Lan indibidualizatuak. Interesekin eta beharrek bat datozenak. Zehatzak. Prozesuaren une batean. Sailaren jarduerari berari lotuta daudenak.</p>	<p>Gure ikuskeratik, beti esan izan dugu etxerako lanak ez direla beharrezkoak modu orokortuan.</p> <p>Garbi dago baldintza horietakoren batek huts egiteak irakaslea bere lanaren baliozkotasuna eta ikasleen errendimendua zalantzan jartzera daramala. Programak finkatuta baldin badaude, etxerako lan gutxiago bidaltzen dira, errendimendua handiagoa da-eta. Aitzitik, programa bat etxerako lanekin osatu behar bada, hutsuneren bat dago.</p> <p>Agian, oraingoz beharrezkoak dira etxerako lanak, ezkerreko zutabeko baldintzak betetzen diren artean.</p> <p>Denbora asko ematen dute eskolan. "Hartu atsedeen, lan egin duzu-eta" eta horrelakoak esatea oso garrantzitsua da, ezer egin ez balu bezala lanean jarraitzea bultzatu beharrean. Eskolan egindako lana baloratzea dakar horrek. Pertsonok ematen diguten irudia izaten bukatzen dugu. Guk egun osoz lan egiten dugu, eta ez genuke gustuko izango etxera iritsi eta oraindik lan gehiago ematea. Beti aldarrikatu izan dugu ikasleak atsedeen hartzeko duen eskubidea eta ikaslearen lanaren onarpena.</p> <p>Beti familiaren curriculumarekin egokituko diren lanak, familiaren aisialdia erabiltzen da-eta.</p> <p>Sistemaren koherentziagatik.</p> <p>Adib.: biderkatzeko taulak, hiruhileko batean. Adib.: auzoari, familiari eta abarri buruz tokian bertan egiteko informazioa eta datuak biltzea.</p>
---	---

Galdera hau egiten diogu gure buruari: programak interesa eta zaletasuna piztu eta kanpora zabaltzeko aukerarik ba ote duen. Horrek denbora libreaz gehiago gozatzea ekarriko luke.

DOKUMENTU HAU EGIN AURRETIKO HAINBAT GOGOETA.

- Zergatik eskatzen dute familiek etxerako lanak emateko?

Kontrola.

Seme-alaben eskola-prozesuaren bilakaera zaindu ahal izateko.

Errefortzua.

Etxean curriculuma osatuz gero, gehiago ikasten dela uste dute. Curriculuma garatzeko ez dira aski eskola-orduak.

Erantzukizuna eta planifikazioa.

Bigarren Hezkuntzarako prestatzea.

Seme-alaben denbora-tarte libreak betetzea.

Itxaropen handia seme-alaben hezkuntzan.

Gizarte-maila. Zenbat eta prestatuago, hainbat eta gizarte-maila hobea eskuratuko du.

Baliagarriak eta arduratsuak direla sentitzea.

Seme-alabei lagundu egiten dietela sentitzea.

Hezkuntzaz duten iritzia.

Zenbat eta lan gehiago egin eta zenbat eta gehiago eskatu, orduan eta hezkuntza hobea.

Ohitura.

- Zergatik eskatzen dute etxerako lanik ez bidaltzeko?

Familiantzako zama astuna da.

Etxean laguntza behar duten neurrian, gurasoentzako lana ere bada.

Prestakuntza-falta.

Hizkuntz aldetiko zailtasunak.

Alor jakinetan prestatzeko zailtasunak.

"Ez dakit" esateko beldurra.

Denbora falta.

Seme-alabekin denbora gutxi ematen dutenez, nahiago dute denbora hori bestelako gauzak eginez gozatu.

Konfiantza eskolarengan.

Curriculumak garatzeko eskola-orduak aski direla eta ongi lan egiten dela pentsatzen dute.

Esperientzia.

Batzuek badakite zer den etxerako lan gehiegi izatea, eta, horregatik, kontra agertzen dira.

- Irakasleek zergatik nahi dituzte etxerako lanak bidali?

Mesfidantza.

Uste dute eskolan emandakoa ez dela aski. Curriculumak ikasgelatik kanpo osatu behar dute.

Programak oso garbi eta oso barneratuta ez badaude, irakasleak gaitasun murriztagoa du, eta curriculumaren garapena etxerako lanen bidez bermatzen du.

Ohitura ona eta etorkizunerako entrenamendua dela pentsatzea.

Irudia.

Uste da familiek eta gure lankideek gehiago baloratuko dutela gure lana etxerako lanak bidaltzen baditugu. Etxerako lanak bidaltzen baditugu, arduratsuagoak eta saiatsuagoak gara, interes handiagoa dugu etab.

Hainbat irakasgai baloratzeko.

Irakasleen arteko lehia.

Ohitura.

Familiek eskatzen dute.

Nork agintzen duen erakustea.

Zigor edo errepresalia gisa.

Hainbat jardueraren balorazioa.

Lanaren hainbat alderdiri ez zaie behar besteko garrantzia ematen, eta ikasgelan egitea denbora galtzea dela pentsatzen da. Horregatik, etxean egiteko agintzen da.

- Irakasleek zergatik ez dituzte nahi etxerako lanak bidali?

Eskola-orduak aski dira.

Etixerako lanak zuzentzen ematen den denbora programan aurrera egiteko balia daiteke.

Motibaturik dagoen ikasleari motibazioa galaraz diezaioke.

Etixerako lan gehiegi emateak ikaslea asper dezake.

Niretzat nahi ez dudana ez dut nahi ikasleentzat ere.

03-07

TALDEKATZEKO IRIZPIDEAK

2 URTE

Hizkuntz eredua

Ordutegi bera

9-12 (9-15)

9-17 (9-15 eta 9-1 2)

Batera ailegatu daitezela. (Garraioaren ibilbidea, garraiorik gabeak,...).

Neska eta mutilen kopurua

Adina (azken hiruhilabetekoan izan direnen kopurua eta talde osoaren hilabeteen batuketa).

Kontuan izan, ahal bada:

- Hezkuntza behar bereziak eta kasu bereziak. Aniztasuna
- Jarraipena izan duen egoitza (banakako kasuak ez hartu, ahal dela)
- Gurasoen euskara (aita eta ama/ aita edo ama)
- Ikastetxean diren senideak eta datozen berriak
- Izena (izen berdina dutenak ez bateratu, ahal dela)
- Haurtzaindegia

TALDEKATZEKO IRIZPIDEAK

3 URTE

Helburua: taldeak orekatu ikasle bakoitzak behar duenari erantzuna emateko.

Neska eta mutilen kopurua orekatu.

Adin desberdinetako haurrak nahastu.

Taldeak orekatu haurren izaera eta agertzeko era kontuan izanik.

Haien artean dituzten harremanak kontuan izan, elkartzeko edo banatzeko.

Euskara-maila (D).

Kontuan izan hezkuntza-behar bereziak. Norbanakoak / baliabideak.

Loiolatik datozenak eta ikastetxean berriak direnak orekatu.

Taldeak orekatu ondoko hau kontuan hartuz: ikastetxean senideak dituztenak, jangela edo garraio-aren erabiltzaileak,...

Familien aniztasunetik etor daitezkeen egoerak baloratu: erlijio-sinismenak, jarrera ideologiko adieraziak, gutxiengo sozialak, atzerritarrak, ohikoak ez diren familia egoerak,...

Bizkiak gela berean, baina talde desberdinetan.

TALDEKATZEKO IRIZPIDEAK

LEHEN HEZKUNTZA

Helburua:

Taldeak orekatu ikasle bakoitzak behar duenari erantzuna emateko.

Arian-arian edozeinekin lan egiten ikasi.

Mailak orekatu. Jakintza, euskara,...

Neska-mutilen kopurua berdindu.

Barneko hartu emanak kontuan hartu, zikloaren aldaketa errazteko eta ikasleak seguruago egon daitezzen.

Izaera biziak eta lasaiak kontuan hartu.

Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak. Oreka, talde, ikasle eta baliabideetan.

Adin desberdineko anai-arrebak talde berean, elkarrekin egotea ekidin.

Bizkiak gela berean, baina talde desberdinean/ Gela desberdinetan, baina sektore berean.

03-08. IKASLE ANTOLAMENDUA

	1. astea	2. astea	3. astea
Asteazkena	Iradokizunak biltzea	Ikasgelako batzarrak	Zikloko batzarra
Ostirala	I. zikloko batzordea	II. zikloko batzordea	Batzar orokorra

EGITURA	EDUKIAK	HELBURUAK
<p>Iradokizun- -bilketa</p> <p>Ikasgela bakoitzean, ordezkarien bidez.</p> <p>Asteazkena 1. astea</p> <p>Zikloko batzordea (1. batzarra)</p> <p>Osaera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ordezkariak. • Zikloko ordezkariak. • Idazkaria. • <p>Ostirala 1. astea</p> <p>Ikasgelako batzarra</p> <p>Ordezkariak koordinatzen du.</p> <p>Asteazkena 2. astea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Egoerez jabetzea. • Iradokizunak biltzea: <ul style="list-style-type: none"> - Arazoak. - Alderdi positiboak edo aurrerapausoak. • Gaia zehaztea. • Esparru pertsonalak eta komunak bereiztea. <ul style="list-style-type: none"> • Klasean planteatutakoa aurkeztea, taldearen ordezkari gisa, norberaren iritzia taldearen iritziaren mende jarritz. • Arazoaren eragin-esparruak bereiztea: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasgela. - Sektorea. - Orokorra. • Egoerak eragin-esparruen arabera sailkatzea. • Eztabaidatu beharreko gaiak aukeratzea, eta aukeraketa hori argudiatzea, guztien onetik abiatuta. <ul style="list-style-type: none"> • Ordezkariaren aldetik, edukia- ren transmisio fidela, batzordean emandako justifikazioa edo arrazoibidea azalduz. • Bileraren <i>Helburua</i> zehaztea. • Lan-metodoa erabiltzea: 	<ul style="list-style-type: none"> • Guztien ona norberaren edo taldeen interesen gainetik jartzea. • Alderdi positiboa aurkitzea: <ul style="list-style-type: none"> - Aurrerapausoak baloratzea. • Daukatenaz gozatzea. • Barne-mundua eta afektu-mundua adieraztea. • Pentsatzeko autonomia. <ul style="list-style-type: none"> • Guztien ona nagusitu dadin lan egitea. • Fideltasunez transmititzea. • Ideiak laburbiltzea. • Irizpide batzuetatik abiatuta, lehentasunak ezartzea. • Hartutako konpromisoak norberaren gain hartzea. • Muga sozialaz kontzientzia hartzea. <ul style="list-style-type: none"> • Ahal bada, konponbideak aurkitzea. • Norberaren eta taldearen garapena. • Aztertzea, erlazionatzea. Gertaeratik printzipiora pasatzea,

<p>Zikloko batzordea (II. batzarra)</p> <p>Ostirala 2. astea</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gertaerak identifikatu eta definitzea: <ul style="list-style-type: none"> - Informazioa biltzea: non, nork, noiz,... - Zehaztasunez definitzea, afektu kargarik gabe egite-raino. 2. Guztien onerako desiragarri den egoera: zer, zergatik, zertarako... 3. Adostasunik ezaz jabetzea. Hobetu beharreko alderdiak argitzea. 4. Aukera bideragarriak proposatzea. <ul style="list-style-type: none"> • Bileraren helburua zehaztea. • Ikasgelako batzarraren prozesua laburbiltzea. • Aurkeztutako aukerak azaltzea. • Eztatanda eta sakontzea. • Aukerak laburbiltzea. • Euren egitekoak taldeari emandako zerbitzu gisa ulertzea. • Batzar orokorra prestatzea. • Ikastetxeko helburu orokorrak ezagutzea. • Erreferente metodologikoak erabiltzea. 	<p>zehaztetik abstraktura, partikularretik orokorrera.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontzeptu- eta jarrera-eskemak garatzea. • Barne-mundua eta afektu-mundua adieraztea. • Besteaz kontzientzia hartzea. • Jarrera tolerantea izatea. • Desberdintasuna dohaintzat hartzea. • Elkarrizketaren bidez irtenbi-deak aurkitzea. • Forma zuzenak izatea. • Bere ideiak defendatzen eta argudiatzen jakitea, eta aldatzeko gai izatea. • Muga sozialaz kontzientzia-tzea. • Kritika aurrera egiteko faktore gisa. • Ordezkarien funtzioez kontzientziatzea. • Prozesuak baloratzea. • Ikuspuntu guztiak errespetatzea. • Arazoak edo zailtasunak konpontzeko jarrera aktiboa izatea. • Besteaz kontzientzia hartzea. • Jarrera tolerantea. • Desberdintasuna dohaintzat hartzea. • Hartutako konpromisoak norberaren gain hartzea. • Elkarrizketaren bidez irtenbi-deak aurkitzea. • Muga sozialaz kontzientzia hartzea.
--	--	---



<p>Zikloko batzarra</p> <p>Asteazkena 3. astea</p> <p>Zikloko ordezkariak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Baliabide materialak eta giza baliabideak antolatzea: mikrofonoak, boto-txartela prestatzea, hitza hartzeko ordena... • Batzarraren arreta erakartzea. • Batzarraren helburua eta jarraituko den metodoa azaltzea. <p>Hitz egiteko txanda ematea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zehaztuz. - Bideratuz. - Lagunduz. - Laburbilduz. - Kontzentratuz. • Argumentatuz, alternatiben sintesiak aurkeztea. • Hitza hartzean esango denaren ildo zehaztea. • Hitz egiteko txanda ematea. • Moderatzea, moztea, animatzea. • Botoaren ginetik, adostasuna baloratzea. • Bozkatu beharreko proposamenak berriro definitzea. • Ondorioak irakurri eta aurkeztea. • 	<ul style="list-style-type: none"> • Antolatzeko gaitasuna: bideak, zerbitzuak... • Talde-dinamikaren oinarriko estrategiak ezagutzea eta erabiltzea. • Metodoarekin lan egitea. • Itzultzeak egiten jakitea. • Muga sozialaz kontzientzia hartzea. • Botoaren ginetik, adostasuna baloratzea. • Kritika laguntza gisa. • Publikoaren aurrean hitz egitea. • Laguntza eta zerbitzua ematea. • Bozketen fidagarritasuna bermatzea.
<p>.....</p> <p>Ikasgelatako ordezkariak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bere taldean planteatutako aukerak aurkeztea. • Zikloko ordezkariari batzarra antolatzen laguntzea. • Boto-kontakteta. 	<p>.....</p> <ul style="list-style-type: none"> • Publikoaren aurrean hitz egitea. • Laguntza eta zerbitzua ematea. • Bozketen fidagarritasuna bermatzea.
<p>.....</p> <p>Aretozainak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Espazioa antolatzea eta parte-hartzaileak modu egokian kokatzea. 	<p>.....</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hartutako konpromisoak betetzea.

<p>.....</p> <p>Parte-hartzaileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Boto-txartelak banatu eta jasotzea. • Boto-txartelak zenbatzen laguntzea. <p>.....</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egokitutako lekuan jartzea. • Behar den bezala entzun eta parte hartzea. • Elkarrenganako errespetuzko giroa sortzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Muga soziala forma zuzenen bidez markatzea. • Justiziaz jokatzeko, eta ez adiskidekeriak edo beldurrak eraginda. <p>.....</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola-zerbitzuak baloratzea eta errespetatzea. • Jarrera eraikitzailea eta lankidetzakoa izatea. • Muga sozialaz kontzientziatzea. • Botoaren ginetik, adostasuna baloratzea. • Kritika laguntza gisa.
---------------------------------------	---	--

03-09. GORPUTZ HEZKUNTZA

GORPUTZ HEZKUNTZA. JOLASAK

1.,2.,3. zikloa

JARDUERA:

1. Jolasa gorputza garatzeko bitartekotzat hartzea, bere burua ezagutzen, onartzen eta harremanak izaten ikasiz; halaber, gorputza osasunerako eta aisialdian gozatzeko elementu giltzarritzat hartzea.
2. Mugimenduaren aukera guztiak eta jolasaren oinarriko estrategiak erabiltzea, muga soziala errespetatuz eta taldekideen eta lehiakideen ekintzen balorazio positiboa eginez, emaitzak edozein direlarik ere. Emaitza onartzea.
3. Kideen egoera fisikoaz eta gogo-aldarteaz kezkatzea, eta arazoak konpontzeko jarrera positiboa erakustea, bai eta giza sentsibilitatearen emaitza den manera egokia ere.
4. Materialak eta instalazioak modu egokian eta neurriz erabiltzeko ohiturak hartzea.

EDUKIAK	HELBURUAK
<p>(1) Jolasa harremanak izaten eta geure burua ezagutzen eta ulertzen ikasteko bitartekotzat hartzea.</p> <p>(2) Muga sozialaren kontzientzia eta taldekideen eta lehiakideen ekintzen balorazio positiboa, emaitzak edozein direlarik ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahalegina (arrakasta – porrota). • Ahulenari lagundu eta hura onartzea. • Ikasteko erritmo desberdinak: <ul style="list-style-type: none"> - Teknika. - Kontzientzia. - Kognitiboa. • Ez erasotzea (oihuak, bultzadak, biraoak, kiroltasunik gabeko irainak...). • Ez baztertzea (sexua, trebetasun gutxien duena, handicap-ak,...) <p>(2) Mugimenduaren aukera guztiak erabiltzea jolasen bidez, abiadura desberdinetara doikuntzak ezarriz eta norberak objektuek edo</p>	<p>(1) Nork bere gorputza eta haren aukerak ezagutzea eta garatzea: espazioaren eta denboraren pertzepzioa, koordinazioa eta tasun fisikoak (erresistentzia, abiadura, malgutasuna eta indarra).</p> <p>(1) Aisialdian jarduera fisikoaz gozatzea, osasunerako elementu gisa.</p> <p>(2) Ekimena garatzea.</p> <p>(3) Manera egokia giza sentsibilitatetik sortzea.</p> <p>(4) Herstura-azturak hartzea.</p>

ikaskideek deskribatutako ibilbideak eginenez:

- Lasterketak.
- Norabide-aldaketak.
- Birak.
- Geldiketak.
- Abiada hartzea.

(2) Jolas herrikoiak eta tradizionalak ikastea eta egitea, baita horien arauak ikastea eta betetzea ere.

(2) Jolasaren oinarritzko estrategiak ezagutzea eta lantzea:

- Elkarlana.
- Aurkaritza.
- Elkarlana / Aurkaritza.

(2) Emaiza onartzea:

- Emaitzaren gaintik, gozatzea.
- Irabazten eta galtzen jakitea, aurkarien meritua onartuz.
- Aurkarietara errespetua izatea, jolasaren osagai ezinbesteko direla-ko.
- Aurkariak kiroltasunez agurtzea.

(3) Taldekideez arduratzea:

- Besteen egoera fisikoa eta gogo-aldartea (erortzea, ubeldurak...).
- Lan-gainkargarik gabe (materialak atera eta jasotzea...).


(3) Arazoak konpontzeko jarrera:

1. Metodoa:
 - Gertatutakoa aztertzea.
 - Karga afektiboz deskribatzea.
 - Idealerara iristea, nahi izango genukeen horretara iristea.
 - Konponbideak aurkitzea.
2. Eskubide bati uko egiten jakitea, taldearen onagatik (amore ematen jakitea).

(4) Materialak eta instalazioak modu egokian erabiltzea.

04-01.

2 URTE.- Haur Hezkuntza




04-02.

3,4,5 URTE.— Haur Hezkuntza




04-03.

1. ZIKLOA.— Lehen Hezkuntza




04-04.

2. ZIKLOA.— Lehen Hezkuntza



04-05.

3. ZIKLOA.— Lehen Hezkuntza





Aurkibidea

NOR NAIZ NI?	8
AURKIBIDEAREN BEHARRAZ	10
SARRERA	12
LIBURUAREN IKUSPEGIA	14
IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA	16
HEZKUNTZA ASMOAREN ETA JARDUTEKO MODUAREN OINARRIAK	23
<i>Sistema-kontzeptua</i>	23
<i>Ikasleei buruzko ikuskera</i>	24
<i>Printzipio metodologikoak</i>	27
I.H.P. HEZKUNTZA ASMOA	45
<i>Ikastetxearen helburu orokorrak</i>	45
<i>Eskola-elkartearen ezaugarriak</i>	53
IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA	68
CURRICULUMERAKO SARRERA	71
<i>Testuinguru sozialak, egonkorak eta osagarriak</i>	71
<i>Jolasa</i>	73
<i>Zikloaren organigrama</i>	76
<i>Ezaugarri metodologikoak</i>	79
CURRICULUMA LANTZEKO FASEAK	137
<i>Lehenengo fasea: testuingurua eta haren elementuak</i>	138
<i>Bigarren fasea: Testuinguru bakoitzaren edukiak, helburuak, jardueren muina eta bilakaera zaintzeko argibideak eta definitzea</i>	158
<i>Hirugarren fasea: Ikasleekin esku hartzeko, bilakaera zaintzeko eta ebaluatzeko programa</i>	169
ANTOLAMENDU-ETA PRESTAKUNTZA-EGITURA	188
ANTOLAMENDU EGITURA. DEFINIZIOA	190
<i>Esku hartzeko estrategia giltzarria eta prestakuntza-esparrua</i>	190

<i>Prestakuntza-kontzeptua</i>	198
<i>Hainbat egituraren diseinua</i>	200
<i>IAZtik (ikastetxeen Aholkularitza Zerbitzutik) sarean egituratzera</i>	223
DOKUMENTUAK	234
AURKIBIDEA	306

